




TERRORISMOAREN MEMORIAK ESPAINIAN

Raúl López Romo (arg.)

Florencio Domínguezen hitzaurrea





RAÚL LÓPEZ ROMO

(Bilbao, 1982). Euskal Herriko Unibertsitateagatik Historia Garaikideko Doktorea, Terrorismoko Biktimen Oroimenerako Zentroaren Hezkuntza eta Erakusketen arloaren arduradun bezala lan egiten du. Sei libururen egile eta beste biren egilekide. Horien artean, *Años en claroscuro. Nuevos movimientos sociales y democratización en Euskadi* (2011), *Euskadi en duelo. La central nuclear de Lemóniz como símbolo de la transición vasca* (2012), *Informe Foronda: los efectos del terrorismo en la sociedad vasca* (2015) edo *Sobre el olvidado terrorismo vasco* (2023). Gaizka Fernández Soldevillarekin batera *Sangre, votos, manifestaciones: ETA y el nacionalismo vasco radical* (2012) lana idatzi zuen ere. Euskadiko Indarkeria Terroristaren Online Agiritegia (www.arovite.com) koordinatzen du.

Raúl López Romo (arg.)

Terrorismoaren memoriak Espainian

Florencio Domínguez en Hitzaurrea



AZALEKO ILUSTRAZIOA: DAVID PUERTAS
ITZULTZAILEA: ARITZ GORROTXATEGI

LAN HONEN EUSKARAZKO BERTSIOA TERRORISMOAREN BIKTIMEN
FUNDAZIOAREN LAGUNTZARI ESKER IZAN DA POSIBLE.



OBRA HAU ARGITARATZEKO HONAKO ERAKUNDE HAUEN LAGUNT-
ZAK JASO DIRA:

TERRORISMOAREN BIKTIMEN OROIMENERAKO ZENTROA
VALENTÍN DE FORONDA GIZARTE HISTORIAKO INSTITUTUA (UPV/
EHU)



Valentín de Foronda



UPV EHU

AZALEKO DISEINUA: MARTA RODRÍGUEZ PANIZO

© EGILEENAK, 2024

© LOS LIBROS DE LA CATARATA, 2024
FUENCARRAL, 70
28004 MADRID
TEL. 91 532 20 77
WWW.CATARATA.ORG

TERRORISMOAREN MEMORIAK ESPAINIAN

ISBN: 978-84-1352-973-8

ESTE LIBRO HA SIDO EDITADO PARA SER DISTRIBUIDO. LA INTEN-
CIÓN DE LOS EDITORES ES QUE SEA UTILIZADO LO MÁS AMPLIA-
MENTE POSIBLE, QUE SEAN ADQUIRIDOS ORIGINALES PARA PERMI-
TIR LA EDICIÓN DE OTROS NUEVOS Y QUE, DE REPRODUCIR PARTES,
SE HAGA CONSTAR EL TÍTULO Y LA AUTORÍA.

“Parez pare zabaldu beharko nituzke leihoak,
etxebizitza hutsaren trenkaden artean
harrapatuta geratu diren hitzak, aieneak eta
hizketaldi zaharrak kalera atera daitezen”.

Patria, FERNANDO ARAMBURU

AURKIBIDEA

HITZAURREA. TERROREAREN KALEIDOSKOPIOA, Florencio Domínguez

SARRERA: TERRORISMOAREN HONDAKINEN GAINEAN, Raúl López Romo

1. ETAREN TERRORISMOAREN JATORRIARI BURUZ, Jon Juaristi

2. TERRORISMOAREN NIRE BIZIPENA, Joseba Arregi

3. NIRE AITA, Maite Araluze

4. KONTATU NAHI DIZUEDANA, Mari Sol Chavarri

5. DISTANTZIA. EGUN BAT GUTXIAGO 80KO HAMARKADAKO
EUSKADIKO BI GUARDIA ZIBILEN BIZITZAN, José Alfonso Romero P.
Seguín

6. ESTATUARI GERRA! BESTE EUSKAL AUTONOMIA, Antonio Rivera

7. LORE XUMEAK, José María Silveti

8. ESPAINIAKO GUDAROSTEA ETA ETA EUSKAL HERRIAN (1978-1981),
Luis Miguel Sordo Lizarra

9. "NIRE AITA HILKO DUTE", José Antonio Pérez Pérez

10. BERRIRO HASI (MEMORIATIK), Marcos Hernando
11. ETAK DROGAREN ONDORIOZKO HERIOTZETARAKO KONPONBIDEA ZUELA ESATEN ZUENEAN, José María Calleja
12. XALOTASUNAREN ADINA, Cristina Cuesta
13. KONTZIENTZIAN HAZI NINTZEN, Jesús Sánchez Maus
14. ETAREN HILKETA LAUKOITZ BATI BURUZKO TESTIGANTZA, Silverio Velasco
15. HIPERCORREKO ATENTATU TERRORISTAREN BIKTIMA BATEN KONTAKIZUNA, José Vargas
16. TXANDA ALDAKETA ETA BIZITZA ALDAKETA, Roberto Manrique
17. NIRE LEKUKOTZA, Ernesto Ladrón de Guevara
18. GAZTEA NINTZENEAN, Eduardo "Teo" Uriarte
19. EUSKAL TRAGIKOMEDIA TXIKIA HIRU EKITALDITAN, Gaizka Fernández Soldevilla
20. 1994ko MAIATZAREN 29a, Resu Basarrate
21. GURE HOOLIGAN URTEEN PANTAILAKADA (ERDI) HUTSALA, Jesús Casquete
22. DUINTASUN KONTUA, Consuelo Ordóñez
23. ASKATASUNA, EGUNEROKO KONKISTA, Javier Marrodán
24. HEMEN NIRE EKARPEN APALA, Lucila Ortega Lara
25. BI ISILUNE, Fernando Molina

26. ETA ETA NIRE KILOMETRO SENTIMENTALA, María Jiménez
27. URTE LOTSAGARRI HAIEK, Eduardo Mateo Santamaría
28. BETI EGITEN EZ DIREN GALDERAK, Conchita Martín
29. URTE LATZ HAIEK, Marta Buesa
30. NIRE ALETXOA, María Carmen Hernández
31. NIRE OMENALDI TXIKIA RAMÓN RECALDERI, Luis Castells
32. BIKTIMA BATEN PENTSAMENDUAK ETA ESKAKIZUNAK, Santos Santamaría Zaragoza
33. ESKALA HANDIKO SUFRIMENDUA, José Antonio Rekondo
34. ERRUDUNAK ETA BAHITUAK. MEHATXU TERRORISTA: BIZI-ONDORIOAK ETA JARRERA SOZIALAK, Manuel Montero
35. AITORTZA ERRESISTENTEEI ETA HAIEN FAMILIEI, Gloria Vázquez
36. EGIAREN ORDUA, María del Carmen Alba Figuera
37. BIZI LEZIOAK, Lucía Cristóbal
38. NORMALTASUNA EUSKADIN? David Bermejo Redondo
39. BIKTIMAK ETA HAIEN EGIA, Alfonso Sánchez
40. ERRAUTSAK, Maite Pagazaurtundua
41. TERRORISMOA EZ DA HISTORIA, Ana Velasco Vidal-Abarca
42. TERRORISMOA ETXEO ATETIK GERTU, Gorka Angulo Altube

43. ALONSOTEGIKO ESNE-SALTZAILEA, Iñaki Arana
44. ESKUIN MUTURREKO TERRORISMOA, Xavier Casals
45. ATOCHA GOGOAN, ATOCHA HISTORIAN (1977-2017), Alejandro Ruiz-Huerta Carbonell
46. DAMA BELTZA, Fidel Raso
47. AHALEGIN INSTITUZIONAL BATEN MEMORIA LABURRA, Txema Urkijo
48. FRAPEN ABENTURA ARMATUA EDO LUZATUTAKO HERRI-GERRA EFIMEROA, José M. Roca
49. GRAPORI ETA BESTE GAUZA BATZUEI BURUZ, Lorenzo Castro
50. GRAPOK INDARKERIA POLITIKOA LEGITIMATZEA, Horacio Roldán
51. ZUEN AITAZ HARRO, Josefa Yangüela
52. PUBLIO CORDÓNEN OROIMENEZ, Carmen Cordon
53. ZERGATIK HELDU NAIZEN TERRORISMOA AZTERTZERA, Juan Avilés
54. JOSÉ ARTURO, NIRE ANAIA. EL DESCANSOKO BIKTIMETAKO BAT, EPAITU GABEKO ATENTATU BAT, María José Rodríguez Pato
55. OSTEGUNETAN, Antonio M. Utrera
56. MARTXOAK 11, Pilar Parrondo
57. BIRJAIOTZEA, Esther Sáez
58. GELDIALDI BAT BIDEAN, Jana Gallardo

59. RODOLFO, BETI GUREKIN, Alejandro Benito Samaniego
60. GURE HISTORIA ERE BADELAKO, Ana Rodríguez Cordero
61. "ETA HAINBESTE DENBORA IGARO ONDOREN, BA AL DA ORAINDIK M-11GATIK TERAPIA BEHAR DUEN PERTSONARIK?",
Susana Gago Carrero
62. UNE HORIEKIN GERATZEN NAIZ, Tomás Fraga
63. HERENSUGEEZ ETA PRINTZESEZ, Maria Lozano
64. BIKTIMEKIN HARREMANETAN, Enrique Ullibarriarana
65. OSTIRALETAKO GOSARIA, Menchu Bernal Pérez

HITZAURREA. TERROREAREN KALEIDOSKOPIOA

FLORENCIO DOMÍNGUEZ



Florencio Domínguez kazetaria da. Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa zuzentzen du. Liburu askoren egilea da, besteak beste, *Sin justicia: Más de 300 asesinatos de ETA sin resolver* (2023), *ETA: estrategia organizativa y actuaciones (1978-1992)* (1998), *Las raíces del miedo* (2003) edo *La agonía de ETA* (2012). *Vidas rotas: historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA* (2010) liburuaren egilekidea ere bada.

Honela idatzi zuen Stefan Zweigek *Atzoko mundua. Europar baten memoriak* bere liburuan: “Esperientziaz dakigu askoz errazagoa dela garai bateko gertaerak berregitea haren giro espirituala baino. Giroa ez dago gertakari ofizialetan sedimentatuta, gertaera pertsonal txikietan baizik”. Idazle austriarrak gaineratu zuenez, “bizitzan zehar esperientzia pertsonal txikiak izaten dira beti sinesgarrienak”.

Hala da. Errazagoa da garai bateko historia makroa egitea, gertakari terroristak berreraikitzea, haien eragin politikoa eta

ondorioak aztertzea, denboran zehar izan duten bilakaera ikustea. Distantzia ertainera ikusten den puzzle bat bezalakoa da: marrazki globala ikusten dugu, baina ez gara konturatzen irudi hori osatzen laguntzen duten pieza bakoitzaren xehetasunez. Horretarako, hurbildu, piezak banaka aztertu eta multzoaren irudia bistatik galtzeko arriskua hartu behar da. Terrorismoarekin, bereziki ETarenarekin, Espainiako gizartea luzaroen zigortu duenarenarekin eta babes sozial handiena izan duenarenarekin, giro espirituala atzemateko, kaltetuen istorio pertsonalen bilduma horri erreparatu behar zaio, denbora luzez oharkabean pasatu diren istorioak baitira, urrutitik begiratzen genuelako.

Badakigu terrorismoak zenbat pertsona hil dituen, biktimen izenak dakizkigu, familien eta zaurituen sufrimenduaz abstraktuki dakigu. Atentatuek eragindako minaren ideia orokorra daukagula uste dugu, baina, egia esan, ez dakigu krimenaren ondotik askotan etorri den krudelkeria sozialaz, krudelkeria hori krimena bera baino okerragoa izan baita. Biktimek gehiegitan bizi behar izan dute gizarte etsai batean; izan ere, herritar batzuk erasokor agertzen ziren terrorismoaren erasoak jasan zutenen aurka, eta beste batzuek, berriz, beste alde batera begiratzen zuten eta distantziak markatzen zituzten.

Pentsaezina iruditzen zaigu etxebizitza baten jabea maizterren aurrean agertzea etxea berehala hustu behar dutela esateko. Arrazoa? Maizterrak ETaren atentatu bat jasan berri du, ospitalean zaurituta dago oraindik, baina jabeak nahi du familiak etxetik alde egin dezan, terroristei lana amaitzea bururatu baitakieke, eta, agian, pisan ager daitezke, eta etxea kaltetu.

Talde terroristak Gipuzkoan eraildako enpresaburu baten alargunak zer nolako gizartea aurkitzen duen galde diezaiokegu geure buruari, emakumeak, entzun nahi dion orori, bere senarra trafiko-istripu batean hil zela esaten badio. Saiatzen da seme-alabak babesten, ETaren biktima izateagatik seinala ez ditzaten. Eskolako patioan *apartheida* jasan duten eraildako seme-alaben kasu gehiegi izan dira, eta beren ikaskideek jazarri dituzte, bizitza jasanezin bihurtzeraino. *Bullying* politikoa egiten zieten oraindik *bullying* hitza asmatu gabe zegoenean. Ikasgelak kalean gertatzen

zenaren proiektio bihurtzen ziren, eta ikasleek inguruan ikusten zituzten jokabide intoleranteak kopiatzen zituzten.

Krimenalehenurratsabainoezzengizarte-estigmatizaziorako, bazterketarako, begirada iheskorretarako edo axolagabekeriarako, axolagabekeria partikularrerako, mehatxatuak bere autoa komunitatearen garajeen edukitzeaz kexatzen baitziren bizilagunak; edo axolagabekeria instituzionalerako, hala nola segurtasun-arrazoiengatik beste kargu publiko mehatxatu baten etxearen ondoan aparkatzeari uko egiten dion zinegotziaren kasuan bezala, eta, gainera, mehatxatutako zinegotziari beste alde batera bizitzera joateko gomendatzen dio.

Mehatxatuarekiko distantzia markatzera daraman beldur sozialaren klasiko bat jendaurrean agurra ukatzea da. Stefan Zweigek, judua bera, Salzburgon, nazismo arranditsuaren garaian, haurtzaroko lagun batekin izandako esperientzia kontatzen du: "Egun batean, aspaldiko adiskide bat ikusi nuen kalean ezezagun batekin, eta konturatu nintzen bat-batean erakusleihu baten aurrean gelditzen zirela, berari batere interesatzen ez zitzaiona, eta, niri bizkarra emanez, zerbait erakusten ziola gizon hari interes fisiko ezohikoarekin". Hurrengo egunean lagunak deitu zion, idazlearekin bere etxean egon nahi zuela, geratzen ziren kafetegian elkartu beharrean. Zweigek ulertu zuen bere lagunak saihestu nahi zuela jendaurrean "juduen lagun izatea"ren susmagarri gisa agertzea, eta konturatu zen, halaber, lehen bere etxera joaten ziren ezagun batzuek hara joateari utzi ziotela.

Idazle austriarra irakurri eta haren esperientziak errepikatzea erabaki balute bezala, mehatxatuei eta biktimei bizkarra ematen zieten pertsonen betetzen hasi zen Euskal Herria. Ángel Yáñezek, Tolosako PPko zinegotziak, lagun batek egun batean egin zion telefono-deiaren berri eman zuen: "Ángel, egun batean kalean topo egiten badugu eta agurtzen ez bazaitut, uler ezazu, mesedez, badakizu nolakoak diren gauzak". Iñaki Gabilondo kazetariak Andoainen bere lagun bati gertatu zitzaion antzeko gertaera baten berri eman zuen bere garaian Cadena Ser irratian. Pertsona horrek ezagun batekin topo egin zuen kalean, eta honek nabarmenki ez ikusiarena egin eta uko egin zion agurtzeari.

Handik gutxira, ezagunak telefonoz deitu zion Gabilondoren lagunari, eta azaldu zion kalean lagun jakin bat zegoela, eta ez zuela nahi pertsona hori agur horren lekuko izatea.

ETAren errearen garaiko giro espiritualak osatu duten gertaera pertsonal ugarietako batzuk dira, biktimek, mehatxatuek edo doktrina nagusiaren disidenteez bizi izan dituztenak.

Liburu honek biktimen edo adituen testigantzak biltzen ditu, terrorismoaren jazarpena barrutik, lehen pertsonan jasan dutenen ikuspegitik, nola bizi izan den hobeto ezagutzeko balio dutenak. Baina ez da soilik ETAren biktimetara mugatzen, nahiz eta haiek izan kopuru handiena estatistikoki, gure herrialdean erregistratutako terrorismo-adierazpen guztiak kontuan hartzen ditu ere. Jihadismoaren eta indarkeriazko estremismoen biktimei ahotsa ematen die, guztiek baitituzte bizipen pertsonal besterenezinak. Agian, denek ez dute jazarpen-ingurune bat jasan, baina askok gizartearen axolagabekeriarekin, administrazioaren arduragabekeriarekin edo justiziarik ezarekin egin dute topo. Nolanahi ere, denek egin behar izan diote aurre beren zoritxarrari ahalegin pertsonalarekin eta, zorionez, lagun eta senideen laguntzarekin.

Ahots horiek guztiek entzunak izatea merezi dute, ez bakarrik biktimekiko elkartasun-keinu gisa, baizik eta haien testigantza lehen mailako tresna delako terrorismo bakoitzaren atzean ezkututzen den gorrotoaren diskurtsoari aurre egiteko, duen inspirazioa edozein izanda ere. Hitz egiten uzten badiegu, haiei ez ezik, gizarte osoari ere laguntzen diogu, eta errearen mehatxu berriei aurre egiteko gaitasuna indartzen dugu.

Hiru ispilurekin eta koloretako kristal batzuekin, kaleidoskopioa errealtate birtual baten irudi ugari eskaintzeko gai da. Koloretako kristalen ordean, liburu honek bizi-egoera oso gogorren esperientzia pertsonalak baliatzen ditu, eta horien bidez gure iraganeko irudi ugari eskaintzen ditu. Nolabait, errearen kaleidoskopio bat da, baina errealtate birtualik gabe. Errealtatea huts-hutsik.

SARRERA: TERRORISMOAREN HONDAKINEN GAINEAN

RAÚL LÓPEZ ROMO



Historian doktorea da Raúl López Romo. Hezkuntza eta erakusketa arduradun gisa lan egiten du Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroan. *Sobre el olvidado terrorismo vasco* (2023) eta *Informe Foronda: los efectos del terrorismo en la sociedad vasca* (2015) lanen egilea da, eta *Sangre, votos, manifestaciones: ETA y el nacionalismo vasco radical* (2012) liburuaren egilekidea. Lerro hauen gainean, Paul Kleeren *Angelus Novus* margolana.

Walter Benjamin Paul Kleeren *Angelus Novus* margolanean oinarritu zen iraganeko gertakarien bere interpretazioa laburbiltzeko. Imajinatu zuen historiako aingeruak, atzera begiratzean, hondakin pila bat ikusten zuela, txundituta uzten zuen hondamendi bat. “Gelditu egin nahiko luke, hildakoak iratzarri eta apurtutakoa berregin”, idatzi zuen filosofo berlindarrak. Baina, aldi berean, urakan batek bultzatzen zuen etorkizunera, eszenatik urrunduz¹.

Liburu hau terrorismoak utzitako hondakinei buruzkoa da, eta hura jasan duten pertsonen dolu eta gainditze istorioei buruzkoa. Biktimen, hainbat alorretako profesionalen eta haiengandik gertu lan egin duten ekintzaileen 65 ahots batu ditut. Hiru profil desberdin dira, baina ez baztertzailerak: pertsona batzuek ezaugarri horietako bi biltzen dituzte, edo hirurak. Haien testuek, tartekatuta, ikuspegi osagarriak ematen dituzte: batzuk testigantzazkoagoak dira, beste batzuk akademikoagoak, baina esperientzia indibidualetik abiatzen dira beti.

Espanian atentatuak egin dituzten terrorismo mota guztiei erreparatuko diegu: nazionalista erradikala, ultraeskuindarra eta talde parapolizialena, ezker muturrekoa eta jihadistak, ordena horretan, denboran zehar agertu diren bezala. Egitura funtsean kronologikoa aukeratu dut, baina irakurleak beste bide batzuk azterditzake, kapitulu batetik bestera salto eginez bere irizpidearen arabera, ez baitute batasun banaezin bat osatzen.

Hemen bildutako narrazio askok balio unibertsalak aipatzen dituzte, eta trukagarriak dira. Kasu desberdinak batu egiten dira, murriztu eta aurrez aurre jarri ordez. Terrorismoaren biktima guztiak “guretarrik” dira. Hala ere, irizpideren bat erabili behar nuen proportzioari eusteko. Eta talde bakoitzak eragindako hilketa kopurua izan da; horrela, gizarte osoan eta prozesu politikoan izandako eragina antzekoa izan delako sentsazio faltsua helaraztea saihestu nahi izan dut.

ETA izan da, luzaz, erakunderik hilgarriena, denboran gehien iraun duena eta gizartean (zati batean) babesik handiena izan

1. W. Benjamin: *Discursos interrumpidos I*, Madrid, Taurus, 1973.

duena (eta oraindik ere duena), horrek dakarren arazo politiko eta moralarekin. Zenbait egilek babes hori baliatu dute arrazoiren bat izango zutenaren ustezko froga gisa². Baina apologeta horien justifikazioez harago, terrorismoa ez da inoiz saihestezina izan. Erasotzaileek hartutako erabaki aske eta kontziente baten emaitza da, eta gutxiengo erradikalizatu bat osatzen dute, metodo baketsuak aukeratzen dituen gehiengoaren aurrean.

Aldi berean, hainbat unetan, Espainian zenbait terroristak atentatuak egin dituzte diktadura nazionalkatolikoa berpizteko, beste terrorismoren bati erantzuteko, klase-gizartea ezabatzeko edo "kalifaldi" islamiarra ezartzeko. Estakuru horien pean, oinaze handi bezain justifikaezina eragin dute. Biktima bakar bat gehiegi izango zen. Guztiak berdinak dira errugabeak diren aldetik (bakar batek ere ez zuen merezi eragin zioten kaltea), eta oroimena, duintasuna, justizia eta egia merezi dute. Balio horiek sustatzeak Zuzenbidezko Estatua babestea dakar, eta horixe da, hain zuzen ere, edozein motatako terroristek suntsitu nahi dutena, guztioi doktrina totalitario berezi bat ezartzeko. Biktimek gogorarazten digute aniztasuna defendatzeak prezio bat izan duela. Haiek ahaztea edo haien oroimena desitxuratzea demokraziaren oinarriak ahultzea litzateke.

Terrorismoa fenomeno konplexua da, eta hartan jarduten duten erakundeek antzekotasunak eta desberdintasunak dituzte. Lehenengoen artean, azpimarratzekoa da guztiek beldurra eragin nahi dutela, proiektu politiko jakin bat inposatu, indarkeria klandestinoa erabili, komunikabideen bidez propaganda-efektuak bilatu, eta ustekabeen dabiltzan gizakiei eraso egin. Bigarrenen artean, hainbat orientabide ideologiko eta estrategiko daude. Biktimizazio-modu desberdinak ere badaude: pertsona batzuek bikoitza eta hirukoitza ere bizi izan dute, ez bakarrik jasan zuten atentatuagatik, baizik eta erakundeen aldetik jasotako tratu bidegabeagatik eta jaso ahal izan zuten estigma sozialagatik (*txakurrak, zipaioak...*).

Antonio Muñoz Molinak idatzia du hau dela "zentzu

2. J. M. Lorenzo Espinosa: *ETA: la historia no se rinde*, Bilbo, Boltxe Liburuak, 2018.

aritmetikoan eta zentzu narratiboan historia” kontatzeko garaia. “Oroitzeko kontatu behar da, eta ulertzeko (...) Kontatu egin behar da desitxuratzea ez nagusitzeko eta borroroek eta erantzuleek krimenaren aliatu eraginkor hori, ahanztura, ez izateko”³. Izan ere, proiektu honen helburua, duela ia bi urte jaio zenetik, terrorismoaren biktimen eta izugarrikeriaren beste lekuko pribilegiatu batzuen ondarea bizirik mantentzea da.

Lagun kazetari batek elkarriketa formatura jotzea gomendatu zidan, nire informatzaileen istorioak ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Baina oraingo honetan ez nuen datu argitaragaberik bilatzen, nahiz eta egon badauden; paper zuriaren aurrean adierazteko askatasuna utzi nahi nien, José Luis Sampedroren lan bikain haren izenburuari eta asmoari jarraituz: *Idaztea bizitzea da*⁴. Biktima batzuek lehenago ere hitz egin zuten jada. Hor dago Cristina Cuestaren lan aitzindaria, zeinak *Contra el olvido: testimonios de víctimas del terrorismo* koordinatu baitzuen, eta haren atzetik beste batzuk etorri dira. Baina askorentzat lehen aldia izan da beren hausnarketak zurian beltz jarri dituztela. Era berean, profesional askok ez zioten inoiz idazteari ekin hain ikuspegi pertsonaletik.

Liburu honek esperientzia eta ideia politiko desberdinak dituzten pertsonen memoriak biltzen ditu, pluralean, eta beti bat ez datozen eskaerak eta lehentasunak sortzen dira horietatik. Ona da horrela izatea. Salbuespen batekin. Martín Alonsok dioen bezala: “baliteke terrorismoaren kontakizun bakarra ez egotea, baina ziur ez direla denak sartzen. Ezin dira sartu gutxieneko etiko bat izatea onartzen ez dutenak”⁵. ETari eta bere inguruari buruz ari da, baina gainerakoetara estrapola daiteke. Muga hori gaindiezina da: ez dira parekatu behar demokraten kontakizunak eta totalitarioenak. Edo egin daiteke, baina terrorismoaren biktimak moralki laminatzearen kontura. Hemen ere borroroez hitz egiten da. Hala egin behar zen, nor diren, zer pentsatzen

3. A. Muñoz Molina: “Tiempo de contar”, *El País*, en 2012/04/21.

4. J. L. Sampedro Olga Lucasen lankidetzarekin: *Escribir es vivir*, Bartzelona, Random House, 2005.

5. Martín Alonsori elkarriketa, honako webgune honetan: https://www.eldiario.es/norte/euskadi/Puede-relato-terrorismo-ETA-seguro_o_225727682.html (sarbidea: 2018/06/28).

duten eta nork babesten dituen jakiteko. Baina ez diegu lehen pertsonan idazten uzten, beren burua zuritzeko.

Dena 2016 amaieran hasi zen, www.arovite.com (Euskadiko Indarkeria Terroristari buruzko Online Artxiboa) webgunean blog bat sortzea pentsatu nuenean, eta astero sarrera berriak argitaratzen joan ginen. Bloga handituz joan zen, milaka bisita izan zituen, eta gaia Espainia osora zabaltzea erabaki nuen, esku artean duzun liburua bihurtzeraino, argitaratu gabeko testu asko biltzen dituen, Interneten kontsulta daitezkeen beste batzuekin batera. Bildutako ahotsek ez dituzte gainerakoak ordezkatzten: falta direnak ordezkaezinak dira. Ea etorkizunean ere lan honekin jarraitu eta egile gehiago dituen beste liburu bat ikusten dugun, dauden guztiak badirelako, baina ez daude diren guztiak. Leku arazoengatik, ez ziren gehiago sartzen.

Internet dibulgazio-plataforma zoragarria izan da eta da. Gainera, ekimen hau beste batzuk aberasteko baliagarria izan da: Conchita Martínen testigantza "Terrorismoa Espainian" izeneko unitate didaktiko baten parte izatera igaro da, zeinarekin DBHko 4. mailako ikasleek ikasten duten; Santos Santamariaren eta José Antonio Pérezen testigantzak prentsak jaso zituen albiste banatan; Manuel Montero, berearen haritik, bere idatzietan arlo pertsonala eta analitikoa konbinatzen jarraitzerantz animatu zen, eta Jovellanos saria irabazi duen saiakera bat ondu zuen; Fidel Rasorentzat, Pilar Parrondorentzat edo José María Silvetirentzat aspaldi idatzitako testuak argitaratzeko aukera izan da, artean argitaratu gabe zeudenak...⁶ Hala ere, Primo Levi parafraseatuz, lekuko mota bat dago, izugarrikeriaren sakonena ezagutu eta erail egin zituztenak. Egin dezakegun gutxienekoa haien absentiaren hutsunea sumatzea da.

6. Unitate didaktikoa: <http://www.memorialvt.com/publicaciones/#unidades>; albisteak: "Nuestro silencio sobre ETA nos perseguirá mientras nos quede memoria", https://www.eldiario.es/norte/euskadi/silencio-ETA-perseguir-queda-memoria_o_645335804.html-en eta "El padre del único 'mosso' asesinado por ETA exige 'respeto' a las FSE en Cataluña", https://www.elconfidencial.com/espana/2017-10-12/santamaria-eta-mosso-asesinado-cataluna_1458695/-en; Manuel Monteroren saiakera: *El sueño de la libertad. Mosaico vasco de los años del terror*, Oviedo, Nobel, 2018.

1982an jaio eta ia beti Euskadin bizi izan den bilbotarra naizen aldetik, nik ere terrorismoarekin zerikusia duten nire esperientzien motxila daramat bizkarrean, hainbat alderdi pertsonal eta profesionaletan eragin didatenak. Ez naiz horretan luzatuko; hala egiten dute lan honen gainerako egileek, haiek baitira benetako protagonistak. Gauza bakarra esango dut. Nire ustez, lotura bat dago Irene Villaren eta haren ama María Jesús Gonzálezen irudi izugarriak (biak mutilatuak, 1991n ETAk Madrilen egindako atentatu batean) ikusi zituen haur haren eta duela zenbait urte nire lurra hamarkada askotan hain modu krudelean markatu duen gaitz bati buruz ikertzen hastea erabaki zuen gaztearen artean.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet nire gonbidapenari modu positiboan erantzun dioten eta parte hartzera animatu diren egile guztiei eta, parte hartu nahi izan arren, arrazoi desberdinengatik ezin izan zutenei. Horiek guztiak ditut gogoan, baina bereziki biktimak, jakitun bainaiz gai zail bati buruz idazteko eskatzen niela, barrena astintzen ziena. Sarritan, beren oinazea gainditu dute zer gertatu zaien kontatzeko, eraildako arreba, senarra edo aitaren istorioa ezagutaraziz, edo traumaren ondoren memoriak izan beharko lukeen lekuari buruz duten ikuspuntua azalduz. Haien irakurketatik ondorioztatzen da memoria gorde behar dela, "ez ezertara ez daraman herra eraikitzeke, baizik eta justifikatu eta errepikatu ezin denaren kontzientzia", Lorenzo Silvarekin hitzekin esateko⁷.

Zirrara eragin dit jakiteak malko asko isuri dela lerro hauek forma hartu ahala. Zirrara eragiten dit eta erantzukizun berezia sentiarazten dit. Terrorismoaren biktima guztiak ohoratuko dituen liburu bat koordinatzeko gai den sentiberatasunik handiena aplikatu nahiko luke batek, biktima bakar bati kalterik egin gabe. Zorionez, ahalegin honetan ez naiz bakarrik egon. Bereziki aitortu nahi dut oso hurbil egon diren bi lagunen laguntza: Lucía Cristobal, Bakearen Aldeko Koordinakundearen biktimen batzordeko kidea, eta Ale Ibarra, blogaren alde teknikoaz arduratu dena. Haiek gabe,

7. L. Silva: "Una historia de inhumanidad", *El Mundo*, 2017/10/30.


abentura hau ezinezkoa izango zen. Eskerrak eman nahi dizkiet, halaber, terrorismoaren biktimen elkarte eta fundazioei, nire dei eta eskaerei emandako erantzun atseginagatik. Eta David Puertas artista bilbotarrari, azaleko ilustrazio bikainaren egileari, Walter Benjaminek aipatzen zituen hondakin horien bertsioa dena.

Eskertzekoa izan da Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, Terrorismoaren Biktimen Fundazioak, Askatasunerako Fundazioak eta Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroko nire kideek eman didaten laguntza. Datu bat, harremanetarako telefono bat edo iradokizun bat eman didaten pertsonen zerrenda hain da luzea, non inor aipatzea ahazten bazait, beldur naiz ez ote zaizkidan minduko. Eskerrik asko, beraz, guztioi.

Lan hau Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroaren eta Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutuaren (herrialde honetako egitura zibiko eta pedagogikoa osatzen duten bi erakunde) babesari esker argitaratu da. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot Los Libros de la Cataratari, obra hau bere katalogoan sar zitekeela erabaki baitzuen, eta bereziki nire editore Carmen Pérez eta Beatriz Abadi, beren lan arduratsuagatik. Geratzen diren akatsak nire erantzukizuna dira. Ez, ordea, iritziak, egile bakoitzari baitagozkio.

ETAREN TERRORISMOAREN JATORRIARI BURUZ

JON JUARISTI



Jon Juaristi Espainiako Literaturako katedraduna da Alcala de Henaresko Unibertsitatean. Lehenengo ETAn militatu zuen, eta ETak jazarri zuen gerora bere proiektu totalitarioa kritikatzearagatik. Prentsan kolaboratu ohi du, eta saiakera, poesia-liburu, eleberri eta itzulpen ugariren egilea da.

Mario Onaindiak ukatu egiten zuen hirurogeiko hamarkadako ETA, jatorrikoa, erakunde terrorista bat izan zenik, eta hurrengo hamarkadaren hasieran kokatzen zuen haren metamorfosia,

hirurogeita hamarreko hamarkadan, bere pistolariak Aljerian entrenatzen hasi zenean. Ukaezina dirudi, tesi horrekin, Onaindiak bere burua errugabetu nahi zuela *borroka armatuaren* praktikatzaile gisa izandako iraganaz, baina egia da, era berean, Burgosen 1970eko abenduko gerra-kontseiluan epaitutako etakideei (gertaera horrek, Onaindiaren ustez, ETAren historiaren fase "garbia"ri amaiera eman zion) hilketa bakar baten errua egotzi zietela, Melitón Manzanaskomisarioarena. José Pardines guardia zibilaren eta Fermín Monasterio taxilariaren hilketen egileak ez zeuden auzipetuen artean. Txabi Etxebarrieta Ortiz beste guardia zibil batzuekin izandako liskar batean hil zen, Pardines erail eta ordu gutxira, eta Mikel Etxebarria Iztuetak Frantziara ihes egitea lortu zuen Monasterio hil ondoren.

Ondo samar ezagutzen dira Pardinesen heriotzaren inguruabarrak, hogeita hamar urte geroago lekuko bakarrak, Iñaki Sarasketak, *El Mundoko* kazetari bati zehatz-mehatz azaldu zizkionak. Badakigu bi etakideen eta guardia zibil gaztearen arteko topaketa ustekabekoa izan zela, eta Etxebarrietak Pardinesi tiro egin ziola bizkarretik, hura makurtuta zegoenean, haiek zihoazen autoaren matrikula aztertzen. ETAn beti kontatu zen Etxebarrieta zentraminaz bapo eginda zihoala, eta Etxeberria Iztuetak, Monasterioren taxia geldiarazi zuenean, Bilboko pisu franko batean zauritu zuen poliziarengandik ihesi zebilela. Hilketen justifikazio gisa erabiltzen ziren bi horiek, aringarri gisa baino gehiago. Hirurogeiko hamarkadako etakideek, gazteenek batez ere, uste zuten (uste genuen) frankismoaren ordena-indarrak, salbuespenik gabe, torturatzaile eta hiltzailez osatuta zeudela. Horregatik, erraz justifikatu genituen Pardines eta Monasterioren heriotzak (Monasterio polizia ez bazen ere, ETAko barne-kondairaren arabera, Etxebarria Iztueta poliziari entregatzen saiatu zen). Etxebarrieta Ortiz guardia zibilaren esku hiltzea, berriz, hilketa frankista tipikoa izan zen. Ez da ahaztu behar, Burgosko gerra-kontseiluan, atxilotu zutenean bere abokatuak pistola zertarako zeraman galdetu ondoren, Mario Onaindiak laburki erantzun zuela: "poliziarengandik babesteko". Galdera eta erantzuna aldeztatik prestatuta zeuden, propaganda egiteko

asmoz (bilkuretara joaten ziren kazetari atzerritarrek grabatzen baitzuten kontseiluaren nondik norakoa), baina ziur nago Onaindia ez zela gezurretan ari, baldin eta gezurtzat hartzen badugu uste denaren kontrakoa esatea. Mariok uste zuen ETako armek poliziarengandik defendatzeko balio zutela, ez erasotzeko. Eta hala pentsatzen nuen, uste hori gezurtatzen zuten hiru gertakari gertatu baziren ere: Pardines, Manzanas eta Monasterioaren heriotzak. Hala ere, kontuan izan behar da Onaindia lehen aipatutako pisu frankoan atxilotu zutela Brigada Politiko-Sozialeko kideek, eta tiroka sartu zirela etakideei erreakzionatzeko denborarik eman gabe. Topikoak dioen bezala, Mario mirariz atera zen onik, baina beste bi etakide zauritu zituzten tiroek: Bittor Arana eta Mikel Etxebarria Iztueta. Azken honek bere pistola erabili zuen minutu batzuk geroago Monasterio taxilaria hiltzeko.

Hirurogeiko hamarkadako ETA erakunde terrorista al zen? Halakotzat jotzen bada indarkeriazko ekintzak prestatzen eta egiten dituen erakunde bat, esango nuke hamarkada ondo hasi arte ez zela hala izan. Gabriel Moral Zabalak, EAJko gazteen buruzagi gisa lehen ETArekin harremanak izan zituenak, zioen orduko etakideak EGIkoak baino askoz gutxiago zirela indarkeria politikoaren aldekoak, petardoak eta gerrillen prestakuntzaren zaleagoak baitziren. ETakoak, Gabrielen ustez, ekintzaren aurrean uzkur agertzen ziren

intelektual batzuk ziren, Etxebarrieta anaiengandik hasita, eta ondo ezagutu zituen. Baina hori aldatuz joan zen hamarkadan zehar. Urte horietako zenbait ekintzek (Lazkaoko alkatearen etxeko suteak eta arpilatzeak, adibidez) gehiago izan zuten herribidelapurreriatik terrorismotik baino. V. Batzarraren (1967) aurreko ETA propagandan eta barneko eztabaida ideologikoetan murgildua zegoen, ekintza zuzenean baino gehiago.

Nire ustez, indarkeria onartzeko funtsezko pizgarria izan zen Frantzian eta Espainian ideologia eta *borroka armatua* uztartu nahi zituen muturreko ezker bat agertzea. PCFren krisiak, Aljeriako gerraren urteetan, taldexka antisobietiko, protxinatar eta troskisten zatiketak eragin zituen, eta *defentsa iraultzaileko*

espezialistak (adibidez, "manifestazioen ordena-zerbitzuak") polizia "burgese"aren aurkako talka-indar bihurtzea defendatzen zuten taldekak horiek. Defentsaren eta erasoaren arteko anbiguotasun bat aurkitzen dugu hor, Burgosko prozesuko ETAn nagusi zenaren antzekoa, Onaindiaren deklarazioa serio hartu behar badugu. Anbiguotasun hori gerrilla antinapoleonikoez konpondu zuten bere garaian, defentsarik onena eraso on bat dela dioen apotegma aurritu horren bidez. Gauchistek probatu zuten defentsatik irainerako urratsaren teoria Parisko 68ko Maiatzeko barrikadetan, erabateko porrotaren emaitzarekin. 1848ko barrikadek Europan ezkerreko iraultzen garaia inauguratu bazuten, 1968koek behin betiko itxi zuten. 68ko maiatzeko etsipenak ezkertiar ugari eraman zituen terrorismora. Igarotze horren kasu goiztiarrenetako bat, goiztiarra ez bada, ETArena izan zen. Xabier Etxebarrieta Ortizek, *hirurogeita zortziko zale* nahiko tipikoa, Ekonomiako ikaslea eta Sartre eta André Gorzen irakurle sutsua zenak, José Pardines guardia zibila hil zuen 1968ko ekainaren 7an, Parisen manifestazio gaullista handia egin eta astebetara eta CRSk Sorbona hustu baino bederatzi egun lehenago.

Egun horretatik aurrera, 1968ko ekainaren 7tik aurrera, zeinaren berrogeita hamargarren urteurrena oraintxe bete den, ETAkterrorismoaren alde egin zuen zalantzarik gabe. Sarasketaren arabera, EAJko militante bat izan zen ETArekin arreta erakarri zuena Melitón Manzanasen aurka atentatua egiteko erraztasunaren inguruan. Datuaren fidagarritasuna ez da oso handia; izan ere, Sarasketa ekainaren 7an bertan atxilotu zuten, eta espetxean zegoen komisarioa hil zutenean (nahiz eta ustezko informazioa Pardinesen hilketaren aurrekoa izan zitekeen). Egia esan, ETAk Manzanas hiltzea erabaki zuen Etxebarrietaren heriotzaren errepresalia gisa, eta, horrela, duela urtebete V. Batzarrean adostutako estrategia, *ekintza-errepresio kiribila* deiturikoa, abian jartzea azkartu zuen. Helburua "Euskadiren askapen nazional eta sozialaren aldeko borrokan" gero eta jarraitzaile gehiago sartzea zen. Erregimenak poliziaren hilketari erantzun zion salbuespen-egoerekin, atxiloketa masiboekin eta indarkeria polizialarekin, hildakoez (nahiz eta ez ETatik iragartzen zirenak adina, ezta

urrutitik ere). Bitxia bada ere, eta nahiz eta ekintza-errepresio kiribila ondo atera, ETAr berrespen zabala ekarriz Euskal Herrian (eta, oro har, Espainiako ezkerrean), 1969ko salbuespen-egoeraren eta ETaren zuzendaritzaren zatirik handienaren atxilotetaren ondorioz, erakundetik geratzen zenak, VI. Batzarrean, terrorismo "burges txikiarekin" eta nazionalismoarekin haustura gauzatu, eta erakunde marxista-leninista gisa birdefinitu zuen bere burua. Nire ustez, antzeko egoera batean egon zitekeen garai hartako Espainiako ezker muturreko edozein taldekak desegin egingo zen (hau da, errepresio handia jasan ostean, hildakoak eragingo zituen atentatu terrorista bat edo batzuk egin ondoren). Zergatik ez zuen ETAk egin? Besterik gabe, zuzendaritzak etekina atera nahi izan ziolako Euskal Herrian zuen babes sozial itzelari eta frankismoaren aurkako ezkerreko erakundeen artean lortutako prestigioari. Ondorengo bi urteetan, ETA-VI delakoaren buruzagiak Euskadiko Alderdi Komunistaren, Liga Komunista Iraultzailearen eta hainbat erakunde maoistaren zuzendaritzetara joan ziren. Askoz geroago Patxo Unzuetak (VI. Batzarraren norabide aldaketaren eta indarkeria terrorista uztearen aldeko inspiratzaile nagusia izan zena) baieztatuko zuenez, marxismo-leninismoa tunel iluna zen oso, baina hirurogeiko hamarkadako etakide gehienei nazionalismotik eta terrorismotik ihes egiteko balio izan zien tunela izan zen.

Tira, hirurogeiko hamarkadako ETA horren bilakaera deskribatu dut, barrutik ezagutu nuena. 1967an nire bi lehengusuk (Ekonomiako ikasle batek eta jesuita batek) erakarri ninduten. Oso maila txikitik ezagutu nuen, mendeko gisa, itsasoz haraindiko mandatari gisa (behin edo behin kontatu dudan bezala, karlohugistekiko harremanez arduratu nintzen), baina denbora eta aukera izan nuen bandaren aldaketa garrantzitsuenetako batzuk sumatzeko. Adibidez, geroago ETA militarren estortsio ekonomikoko aparatua izan zenaren agerpena (haren sorreran karlistaren batek parte hartu zuen, nire oroitzapenetan aipatu

nuen bezala)⁸. Nolanahi ere, ez nuen uste erakunde terrorista bateko kide nintzenik, diktadura frankistaren aurka borrokatzen zen euskal erakunde nazionalista-iraultzaile batekoa baizik. Atentatu odoltsurik ez egoteak (1968ra arte), beste ekintza-mota batzuen izaera desitxuratu zuen, haiek leunduz: lapurretak, lehergailuak jartzea (biktimarik gabe), etab. Bestalde, egia da hirurogeiko hamarkadako etakide askok ez zutela terroristen berezko gaitasunik. Beste oihal batekoak ziren. Oraindik ere bizi direnen eta beren adiskidetasunarekin ohoratzen nautenen artean, inor ez zen atera esperientziatik eskuak odolez zikinduta. Neurri batean, beraz, egia da Mario Onaindiak zioena: ETA ez zen terrorista izaten hasi, ez behintzat serio, 70eko hamarkadara arte. Baina hori ere ez da guztiz egia, 1968an ETako kide batzuek hiru pertsona hil baitzituzten. Onar dezagun hilketetako bi ez zirela planifikatuak edo bilatuak izan, baina horrek ez du esan nahi ustekabekoak eta nahigabekoak izan zirenik. Eta are garrantzitsuagoa, hirurogeiko hamarkadako ETak Espainiako Estatuaren, haren ordezkarien, segurtasun-indarren eta laguntzaileen aurkako indarkeria armatua aurreikusten zuen bere programan, edo, hobeto esanda, bere aurrerantzeko programetan.


Egia da hirurogeiko hamarkadako etakide gehienak planteamendu horretatik eta Melitón Manzanasen hilketarekin hasitako bidetik aldendu zirela, baina egia da, halaber, gutxiengo batek erabateko terrorismora eramaten zuen bideari eutsi ziola. Azken talde horrek, Burgosko prozesuan Alemaniako kontsula Donostian bahitu zuenak eta ETA-V Batzarra edo ETA-V izena hartu zuenak (ETA-VIrekiko aurkakotasunagatik), hainbat ekarpen garrantzitsu jaso zituen 1971 eta 1972 artean. Lehenik eta

8. ETaren "zerga-sistema iraultzailea" fenomeno mafioso izan zen, gangsterren babes-sistemekin guztiz alderagarria. Hala ere, egia da hirurogeita hamarreko hamarkadara arte ez zela martxan hasi. 1972ko urtarrilean estreinatu zen (edo, hobeto esanda, proban jarri zen), Lorenzo Zabala enpresari eibartarraren bahiketarekin, honen langileen lan-aldarrikapenei elkartasuna adierazteko. Urtebete geroago, ETak berrogeita hamar milioi pezeta lortu zituen erreskate gisa bahitutako beste enpresari batengatik, Felipe Huarterengatik. Basauriko espetxean topo egin nuen Zabalaren bahiketagatik atxilotutakoekin, eta haien artean gehiago zeuden sindikalistak etakideak baino. Huarteren bahiketaren arrakasta ekonomikoaren ondoren, ETak bertan behera utzi zuen mota horretako delituertarako aitzakia obrerista oro.

behin, EGIren zati batek (bere burua EGI-Batasuna izendatzen zuenak) handiagotu zuen erakundea. 1972an, Guardia Zibilak tiroz hil zuen Urdazubitik gertu EGI-Batasunako militanteetako bat, Juan Antonio Aranguren, Frantziara igarotzen saiatzen ari zela. Orduan hogeita bat urte zituen Arangurenek —ezagutu eta harremana izan nuen harekin, nire orduko neska-laguna (berarekin ezkondu nintzen) bere lagunartekoa zelako— ez zuen inor hil. Zentzu batean, haren heriotzak Etxebarrietarenaren antzeko eragina izan zuen, katalizatzailer gisa, abertzaletasunaren sektore zabal batek ETArek terrorismoa berriro onar zezan (VI. Batzarreko marxismo-leninismoarekin konprometitutako etakide ohi batzuek ETA-Vri eman zioten atxikimendua Aranguren hil ondoren: besteak beste, Mario Onaindiak, Teo Uriartek eta Jose Luis Zalbidek). 1972an, aktibisten promozio berri bat agertu zen ETA nazionalista berpiztuan. Promozio hura —Txikia, Txomin Iturbe, Tomas Pérez Revilla, Josu Ternera, Santi Potros, Wilson, Argala, Pakito, Txikierdi, Apala, etab. —, Mario Onaindiak zioen bezala, terrorismoan *profesionalizatu* ahal izan zen, Aljeriako FLNko mujahidin ohien aholkularitzari esker. Orduan hasi zen ETA benetako terrorista izaten, baina oinarriak askoz lehenagotik jarrita zeuden. Gutxienez, *hirurogeita zortziko zaleen* labekadak, Etxebarrieta Ortiz eta Onaindiarenak, “poliziarengandik babesteko” armak erabili behar zirela erabaki zuenetik.

TERRORISMOAREN NIRE BIZIPENA

JOSEBA ARREGI



Joseba Arregi EAJko legebiltzarkide, Kultura sailburu eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaile izan zen. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea izan zen, eta hainbat saiakeraren egilea zen, besteak beste,

El terror de ETA: la narrativa de las víctimas (2015).

ETAren terrorismoarekin dudan lehen bizipena Pardines guardia zibilaren hilketarekin lotuta dago, nire jaioterritik gertu, Andoainen. Hilketa horren ondoren, ETAk Melitón Manzanas polizia-komisarioa erail zuen, eta, horren ondoren, Gobernuak salbuespen-egoera ezarri zuen Gipuzkoan. Sarekada asko egin ziren, eta haietako batean ni atxilotu, Antiguako (Donostia) Guardia Zibilaren komandantziara eramanez, hiru egunez era guztietako kolpeen pean galdekatu eta Martuteneko espetxera eramanez ninduten.

Komandantzia horretan ikusi ahal izan nuen Pardinesen kideen mina, baita ETAk bilatzen eta egiten zuenari buruz zuten ulertezintasuna ere. Espetxeko egonalditik gogoan dut garai hartan bertan zegoen ETako liberatu batekin izandako tratua. Gogoan dut haren sufrimendua, hilabete haietan ere kartzelara iritsia zen ETako beste liberatu baten inguruan gerora ETA VI. Batzarra bihurtuko zena mamituz zihoanean. Gogoan dut espetxeratuetako batek marxismoaz gehiago ikasteko zuen interesa, Felipe-ko [Herri Askapenerako Frontea] presoren batekin izandako elkarrizketen bidez, eta ETako kideek beren elkarrizketetan berriro onartzeko zuten erreserba.

Gogoan oso bizi gordetzen dudan bigarren oroitzapena Enrique Casasen hilketarena da. Zendutako nire emaztea eta biok Casas-Dührkop senar-emazteen lagunak ginen. Atentatuaren basakeria, gure adiskidetasun harremana, zendutako nire emaztearen iruzkina —“nola jarrai dezakezu nazionalista izaten horren ondoren?” Geroago, nire egungo emazteak esango zidan: “nik beti emango diet botoa alargunei eta umezurtzei”—, bere hilkutxa eta bere kide sozialistak bakarrik zeuden aretoan nire presentzia horren arraroa izatea...

Hirugarren oroitzapena Euskal Telebistaren lehen katean, euskaraz, izandako eztabaida bat izan zen. Bertan, besteak beste, ETAk eraildako Eugenio Olaziregiren senideak, Santiago Brouarden alaba eta biok geunden. Gogoan dut eztabaida amaitzean Olaziregiren senideek esan zidatela zein garrantzitsua zen haientzat nik haiek defendatzea, oso zaila egiten baitzitzaion bakardade soziala eta ostrazismoa jasatea.

Cogoan dut, halaber, orduko nire lantokian, Donostiako Elizbarrutiko Irakasle Eskolan, ETAren atentatu baten ondoren, gutxienez lanuzte sinboliko bat egiteko proposamenaren aurkako jarrera zegoela, batzuek uste baitzuten ez zuela ezertarako balio.

Anbiguitasun maila handia duen oroitzapen bat José María Ryanen hilketagatik protesta egiteko manifestazioarekin lotutakoa da, zeinean parte hartu bainuen. Oroitzapenaren anbiguitasuna hurrengo astean beste manifestazio batean berriro parte hartzetik dator, baina kasu honetan poliziaren galdeketetan jasotako torturen ondorioz hil zen Joseba Arregiren heriotza salatzeko.

Nire oroitzapen desatseginetako bat Carlos Garaikoetxearen bigarren kabineteko bozeramaile-lanari lotutakoa da. Memoriak erabat huts egiten ez badit, Donostiako Miramar Jauregian udako oporraldiaren ondoren egiten zen, eta oraindik ospatzen den, Gobernu Kontseiluaren ondorenezan: ohiko prentsaurrekoaren aurretik, Garaikoetxea lehendakariak argi eta garbi adierazi zidan agerian jarri behar nuela Eusko Jaurlaritza Frantzia atxilotu eta Espainiara ekarritako ETAko kideen estradizioen aurka zegoela. Ez nentorren bat horrekin, eta badakit gobernu hartako beste kideren batek ere ez zuela partekatzen. Beti nirekin eramango dudana orban bat da.

ETAk atentatuekin jarraitzen zuen, gizarteak beste alde batera begiratzen zuen, terrora ulertzen eta justifikatzen ez zuenean. Biktimek ezkutuan jarraitzen zuten, ezkutatuta, ahaztuta. Pasadizo bat datorkit gogora: ezagun batek esan zidan egun batean eskola-autobusaren zain zegoela, leku berera beste guraso bat iritsi zela bere haurrarekin edo hurrekin. Eskolako autobusaren zain zeuden pareko ataritik pertsona bat atera zen, atzetik hiru bizkartzain zituela. Nire ezagunaren ondoren geltokira iritsitakoak honako hau esan zuen: "Begira harroputz hori, ez du nahikoa birekin eta hiru daramatza". Esaldiak argi eta garbi adierazten du Euskadiko toki askotan ETAren biktimei eta ETAk mehatxatutakoei buruz zegoen giroa.

Egia da Ardanza lehendakaria buru zuen Ajuria Eneko Akordioarekin giroa aldatu egin zela. Jarrera instituzionalak ETA kritikatzeko, Ajuria Eneko mahaiaren inguruan biltzen ziren

alderdi politikoek ETaren atentatu bakoitza gaitzesten zuten. Egia da dokumentuan Autonomia Estatutua osatzeko beharraz ere hitz egiten zela, egiteke zeuden transferentzien betetzea eskatuz. Aldaketa benetakoa izan zen, ETA argi eta garbi kritikatu, hilketak gaitzetsi eta biktimak eta haien memoriarako, egiarako, duintasunerako eta justiziarako eskubidea defendatzen zutenen jarrerak nolabaiteko babes instituzionala aurkitu zuten. Erakundeek eta alderdi politikoek ETaren aurkako manifestazioak sustatzen zituzten, baina askotan ez zegoen jakiterik manifestazio horietara joaten zirenek ETA eta haren terrorrea gaitzesteko egiten zuten, edo deialdia egin zuen erakundeari edo alderdi politikoari babesa emateko.

Ajuria Eneko Akordioaren amaierak, funtsean Garaikoetxea eta EA bere alderdia hasieratik deseroso egon zirelako eta, azkenetarako, EAJ eta Arzalluz ere deseroso egon zirelako, niretzat mingarria den beste oroitzapen batera narama: Lizarra/Garaziko Itunaren sinadurara, non alderdi nazionalistak, sindikatu nazionalistak, eremu nazionalistako elkarteak eta erakundeak, HB eta une hartan su-etenean zegoen ETA, ados jarri ziren. Akordio horretan, adostaileak ados jarri ziren Euskadi, euskal gizartea, proiektu nazionalista erradikal komunitik definitzeko eta politikoki gobernatzeko, proiektu horrekin bat ez zetozenak baztertuz. Bakea lortzeko ETARI bere proiektu nazionalista erradikala gauzatzeko baimena eman behar zitzaiola onartzea eskatzen zuen, proiektu hark euskal gizartean gehiengoa alde zuela argudiatuz.

Nire lagun José Luis Lopez de Lacalle Andoaingo bere bulego txikian erail ondoren, Ibarretxe lehendakariari galdetu nion: nola azaltzen da EAJko abertzaleak Eusko Jaurlaritzan agintean egonik hilketa horiek gertatzea?

ETaren terrorismoaren eta haren biktimen egoeraren nire memoria euskal gizartean ezarri zen eztabaidaren inguruan egituratuta dago ordutik: ETArekin amaitzeko ez zen nahikoa borroka poliziala eta judiziala; ETaren eta Estatuaren arteko betiereko berdinketa zela eta, beharrezkoa zen elkarrizketa eta negoziazioari ekitea, terrorrearen historiari amaiera eman ahal

izateko. Biktimak, 1998an COVITE eratu zenean gizartean eta hedabideetan agerian jartzea lortu zutenak, elkarrizketaren eta negoziazioaren arerio bihurtu ziren, eta elkarrizketaren eta negoziazioaren aldekoek iradoki zuten biktimak ETaren terrorezko historia amaitzearen aurka zeudela. Batzuek esan zuten ere Barne Ministerioak, Espainiako gobernuek, gobernu-erantzukizuna beren gain hartzen zuten alderdi politikoek, PSOEk eta PPK, interesa zutela ETak bere terrorearekin jarrai zezan, ondo zetorkielako Espainia osoan botoak irabazteko.

ETA gaitzesteko jarrerak areago jo eta beste zerbait defendatu zuten, ez zela ETaren amaierarik eta inolako bakerik egongo baldin eta ETari bere proiektua gauzatzeko baimena ematearen truke baten. Kontua Zuzenbidezko Estatuaren lehentasuna argudiatzea zen elkarrizketaren eta negoziazioaren printzipio "ideala"ren gainetik, eta argudiatzea kontzientzia-askatasunaren, identitate-askatasunaren eta herritarren eskubideen eta askatasunen bermea den esparru konstituzionalaren printzipioak identitate-politiken gainetik zeudela.

Denbora horrek guztiak balio izan zigun batzuei, niri pertsonalki noski, gero eta serioago ulertzeko zer esan nahi duen demokraziak Zuzenbidezko Estatu gisa, kultura konstituzionalak, talde-identifikazioaren aurrean herritarrek duten balioak, eta hori egin genuen, nik behintzat, ETak eraildako hainbat lagunene oroimenari eta oroitzapenari esker, betiereko isiltasunera kondenatuak izan zirenen ahotsa izan nahian, haien hilketa eragin zuen proiektua euskal gizartearen etorkizun politikoaren oinarri ezin izan zitekeela defendatzeko, terrorismoaren biktimen elkarleen eta fundazioen kemenari eta borrokari esker.

Azkenean, eta Zapaterok PSOEko idazkari nagusi gisa egindako proposamenetik abiatuta, PPK eta PSOEek Askatasunaren aldeko eta Terrorismoaren aurkako Ituna sinatu zuten, eta Espainiako Gobernua eta Estatua, eskura zituzten baliabide guztiekin, ETaren aurka borrokatzen hasi ziren fronte guztietan. ETaren garaitezintasunaren mitoa erori zen —ETA garaiezina zelako ideia, "Francok ere ezin izan baitzion ETari aurre egin"—, eta hura zen erakundeak euskal gizartearen aurrean zuen

sendotasunik handiena; gizartearen galdera aldatu zen, ETArekin amaitu ote zitekeen galdetzetik ETA noiz eta nola amaituko zen galdetzera igaro baitzen, Miguel Ángel Blancoren hilketa zitalak erakutsi zuen kalea ETAre aurka konkista zitekeela, eta beldurra sartu zion gorputzean EAJri ere. ETA jada garaituta zegoen, nahiz eta elkarriketaren eta negoziazioaren diskurtsoak aukera eman zien oraindik ere ekintza terroristetatik etekinen bat lor zezaketela sinesten jarraitzeko.

Zuzenbidezko Estatuak garaitu zuen ETA. Une horietan ere, lehen elkarriketa eta negoziazioa hainbeste predikatu zutenek biktimen elkarte eta fundazioei leporatu zieten, leporatu ziguten, ez ginela nahikoa poztu ETAk terroreari uko egin behar izan ziolako. Baina orduan ere zerbait ona aurkitu zuten ETAn: alde bateko moduan egin zuen! Eta ez ziren kezkatu ETAre amaiera nork eta nola kudeatuko zuen. Eta horregatik, ETAre eta bere terrorezko historiaren aurkako borroka ez da amaitu. Eraildako eta haien memoria eta duintasuna bizirik mantendu dutenen omenez, egia eta justizia eskatzen jarraitu beharra dago.

NIRE AITA

MAITE ARALUCE



Maite Araluce Terrorismoaren Biktimen Elkarteko burua da. 1976ko urriaren 4an, ETAk bere aita, Juan María de Araluce Villar, Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentea, erail zuen José María Elícegui Díaz txoferrarekin eta bere eskoltako hiru poliziekin batera: Alfredo García González, Antonio Palomo Pérez eta Luis Francisco Sanz Flores.

Nola ibiltzen zen gogoratu nahi nuke. Haren ahots-tinbrea. Haren usaina. Hori guztia ahaztu zait. Erretinan iltzatuta daukadana da 1976ko urriaren 4an, 14:15ean, anaia eta biok gure etxean bazkaltzen ari ginela, eta metraileta batzuen zarataren ondorioz, mahaitik altxatu eta leihora hurbildu ginela.

Une hartan, ikusi nuena ikusita, okerreana imajinatu nuen, baina beti geratzen zaizu ebakuntza egin eta salbatuko duten itxaropena. Kalera jaitsi ginen, eta ikusi genuena ezin da hitzez deskribatu. Poliziak balaz josita zeuden, eta autoak txikituta. Autoaren gidaria ospitalera eramana zuten jada. Aita artean barruan etzanda zegoen. Gogoan dut begiratu egin zigula, irribarre egin zigula. Bakea handia ikusten zitzaion aurpegian. Nire anaiek eraman zuten ospitalera, Aldundiko

auto berean. Batek gidatzen zuen, eta besteek eusten zioten ez mugitzeko.

Ama nahiko azkar itzuli zen etxera, eta iltzatuta geratu zaidan zerbait esan zigun. "Aita zeruan dago jada, otoitz egizue beraren alde, otoitz egizue berarekin hil direnen alde, baina eskatuko dizuet hura erail duten pertsonen alde ere otoitz egiteko, haiek baitira behar handiena dutena".

Nire aita, Juan María Araluce Villar, bere ibilgailuaren gidaria, José María Elícegui Díaz, eta harekin batera eskolta gisa zihoazen hiru Poliziak, Alfredo García González, Antonio Palomo Pérez eta Luis Francisco Sanz Flores, odol hotzean hil zituzten ETako hiru terroristek, eta ehun bat jaurtigai tiratu zizkieten.

Atentatuaren ondoren, laster samar itzuli ginen eskolara. Aitaren atentatura arte, 15 urteko neskato baten bizitza normala nuen: urtebetetzeetara joaten nintzen, lagun asko nituen... Baina aitaren hilketaren ondoren, lagun askok niri hitz egiteari utzi zioten. ETak markatzen zintuenean, akabo, inork ezin zuen zurekin hitz egin, etsai publiko nagusia bihurtzen zinen.

Iritsi zitzaizkidan telegrama askoren artean bat gogoratzen dut, honela zioena: "Zerri bat gutxiago lurrean". Gero jakin nuen eskolako neskak izan zirela, ustez nire laguntzat nituenak. Horrelako gauzak ez zitzaizkidan niri bakarrik gertatzen. Eskolan zuzendariak esaten zidan etxera joan aurretik nire ahizpa txikia jaso eta motxila eta berokia begiratzeko, irainezko oharren bat utzi ote zioten jakiteko. 10 urte besterik ez zituen. Uste dut nireen defentsa horri esker lortu nuela hura gainditzea eta indartsuago bihurtzea.

Nire kasuan, aita galtzeaz gain, nire babes handia zena, Donostiatik joan behar izan genuen, gure etxetik. Onartzen dut etapa hori ezabatu egin dudala. Donostiako nire bizitza oharkabean ezabatu izan balitzait bezala da. Gauza asko ez ditut gogoratzen.

Carrantzitsua da hori jakitea. Izan ere, hau hemen gertatu da eta inongo bandotan parte hartzen ez genuenoi gertatu zaigu. Gure aita Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentea, erresumako kontseilaria eta notarioa zen. Oso pertsona ikasia zen, oso atsegingarria, azkarra eta hitzun bikaina. Ez zen inongo gerra edo gatazkaren parte.

Iruditzen zait terrorismoaren biktima bat portzelanazko pitxer bat bezalakoa dela, atentatuaren unean lehertu eta hautsi egiten dena, eta apurka-apurka zati horiek itsasten goazela gauzak gainditzeko grinaz, hurbileko pertsonen laguntzarekin... Berregiten zoaz, zure bizitzari lotzen zatzaizkio, baina edozein gauza gertatzen da, hala nola etakideen askatzeak, hiltzaileei egindako omenaldiak, marjinazioa... Berriro itsasten dituzu zatiak, zure bizitzari lotzen zatzaizkio, baina beti geratzen zaizkizu ertz solteak, beti geratzen da jada ez dagoen zure zati hori. Eta amorruaren, minaren eta, batez ere, ulertezintasunaren sentsazioa geratzen zaizu, ustez biktimak babestu behar gaituzten pertsonak edo erakundeak une askotan terroristen alde daudela dirudielako.

Askok pentsatuko dute zergatik bihurtu naizen Terrorismoaren Biktimen Elkarteko (AVT) presidente 1976ko urriaren 4 hartatik 42 urte igaro ondoren. ETA dagoeneko iraganeko zer bait dela. Urteen joan-etorriak nire mina eta nire aitarentzat, nire familiarentzat... nire familia politikoarentzat eta terrorismoaren biktima guztientzat egia, memoria, duintasuna eta justizia aldarrikatzeko eskubidea lausotuko balitu bezala.

Garai zailak bizi ditugu ETArekin biktimentzat. Garaiotan, itxuraz desagindako erakunde terrorista baten aurrean, terrorismoaren biktimak egunero umiliatzen gaituzte terroristak txalokatu eta defendatzen dituztenek, eta erakundeek traizionatu egiten gaituzte, gu alde batera uztea edo denbora pasatzen uztea erabaki dutelako, edo historia desitxuratzen edo manipulatzeko saiatzeko direlako, erantzukizunak lausotzeko helburu bakarrarekin.

Era berean, garai zailak dira terrorismo jihadistaren biktimentzat, gaur egungo mehatxu nagusia baita, eta, terroristek Europako txoko batean hilgarriki eraso egiten duten bakoitzean, jasandako mina eta sufrimendua berpizten zaie. Baina garai zailak dira, halaber, gure herrialdean jardun duten 20 talde terrorista baino gehiagoren biktimentzat, ahanzturarik handienez bizi behar baitute, haien minaren eta sufrimenduaren erantzuleak inoiz existitu ez balira bezala.

Errealitate horiek, errealitate triste horiek edo, hobeto esanda, errealitate horiekin amaitzeak bultzatu nau urrats hau ematera.

Terrorismoaren amaiera bakarra dakusat, terroristak garaituak eta biktimak eta Espainiako gizartea garaile izatea. Gure aitari bezala, gogoratu ezin dudan ahots hori lapurtu dieten guztiei zor diegu. Baina baita gazte guztiei ere, gertatutakoaren errealitatea ezagutu behar baitute eta errepika dadin eragotzi.

KONTATU NAHI DIZUEDANA

MARI SOL CHAVARRI



Mari Sol Chavarri Machain ETAk 1979ko martxoaren 9an eraildako Miguel Chavarri Isasi sarjentu eta Beasaingo Udaltzaingo buruaren alaba da. Mari Sol Terrorismoaren Biktimen Errioxako Elkarteko presidenteordea da. Biktima hezitzaileen programan parte hartzen du, eta Errioxako institutuetako geletara eramaten du bere testigantza.

Haien begi malkoz hunkituak ikusten ditut. Nire azalpena amaitzen dudanean batzuk hurbiltzen zaizkit. Besarkada bat eman diezazuket? Jakina! Erantzuten diet. Ni entzutean erakutsi duten errespetuak

indarberritu egiten nau. Iristen zaie kontatzen diedana, eta nire bizitzaren zati bat baino ez da. Hori bai, bizitzea egokitu zaidan gogorrena.

Egun on.

Mari Sol Chavarri dut izena, eta terrorismoaren biktima naiz, ETA erakunde terroristak nire aita, Miguel Chavarri Isasi, erail zuelako 1979ko martxoaren 9an. Errioxarra zen, Zihurikoa. Handik emigratu zuen soldadutza amaitu zuenean, bizitza hobe baten bila. Euskal Herrirantz joan zen, eta Beasainen amaitu zuen, Gipuzkoako probintziako udalerri batean. Hainbat lanen ondoren, udaltzain gisa sartu zen udaletxean. Atsegin zuen bere lana, besteeikiko zerbitzua. Prestatu eta mailaz igotzen joan zen, Beasaingo Udaltzaingoaren sarjentu burua izan arte. Gainera, Suhiltzaileen Burua, argiteria publikoaren eta garbiketaz-zerbitzuaren arduraduna zen. Han ezagutu zuen nire ama, gertuko herri batekoa, eta familia bat osatu zuten. Haiek eta hiru seme-alaba. Nik, zaharrena naizen honek, 17 urte nituen orduan, 14 urteko anaia bat eta hiru urteko beste bat.

1979an ETA erakunde terroristak denbora zeraman erailtzen, batez ere guardia zibilak, poliziak, militarrek... Institutuan bagenekien noiz ez zen eskolarik izango. Gauez etakideen eta Guardia Zibilaren arteko liskarrak izan zirela esaten bazuten, adibidez, klasera iritsi, eta batzarra eta bozketa egiten genituen. Jakina, greba eguna zela erabakitzen genuen.

Orduko manifestazioak hiltzaileen aldekoak ziren. Jendea kalera ateratzen zen etakideen aldeko justizia eskatzeko. Bizi ginen kalean manifestariak eta poliziak borrokan aritzen ziren. Batzuetan ezin ginen leihoetara atera, harri batek edo gomazko pilota batek jo ahal zigulako. Baina nik ez nuen inoiz pentsatu aitari zer bait gerta zekiokenik.

1979ko martxoaren 9an aita goizeko 9ak aldera joan zen lanera. Bere kideak antolatu zituen. Bata Correosera joan zen korrespondentzia jasotzera, eta besteak Udal Ikuskaritzaren bulegoetan geratu beharko zukeen. Baina ez zegoen han, eta, gure

ustez, horrek erraztu egin zuen bi mutil aitaren bulegora sartzea, egunkaria irakurtzen ari zela, bederatzi tiroz hiltzea eta gero motor batean alde egitea. Gure ustez, diot, ETAre 300 hilketa baino gehiago argitu gabe daudelako, egilea nor den jakin gabe, eta nire aitarena horietako bat delako. ETAre krimenen herena argitu gabe dago. Gainera, preskribatuta dago, eta, beraz, ezingo lirateke haren hiltzaileak epaitu, egunen batean nor edo nortzuk izan ziren jakinez gero. Amak jakin zuen bere ahizpa batek udaletxean lan egiten zuelako, eta gertatutakoa jakiterakoan, nire etxera joan zelako. Amak auzoko batekin utzi zuen anaia txikia, eta korrika hasi zen aitaren gorpuarekin topo egin arte. Begira nola zeuden gauzak orduan, bere heriotza ziurtatu zuen medikuari mehatxu egin ziotela eta herritik alde egiteko 48 ordu eman zizkiotela.

Nik UBI ikasten nuen Beasaingo institutuan. Goizeko 10ak aldera atea jo zuten: nire lagun bat eta atezaina ziren. Nire gauzak jaso eta ateratzeko esan zidaten, ama gaixotu egin zela eta etxera joan behar nuela anaia txikiarekin geratzeko. Institutuko atean zuzendaria, ikasketaburua eta nire aitaren lankide bat zeuden. Azken honek taxi bati deitu zion, eta etxera lagundu behar zidan. Ez nuen inolako unetan ezer susmatu. Etxerako bidetik gogoratzen dudak gauza bakarra helikopteroen zarata da. Gaur egun ere adi egoten naiz helikoptero bat entzuten dudanean. Eta hori bizi naizen lekuan, Logroñon, urtarilaren 5ean Errege Magoak helikopteroz iristen direla Las Gaunaseko udal futbol zelaira, eta askotan ikusi ditudala, nire anaia txikiarekin, nire seme-alabekin. Etxera iritsi nintzenean, amak negarrez besarkatu eta esan zidan: "Zer egin digute! Zer egin digute!"

Goizetan aita eta biok gosarian, komunean, topo egiten genuen. Musu bat ematen genion elkarri, eta bera lanera joaten zen, eta ni institutura. Egun hartan haserre nengoen berarekin. Ez dut gogoratzen zergatik, baina nik ez nion musu bat eman nahi, eta ihesi joatea lortu nuen. Noski, ez nion musu hori eman egun hartan, ezta inoiz gehiago ere.

Hurrengo egunak eromena izan ziren. Familia iristen hasi zen. Etxea jendez bete zen. Oso oroitzapen garbiak ditut egun

haietaz, baina seguru gauza asko ahaztu zaizkidala. Hileta Beasainen izan zen. Ehorzketa Zihurin, jende askorekin.

Baina iristen da une bat non egun horietan zurekin dauden guztiek beren bizitzetara itzuli behar duten, beren errutinetara, eta guk ere bai. Hortik aurrera bizitzak ez du zerikusirik lehen genuenarekin. Lehen genuena aitari emandako bederatzi bala horiekin kendu ziguten. Sentitzen duzuna mina baino gehiago da, tristura baino gehiago. Zergatik guri? Zergatik nire aita? Gure artean ez genuen hitz egiten. Sentitzen genuenari ezin genion hitzik jarri. Eta bakardadea. Gainera, ondo ikusita zeudenak etakideak ziren, eta haien terrorea jasan genuenok geure burua justifikatu behar genuen. "Zerbait egingo zuen!" Zer? Zer egin du nire aitak nik ez dakidala? Ezer ez. Hori zen jendeak justifikaezinerako zuen justifikazioa. Baina nik noizbait horretaz pentsatu nuen.

Garai hartan ez zegoen laguntzarik. Ez instituzionalik, ez profesionalik. Barruan zenuen zurrunbiloari hitzak nola jarri esango zizun norbait. Eta, esan dizuedan bezala, bakardadea. Hezurretaraino sartzen den sentsazio bat da. Gaur egun ere ezagutzen dut sentsazio hori. Hotza eta bakardadea barru-barruraino.

Amak zazpi hilabete behar izan zituen pentsioa kobratzeko. Eta berriro erotu zen heriotza-agirian, heriotzaren arrazoian, *shock traumatikoa* jartzen zuela ikusi zuenean. *Shock traumatikoa*? Ausart borrokatu zuen, eta orain *suzko armak eragindako shock traumatikoa* jartzen du.

Utzi behar izan genuen udaletxeko pisu batean bizi ginen. Eta Logroñora bizitzera etortzea erabaki genuen. Gure bizitza osoa han utzi genuen. Nire amak, gainera, bere familia osoa. Hari esker atera ginen aurrera. Bere indarrarekin bat eginda eduki gaitu, eta ez digu mendeku grinarik transmititu. Baina aitari buruz ia ez dugu hitz egin. Hainbeste min ematen digu!

Niri kosta egin zitzaidan Logroñora egokitzea, lagun berriak egitea. Gainera, ezinezkoa zen gertatutakoa apur bat ere ahaztea. Lehenik eta behin, horrelako zerbait ez delako inoiz ahazten, eta, gainera, ia egunero izaten zirelako atentatuak. Urte haiei

berunezkoak deritzote, hilketa kopuru handiarengatik eta erabiltzen zuten balen berunagatik. Gurea bezalako familia hondatu horiek nituen gogoan. Zein bakarrik egongo zareten! Oraindik geratzen zaizuen!

Gogorra bihurtzen zara, zeure buruarekin eta besteekin. Ni baino zaharragoa eta, jakina, jakitsuagoa zen lankide batekin izandako elkarriketa baten ondorioz aldatzen hasi nintzen. Ordurako seme-alabak nituen, eta hizketan ari ginen, ea nola emango nien aitonaren heriotzaren berri, zeina ez baitzuten ezagutu, eta nik gertatutakoa kontatuko niela esan nion. Eta berak esan zidan: "baina ezin diezu kontatu hainbeste gorrotorekin!". "Eta nola nahi duzu kontatzea?", esan nion. Hizketaldia hor geratu zen, baina sarritan etortzen zitzaidan gogora. Eta arrazoi zuela konturatu nintzen. Gorrotoak izaera eta bizitza samintzen dizkizu, eta egin zigutenaren ondoren, bizitza osoan gorrotatzen aritzea besterik ez zitzaigun falta.

Urte askoan ez nuen ezer jakin nahi izan terrorismoaren beste biktima batzuei buruz, ezta biktimen elkarteei buruz ere. Denborak aurrera egin ahala, konturatu nintzen ondo datorrela gauza bera bizi izan duen norbaitekin hitz egitea. Eta errazagoa da. Ez duzu zertan azaldu zer eta nola sentitzen zaren, besteak gauza bera jasan baitu.

Terrorismoaren biktimok ez dugu mendekua bilatu, baina bai justizia eta egia. Hiltzaileak bilatu, epaitu, eta zigorrak bete ditzatela. Zergatik izan behar dituzte pribilegioak? Espetxe onurak? Hurbilketa? Gaixo dauden senideak ikusteko irteerak? Gure aita ikustera kanposantura baino ezin gara joan, norbaitek planeatu, antolatu eta exekutatu zuelako.

Orain ETako terrorista asko ateratzen ari dira kartzelatik; izan ere, lortzen dituzten espetxe onurekin zigorren zati bat baino ez dute bete. Beren herrietan heroi gisa hartzen dituzte, omenaldiekin, dantzekin, suziriekin... Imajinatzen duzue uda honetako Bartzelonako eta Cambrilseko hiltzaileei harrera-omenaldiak egingo balizkiete? Pentsaezina, ezta? Ia 40 urte igaro dira, eta oraindik zauria berriro irekitzea da. Beste terrorismo eta delitu batzuetan ez dugu planteatu ere eginen.

ETAk jada ez du hiltzen, baina ez dugu ahaztu behar Espainian gertatutakoa, berriro gerta ez dadin. Gainera, gure historiaren zati bat da, eta nik uste dut lehen eskutik ezagutu behar duzuela, ez diezazueten kontatu; izan ere, beren aldetik estaltzen saiatzen ari dira, berrogeita hamar urte hauetan terrorismorik egon ez balitz bezala egiten.

Terrorrezko urte hauek guztiek ez dute ezertarako balio izan. Haiek independentzia nahi zuten, Espainiatik independizatzeari, eta ez zuten lortu. Terrorismoa, edozein izanda ere, ez da ezer lortzeko bidea. Ez da ezer lortzeko bide bat. Intolerantziak eta fanatismoak ez dute ezertara eramaten, bizitzak eta familiak suntsitzera baino ez. Demokrazian bizi gara, Zuzenbidezko Estatu batekin, hau da, gure legeekin. Bakea, adiskidetasuna eta tolerantzia bilatu behar ditugu.

Beti pentsatu izan dut hori transmititu eta ikastetxeetan kontatu behar zela. Eta orain aukera eman didatela, hemen nago. Baita terrorismoaren biktimak guztiak omentzeko ere, ez ahazteko eta haien oroimenez.


Mila esker.

Hau da kontatu nahi dizuedana. Uneren batean hunkitu egiten naiz. Ura edaten dut eta jarraitzen dut. Egin nahi dudana egiten ari naiz, kosta arren. Eta orain galderak. Maitasunez tratatua sentitzen naiz. Batez ere, nire aitaren hiltzaileari zer esango niokeen jakin nahi dute. Uste dut ez niokeela ezer esango, hala esaten diet. Ez zait interesatzen zergatik egin zuen jakitea. Erantzun bakar batek ere ez dit balio. Eta ezin da epaitua izan, ezin du egindakoagatik ordaindu.

Pozik nago ikasgela bakoitzeko ikasleren batek, etxera joaten denean, nik esandakoa aipatzen badio bere familiari eta gogora ekartzen badie, eta atentatu terrorista bat gertatzen den bakoitzean ohartzen bada indarkeria erabiltzeak ez duela justifikaziorik, pertsona askok jasan dugula gogoratzen badu eta gogoan hartzen bagaitu. Ahalegin guztiak mereziko zuen.

DISTANTZIA. EGUN BAT GUTXIAGO 80KO HAMARKADAKO EUSKADIKO BI GUARDIA ZIBILEN BIZITZAN

JOSÉ ALFONSO ROMERO P. SEGUÍN



José Alfonso Romero P. Seguí, idazle eta poeta, *La hija del txakurra* (2016) liburuaren egilea da. Guardia zibil gisa jardun zuen Gipuzkoako Komandantzian 1979ko martxotik 1983ko amaiera arte. Lerro hauen gainean, Edvard Munchen *Garrasia*.

Distantziak (duintasunetik, justiziatik, eskubideetatik eta askatasunetik urrun) gidatutako garaia izan zen, non herritarrak gugandik urruntzen ziren terroristengandik distantzia mantentzeko, eta gu haiengandik,

terroristak bereizteko. Bitartean, terroristek nahi bezala administratzen
zituzten distantziak.

Heriotzak markatzen dizkizun egunak momifikatu egiten dira, herbarioetako loreei eta bildumazaleen beira-arasetan dauden tximeletei gertatzen zaien bezala. Badakizu ez dituzulako gogoratzen, baizik eta bistaratu eta zurrin eta urrun ikusten dituzulako, zugaron egon beharrean zure ondotik pasako balira bezala, elkarriketa bat, pertsona-talde bat, paisaia bat edo film baten eszena pasatzen den bezala. Zeure izateari uzten diote dagoeneko, hori gertatzen da, eta larritasunaren jabego bihurtzen dira; hark antolatzen du beren memoriaren jarrera eta jantzia.

Egun horietako batean izan zen. Ogasunaren Donostiako ordezkari izan lan egin genuen. Hogeita lau ordu eraikin baten barruan, arimarik gabea itxia zegoenean, eta errukigabea ateak irekitzen zituenean.

Ordu horietan: hitz txarrak, begirada txarragoak, amorrua, errezeloa, mespretxua, hiperzaintza, ezintasuna, zaurgarritasuna, gorrotoa eta distantzia. Sartzen zirenetako edozeinek defentsarik gabe tiro egin ahal zizun, han zeuden guztiek bazekiten hori, baina ez ikusiarena egiten zuten. Horregatik, segurtasuna zorrotzen bazenuen, iraindu egiten zintuzten. Terroristek eta haien akolitoei ahultasun hori ezagutzen zuten, eta gogoan zuten, zu hiltzera jolasten ziren. Zure atzean kokatzen ziren, zu apurtzea bilatzen zuten, zirikatzea, zu agerian uztea. Eta guk elkarrengandik urrunduz erantzuten genuen, bi uniforme eta beste bat kalez jantzita, bananduta, elkarrengandik urrun, deabruzko jaurtialdi baten boloak bezala. Haien jokaldia oztopatzea zen kontua.

Irteterakoan, poltsa eskuan eta, bertan, uniforme eta metraileta, eta, jakina, elkarrengandik urrunduta, urruntze horretan defentsa egokitu ahal izateko ahalegin logikoan. Gerrian, pistola. Begirada presaren arabera. Begiratu eta ibili pentsatu gabe. Eta gehiago ezin zenuenean, begiratzeari eta ibiltzeari utzi, gozokaitz atzeratu, planto egin, beste bat izateko ezina eskatuz. Eromenaren mugakidea zen amorru horren egokitasunean irmo

eustea, zeure alde zerbait egitea eskatzen zizuna, axolagabekeria bidegabe horren erdian zure burua ikusarazteko gai zen zerbait, zure giza egoera, azaldu beharrik gabe, oihukatzeko gai zen keinu bat. Eta beharrezkoa bazen, zergatik ez, gizagabekeriazko keinu bat, baldin eta horrela deitu ahal bazaio pistola atera eta zure zelatan dagoena miatzeari, iraintzen zaituena iraintzeari. Hain ozenki oihukatu, begiak ireki eta begi horiekin zuri begiratu behar izateko. Terroristek hil, estortsionatu, bahitu egiten zuten..., eta, hala ere, gizaki gisa tratatzen zituzten. Funtsean eta forman, zukanako samurtasun keinu bat, amorrak hori eskatzen zizun bakardadezko eta beldurrezko une hartan. Ez ziren gutxi hori egiten zutenak, eta egiten zutenean, zigortu egiten zituzten, beren borondate osasuntsuak horretara bultzatu izan balitu bezala, nahiz eta beren bakardade gaixoa izan. Gainerakooi berriz hastea tokatzen zitzaigun, distantziaren ubera grisa ez galtzeko. Jendearen artean galduta, ez zegoen gure hiltzaile posibleekiko distantziarik, baina bai gure kideekiko, eta horrek segurtasuna ematen zigun. Distantzia mantenduz gero, erasotzaileak urruntzera behartzen genituen, eta, zentzu horretan, ahultzera.

Bazkaldu ondoren, Anjelekin irten nintzen, genituen atsedean ordu apurrez goatzera. Heriz pasealekuko etxetzar zaharraren aharrausitik urrun egin nahi genuen, han bizi baikin, babesgabetasunak dakarren bakardade mingots horretan pilaturik. Musikaz eta gaztetasunez apaindutako itzal txar bat, ahalik eta aukerarik txikienera ihes egiten geniona.

Gogoan dut Novecento pubean sartu ginela. Lokala hutsik zegoen. Argi arrasto batek betetzen zuen atearen eta barraren arteko tarte zabala. Atzean, zerbitzari bat botilak lardaskatzen ari zen. Dire Straitsen *Sultans of Swing*en akorde garbiak entzuten ziren. Distantzia bikaina. Soinez soin zeharkatu genuen, bizitzearen, bizirik sentitzearen inertzia alaian murgilduta. 20 urte genituen.

Zerbitzariak hitzik esan gabe artatu gintuen. Su-etena berez luzatzen zen musikaren hari magikoan eta gure alaitasunaren kemenean. Abestia bukatu zuenean, Gato Pérezen *Pedro Navaja* jarri zuen berehala, zera dioena: "Pero to'os saben que es policía"

("Baina denek dakite polizia dela"). Su-etena hautsia zen, eta, harekin batera, momentuko sorginkeria. Bitxia bada ere, aireak garbi usaina zuen oraindik. Argiak hautsarekin jolasean jarraitzen zuen. Ezer ez zen aldatu, eta, hala ere, ezer ez zen gauza bera. Distantzia nagusitzen zen berriro, zerbitzariak hala jakinarazten zigun, eta guk, urrunduta, zergatia ulertu gabe begiratzen genion. Ez zegoen beste inor; inork ezin zion, beraz, atsegin jokatu izana leporatu. Agian kausan sinesten zuen, agian bere distantzia bakarrik defendatzen ari zen, distantziakidetasuna.

Arratsaldeko zortziak aldera, La Perla diskotekatik irten ginen, azken orduak hantxe eman genituelarik. Kuartelera itzultzen ari ginen. Atzealdean, "zauria"ren ertzean, Alde Zaharraren eta Boulevardaren arteko muga, sirena hotsak, gomazko piloten danbateko lehorrak, "Polizia hiltzailea" zioten oihiak. Errutina. Geure burua krudel eta, beraz, erailak izateko duin agertzeko joko zitalaren beste partida bat.

Taxi bat hartu ahal izan genuen, baina arratsaren epeltasun gozoak ibiltzera gonbidatzen gintuen. Kontxa pasealekutik egin genuen. Tarteko puntu batean, barandan bermatuta zeuden bi gizon itsasoari begira zeuden itxuraz. Haietako batek txapel bat zeraman, gaiztakeria definitzen duen malenkonia latz horrek markatutako aurpegi baten imintzio gogortua itzalez tindatzen zuena. Gu haren paretik igarotzean, lagunari ukondoarekin nola abisatzen zion ikusi nuen, eta, aldi berean, buruarekin keinu bat egin, eta gure atzean kokatu ziren berehala. Berriro distantzia, baina, kasu honetan, zehatza, garondoa bakarrik izan ez gintezen. Ez dakit nola ohartarazi nion Anjeli, bakarrik dakit pausoa bizkortu genuela, soinean ez genuen pistola bat arropapean bilatzen genuen bitartean (eskuak beren jaken poltsikoetan gordetzen zituzten). Gure bat-bateko presari esker, metro batzuk atzean geratu ziren. Berriro distantzia, oraingoan gure alde jokatuz. Hortik aurrera, eta metro askotan zehar, tentsioa izan zen nagusi, eta bakar-bakarrik hautsi zen ibiltariren bat saihestu behar genuen tokian. Gainerakoan, alde batean, hondartza gero eta sakonagoa; bestean, Miramar jauregiko errepidea eta horma. Aukerarik logikoena jauzi egitea zen. Eta behin eta berriz atzera

begiratu eta tinko ibiltzen ikusten genituen, seguru. Eta hondora begiratu eta haitz beltz zorrotzak ikusten genituen... Une horietan burua hutsez betetzen da, bihotza ahotik zintzilik doa eta ahoa hortzez betetzen da, elkarri kosk egiten diotenak, izuak arrastaka daraman intziri sakona itoz. Zer egin harekin? Negar eta garrasi egin genezakeen, borroka hartatik at, itsasertzean joan-etorrian zebilen itsasoaren edertasunean eta Santa Klara uhartea orlatzen zuten kaioen hegada lasaian murgilduta zebiltzan pertsonetako batzuen gorputzari lotu. Egin genezakeen, baina haiek defendatzeko geunden han. Gainera, bagenekien ez zuela ezertarako balio, ez zegoela errukirik, hala ematen zuten aditzera eraildakoek, beren borrokoen gaiztakeria gehiegizkoa zen bezainbat hilak. Oinak besterik ez genituen, eta eskua gerriari lotuta jarraitzeko trikimailua, armatuta geundela pentsa zezaten. Hori eta distantzia, ezinbestekoa zen hari eustea. Ondarretako tuneletik metro gutxira korrika hasi ginen. Haiek ere bai. Anjelek barrualdetik egin zuen eta nik kanpoaldetik, hondartzarekin obsesionatuta nenbilen. Tunelaren amaieran berriro topo egin genuen. Arnasestuka, kalea gurutzatu genuen Zumalakarregi etorbiderantz. Izkinara iristean, atzera begiratu, eta jada ez zeuden. Atzean eta urrunean tunelaren aho beltza zegoen, zeruaren eta itsasoaren artean inozentzia gisa isuria.

Komandantzian ETako kideen argazkiak erakutsi zizkiguten, eta biok ezagutu genuen txapelarena. Zabarte zen. "Zortea izan duzue", esan zigun informazioa eman zigun kideak. "Pistola eramane behar da", aurpegiratu zigun. Distantzia, pentsatu nuen.

Ezzen horrenbesteko zortea izan, ez ginen minutu beldurgarri haietatik onik atera, gezurra da, urratu batekin atera ginen, eta beste askori gehituta, gure osotasun psikikoa hautsi arte pitzatu gintuzten.

Kontakizun honetan, ETak eta bere inguruneak jazarrita bizi izan ziren milaka gizonen egunerokotasunaren lekukotza eman nahi dut (gainerako herritar eta erakundeen begirada arreata gabearen pean bizi izan zirenak), eta ondorio sakon horrek markatuta eta beren biktima izaera legitimotik urrunduta bizi dira, eta bizi izan dira.

ESTATUARI GERRA! BESTE EUSKAL AUTONOMIA

ANTONIO RIVERA



Antonio Rivera Historia Garaikideko katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean. *Transterrados: dejar Euskadi por el terrorismo* (2022) edo *Las narrativas del terrorismo: cómo contamos, cómo transmitimos, cómo entendemos* (2020) liburuak koeditatu ditu. Bere argitalpenen artean, nabarmentzekoak dira duela gutxi, 2018an, koordinatu zituen hiru liburuki kolektibo: *Verdaderos creyentes: pensamiento sectario, radicalización y violencia*; *Naturaleza muerta: usos del pasado en Euskadi después del terrorismo* eta *¿Qué saben de su historia nuestros jóvenes? Sistema educativo e identidad nacional*. Irudian, Polizia manifestazio bat desagitzen ari da 1976ko martxoaren 3ko sarraskiaren lehen urteurrenean (Gasteiz).

Suntsipenerako grina sormenerako grina ere bada
MIJAIL BAKUNIN

Mende erdiko indarkeria politikoak Euskal Herrian egindako ibilbideak bere bi antagonista nagusien arteko proiektuen eta

legitimitateen arteko konfrontazioaren argazkia eskaini du: indar politiko eta sozial gehienak ohiko demokrazia baten instituzionalizazioan tematuta, eta ETAre inguruan egituratutako gutxiengoa eredu iraultzaile alternatibo baten alde, helburua Euskal Estatu batean jarrita, Espainiaren independentea eta izaera sozialista generikoa duena. Bi lehiakide horiek 2011ko argazki *finish*era iritsi ziren, taldeak bere ibilbide terroristari uko egin eta bere mundua dagoenera egokitzen saiatu zenean. Baina bidean gutxietsi ezin diren bigarren mailako beste pertsonaia batzuk ere izan ziren.

Horietako bat autonomiak eta anarkismoak osatzen zuten mundu etereoa izan zen. Haietatik, haien erreferentziarik bortitzena geratu da, Komando Autonomo Antikapitalistak (KAA) protagonistatzat izan zituena. Hamar urte eskasetan hogeita zortzi hildako pilatu zituzten, Italiako Brigada Gorrien erdia, baina GALEk edo eskuin muturreko beste talde terroristek (BVE, Triple A, GAE eta beste batzuk) eragindakoaren batura baino gehiago. Era berean, KAAen hamabi kide hilik gertatu ziren edo erail egin zituzten, eta bat desagertu egin zen. Gutxienez lau enpresaburu bahitu zituzten, eta haien erreskateetatik 1,2 milioi euro lortu zituzten. Kopuru horri lapurretengatik eta beste estortsio batzuegatik lortutako kopurua gehitu behar zaio. Haien oroitzapena eklipsatuta geratu da ETak izandako dimentsio eta jarraipen handiagoagatik, baina bere garrantzia izan zuten (eta ez ziren izan, prentsak zioen bezala, "ETaren komando autonomoak"). Era berean, haien indarkeriazko aktibismoak ez du desitxuratu behar haien sostengu eta ingurune izan zen gizarte-mugimenduaren alderdi nabarmena. Izeberg deigarri eta dramatikoaren punta besterik ez ziren.

Euskal Herrian, hirurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren bosturtekoaren eta XX. mendeko 80ko hamarkadaren lehenengoaren artean, kultura politiko autonomista horren eraketa apur bat zalantzazkoa da. Ez horri buruz hainbeste idatzi ez delako, baizik eta, funtsean, mugimendu gisa, zehaztasun gehiegi ere ez zutelako aldarrikatu: gehiago izan ziren ekintzazkoak pentsamenduzkoak baino. Jatorri multzo berezi batetik atera

ziren —LAIA (ez) eta ETaren Langile Fronteko, Langile Batzardeetako eta Langile Komisio Antikapitalistetako, OCA-EKAko (Klase Antikapitalistako Erakundea) pertsonak, edo tokiko auzo-batzarretan edo antierrepresiboetan esperientzia zuen jendea—, eta, Erakunde armatuaren kasuan, ETaren adar politiko-militarretik irtendako kide batzuk gehitzen zituzten, *berezi* deiturikoak (KAAei arazo adina esperientzia operatibo eman zietenak: haren gaitasunaren noraeza militarista mimetikoa). Ideologia garai hartako Europako nahasketa tipiko bat zen Ezker Berriko sektore horretan: langile- (eta -ikasle) jatorria zuen autonomismo bat, konfrontazioetan zailduta zegoena, hala “sistema” deiturikoarekin nola alderdi komunistek beren ezker nazionaletan zuten nagusitasunarekin, arazo handirik gabe kosmobisio libertarioak eta esperientzia kontseilistak (leninistak edo ez) batzen zituenak, eta bat egin zutenak aurkariaren (Estatu kapitalista eta bere praktika errepresiboak) sendotasunak beren arteko ezberdintasunak desegin bitartean.

Euskadin Trantsizioaren eta demokraziaren lehen urteetan mendebaldeko Europaren antzeko eredu instituzional bat finkatzearen aurkako jarrera erradikala izan zen Autonomismo horren benetako izaera ideologikoa. Italiar autonomoengandik zetorren sistemarekiko gorroto bera, edo frankismo berantiarreko lan-borroketan (eta bestelakoetan) ideologikoki baino gehiago intuitiboki elikatu zena, bi horiek ziren orduan Euskal Herrian hedatzen zirenak. Hemen aurrera egin bazuen, ETaren mundua protagonista gisa zuen demokraziaren aurkako olatura igo zelako izan zen. Zentzu horretan, lehia erradikal eta bortitz haren beste elementu bat izan zen, eta korronte horren indar eta sostengu sozialetik bizi izan zen, nahiz eta bere izaera desberdinek talka egitera eraman.

Funtsean, arrazoi batengatik gertatu zen hori: ETaren munduak demokrazia liberal eta kapitalista baten ezarpenari aurre egiten zion, Espainiako Estatu deszentralizatu baten agertoki instituzionalean kokatua. Espainiari aurre egiten zion —taldea nazionalista izatearen benetako arrazoia—, herriaren demokratizazioak zekarren modernizazio politikoaren proiektuari

aurre egiten zion, Euskadi Estatu horren parte izateko aukerari aurre egiten zion eta sistema politiko eta ekonomiko kapitalista eta hierarkiko baten adierazpen sozial kaltegarrienei aurre egiten zien. Horren truke, bere azken proiektu politikoa, ezker abertzalearena, ez zen inoiz gehiegi definitu: sozialdemokrazia kooperatibista batetik (ESB alderdiak defendatzen zuen moduan) estatismo komunista batera joan zitekeen, nazioarteko gertakarien nondik norakoek berehala zalantzan jarri zutena (HASIren bertsioa). Banako eta talde antisistemen nahasketa bat ere izan zezakeen, jatorri libertarioa zein leninista zutenak, baina sektore hori gutxiengoa izan zen beti.

Aurrean, autonomoen munduan, aurreko guztia arbuigarria zen. Ez helburuen zati bategatik, zeinekin bat etor baitzitezkeen —autonomo asko nazionalistak, antiespainolistak, abertzaleak eta berdinzaleak ere izan ziren modu zehaztugabea—, baizik eta estrategiengatik eta aurkariarengatik. Autonomoentzat konfrontazioaren terminoak negoziatzeko edo arrazionalizatzeko edozein saiakera —une jakin batean ETAren munduak KAS Alternatibarekin proposatu zuena— akats bat zen. "Etapismoa" deiturikoak errealitatea eta indar-korrelazioa beharrik gabe onartzeasuposatzen zuten. ETAren mundua askoz ere "politiko" agoa zen haiek baino. Euren "ezinegon iraultzailea" ren ondorioz, autonomoek anarkismoaren diagnostiko eta estrategia tradizionala (eta, agian, haren akats historikoa) errepikatu zuten: ez dago dagoenarekin hitz egin beharrik; horri aurre egitea besterik ez dago. Hil arteko borroka horretan, ezker abertzalearen estrategiari uko egiteaz gain, gauza bera egiten zuten azken honek Estatu batekiko zuen nahiarekin, zeina oso independentea, euskalduna, sozialista eta euskalduna izanik ere, besteen berdina baitzen, bere indarkeria-mekanismoekin eta gizartearen homogeneizazioarekin. Arbuioa, ikusten denez, aldi berean estrategikoa eta finalista zen. Autonomoak Estatu espainiarraren etsaiak ziren, ETAkoak eta bere mundukoak ere baziren bezala, baina azken hauek gainditu nahi zituzten, trabatuta ikusten baitzituzten irakurketa tradizional ezkertiar batean, bere burua herriaren eta honen ustezko ideal iraultzailearen abangoardiatzat zeukana, eta bere azken

itxaropenak ordena estatal batean jarrita zituena, dena (eta denak) babestu, antolatu eta lerrokatuko (eta alienatuko) zituena. Autonomoek "herriari lagundu" eta matxinada eragitea besterik ez zuten nahi.

Halako desberdintasunek, hala ere, ez zuten bi mundu horien arteko liskarrik sortu. Autonomiarenak ere errespetu handia zion etakideen mendekatze militanteari, eta haien mendeko moral eta politikoa ere bazen. Partekatzen zuten indarkeriaren eta aktibismoaren mistikak haiekin eta haien adar zibilarekin eztabaidatzea eragozten zien. Oposizio antiinstituzional, erradikal eta bortitzaren eremuan zuten hegemonismoaz, praktika autoritario eta uniformizatzailerekin eta beren boterearen aplikazioaz susmo txarra hartzen zuten; urte askoan zehar klasikoegia eta landatarregia zen euskaltzaletasunaren estereotipoaz ere bai (gaztetasun autonomoaren kultura eta haren adierazpenak xurgatzen hasi ziren arte). Seguru denek ez ziotela HBri botorik ematen, eta nahiago zutela abstentzionista militante gisa agertzen jarraitu, baina ez zituzten zalantzan jartzen ez ETaren ez honen ingurune politikoaren ekintzak.

ETak eta ezker abertzaleak mundu horren akratismoa jasan zezaketen, batez ere jai- eta gazte-ospakizunetan azaleratzen zenean. Deseroso senti zitezkeen haien forma eta errebindikazio gehiegikeriengatik, baina bazekiten beren ingurunearen parte zirela. Gizarte eta gazte mugimendu ezberdinen banpirizazioa edo Euskal Rock Erradikalarekin gertatutakoa horren adibide onak dira. Autonomoak gutxiengoa ziren, hiperaktiboak izan arren, eta denbora kontua zen denak, banan-banan, beren aldera erortzea; anaia txikiak ere zaharragoak egiten dira. Baina KAAen ekintza armatu batzuk, HBren profil politiko, integratua eta nolabait errespetagarria zalantzan jartzen zutenak, ezin ziren onartu. Enrique Casasena bezalako hilketek —edo ondoren Portugaleteko Herriko Etxearen aurkako koktelek, bi biktima eragin zituztenak—, kanpotik ETarekin lotzen ziren heinean, ezker abertzalearen irudia zikintzen zuten. Garai hartan, mundu horren boterearen pisua haien gain erori zen: desegokitzen jo zituzten, eta, ondoren, jakitun izanda ala ez, etsaiaren politiken konplizetza, izan etsai

horiek orduko gobernu sozialista edo GAL bezalako taldeen estrategia ilunak. Floren Aoizi ahotan hilarri estiloko hitz basatiak gogoratzen dizkiogu. “Zerbaitegatik izango da”ren herrialdean susmoaren itzala hilgarria zen, baita ingurukoentzat ere. Gero, Estatuaren boterearen pisurik sendoena haien gainean erori zenean —lau autonomoren hilketa Pasaia badian, haiek “fusilamendu” gisa salatu zutena—, ezker abertzaleak bakarrik utzi zituen behin betiko, eta zalantzan jarri zuen legez kanpoko kontraterrorismoan parte hartu izanaren froga garbiketa bat ez ote zen. Haien heriotza politikoaren epaia izan zen.

Hori 1984ko martxoan gertatu zen, eta KAAen amaiera izan zen. Hiru urte geroago, “Mendeku” deiturikoek Portugaleteko Herriko Etxearen aurka egindako atentatu narrasak (koktelekin) —benetan zuten zerikusirik autonomoekin ala “garai laidogarri bateko neska-mutikoak” ziren?— epitafio goibel eta zentzugabea ezarri zuen autonomismoaren mundutik urte horietan “gerrara jokatu” zutenentzat. Ondoren, jada laurogeita hamarrek hamarkadan, kale borrokak gazte aktibismo erradikalizatu eta antisistema baten *enragé* adierazpena izateari utzi zion, eta, Txelisen iradokizunez, ETAren presio estrategiaren osagarri bihurtu zen, haren zuzendaritza Bidarten erori ondoren (1992).

LANGILEEN AUTONOMIA ETA JAIEGUNETAKO SUBERTSIOA

Baina lurralde autonomo kultural oso aktibo eta emankor batek urte luzez iraun zuen. Agian bi garai bereizi beharko lirateke mundu horretan (hiru, Komando Autonomoen bitarte bortitza batuz gero). Lehenengoa, frankismo berantiarrean hasten dena, bereziki obrerista da (eta herrikoa ere bai). Aldarrikapen soziolaboraleko esperientziak, diktadurak Burgosko Prozesutik *crescendo* errepresiboko garaietan eta hirurogeiko hamarkadako langileen grebetan uzten zituen esparru estuetan, demokrazia zuzenekoak, batzar bidezkoak eta buruzagi politiko gutxiengoak finkatzeko zailtasunekoak ziren. Langileak antolatze modu

horiek ez zuten aurrera egin hainbeste borondateari esker, baizik eta posible ziren bakarrak zirelako. Desarrollismoaren proletariotzaren zati bat langileen demokrazia zuzenean hezi zen, beste aukerarik ezean. Egoera horretan, batzuek beren eskola eta estrategia bihurtu zuten prozedura hori. Espainian eta Euskadin langileen autonomismoa ez zen, Italian bezala, PCaren hegemonismoari aurre egiteko modu bat: behartutako aukera bat zen, aukera bakarra. Langile komisioek ere (letra xehez) bide hori egin zuten, eta hortik mundu horretarako jendea ere atera zen: ETaren Langile Frontea, JOCEko (edo Herri Gaztediko) kristau batzuk, Langile Batzordeak, gero OICEko kontseilari leninistak, OCAko autonomistak edo Liberación edo Askatasunetik etorri eta CNTn amaitu zutenak (edo ez). Gutxi ikertutako gaia da, baina, frankismo berantiarreko artxiboei buruz dakigunaren arabera, langile-autonomiakoen presentzia aktibista aurreikusitakoa baino handiagoa da (adibidez, Puig Antichen exekuzioaren inguruko panfletoak, Plataforma Antikapitalista gisa sinatutako materiala edo antzeko erreferentziak, "klase-indarkeria"zko defentsa ekintzak burutzeko gonbidapenak eginez).

1976ko martxoaren 3an Gasteizen modu dramatikoan amaitu zen greba-prozesua (poliziak hildako bost langile) haien erreferentzia nagusia izan zen, zalantzarik gabe: lider nagusietako batzuk, Jesús Fernández Naves edo Imanol Olabarria kasu, langile-autonomiaren korronte horretakoak ziren; beste bat, Tomás Etxabe, haren bertsio leninistakoa zen, OICkoa. Hasieran, erabat asanblearioak zen diskurtso eta praktikari eutsi zioten, 1977ko udaberrian legeztatu berri ziren sindikatuei aurre eginez, eta berehala urtebete geroago egindako lehen hauteskunde sindikal librean iritsi ziren. Lan-gatazkari aurre egiteko moduak eta langileen ordezkaritzak eta erabakiek talka egiten zuten. Apurka-apurka, Mevosa (Gasteiz) bezalako fabriketan unean uneko borroka batzuk egin arren, sindikatuen makineriak eta une horretako afiliazio handiek gainditu zituzten. Laurogeiko hamarkadaren erdian historia ziren. Zentzu horretan, KAAen aktibismo armatuak zerikusi gutxi izan zuen behera egin zuen langile mugimendu horrekin. Zenbait bonba jarri zituzten sindikatuen egoitzen aurka

(CC.OO., UGT, ELA-STV edo Sindikatu Unitarioa, besteak beste, patronalez gain), eta presio-ekintzak egin zituzten gatazkan zeuden enpresetan. Baina, bitxia bada ere, 80ko hamarkadako Michelin-Vitoriarenean nahastu ziren gehien, eta sindikatu batekin, hemengo tradizio autonomista horrekin zerikusi gutxi zuen CNTrekin.

Fase horren ondotik terrorista etorri zen, eta, horren ondotik, dimentsio kulturalista eta bizipenezkoa. Azken honek berebiziko garrantzia izan zuen Gasteizen, Iruñean, Azkoitian edo Errenterian, hau da, autonomoen jardueraren azken urteekin edo desagertzearekin batera. Mugimendu kulturala mota guztietako sektoreetara iritsi zen (literarioa eta grafikoa, bere fanzine garratzekin, edo musikala, bere talde ezagunekin), eta inguruko giro erradikalaren eta gutxiengo autonomistaren berariazko jardueraren euskarri izan zen. Illo horretan, berdin babestu zuten armatuen aktibismoa eta denbora eta espazio "liberatuen" aldeko borroka, erakundeen normalizazio-asmoaren aurrean. Besteak beste, honako hauek dira jarduera sukartsu hura azaltzen duten arrazoietakoz batzuk: gatzetasuna —hain gazteak, hainbeste eta hain aktiboak ginen—, aurrera egingo zuen proiektu politikoaren inguruko zalantza, orduko amets iraultzailea, zerbait egiteko irrika, erakunde berrien jardute falta, bereganatu gabeko leku asko uzten zuena ekimen autonomoaren esku...

Kontua ez da gazte haietako gehienak zinez autonomistak edo akrratak zirela. Langileen esparruan gertatutakoa errepikatzen zen: agertokia eta baldintzatzaileak izan ziren prozedura oinarritzkoak, autogestionatuak, horizontalak aukeratzera eramaten zituztenak. Harreman horretan, batzuek teoria lantzen zuten, eta antolamendu-soiltasun hori eta arauarekiko urruntze hori ezartzen zituzten, sustatu beharreko erreferente gisa. Hori zen autonomia, errealtate demokratiko berrian pixkanaka-pixkanaka finkatzen ari ziren botereen ordezkio mikrokosmos bat artikulatzeko aukera. Euskal *mugidak* bat egin zuen denboran beste leku batzuetakoarekin (Madril, Galizia), eta antzeko testuinguruetatik (politikarekiko gogaitasuna, taldera eta *ni*-ra itzultzea, prozesuaren defentsa emaitzaren gainetik...) elikatu zen. Hala ere, bizi zuen leku eta denbora gatazkatsuagatik, hemengoa beste edozein tokikoa baino *politikoagoa*

eta aldarrikatzaileagoa izan zen. Onura politiko horren zati bat, handiena, ezker abertzalearentzat eta ETaren terrorismoaren zeharkako legitimazioarentzat izan zen; egunez eguneko gogoberotasuna autonomismo hain libertario hartaz gozatzen genuenontzat zegoen gordeta. Azkenean, botere politikoaren gogortasuna ere nagusitu zen, eta ETaren mundu horrek iraun zuen denboran; bestetik, hemen deskribatzen direnak bezalako oroitzapenak eta esperientziak baino ez dira geratzen.

Nolanahi ere, aktibismoaren *melange* hartan, epikaren eta nolabaiteko transzendentziaren bilaketan, aldaketa sakoneko nahietan, gazteen adanismoan, iraganaren eta adinekoen gaitzespenean, erakundeekiko gorrotoan eta beste mundu (hobe) bat posible zelako uste osoan, indarkeria muturrekoenaren eta egunerokoagoaren justifikazioa finkatu egin zen. Aldez edo moldez ez genuen ezer esan. Hark ez zuen zerikusirik gurekin, eta inor baino okerragoa zen hura pairatzen zuen etsaia: orduan ikusi nahi izan ez genituen biktimak (poliziak, militarrek, eskuineko politikariak, salariariak, drogazaleak, enpresariak edo handik pasatu behar ez zuen jendea). Ondoren, indarkeria ulertezinagoak gertatzen hasi ziren, edo hurbilagoak edo bereizi gabeagoak zirelako. Batzuk ez ziren bere tokitik mugitu, eta biografia txukun, estetiko baten aldeko apustua egin zuten, inguruaren aldaketetatik eta nolabaiteko gizarte-erabilgarritasunaren eskakizunetatik hain urrun zegoena, nahiz eta bere aktibismo hiperkritikoarekin jarraitu. Beste batzuk, berriz, nihilismoa zalantzan jartzen hasi, eta baloratzen hasi ginen ez ote ziren hura eta haren indarkeria-adierazpenak borrokatzen ari ziren aurkariarenak baino askoz bidegabeagoak. Indarkeriaren eta honen ondorioen aurkako erreakzioak benetan existitzen den munduarekiko konpromisora eraman gintuen asko eta asko, eta, harekin batera, demokraziarekiko konpromisora, tresna eta helburu gisa, berezko balio gisa. Igarobide zaila izan zen, eta benetako fededunaren sinesmen haien eta herritar konprometitu bezain sinesgabeen gaur egungo sinesmenen arteko distantzia egunero aintza hartzera eramaten gaitu. Izan ere, liburu hark zioen bezala, "erraza da begiak itxita bizitzea". Baina, eta nahiago baduzu errealitate bakarrari begira bizi?

LORE XUMEAK

JOSÉ MARÍA SILVETI



José María Silveti Getarian jaio zen 1943an. Gipuzkoako UCDko zinegotzia eta batzarkidea izan zen, Getariako Elkano Arrantzaleen Kofradiako presidentea eta Gipuzkoako Baxurako Arrantzaleen Kofradien Federazioko presidentea. Hainbat mehatxu terrorista izan zituen, horietako bitan bera hiltzen saiatu ziren. Testu hau argitaratu gabeko bere oroitzapenen zati bat da: *De pescador a político*.

Franco hil aurretik lagun talde batekin bilerak egiten pasatzen nuen bizitza, aldaketa iritsi behar zela ikusten baikenuen, eta are gehiago Carrero Blancoren hilketaren ondoren, baina noiz izango zen jakin gabe. Gu demokraziarako prestatzen ari ginen jada. Handik bi urtera, ETAk Vivó jauna erail zuen, Olaberriko alkate

eta diputatu probintziala. Kolpe latza izan zen gure itxaropenentzat. Hala ere, bilerekin jarraitu genuen. Jasan behar izan genuen kolpe handiena Gipuzkoako Foru Aldundiko lehendakariaren, Araluce jaunaren, hilketa izan zen. Gertaera horren ondorioz, egoera baretu arte gure bilerak uztea ere pentsatu genuen, talde erradikalen jomugan baikeunden.

Nire bizitza arrantzaren eta politikaren artean zihoan aurrera. Elkartea gastronomiko baten bazkide fundatzailea nintzen Getarian, 110 bazkidek osatua. Elkartean ikurrina altxatu behar zela esaten hasi ziren, baina estatutuek ez zuten horretarako atalik aurreikusten. Atala sartzea adosteko, ezohiko batzarrerako deialdia egin zen. Nik esaten nien ikurrina altxatuz gero, Espainiako bandera ere altxatu behar zela, baina inork ez ninduen babestu, nahiz eta ni bezala pentsatzen zuten eta bertan zeuden bazkide batzuk isilik geratu.

Batzuek nire jokabidea kritikatu zuten, baina euskal nazionalista askok bai aitortu zidatela nire ideiekin leial jarraitzen nuela. Nik haiek adina edo gehiago defendatzen nuen nire herria, Getaria, eta haiek bezala hitz egiten nuen euskaraz. Eredu politikoan eragin handia izan zuen nire jardunak ni bezala pentsatzen zutenengan, denek baitzekiten zer egiten zien ETAk ni bezala pentsatzen zutenei. HBren sektoretik hurbil zeuden pertsonengan ezinikusi asko piztu nituen, eta batek baino gehiagok esaten zidan "faxista" edo "salataria".

Behin baino gehiagotan atera behar izan nien aurpegia nire herriko batzuei Guardia Zibilaren aurrean, atxilotuta zeramatzatenean. Ama batzuk etortzen zirenean, ezin nien ezetzik esan. Familiak esaten zidan kontuz ibiltzeko, baina lasai nengoela erantzuten nien, inoiz ez bainion inori kalterik egin. Nik banituen nire ideiak eta haiek bereak, eta errespetatu egin behar baziren ere, haiek ez zituzten nireak errespetatzen. 1978ko azarotik aurrera, bolo-bolo zebilen UCD Gipuzkoan aurkeztuko zela. Lagun gintzakeen jendearen bila hasi nintzen. Askok baietz esaten zidaten, baina "ezin dut, badakizulako zer gertatzen den" (ETAKoengatik eta haien akolitoengatik esaten zuten).

1979ko urriaren 21ean, igandea, Oriotik eta Hondarribitik deitu zidaten, eta Arrantzaleen Kofradien Federazioaren hurrengo bilera Donostian bertan egitea proposatu zidaten, Getarian egin beharrean. Bilera hamarretarako zegoen deituta. Hamabiak aldera telefonoz deitu zuten Getariako Kofradiatik, esanez bost kaputxadun armatu agertu zirela hara. Langile guztiei NANA kendu zieten, eta esan zieten niri jakinarazteko 24 ordu ematen zizkidatela arrantza-sektorearen arazoa konpontzeko. Burua hutsik gelditu ginen denak.

Jaime Mayor Orejak auto bat bidali zidan, nire etxera eraman nintzan Getariara, non herria nahigabetuta baitzegoen, baina HBko jarraitzaile batzuek ospatu egin zuten, eta nire anaia batek ere zera esan omen zien bere lagunei, "bere bila etorri badira, zerbait egingo zuen". Ni UCDekoa izan beharrean beste edozein alderditakoa izan banintz, egun horretan bertan manifestazio bat egingo zen, baina Getarian ez zen ezer egin, eta ontziak arrantzara joan ziren. Inoiz ez nuen pentsatu ezer txarrik gertatuko zitzaidanik.

Albistea berehala zabaldu zen, eta laster hasi zitzaizkidan egunkari eta irratietatik deitzen. Denak artatzen nituen, baina ez nuen hitz egiteko gogorik. Getariako herria zatituta zegoen. Pertsona batzuek, ni ezagututa ere, egiak ez ziren gauzak leporatu zizkidaten. Baina ni ohituta nengoen maltzurkeria horiek entzutera.

Hilaren lauan telefono dei bat jaso nuen, ni zaintzen ari zirela esanez; izan ere, "haiek" ez zuten ahazten arrantzarena konpondu ezean itsas hondoan amaituko nuela hitz eman izana. Harrezkero, telefono dei bat nuen bakoitzean, beste aldekoa nor zen ez nekienean, urduri jartzen nintzen. Gauza asko pasatzen zitzaizkidan burutik, eta horietako bat zen deitzen zuenetakoren batek Getariakoa izan behar zuela. Nik oso urduri jarraitzen nuen. Kontua da bi edo hiru egunean behin ETAk norbait hiltzen zuela, eta nik banekiela haien zerrendetan nengoela.

1980ko abuztuaren 20an itsasontzi bat etorri zen Donostiatik hegaluzea saltzera. Ni belauniko nengoen, arraina miatzen, eta mutil gazte bat atzetik hurbildu eta esan zidan: "pena zu ez

harrapatzea zu hiltzera etorri zirenean". Eztabaidak gora egin zuen, harik eta bihotzeko baten zantzuak sumatu nituen arte. Noizean behin jasotzen nituen telefono bidezko dei mehatxagarriez gain, horixe entzutea besterik ez zitzaidan falta. Tentsio arteriala lehertzeaz neukan.

Egun batzuk igaro ondoren, irailaren hasieran, UCDren exekutiban Eusko Legebiltzarrerako zerrendak osatzea erabaki zen, Jaime Mayor Oreja, Juan de Dios Doval, Jaime Arrese eta laurok buru ginela. Madrilera joan behar nuela erabaki zuten, ni sendatzeko eta burua argitzeko, ez bainuen lorik egiten, eta nire buruan pertsekuzio-maniak baino ez zeuden, denak nire atzetik zihoazela pentsatzen bainuen etengabe, ni hiltzeko. Hala, denborarekin, lasaitu egin nintzen.

1980ko iraileko azken egunetan Madrilen nengoen, eta nire herrira joateko asmoa nuen, Getariara. Joaquín Argote jaunak, Gipuzkoako gobernadore zibilak, Rosón Barne ministroaren eskutik informazioa jaso ostean, nabarmendu zidan ez joateko, ETAren hilketak espero baitzituzten eta ni haren jomugan bainengoen. Konbentzitu ninduen eta geratu egin nintzen. Handik egun gutxira nire lagun Jaime Arrese erail zuten. Inori ezer esan gabe joan nintzen haren hiletara. Hurrengo egunean Madrilera itzuli nintzen, eta Regina hotelean exekutibako lagun batekin hizketan nengoela, Juan de Dios Dovalen hilketaren berri izan genuen. Hura entzutean, konortea galdu nuen. Jaime Mayor Orejari deitu, eta esan nion astebete baino gutxiagoan bi lagun hil zizkigutela. Madrilen geratu behar izan nuen. Egun haiek oso txarrak izan ziren niretzat, nire familiako inor ez zegoen nirekin, ez nuen jendea ezagutzen eta ezin nuen inorekin hitz egin, eta abar.

Aurrera atera nintzen Oreja jaunaren, bere kabineteburu Ricardo Martí Fluxá jaunaren, honen emazte Pilarren (ezagutu ninduenetik, nireez galdetzen zidan beti) eta Martín Villa Lurralde Administrazioako ministroaren laguntza handiari esker.

1982ko urtarrileko lehen egunetan nire amaren gaixotasuna areagotu egin zen, eta otsailaren 1ean hil zen. Edonondik begiratuta ere, sakrifizio handiko bizi izan zuen. Oreja senar-emazteak,

Chus Viana, euskal UCDko buruzagitza nagusia haren hiletetan izan ziren. Getariako eliza jendez lepo zegoen. Lore-koroak iritsi ziren alde guztietatik. Hileta-elizkizunaren buru Jaime Mayor Oreja izan zen, familiaren laguna.

Koroek Espainiako banderaren koloreak zeramatzatenez, ezker abertzaleko sektore batek ezin izan zuen jasan. Handik lau egunera, nire ideiekin politikoki bat egiten ez duen andre batek esan zidan pena eta amorrua zuela koroak kanposantuan erreta ikusteagatik. Eskerrak eman nizkion emandako informazioagatik. Hilerrira joan, eta, egiatan, denak erreta zeuden. Bekaizkeriak eta gaiztakeriak hondamena eragiten dute pertsona hil ostean ere. Egindakoak ez du barkamenik. Lurperatzaileari esan nion nire amaren hilobian lore xume batzuk jartzea nahi nuela.

Nahi nuke jendea konturatzea zer sufriarazi diguten hiltzaile horiek, zeinei ez zaien ezer axola izan. Nire Euskal Herri maitean ekintzaileak eta ongia egiten zutenak torturatu eta hil egiten zituzten inolako eskrupulurik gabe. Ni, nahiz eta niretzat garbiak eta positiboak diren ideia batzuk izan, baztertu eta umiliatu egin naute espainolista eta euskalduna (haiek bezainbeste edo gehiago) izateagatik. Baina Jainkoari eskerrak bizirik ateratzeko zortea izan nuen, eta aurrera jarraitzen dut, ez zoritxarrez utzi gintuzten beste lagun batzuek bezala. Jainkoak eduki ditzala guztiak Bere ondoan. Eta berriro diot: euskalduna eta espainiarra naiz eta izango naiz Jainkoak mundu honetatik eraman arte.

Euskal eta espainiar gazteriak elkar errespetatzea nahi dut eta irrikatzen dut. Pertsona gisa hitz egin dezatela, gorrotorik eta ezinikusirik gabe, eta *hitzaren* bidez, guztion lurralde honetan, benetako *bakea* sor dadila.

ESPAINIAKO GUDAROSTEA ETA ETA EUSKAL HERRIAN (1978-1981)

LUIS MIGUEL SORDO ESTELLA

SÁBADO, 27 ENERO 2001

LA VANGUARDIA 11

Política

LA OFENSIVA ETARRA »

ETA mata a un cocinero de la Marina

Una bomba lapa destroza a un trabajador civil afiliado a CC.OO. en San Sebastián

« Cualquier objetivo es válido si sirve a la estrategia etarra. ETA necesitaba demostrar que mantiene en forma su mortífera capacidad destructiva y apoyó la evidencia en San Sebastián. Una bomba lapa de gran potencia acabó con la vida de Ramón Díaz García, de 51 años, afiliado a CC.OO. y cocinero en la Comandancia de Marina de San Sebastián. Es la primera víctima de ETA del 2001.

VITORIA, 26 de enero. Una bomba lapa



Atentado en Vitoria

Ramón Díaz García, un civil que trabajaba como cocinero de la Comandancia de Marina de San Sebastián, pierde la vida al explotar una bomba lapa colocada en su habitación.



Para ello, la víctima se subió en un ascensor, en el fondo de una habitación de San Sebastián, que se encontraba en un edificio en Vitoria, y se puso en marcha. La primera explosión la hizo la bomba, que salió del ascensor. De esta forma se eliminó el cuerpo de la víctima.

Luis Miguel Sordo Estella (Zaragoza, 1952) karrerako militarra da. Infanteriako koronela, adinaren araberako erretiro-egoeran 2017ko uztailetik. Hainbat ikastaro eta titulu militarrez gain, Psikologian lizentziaduna, Nazioarteko Bakean eta Segurtasunean doktorea eta Nazioarteko Goi Ikasketetan diplomatua da. *Las víctimas militares de ETA* (2022) eta *Promesas y mentiras. Las negociaciones entre ETA y los Gobiernos de España* (2017) liburuen egilea da.

Espainian ETaren indarkeria terroristaren urteetan, talde armatuak gogor jo zituen Espainiako Indar Armatuak ere, urrutitik eragindako bonba-autoz egindako atentatu bidez, biktimen ibilgailuetan lehergailuak jarritz, metrailaketaren bidez edo garondoan tiro eginez, gehien erabilitako prozedura gisa. Deitoragarriki *beruneko urteak* deiturikoetan, ETA talde terroristak Espainiako Gudarostearen aurka egin zituen hilketak, uniformedun beste gorputz batzuen aurka bezala, hala nola Poliziaren edo Guardia Zibilaren aurka. Hilketak horiek ondo baino hobeto hautatu zituen, baina biktimen graduazioa edo

kargua bereizi gabe gehienetan. Era berean, zorioneko zirkunstantziek zapuztutako atentatu batzuk ere izan ziren, eta beste batzuetan, eragindako kalte nabarmenaren barruan, biktimentzat ondorio fisiko eta psikiko handiagoak izan zitezkeen.

1978 eta 1981 urteen artean, ETA erakunde terroristak 277 pertsona erail zituen, Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren datu eguneratuen arabera. Alonsok, Domínguezek eta García Reyk *Vidas rotas: historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA* liburuan emandako datuen arabera, urte haietan Espainiako militarren aurka egindako atentatuek 32 hilketako arrasto izugarria utzi zuten, eta horietako 21 Euskal Herrian egin ziren. Denbora tarte horretan Bizkaian eraildako militar bakar bat ere ez zegoen Garellanoko kuarteleko infanteriako erregimentuan (Lurreko Gudarosteak Bizkaian duen unitate militar operatibo adierazgarriena), non testu honen egilea zerbitzuak ematen ari baitzen garai hartan, indarkeria terrorista handieneko urte haietan. Hala ere, batzuek, beren destino espezifikoengatik (Gobernu Militarra), administrazio- edo zerbitzu-harremanak zituzten aipatutako kuartel horrekin. Egoera horretan zegoen Julián Ezquerro Serrano Estatu Nagusiko Infanteriako komandantea, zeina ezagutzeko zorte handia izan bainen. Garellanoko kuarteletik Bilboko Gobernu Militarrera (bertan destinatua zegoen) ibilgailu militar batean irteten ari zela erail zuten. Era berean, Ramón Romeo Rotaèche artilleriako teniente koronelarekin ere harremana izan nuen. Bilboko Begoñako basilikako meztatik irtetean erail zuten ETako gizon eta emakume batek. Tenpluaren barruan egon ziren biak, militarren irteeraren zain. 1978an, beste kide militar batzuekin batera, atentatu terrorista baten biktima izan zen, Soietxeseko (Mungia) kuartelera bidean bera zihoan ibilgailua metrailatu zutenean. Zorionez, onik atera zen atentatutik.

ETAk Indar Armatuetako kideei egindako atentatuen krudelkeria izugarriaz gain, haien biktimengan edo senideengan utzitako ondorio fisiko, psikiko edo moral izugarriak ere gehitu behar dira. Adibidez, ETAk Zaragozan 1987ko urtarilaren 30ean egindako atentatu terroristan (Akademia Orokor Militarreko

irakasle eta militarren autobus bat San Juan de los Panetes elizatik igarotzean) zauritutako José Marco Jalle Lurreko gudarosteko sarjentuak dioenez, "nire bizitza betiko markatuta geratu zen. Badago lehenaldi bat eta orainaldi bat. Harrezkero ezer ez zen berdina izan. Nire familia eta biok betiko markatuta geratu ginen atentatuagatik". Militarrek, elkarriketa batean egile honi adierazi zionez, "jakitun izan gabe ere, bai ezjakintasunagatik, bai arreta fakultatiborik ezagatik, denborak aurrera egin ahala trauma osteko estresak eragindakoa nahasmendu bat geratu zen, eta horrek eragin zidan, azken batean, lanerako ezintasun fisikoa". Atentatuan Marco sarjentuak erredurak eta zauriak jasan zituen oinetan eta eskuetan, kristal arrastoak buruan eta aurpegian, tinpanoak hautsi zitzaizkion, alboko ikusmena galdu zuen ezkerreko begian eta ezkerreko belaunean isuri sinobiala izan zuen. Kirurgia plastikoko hainbat ebakuntza egin behar izan zitzaizkion, eta hilabete baino gehiago eman zuen ospitalean. Ondorio fisiko iraunkorrak geratzen zaizkio belarrietan, ezkerreko begian eta ezkerreko belaunean.

Indarkeria terroristako urte izugarri haietan, gizartearen zati handi batek (euskal gizarteak bereziki) beste aldera begiratzen zuen uniformedun kide baten aurkako atentatuaren berria edozein komunikabideren erredakzioan agertzen zenean. Edurne Portelak dioen bezala: "Euskal herritar gehienentzat indarkeria arrunta, nonahikoa eta, beraz, normalizatua izan da". Komeni da gogoraraztea, batez ere Trantsizioaren lehen urteetan bizi izan ez zirenei, ezen "ETAk gogortu egin zuela bere goraldi hilgarria 1977ko eta 1979ko hauteskunde orokorren edo 1978ko Konstituzioaren onarpenaren aurrean". Fernández Soldevilla eta López Romo irakasleek zuzen adierazten duten bezala: "Garai hartan erakunde autonomikoek, alderdi politikoek eta bestelako eragile sozialek noizbehinka (eta banatuta) bakarrik mobilizatzen zituzten euskal herritarrak terrorismoaren goraldiaren aurrean". Edurne Portelak esaten jarraitzen duenez, hirurogeita hamarreko, laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetako Euskadiren testuinguruan, "gizartea, oro har, ez zen erailketaren aurrean mugitzen, gizarte hori nagusiki axolagabea zen —oraindik ere hala dela esatera ausartzen naiz—".

70eko hamarkadaren hasieran, Gudarostea, euskal eremu nazionalista erradikalen eta Espainiako ezker atzerakoienaren barruan, "etsaitzat" hartzen zen, Estatu "zapaltzaile espainiarraren" zerbitzura baitzegoen, eta, 1975ean Franco hil zenean, "botere faktikotzat" hartzen zen oraindik finkatu gabeko demokrazia hasiberrian. Hala, gogoratu behar da Suárezen Gobernuaren eta ETAREN arteko lehen negoziazio-saiakeretan (1976) talde armatuak militar baten presentzia eskatu zuela. Ondoren, Aljerko negoziazioetan, Felipe González Gobernuko presidente zela, ETAKo buruzagi eta kide Domingo Iturbe Abasolok, Txominek, Espainiako gobernu-ordezkariekin izandako lehen harremanetan, presentzia militarra eskatu zuen, edozein motatako negoziazio-akordioa baliozkotzeko. Hala eta guztiz ere, talde politiko edo sozial batzuek gustuko ez izan arren, Gudaroste ia osoak jakin zuen zegokion lekuan egoten, nahiz eta ETAK hura ezegonkortzeko eta Gobernuarekin aurrez aurre jartzeko ahaleginak egin, bere kideen aurkako atentatuen bidez.

ETAREN terrorismoaren aurrean, Euskal Herrian hedatutako unitate militarrek Gobernuaren baten (UCD) defentsa-politika estrategikoan lagundu dute, talde armatu haren jarduera terrorista eragozteko. Euskal-nafar-frantziar mugan aktibistak Espainiaren eta Frantziaren alde batera edo bestera igarotzea eragozteko egin zen hedatzea, *muga iragazgaiztea* izenez ezagutzen den operazioa, prebentzio-prozedura arrakastatsua izan zen, eta erakunde terroristak atentatuak burutzeko egiten zituen mugimendu eta jarduera klandestinoak ekiditea ekarri zuen. Oso modu puntualean burutu zen gudarostearen jarduera honek ez zuen gerora jarraipenik izan, eta hori dela-eta esan daiteke Espainiako Indar Armatuak ez dutela berriro esku hartu ETAREN borroka kontraterroristan.

80ko eta 90eko hamarkadetan edo mende berriarekin, ETAREN indarkeriazko jarduerak ez zuen lortu Espainiako Gudarostea bere esparru konstituzionaletik ateratzea. Hamarkada horietan bere kideen aurka izandako atentatu izugarriek ez zuten haien moralak eta espiritu militarra hondatu, eta ez zituen beren eginkizunetik aldendu ere. Euskal Herrian, horietako batzuk

zitalki erail zituzten, espainiarrek askatasun osoz bozkatu zuten prozesu demokratikoa indarrean zegoela. ETAk, gizartearen gehiengoak eskatzen ziona entzun beharrean, armen bidez aldarrikatzen jarraitzen zuen Legebiltzarreko bere "ordezkariek" hautetsontzien bidez demokratikoki eskatu behar zutena. Horrek berekin zekarren indarkeria erabat etetea eta erakundea bere kabuz desegitea.

Nolanahi ere, gaur egun, eta nahiz eta Gudarostearen barruan hainbat erreforma egin, nagusi diren estrategia geopolitiko berrietara egokituz eta nazioarteko konpromiso politikoen arabera, unitate militarrek Euskadin jarraitzen dute, Bilbon, Donostian edo Gasteizen. Hori guztia, hain moderatua ez den nazionalismoaren eta abertzaletasunaren ahots diskordanteak gorabehera, azken hamarkada hauetan handik joatea eskatu baitute. Unitate horiek ETArek fenomeno terroristaren aurretik zeuden, eta hor jarraitzen dute (egoerari egindako egokitzapen logikoekin), euskal herritar guztien segurtasunaren bermatzaile gisa duten funtzioa betetzen, eta horretarako beren berariazko instrukzioa garatzen, gero eta teknikoagoa, Espainiako beste edozein lekutan bezala... ez gehiago, ez gutxiago. Fede ematen dut haietako baten arduradun nagusia izan nintzelako urte asko geroago.

“NIRE AITA HILKO DUTE”

JOSÉ ANTONIO PÉREZ PÉREZ



José Antonio Pérez Pérez Historia Garaikidean doktorea da Euskal Herriko Unibertsitateagatik eta Valentín de Foronda Gizarte Historiako Institutuko ikertzailea. 2013an *Construyendo memorias. Relatos históricos para Euskadi después del terrorismo* koeditatu zuen; 2015ean, *El peso de la identidad. Mitos y ritos de la historia vasca* eta 2017an, *Euskadi, 1960-2011. Dictadura, transición y democracia. Historia y memoria del terrorismo en el País Vasco* proiektua koordinatu zuen.

“Nire aita hilko dute”. Urte hauetan guztietan ezin izan dut esaldi hura ahaztu. Nire gelakideak behin eta berriz errepikatzen zuen, behin eta berriz, atsekabetuta negar egiten zuen bitartean, institutuko korridore batean kukuturik. Egun bat lehenago, areka batean agertu zen bizirik gabe, Zaratamo eta Arkotxa artean, José María Ryanen gorpua, ETA militarrek buruan tiro eginda hil ostean. Bahiketa hark eta haren amaiera tragikoak gauza asko aldatu zituzten. Erakutsi zuten, zoritxarrez, indarkeriak zerbaitetarako balio zuela. Beldurra zabaldu eta Lemoizko zentral nuklearra bezalako obra garrantzitsu eta eztabaidatu bat geldiaraz zezakeen, edo barne-urradura bat sor zezakeen proiektu horren aurka egon eta ETA arbuiatzen genuenon artean. Erakunde terroristak eta mugimendu antinuklearreko sektore alai eta borrokalari batek ulertu zuten gizon baten bizitza zela ordaindu beharreko prezioa Iberduero proiektu horren onarpenik ezaz konbentzitzeko.

José María Ryan 1981eko urtarrilaren 29an bahitu zuten. Oraindik hunkitu egiten naiz haren irudia ikustean, zentraleko ingeniari buruaren bizitza bere eskuetan zegoela frogatzeko erakunde terroristak bidali zuen argazki hartan. Ryan berriro agertzen da nireen artean lerro hauek idazterakoan, aurpegia itxuragabetuta, orrazkera deseginda, bizarra kendu gabe eta heriotza begietan idatzita daramala. Eskuinean dagoen metrailetaren kanoiaren irudi makurrak oihuka iragartzen du. Hil egingo dute. Argazkia berunezko urteetako ikono izugarria bihurtu da, eta Lemoiz, nire lankide Raúl López Romo historialariak dioen bezala, Euskal Herriko Trantsizioaren metafora. Gogoan dut, halaber, emaztearen eta seme-alaba txikien irudi desesperatua, talde terroristari mehatxua ez betetzeko eskatuz. Ryan “Espainiako oligarkiaren zerbitzura zegoen yanki inperialista bat” baino ez zen ETArentzat. Ez zen errukirik izan.

Garai hartan Erandioko Institutuan ikasten nuen, probintziako gatazkatsuenetako batean. Giroa hain zegoen politizatua eta indarkeriak markatua, non nekez ihes egin baitzitekeen inguruan gertatzen zen guztitik. Hilketak, grebak, manifestazioak eta bonba-mehatxuak gure egunerokotasunaren

parte ziren, literatura-eskolak edo jolas-ordua bezala. Baina hamabost edo hamasei urterekin hori guztia oso kitzikagarria izan zitekeen. Baita dibertigarria ere. Ostiral arratsaldeetan, manifestazioa Bilboko Alde Zaharrean. Makilak, ke-poteak eta lasterketak. "Okupazio indarrekin" izandako borrokatxoa arrakastatsua izan bazen, zurito batzuekin ospatzen zen Barrenkalen. Astelehenetan, ikaskide batzuek beren balentriak kontatzen zituzten, eta borrokaldiaren ondoren trofeo gisa jasotako gomazko pilotak erakusten zizkiguten.

Okerrena ikasgeletan gertatzen zena zen. Matonismoaren, beldurraren eta axolagabekeriaren artean mugitzen zen gizarte baten isla zen hura. Gure zientzia irakasleak klasea taldeetan banatu, dozena erdi ikasle bertan bildu, eta praktiketako lanak egiteko izenak jartzen zizkigun: "Zuek Bizkaia komandoa izango zarete, eta zuek, Gipuzkoa komandoa. Zuek, atzekoak, Madril komandoa". Hitz potoloak ziren haiek, benetako ohore bat, zeren Ryan hil eta hiru hilabetera, Espainiako hiriburuan zegoen terrorearen sukurtsalak atentatu ikusgarria egin baitzuen Valenzuela jeneralaren aurka, bai eta hiru gizaki hil ere. Gaizkiaren banalizazioa egoera garbian.

Kritikoak ginenak isilik geratzen ginen. Zuzendariarengana joan gintezkeen zitalkeria hura salatzeko. Okerrena da garai hartako mugimendu antinuklearraren aurpegi ezagunenetako bat zela eta Herri Batasuneko kide nabarmena. Hobe arazoetan ez sartzea. Beraz, gertukoekin baino ezin genuen komentatu sentitzen genuena. Xuxurlen artean galdetzen genion geure buruari hori guztia normala ote zen, karikatura grotesko hori gurea bezalako gizarte batean egokitzen ote zen. Ezin hobeto egokitzen zen. Gainerakoa gizon bat hiltzea zer zen ulertu ezin zuten nerabeen barre dibertigarri eta inozoak ziren, anekdota huts bat, biktima guardia zibila, polizia edo espainiar zikina bazen. Orduan giza izaera galdu eta *txakurra* bihurtzen zinen, zakur, bizitza merezi ez zuen gizapetiko. "Zerbait egingo zuen". Baina heriotza ez zen gauza bera guztientzat. *Gudarien* bizitza sakratua zen. Betierekoa. Poliziarekin izandako liskarretan hiltzen ziren etakideek lanuzte egunak merezi zituzten haien oroimena ohoratzeko, horma

guztietan zehar haien aurpegiak eta izenak gogorarazten zituzten kartelak, eta herri bakoitzeko plaza bakoitzaren erdian sugarrak zituen suontzi bat. Heroien panteoia aurpegiz betetzen ari zen, eta Aberriaren aldarearen aurrean sakrifizio-erritual gisa eskainitako bizitzez osatutako mural makabro bat osatzen zuen.

Ryan hil eta egun batera, Begoña nire ikaskidea atsekabetuta eta negarrez harrapatu nuen gure institutuko korridore batean. Deigarria egin zitzaidan, neska ilehoria zelako, begi urdinekoa, hitzuna, oso ederra, neska eskuraezin horietako bat, eta ez nuen inoiz negarrez ikusi. Are gutxiago ezkutuan. Harengana hurbildu eta zer gertatzen zitzaion galdetu nion. Haren erantzunak odola izoztu zidan zainetan: "Nire aita hilko dute". Han paralizatuta gelditu nintzen, begira, zer esan ez nekiela. Neska hura, lurtean eserita, uzkurtuta zegoen, malkoak eskuekin ezkutatu nahian. Galdetu nion ea zergatik hil nahiko zuen norbaitek bere aita. "Lemoizen lan egiten du. Ingeniaria da, eta hil egingo dute". Ez zen azalpen gehiagorik behar. Badakit hurbildu egin nintzela, baina ez dut gogoan zer esan nuen, zerbait esatera iritsi banintzen. Agian, ez nuen ezer esan.

Ryanen hilketak eta Begoñaren malko atsekabetuek indarkeriari eta terrorismoari buruzko nire pertzepzioa aldatu zuten. Ez nintzen inoiz alde egon, baina orduan ulertu nuen, hamabost urteekin, ETak edonor hil zezakeela eta ez zegoela inolako arrazoirik gizaki baten hilketa justifikatzeko. Handik egun gutxira, Bilbon deitu zen manifestaziora joan nintzen, zentraleko ingeniari-buruaren krimena salatzeke. Ordu luzez pentsatu nuen. Nire gaitzespena adierazi nahi nuen, baina beldur nintzen ere, jende haren artean ezagunen batek ezagutuko ote ninduen. Azkenean, erabaki bat hartu, eta ia martxaren amaierara iritsi nintzen. Lehen aldia izan zen. Inor gehiagok ez zuen nire izenean hilko.

Baina hilketa hark beste barne-urradura bat eragin zidan. Orduko gazte asko aldarrikapen ekologistekin identifikatzen ginen, eta nik bat egiten nuen Lemoizen aurkako gaitzespenarekin. Ez genekien ezer energia nuklearrari buruz, kausa horrekiko gure konpromisoa sendotzeko balio zuen betiko lelo pareaz harago. Ez

zen askoz gehiago behar. Zentralaren aurkako jarrera oso anitza zen, eta ETA agertokian sartu aurrekoa. Euskal Herriko bizitza kultural, politiko eta sozialeko hainbat pertsona ospetsu 1976. urteaz geroztik inplikatu ziren eraikuntza horren aurkako borrokan. Ordura arte antolatu ziren manifestazioak jendetsuak izan ziren, baina hori guztia mila puska egin zen "Anaia Handia", egoera aprobetxatzeko asmoz, jokoan sartu zenean. Ez nuen kritika handirik entzun zentrala eraikitzearen aurka zeuden taldeen artean. Izan ziren, baina egin zituzten pertsonen ibilbide eta uste demokratikoengatik aurreikus zitezkeenak. Gainerakoak isildu egin ziren. Edo, asko jota, ETArek estrategiatik aldendu ziren herabeki, zalapartarik gabe. Mugimendu ekologistako kide nabarmen batzuek sorbaldak jaso zituzten, eta heriotza haren erantzukizuna Iberduerori eta "Estatuari" transferitzen lagundu zuten. Jende askorentzat haiek ziren krimenaren benetako errudunak. Haiek izan ziren, bere egoskorkeriarekin, ETA, bere borondatearen aurka, mehatxua betetzera behartu zutenak kasik. Klasiko bat. Ezin nuen ulertu, arrisku nuklearraren aurrean, ekologia eta bizitza horrenbeste grinaz defendatzen zuten pertsona horiek nola egon zitezkeen isilik hilketa haren aurrean. Gogoan dut orduan, minez, nola erauzi nuen betiko paparrean neraman txapa, eguzki irribera eta lotsagabe hura zeramana.

Egun izugarriak izan ziren haiek. Ryan hil eta gutxira, Joseba Arregi ETA militarreko kidea Carabanchelgo Espetxe-Ospitalean hil zen, Segurtasun Zuzendaritza Nagusian tortura izugarriak jasan ondoren. Heriotza hura gaitzesteko ekintzek gainezka egin zuten Euskal Herrian. Gertaera ikaragarria izan zen, neurri handi batean Lemoizko zentral nuklearreko ingeniari-buruaren hilketaren ondoren herritarren erreakzioa desaktibatzen lagundu zuen benetako kolpe latza. Krimen bat izan zen hura, eta ETAr ekin eta haren metodoak justifikatzen zituztenei oxigeno gehiago emateko balio izan zuen. Manifestazio berri baterako deia egin zen. Orain esan nezake Arregiren heriotzagatik protesta egitera joan nintzela, baina gezurra esango nuke. Ez nuen horrelakorik egin. Izututa nengoen, eta torturaren aurka erabat, eta, hala eta guztiz ere, ez nintzen joan. Ondo asko nekien zer gertatuko zen, Herri Batasunak

gertaera hura ETaren terrorismoa justifikatzeko argudio gisa erabiliko zuela, ez giza eskubideak defendatzeko. Horixe gertatu zen.

Handik gutxira itxi zuten Lemoizko zentral nuklearra. Jaio aurretik hil zen. Euskal gizartearen sektore garrantzitsu batek mugimendu ekologista eta antinuklearraren garaipen gisa bizi izan zuen obraren geldialdia. "Ezker patriotikoak" Euskal Herria esplotatzen zuten botere faktiko ilunen aurkako garaipen gisa ospatu zuen. Niretzat Zuzenbidezko Estatuaren porrota izan zen, eta, batez ere, mugimendu ekologistarena, ez baitzen gai izan ETaren —esentzien zaindaria, mobilizazioez haragoko ezpata mendekatzailea— itzal babeslea alde batera uzteko. Hamar urte geroago, modu berean bizi izan nuen berriz, oraingo honetan Leitzarango autobiaaren ibilbidearen aldaketa lotsagarriaren ondoren, bi alderdi demokratikok erabakia. Certaera hark ETaren terrorismoak zerbaitetarako balio zuela erakusten jarraitu zuen. Mehatxuak, sabotajeak eta Lemoizen itzala oso eraginkorrak izan ziren, eta, ondorioz, koordinakunde bat eratu zen, denbora gutxian, eta haren "bitartekaritza"ren arrakasta ikusita, "Euskal Herrian elkarriketaren eta akordioaren aldeko gizarte-mugimendu" bihurtu zena. A zer gauzak.

ETAk Lemoizen aurka egindako ekintza terroristek bost pertsonen heriotza eragin zuten: Andrés Guerra Pereda, Alberto Negro Viguera, Ángel Baños Espada, Ángel Pascual Múgica eta José María Ryan bera. Erreterian, 1982ko ekainean, Alberto Muñagorri, hamar urteko mutikoa, izugarri mutilatuta geratu zen, bonba batek Iberdueroko biltegi baten aurka eztanda egin ondoren. Hurrengo egunean, udalak Herri Batasunak aurkeztutako mozio bat onartu zuen ezohiko osoko bilkura batean, non "lehergailuaren leherketa argitzeko" ikerketa abiaraztea eskatu baitzuen. Mozioan Polizia Nazionalea salatzen zuten espresuki, "gertatutakoa aintzat ez hartzeagatik", baita Iberduero enpresa ere, "bere proiektu inperialista aurrera eramateko eskrupulurik eza erakutsi izanagatik". Erretereriako kaleetan zehar egin zen gaitzespenezko manifestazioan ezker abertzaleko kideek txanponak bota zituzten Gipuzkoako herri horretako kaleak


zeharkatu zituen pertsona taldearen aurka. Listua bota zieten, atzamarrarekin apuntatu zituzten pistola baten itxura eginez, eta "Gora ETA militarra", "Polizia, hiltzailea" eta "hauek dira Rosónen mutilak" oihukatu zieten, martxaren buru zihoazen PSEko, EPKko eta Euskadiko Ezkerrako kideei erreferentzia eginez. Bai, garai hartan horrelakoak gertatzen ziren. Ez ziren amets txar bat izan.

Ez dakit zer gertatu zen Begoñarekin. Hurrengo ikasturtean arrastoa galdu nion. Zorionez, ez zuten haren aita hil, baina haren hilketaren mehatxuarekin bizi izan zen luzaroan. Ezin dut imajinatu zer suposatu zuen horrek. Agian, familiarekin alde egin zuen, edo aitaren lanbidea isilean gordetzen jarraitu zuen, jende askok garai hartan egin zuen bezala. Agian gezurrekin mimetizatu zen oharkabean pasatzeko eta begirada deserosoak, isiltasun konplizeak edo arbel batean klarionaz idatzitako pintada salatzaileak saihesteko. Inoiz ez nion inori esan negarrez ikusi nuenik otsaileko goiz hartan gure institutuko korridorean.

Batzuetan, samintasunez gogoratzen dudan gure Luciano Rincón trufari eta buruargiak argitaratzen zituen gauza haiek gogora etortzen zaizkit. "Garai batean beldur ginen beldur ginela esateko". Eta egia zen, erakunde terroristaren beldur zinela aitortzea nahikoa arrazoi izan zitekeen bandaren eta bere inguruaren arreta erakartzeko. Ezer txarrik egin ez bazenuen, ez zenuen ETaren beldurrik izan behar, merezi zutenei bakarrik erasotzen baitzien. Horregatik, oraintsuko memoriari eta euskal gizartearen jokabideari buruzko zenbait gauza entzun eta irakurtzen ditudanean, institutu bateko korridorean kukututako neska ilehori hura baino ez zait gogora etortzen, bere malkoak ezkutatuz, bai eta hark bezala, gu guztion animo-hitz batzuk (izugarrikeriaren erdian gizatasun-ezaugarri minimo bat) eskertuko lituzketen guztiak ere. Ez genuen horrelakorik izan. Oso gutxi egin genuen, eta gure isiltasunak jazarriko gaitu oroitzeke memoria geratzen zaigun bitartean.

BERRIRO HASI (MEMORIATIK)

MARCOS HERNANDO



Marcos Hernando artista plastikoa, idazlea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultateko irakaslea da. 1981eko ekainaren 24an, ETAko terrorista batzuek hiru komertzial metrailatu zituzten Tolosan. Horietako bat bere lagun Conrado Martínez Castañós

zen. Conradok kezka artistikoak zituen. Lerro hauekin batera doan koadroa 1972an berak margotutako olio-pintura bat da, *Mutil* izenburua duena. Hautsita dagoen aurpegi bat irudikatzen du, beharbada egilearen beraren irudi bat.

Imajinatu —ametsetan bada ere— atzera egin eta historia alda dezakegula...

El Ministerio del tiempo TVEko telesail fantastiko baten izenburua da, eta, berez, iraganeko historiaren funtsezko gertakariaren batean esku hartuko bagenu, gerta litekeenaz — onerako edo txarrerako— fantasian aritzen da. Hori egiteak, literatura- eta telebista-utopian, aukera ematen du aspaldi, duela hilabeteak, urteak edo mendeak jazotako gertaerak aldatzeko eta horiek zuzentzeko, historia hobetzeko edo beste batzuek oker dezaten eragozteko...

Jakina, historia pertsonifikatzen badugu —hura egin duten pertsonak eta herriak— eta atzera egin ahal izango banu garai bakoitzeko gertakariei buruzko ikuspegi humanistikoago bat ezartzeko, gertaera tamalgarri batzuk aldatzen saiatuko nintzateke, garai hartan izugarriak izan ziren data batzuk, eta, beraz, memoria kolektiboan eta historian bertan era horretan irauten dutenak. Gure arbasoek jasandako gerra eta zorigaitz asko ezabatuko genituzke. Mundu osoan populazioak txikitu zituzten gaitz eta izurriteek eragindako heriotza saihestuko luketen zenbait medikamenturen agerpena aurreratzen saiatuko ginateke, eta, amesten hasita, iraganetik biharrera joaten saiatuko ginateke, pertsonok eta gizateriak etorkizunerako zuzentzeko gai ez garela diruditen hondamendi eta pairamenak konpontzeko. XXI. mendean hainbeste miseria eta heriotza, hainbeste migrazio-mugimendu, hainbeste zorigaitz... eragiten dituzten gosearen kausak ezabatuko genituzke ..., eta oraindik guretzat sendaezinak diren gaixotasunak ezabatuko genituzke, haur eta gazteen bizitza ausaz eta behar baino lehenago eramaten dutenak... Gure espeziearen baldarkeriarik handiena —dirudiena— zuzentzen saiatuko ginateke, hots, norabide autosuntsitzailea zuzentzeko

ezgaitasuna, halabeharrezko predestinazio batek amildegirantz garamatzala baitirudi.

Bi kasuetan, iraganean edo etorkizunean eragitea gizakientzat galarazita diruditen ametsak dira, eta jainkoei bakarrik dagozkie horrelakoak. Baina iraganak norabidea zuzentzeko balio diezaguke, eta... etorkizuna ez dago idatzita.

Baina, joan den 50 urteetako gauza batzuk aldatu ahal izango banitu, zer aldatuko nuke? Galdera interesgarria da, telebistako telesailaren ilusiora itzultzen gaituena, iragana amestera gonbidatuz, eta jazotako gertaeren norabide negatiboa zuzendu eta konpontzeko aukera ematen diguna, hondamendi pertsonalak eta kolektiboak saihestuz... Ziur asko, asko eta asko bat etorriko ginateke funtsezkoan, zorigaitz kolektiboak eragin zituzten kausak konpontzean, eta bakoitza beretarrei eta bere buruari eragin zioten kausa partikularrak aldatzen saiatuko litzateke. Jokoa parte hartu ahalko banu, aldatu egingo nituzke Espainiako gerra zibila, Errepublikaren hondamendia eta diktadura frankista eragin zituzten gertakariak, hainbeste familiak pairatu zituztenak, eta nik nire bizitzako lehen 25 urteetan pairatu nituenak, eta gero, nola ez!, gertaerak aldatzen saiatuko nintzateke II. Mundu Gerra ez gertatzeko, milioika pertsonari horrenbeste zorigaitz ekarri baitzizkion... Eta sinemen erlijiosoen munduari dagokionez, utopia zoragarria litzateke bekatua, matxismoa, gabezia, beldurra edo zigorra nagusi dituen erlijio baten oinazetik kanpoko haurtzaroa eta gaztaroa irudikatzea... Baina nire lurralderik hurbilenara mugatuz, nire Euskal Herri txiki, eder eta beldurgarrira, ETArek existentziatik eratorritako kausak eta ondorioak aldatuko nituzke, pertsona edo kolektibo bat bere xedeak bere bitartekoak justifikatzen dituela pentsatzera eta, beraz, gizartearen legeen gainetik goragoko agindu bat betetzen duela sinestera eramaten duten kausak aldatuko nituzke... Mila hildako inguru eta milaka batzuentzat erbestea eta desterrua — askotan ahaztuak— eragin dituen beldurraren eta estortsioaren inperioa eragotziko nuke.

Beharbada, izan zitekeenarekiko eta izan ez zenarekiko nostalgia hori —egin ahal izan genuenagatik eta egin ez

genuenagatik— garaien hasieratik arrastaka daramagun zerbait da, gure buru txarraren ondorio, paradisutik bota gintuen justiziazko jainko baten arauak ez betetzeagatik —gure lehen arbasoengandik hasita—..., kanpoko ilunpetan bizitzera betirako zigortuak. Baina ezin dugu geure burua kontsolatu iraganari edo jainkoei errua egotziz, ezta beste batzuei edo historiari gure egoeraren erantzukizuna egotziz ere. Baloiak “kanpora botatzea” izango litzateke, erroak utzirik adarrei lotzea.

Gaur, une honetan, *El Ministerio del Tiempo*ren jokoaren bidez, gogora ekarri nahi nituzke 1981eko ekainaren 24an arratsaldeko lau eta erdietan gertatu ziren gertakariak, eta horiek saihesteko esku hartu. Egun horretan ETAk hiru lagun gazte metrailatu zituen Tolosan, liburu saltzaileak. Juan Manuel Martínez Castaños eta Iñaki Ibargutxi Erostarbe, lehena Durangokoa eta bi seme-alabaren aita, eta bigarrena Ugao-Miraballesekoa, biak 26 urtekoak, berehala hil ziren; hirugarrena, Conrado Martínez Castaños, 31 urtekoa, lehenengoaren anaia eta seme baten aita, handik 9 hilabetera hil zen, jasandako inpaktu ugarien ondorioz. Haren emazteak, Natividad Burgoak, “erakundea”ren ohar bat jaso zuen, akats bat izan zela esanez, baina ezin izan zuen jasan, eta urtebete geroago hil zen.

Atentatua, beste hiturehun bat gehiago bezala, ez du oraindik justiziak argitu, eta, beraz, beharrezkoa izango da gertakariak bitarteko posibleen bidez gogoratzea, erantzukizunak onartu eta kaltea sozialki eta politikoki konpondu arte... Agian, trebetasun fantastiko horrek aukera emango dio bakoitzari berak edo beretarrek iraganean izan zuten jokabidea aldatzeko edo ezabatzeko, eta, horrela, ezkutatu baino gehiago, atzeraeraginezko izaerarekin aurre egin ahal izango die bakoitzak egitatei, eta orainaldian hausnarketa bat, zalantza bat edo kondena bat sartu ahal izango du, lehenago gertatu zenagatik. Zeregin pertsonala eta kolektiboa izango da, baina, ezer baino lehen, autokritika, duintasuna, argitzeko borondatea, adorea, ilusioa eta fantasia... eskatzen dituen posizionamendua. Iragana aldatzen duten jainko txikiak izateko jolasaren ametsetik esnatzerakoan, ernatzea baino ez zaigu geratzen, benetako gertaerak alda edo errepika ez daitezen,

edota "historialari" edo erakunde interesdunek desitxura ez ditzaten. Gure esku dago irakaspen eta ikasketa hori, gure artean inoiz gehiago ez egotea inor bere helburuak norberaren bizitza edo besterena erabiltzea justifikatzen duela pentsatzen duenik.

ETAK DROGAREN ONDORIOZKO HERIOTZETARAKO KONPONBIDEA ZUELA ESATEN ZUENEAN

JOSÉ MARÍA CALLEJA



José María Calleja Informazio Zientzietan doktorea zen, Kazetaritzako irakaslea Carlos III.a Unibertsitatean eta hainbat komunikabidetan kolaboratzen zuen.

Laurogeiko hamarkadan drogak aurretik eraman zituen, demagun, Espainiako bi gazte belaunaldi. Amek —gurasoak ez ziren egoten— ez zekiten droga zer zen; alkohola eta tabakoa ezagutzen zituzten,

eta ez zuten uste horiek droga zirenik, kultura-ohitura bat ziren, senarrek bizitza osoan zehar, bazkaldu eta afaldu aurretik, bitartean eta ondoren hartzen zutena, baina ez zekiten zer zen drogaren kontua: zer forma zuen, zer testura zuen, nola kontsumitzen zuten beren seme-alabek, nondik sartzen zen beren gorputzetan; zergatik uzten zien hain gaizki, baldin eta haiek bazkaria eta afaria egin bazizkieten beren orduan.

Jakin bazekiten amek, ziurtasun osoz, Eibarreko, Pasaiako, Bermeoko eta Ondarroako mutil gazte ongi elikatu batzuk akituta geratzen zirela haiek ezagutzen ez zuten produktu bat kontsumitu ondoren. Misterioa. Erru sentsazioa. Zergatik egiten du hori nire semeak? Zergatik atera zait horrela? Dena oso judeokristaua. Errudun bat bilatuz arindu nahi zuten erru sentsazioa.

Laurogeiko hamarkadan, ETAko terroristak eta haien bozeramaileak berdin-berdin harrotzen ziren ildo zuriko etxetresnen birmoldaketarako behin betiko konponbideak zituztelako eta Frantziako autoen kontzesionarioen aurka atentatuak egiten zituztelako, hamarkadaren erdialdean Frantziak etakideak barra-barra entregatzen zituelako. Etakideek ere estortsioa egiten zioten ondo ari zen eta aberastasuna eta lanpostuak sortzen zituen enpresari bati, eta berdin-berdin lehertzen zioten burua polizia bati, guardia zibil bati, biak ere ETAko propagandak fosilizatutako sinbolo, aldez aurretik gizagabetuak, *txakurrak* deituak, garondoan tiro egitea errazteko. Etakideek, diot, erabaki zuten drogaren kontu horrek konponbidea zuela, soluzio milimetrikoa, parabellum eta guzti.

Euskal herritarrek zituzten arazo guztietarako konponbide gisa eskaintzen zuten arbuio-frontea eraikitzekeo ideian —tiroka, noski—, erregimen industrialeko hiltzaileek erabaki zuten drogaren arazoak konponbidea zuela beren KAS alternatiban ere.

Horrela, Euskadin drogaren ustezko arduradunak erailtzen hasi ziren, planetako beste inon drogarik ez balego bezala. Biharrik ez balego bezala, esango genuke orain.

Talde terroristaren krimenak beti egon direnez hurbilago alokairuko pisuko patio partekatuan gora egiten duen azaren usainetik, urteetan arrandiaz aipatzen ziren “azpiegitura” eta

“komando”etatik baino —*motor indartsua, segundoetako ekintza, lekukoparalizatu eta mutuak*, esaten zen krimen batzuen ondoren—, etakideak, demagun Errenteriakoak, drogaren ustezko arduradunak erailtzen hasi ziren.

Ángel Facal Sotok, idatzita daukadan bezala, ogitarteko bat jaten zuen arratsaldero bere jaioterrian, Pasaian (Gipuzkoan), porru bat erre ondoren, eta haien “jomugetako” bat izan zen. “Komandoa”, hau da, hiltzaile taldea, ia zapata koadrodunetan, vespino baten gainera igo, eta, beste krimenen ohiko hilketa-ordutegi goiztiarretik kanpo, Pasaiaiko tabernara iritsi ziren, bertan Facal zegoela jakinda. Motorretik jaitsi, eta tiro bat eman zioten. Izugarri zaila! Bere ogitartekoarekin babesgabe eserita dagoenari tiro bat jotzea, ezustean emandako tiro bat. Tiro bat armarik gabe, geldi, babesgabe, arrunt eta “txolindua” zegoen gizon bati, egunero gauza bera egiten zuena ordu eta leku berean: ogitarteko bat jan. Garrantzi handiko ekintza, ia Kolonbiako Escobarren klaneko kupulatirokatzea bezalakoa. Diot. Jugoslaviako edo Italiako mafien aurkako petardo baten baliokidetzat saltzen zen tiroa. Herrikide babesgabe bat, egunero gauza berberak egiten zituena, ordu berean, leku berean..., izugarri arriskutsua. Egia esan, ikaragarria eta zitala.

Eraildakoak bizar horia, ile horia eta begi argiak zituen, eta atsedenean dagoen barraskilo bat bezain kaltegabea zen, baina kriminalek erabaki zuten hura berebiziko atentatua zela, krimen aglutinatzaile bat, ekintza performatibo bat —horrek zer deabru esan nahi zuen ez jakin arren—, drogarekin familia osasuntsuei, euskaldun euskaldunei (agian mezetara aldizka joaten ziren aita-amekin) kalte egiten zieten aurkako eraso bat.

Hor duzue, badirudi esaten zietela euskal amei serieko euskal hiltzaileek: zuen semeak hondakin bat dirudi, eta guk erail dugu —“exekutatu”, zioten— zuen gaitzen erruduna. Edozertarako konponbideak dauzkagu, harropuztu egiten ziren beren ohar solemneetan kriminalak. Arazo bat zenuen, euskal herritar jatorra, eta guk, dena ikusten duen “anaia handiak”, konpondu egin dugu. Ikusten? Emaguzu botoa, sinetsi gudan, biharra geurea da, eta horrela.

Niri egokitu zitzaidan Ángel Facal Sotoren atentatu horren berri ematea, eta gorpuairen inguruan ume mordoa zebilen jirabiran, hildakoari begiratu bat eman eta jolasean jarraitzen zutelarik; jendeak tabernetan jarraitzen zuen, haiekin zerikusirik ez balu bezala.

Gizon hura, burua sorbalda kakotueta sartuta bezala zeukana, ezin geldiago zegoen, eta helduek geldi begiratzten zuten, eta umeek ere bai, jirabiraka, aldendu, jolasean jarraitu eta berriro begiratzten zuten. Tabernak beteta, diot nik.

Bere odol putzuan, zirkulu gorri batean, eta bizar luze eta horailarekin espaloian etzanda zegoen hildako baten normaltasuna, bere heriotza desiratu gabeaz azalpenak ematera behartuko balu bezala.

Bake-epailearen zain geunden, gero poliziak, atentatuaren argiketak, anbulantzia, betikoa... Hildako bat, bakardadean eraila eta zalapartaz inguratua.

Polizia asko bizi ziren hildakoaren herriko auzo xume berean, Pasaian. Polizia nazional horietako bi hil egin zituzten gero, mendiko botekin, panazko galtzekin, alkandora koadrodunarekin eta txakurrekin paseoa irten zirenean, hilabeteko euri etengabearen ondoren. Tiroak garondoan eta gorpuen oinak elkar ukitzen, txakurra zaunkaka, abisatzeko.

Era berean, egun eguzkitsu batean, hainbeste euriren ondoren, polizien bi hilketa horien berri ematea egokitu zitzaidan, eta minaz hitz egin nuen orduan, txakurraz, beren sufrimenduan diskretuki gogoetan ari ziren kolpatutako lankideez; Pasaiako portuaren ahoaz eta definizioz horia den genistaz, eraildako bi polizien lankideekin mendian zehar oinez nindoala.

Beste atentatu saiakera baten ondoren, Facalen eta hildako bi polizien auzoko poliziak tirantedun kamiseta zuriarekin ateratzen ziren, CETME fusilarekin. Eszena surrealista batean ikusi ditut, beste asko bezala, terroristek eragindakoa.

Gero, beste egun batean, hauteskunde igande goiz batez, etakideek Trintxerpeko eraikin bateko atea jotzen zuten, Facalen Pasaiaren ondoan, eta tiro bat ematen zioten atea irekitzen zienari. Autokontsumoko drogazale bat deuseztatzen zuten, merkantzia

apur bat pasatzen zuena gero berak kontsumitzeko. Zerikusirik ez Medellinekin.

Krimenaren ondoren, hiltzaileak, bulego-ordutegian, etxera joan, eta ohar solemne bat egiten zuten erredundantzia eta guzti, drogarekin amaitzen ari zirela esanez, arazoa konpontzen ari zirela, hainbeste ama txunditu eta harrituri, hainbeste aita minduri poztasuna ematen. Arazo bat, irtenbide bat. Hori zen ETaren erdua. Dena ETarekin konpontzen zen.

Etakideek hautseztatu zuten espeziearen arabera, Espainiak sartzen zuen droga euskal zainetan, gazte errebelde euskaldunak moteltzeko. Ergelkeria guztiak bezala, argiaren abiaduran hedatu zen hura indarkeria txalotu, justifikatu eta desiratzen zutenen artean.

Azpikeria horrekin alde batera uzten zen drogak Galizian, Cadizen, Bartzelonan eta Valladoliden triskantza, sarraskia ekarri zuela. Madrilen auskalo zenbat baja; Valentzian, Santanderren, Bartzelonan, Malagan... eta burura datozkizuen Espainiako hiri guztietan, lagun bat, bizilagun bat, senide bat gogoan, drogaren kontuagatik hila hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan, dena posible zenean eta ezerk ondoriorik ez zuenean.

Beste informazio baten berri ematea egokitu zitzaidan: Fausto Galende, drogazalea, Pasaiakoa hau ere, balkoi batean gotortuta, droga eske, deabruak hartuta bezala.

Beldur guztien plangintza oso antolatua zuten etakideek, eta Askagintza izeneko elkarte bat sortu zuten, drogaren aurka borrokatzeko, espainiar errudun bat bilatzeko eta beren burua euskal irtenbide nazional gisa eskaintzeko. Hernaniko (Gipuzkoa) Udaleko gizon batek zeraman, Txus Congilek, hain zuzen ere. Handik zebilen Balentxi izeneko apaiz tripontzi batek, drogaren arazoa Espainiaren erruz zela azaltzen zien drogazaleen amei. Gipuzkoako Probintzia Auzitegian egiten ziren epaiketen atarian esaten zien hori Balentxik, eta nik haien berri ematen nuen EFEn nengoenean.

Balentxi bizikletan zihoan, ezproi batzuk galtzetan, koipez ez zikintzeko, eta gero apaiz gisa aritzen zen, apaiz-uniformearekin,

etakideen hiletetan, demagun Bakarne Arzellusenean, etakideek "frantses interesak" deiturikoak tirokatzea erabaki zutenean, eta Irunen kamioi frantsesak babesten zituzten polizia espainiar marroiz jantziak erailtzen zituzten, baita Frantziako ibilgailuen kontzesionarioetan bonbak jarri ere, esaterako Peugeotek Donostiako Prim kalean zuen hartan, zeinatik hainbeste aldiz igaro bainaiz.

Tira, Ángel Facal Soto erail zuten, galiziar jatorrikoa, gasolino zeramatenen semea, bi Pasaia lotzen zituen itsasontzia, egunero tortilla ogitartekoarekin droga kontsumitzen zuen gizajoa, zeinaren txikizkako salerosketa droga apur bat lortzea baitzen, droga kontsumitzeko, apur bat. Hil zutenean, sorbaldak gorputz kakotuan ahokatuta geratu zen bere bizar horaileko gorpua, bere arropa apalekin eta odol-putzuarekin, jolasean ari ziren umeez inguratutako bere gorpua.

Idoia López Riañok, Tigresa ezizenez ezaguna zenak, eta bere orduko bikotekideak, gerora Venezuelara ihes egin zuen etakide batek, Oker komandoa osatu zuten, eta Facal erailtzeaz gain, aurrezki kutxa batean lapurreta egin zuten ere. Lapurretekin, komandoak pisu bat muntatu zuen moketarekin.

Jendilajea, jendilaje hiltzailea, laurogei eta laurogeita hamarreko hamarkadetan Espainia osoan milaka gazte suntsitu zituen drogaren arazo beldurgarriaren aurrean bere burua konpontzaile gisa agertzen zuena, eta euskal amek eta Espainiako gainerako amek ez zekiten zer zen hura; ustezko konpontzaileak, kontsumitzaile oso txiro, babesgabe eta ohikoak hilez.

Idiota moralak, beti erne, orain Madrildik esaten digu droga poliziak sartzen zuela euskal borrokalariak neutralizatzeko. Errepikatzearen errepikatzez errudun bat bilatu eta egiazkotzat agertu nahi duen egia-ostea. Drogak Espainiako milaka gazteren bizitza eraman zuen aurretik Espainia osoan, haien jaioterria edozein zela ere.

XALOTASUNAREN ADINA

CRISTINA CUESTA



Cristina Cuesta Enrique Cuestaren alaba da, Telefonicak Donostian (Gipuzkoa) zuen ordezkariera. Komando Autonomo Antikapitalistek erail zuten Donostian, 1982ko martxoaren 26an. Atentatu berean, bere bizkartzaina, Antonio Gómez García polizia nazionala ere hil zuten. Cristina mugimendu bakezalearen sortzaileetako bat da Euskal Herrian. Gaur egun, Miguel Ángel Blanco fundazioko kudeatzailea da.

1986ko maiatzaren 22an, Donostiako Gipuzkoako plazan, hirurogei bat euskal herritar bildu ginen isilean, ETAk beste herritar bat, Manuel Fuentes Pedreira polizia nazionala, erail baitzuen bi egun lehenago Arrigorriagan, herri horretako frontoian pala partida bat jokatu ondoren. Ordu laurden batez isilik bildu ginen, "Nahikoa da, gure herriak bakea nahi du" zioen pankarta baten atzean. Bakearen Aldeko Elkartek deituta joan ginen. Nik sustatu nuen elkarte, urte hartako apirilean, eta 22 kidek osatu zuten. Maiatzaren 8an, lozorro sozial luzea atzean uztea erabaki, eta urrats bat eman genuen aurrera, "inolako indarkeriarik ez justifikatzeko eta Euskal Herrian tolerantzia eta

bakegintzarako elkarriketa defendatzeko” (*El Diario Vasco*, 1986/5/9).

Hitz eman genuen elkarretaratze isilak deituko genituela gizaki baten erailketaren edo heriotza bortitzaren ondoren, alde batera utzita zein zen talde terrorista, biktimaren lanbidea, ideologia, jatorria edo beste edozein inguruabar. Giza galera konponezinean zentratzen ginen, apatia orokorraren aurrean zegoen hilketaren ohitura jasanezinean. Bizitzeko eskubidearekin konpromiso jarraitua eta publikoa bilatu genuen, terrorismoaren aurka eta albistearen protagonistak ziren biktimen alde, berehala, egun bat edo bi geroago, ahaztuta baitzeuden. Lehenengo bileretan erabaki genuen, halaber, indarkeriarekin lotutako gai interesgarriei buruzko iritzi-artikuluak bidaltzea prentsara, ikasgelaren batean sartzen saiatzea, gazteenei gure ikuspegia emateko eta, ahal zen guztietan, atentatuaren ondoren biktimak bisitatzea eta haiei laguntzea.

Lehenengo elkarretaratze hartan terrorismoaren biktimek parte hartu zuten: José Luis, Alberto, Carmen. Oinezkoen artean eskuorri xume batzuk banatu genituen, eta honela zioten: “Hemen egongo gara ordu laurden batez isilik, giza bizitza bat krudelki ezabatu dutelako berriro. Berriro elkarretaratuko gara hiltzaileen zoritxarrak gure lurraldeko edozein pertsonari eragiten dion bakoitzean. Egin bat gurekin. Bakearen alde borrokatzen dugu. Aski da indarkeriaz! Donostiako 491 posta-kutxak batzen gaitu”. Gogoan dut hunkituta nengoela. Uste dut inoiz ez nuela hain zentzuzko ekintzarik egin. Minutu horiek eraildako gizon bati eskaini genizkion, bere familia, bere lagunak, bere kideak gogoratzen genituen, aurpegia emanez, plaza publikora gure haserrea eta tristura erakustera irtenda. Gogoan dut minutu horien trinkotasuna, aurrera jarraitzen zutenen begirada harrituak, laster berriro elkarretaratuta egongo ginenaren susmo nahiko sendoa, herritar gehiago gurera elkartzeko beharra eta gure konpromisoa seriotasunez zihoalako uste osoa.

Hogeita hamar urte baino gehiago igaro ondoren, samurtasun amaigabea eragiten didate izendatu gabe izendatzen zuten oinarritzko mezu haiek, bizitza eta oinarritzko giza eskubideak

defendatzeko espazio publikoa okupatzeko ia baimena eskatzen zutenak. Diskurtso simple hori testuinguru sozial eta politiko odoltsu batean aztertu behar da, non biktimak ez ziren existitzen eta legitimitatea kentzen zuten erantzun zibikoak ia deusezak ziren. Zoro heterodoxo batzuk ginen, eta kontzientzia batzuk deseroso sentiaraztera, biktimak humanizatza, giza eskubideen alde etikoki azaltza eta indarkeria terroristari eta biolentoei modu baketsuan erantzutera ausartu ginen. Inguruko sufrimenduaren eta beldurraren errealitatearen aurrean begiratzeko eta jarduteko modu berri bat sortu zen, non biktimak ageriko egiten ziren eta ahotsa altxatzen hasten ziren, baita isilean ere.

Ausardia hartan ezagutzen dut neure burua, eta asteroko hilketak normaltzat ez onartzera bultzatzen gintuen, euskaldun gisa gure izenean hiltzen zutela ontzat ez jotzera, isiltasunaren eta konplizitatearen artean klandestinitatean bizitzera. Borondatearen indarrarekin eta kontakizun faltsuek kutsatu gabeko zentzu etiko batekin, eguneroko izugarrikeriak gure paisaiaren zati izateari utz ziezaiokeela adierazi genuen, eta hamaika urte geroago Miguel Ángel Blancoren bahiketari eta hilketari erantzun zibiko gisa mamituko zen kontzientziazio eta mobilizazio bideari ekin genion, inoiz ez lehenago eta inoiz ez geroago bezala.

Poliki-poliki handituz joan zen herritarren beharra adierazteko terrorismoak ez gintuela ordezkatzeko, gizartearen gehiengoa, isilik egon edo beste alde batera begiratu arren, ez zetoirela bat basakeriarekin, izua, gorrotoa eta sektarismoa ezin zirela inoiz estrategia izan eta giza bizitza ezin zela trukerako txanpon izan helburu politiko bat lortzeko. Biktimei, sozialki eta instituzionalki ahaztutako hamarnaka eta ehunka biktimei, arreta eskaini genien. Lekukoen lekuko izan ginen, eta pairatzen ari ginen gaixotasun sozialaren dimentsioak ohartu ginen.

Beti bidegabea den izuaren aurrean posizionatzeko beharra zabaldu genuen, biktimarekin elkartasunez, koherentziaz, etengabe eta intelektualki duina den modu batean lerrokatze beharra. Ehunka elkarretaratze, manifestazio eta ekitaldi deitu genituen, eta batzuetan zaparradak, irainak eta umiliazioak jasan

genituen, pintura horiz eta gorriz betetako arrautzak ere bota zizkiguten!, Ertzaintzaren begirada arretatsuaren aurrean. Adiskidetasunean ere hazi ginen, beste egoera batzuetan inoiz ezagutuko ez genituen kideekin batera, funtsezko gaietan elkartutako hiritar ezberdinen arteko adiskidetasun paregabearekin. Orduak eman genituen isilik hiri eder bateko plaza eder batean, non aise eta adierazgarritasunez erailtzen baitzen, eta, gainera, hildakoa iraindu eta pistolariari gorazarrea egiten zitzaion, eta hilketa horretara eramaten zuten ideiak aldarrikatzen ziren. Libre izan ginen gure konpromisoan, libreak ziren bezala hiltzea eta guri bizitza mingostea erabaki zuten guztiak. Eutsi eta irabazi egin genuen. Ez genituen garaitu, gehienek ez dutelako lotsatuta amaitu, harro baizik, eta oraindik ere tematuta jarraitzen dute euskal kontzientzia kolektiboan beren hiltzeko arrazoiak onargarriak, demokratikoak eta askatzaileak direla ezartzeari dagokionez. Biktima bakoitzak guztiz kontrakoa gogorarazten digu, denek ikusi nahi ez badute ere edo komeni ez bazaie ere.

Biktima gisa gure errugabetasuna defendatu behar izan genuen “zerbait egingo zuen” horren aurrean, inoren laguntzarik gabe. Gorrotoa eta mendekua arbuiaitu, eta Zuzenbidezko Estatua defendatu genuen, hark hainbestetan abandonatu bagintuen ere. Biktimak, ezinbesteko beste herritar batzuekin batera, kalera atera ginen sendotasunaren, gizalegearen, zentzutasunaren eta “primerako jokabidearen” eredu izateko, Ramon Saizarbitoria idazleak berriki adierazi duenez (*eldiario.es*, 2017ko urtarrilaren 7a). Sobera frogatu dugu jende zibilizatua garela barbaroen artean.

1981ean hiru emakume ausartek, Ana María Vidal-Abarca, Isabel O`Shea eta Sonsoles Álvarez de Toledok, Terrorismoaren Biktimen Elkartea sortu zuten, izaera asistentzialeko eta estatu mailako erakunde bat, terrorismoaren biktima diren familiak batzeko, haien eskubideak aldarrikatzeko eta justizia eskatzeko helburuarekin. Haiek izan ziren mobilizatu ziren lehen biktimak, eskatzeko zapatak jantzi zituztenak, gure Ana María maiteak zioen bezala, bidezkoa dena aldarrikatzeko: arreta, aitortza, babesa. Ana

María Vidal-Abarca andrearen hitzetan, Ana Velasco Vidal-Abarca alabak 2015eko uztailaren 6an bere blogean jasotakoak:

Urteek eta esperientziak oso gauza baliotsua erakutsi didate: kontraesana dirudi, baina ez da. Bizitza honetan batzuetan, galdu egiten duzula dirudien arren, irabazi egiten duzu. Izan ere, beti irabazten duzu pertsona ona zarenean, beti irabazten duzu inori kalterik ez egiten saiatzen zarenean, bizitza eta askatasuna defendatzen dituzunean irabazten duzu. Zure ideiak hitzaren bidez defendatzen dituzunean irabazten duzu, zentzuz, inor gaitzetsi gabe, eta konfiantza duzunean irabazten duzu, nahiz eta batzuetan oker egon.

Terrorismoaren biktimak Oroimenaren, Justiziaren, Egiaren eta Duintasunaren abangoardian egon dira, daude eta egoten jarraituko dute. Printzipio horiek, gaur egun ere, hainbat aldiz saiatzen dira euskal errealitate politiko, sozial eta instituzionaletik neutralizatzen, indargabetzen, txikiagotzen, edo zuzenean deuseztatzen.

Mikel Azurmendi antropologo eta idazleak, *El País* egunkarirako artikulua batean, "La verdad de las víctimas" (2001/8/30), hauxe idatzi zuen: "Eta ez da erretorikoa onartzea biktimen hurbilekoek saihestu dutela, hain zuzen, orain arte, gatazka zibil amaiezin baten kate-seriea, 'nire hildakoa azkena izatea' adieraztean". Max Mannheimerrek, duela gutxi hildako holokaustoaren biktimak, bere bizitzako urte asko jardun du Alemaniako gazteei kontzentrazio-esparruetan izandako esperientziari buruzko hitzaldiak ematen. Askotan hitz hauekin amaitzen zuen: "Ez zarete gertatutakoaren erantzule, baina bai berriro ez gertatzearen erantzule".

Berriro gerta ez dadin, onar dezagun terrorismoaren biktimenesanahietiko eta politikoa. Manuel Fuentes Pedreirarena, terrorismoaren biktima guztiena.

KONTZIENTZIAN HAZI NINTZEN

JESÚS SÁNCHEZ MAUS



Jesús Sánchez Maus Bakearen Aldeko Koordinakundearen sortzaileetako bat da. Elizbarrutiko abadea da 90eko hamarkadatik, eta gaur egun Bizkaiko hiriburuko hainbat parrokiatan dihardu.

Nire ibilbidea begiratzean, Rigoberta Menchúren hitz haiek burura etortzen zaizkit etengabe, “eta horrela piztu zitzaidan kontzientzia”, Elizabeth Burgosen liburuari izenburua ematen diotenak. Casa de las Américas argitaletxeak kaleratu zuen lehen aldiz 1983an, eta buruzagi popularraren bizitza kontatzeaz gain, Guatemalako indigenen (Latinoamerikako hainbat komunitate indigenen egoeraren paradigma) aurkako tratu txarrak eta ankerkeriak salatzen ditu. Esan dezaket niri ere kontzientzia hazten joan zitzaidala Bakearen Aldeko Koordinakundean hartu nuen konpromiso biziari. Kontzientzia horrek, pertsonala izan arren, gertaera sozialaren gaineko erantzukizuna ere sentiarazi zidan.

Hogeita hamar urte baino gehiago igaro dira geroztik, 1985ean, oraindik apaizgai eta Teologiako ikasle nintzela, Deustuko Unibertsitatean errealtate lazgarri batekin konprometitzea erabaki nuenetik. Badirudi iragana iraganean geratu zela, eta, gaur egun, haren ondorioak diluitu egin dituzte batzuek, alde batera utzi eta etorkizuna bakarrik kontuan hartu behar delako uste osoan tematuta.

NONDIK ABIATU GINEN

ETA eta bere ingurunea bere burrundara hiltzailean murgilduta zeuden. Laurogeiko hamarkada bereziki beldurgarria izan zen. 1980an talde terroristak 91 pertsona erail zituen, eta hamarkada osoan batez beste 40 urtean. Beldurraz eta apatiaz betetako garaiak, itxuraz sortutako axolagabekeriari aurre egitea eskatzen zuten. Giro sozial horretan, Bakearen Aldeko Koordinakundeak bere lehen manifestaziorako deia egin zuen 1988ko urtarrilaren 30ean, M. Gandhiren urteurrenaren inguruan, eta bi mila pertsona inguruk erantzun zuten. Hiru urte ziren elkarretaratze isil ezagunak egiten zirela, Euskal Herriko eta Nafarroako hogeitabat puntutan sakabanatuta ordurako.

Ezin ginen axolagabeak izan askok oraindik ikusten ez zuten eta ikusi nahi ez zuten egoera batekin, beste batzuei zegokiela uste baitzuten, eta ez guztiei. Kemen politiko eta soziala falta zen hausnarketara bakarrik muga ezin zitekeenari aurre egiteko, ez alderdi instituzionalean, ez militarrean edo polizialean, gizarte osoari eragiten baitzion. Indarkeriak denok modelatzen eta gizagabetzen gintuen, eragile, figurante edo ikusle soil gisa. Presentzia holistikoa zuen. Gauza guztietan zegoen eta dena baldintzatzen zuen: politika, gizarte mugimenduak, jai herrikoiak, Euskadiren nazioarteko proiektzioa, giza harremanak... ETA eta bere ingurunea politikaren nagusitasunetik identitate mafioso argi bat finkatzera igaro ziren. Beste guztien aurka eta beste guztien gainetik zegoen "familia bat" zela uste izatera, basakeriaz eta indarkeriaz jokatzuz, besteen errespetua eta beldurra

bereganatzeko. Euskal Herriko herri txiki asko izan ziren ebidentzia sendo horren lekuko, eta modu bereziki estugarrian bizi izan zuten.

Testuinguru horretan, konpromisoak setatsu harrapatu ninduen, eta nire bizitzako hogeita bost urtez luzatu zen, zeinetan inplikazio pertsonal sakona partekatu bainuen hainbat pertsonarekin. Gehienak gazteak ziren, eta erakargarria eta benetakoa zen konpromiso batek bultzatu zituen, agian ausarta ere bazena. Baina garrantzitsua eta erabakigarria. Askok ETAre indarkeria irrazional, tiraniko eta bidegabeari modu baketsuan aurre egiten igaro genuen gure gaztaroa. Elkarrekin egin genuen aurrera, kontzientzia jakin bati jarraiki: egiten ari ginena ez zen entretenimendu bat, ezta gutako askoren nortasun kristautik zetorren erantzun koherente bat bakarrik ere, eta munduarekiko konpromiso bat eskatzen (eta are galdatzen) zuen, eta konpromiso hori benetan eraldatzailatzat hartu genuen. Taldean umotu ginen gure herritartasunaren jarduna sendotzeko eta indartzeko, eta, aldi berean, ETA umotu eta hazi egin zen bere ekintzen bidez, azkenean hainbeste makurkeria jasan ezin izan duen zuhaitz batetik ustelduta erortzeko. Ezin ginen erori (ez ginen erori behar) terrorismoa eta terroristak "horren beldurgarriak" eta "horren garaiezinak" zirelako etsipenean, eta pixkanaka-pixkanaka jendeak mezu hori barneratzea lortu genuen.

NONDIK JOAN GINEN

Ziurgabetasun, beldur, apatia eta konplexuen artean hazten joan ginen, baita kontzientzian eta erabakimenean ere. Ziurgabetasun, beldur eta konplexu batzuk ez ziren erabat desagertu, baina indarra eta ahalmena galdu zuten, gero eta gehiago izan ginelako kalea hartu genuenak, espazio publiko hori bakea eta errespetu soziala aldarrikatzeko leku beharrezko eta egoki bihurtuz. Bakearen Aldeko Koordinakundeak 170 talde inguru izan zituen bere unerik gorenean. Espainiako gainerako herrialdeetan eta kanpoan babesten zutenez gain.

Zeregin eta bide horretan, uste dut elizaren oinarritik gentozenetako askok aldeztu aurretik eskuratutako hainbat konplexu espezifiko utzi genituela. Hala nola, euskaldun nazionalista sentitzen zena kristauagoa zela pentsarazten zigutenak, edo zuzena distantziakidetasuna zela sinetsarazten zigutenak, edo hiltzaileak ez zirela pertsona txarrak ulertzen laguntzen zigutenak, muturreko idealak zituztela baizik. Denborak aurrera egin ahala, batzuek ulertu eta onartu egin genuen biolentoen harrokeriak iraun bitartean ezin zela adiskidetzear edo barkamenaz hitz egitea eskatu. Izan ere, hori bigarren une bati zegokion, indarkeriaren eta izuaren egoera iraunkorretik harago. Aurreneko zeregina, ETAk egiten zuena justifikatzen zuten oinarri ideologikoak zapuztea zen. Zeregin hori, bide batez, berandu iritsi zen.

Eliz komunitatearekin harreman eta inplikazio zuzena genuenok, nire kasuan bezala, aurrena apaizgai edo gerora apaiz izan naizen aldetik, presio plus bat jasan behar izan genuen. Bilboko Elizbarrutiko pertsona eta arduradun nabarmenei, besteak beste, honako hauek entzuteak, "alde batean eta bestean indarkeria dagoela", "presoen familiak eta haien sufrimendua ere kontuan hartu behar direla", badela "eskolta eramatea gustuko duen jendea", batzuek "biktimarena egiten dutela" eta antzekoak, nolabait, ekintza terroristak zurrizko (bestela legitimatzeko) goibel uzten ninduen, zurruta eta kontraesan eta nahaste moral sakonen aurrean. Hala ere, hura bereganatu eta kokatzearekin batera, konpromiso hura urte horietan nire bizitzako erreferente bihurtzeko erabakian sakontzeko balio izan zidan. Hori dela eta, Bakearen Aldeko Koordinakundearekin hartutako konpromisoak aurrera egin zuen, eta, azkenean, konpromiso horren bilakaerak 2003ko martxoko hauteskundeetarako zerrendetan aurkeztera eramanez ninduen, ETAk bereziki mehatxatutako alderdiei elkartzasuna adierazteko. Jarrera publikoa ere hartu nuen, prentsa-artikuluen edo talde-hitzaldien bidez. Finean, eta elkarren ondoan egonda ere, irakaspen horiek duelu, arrisku, beldur, bakardade... artean barneratu genituen.

Oso urte zailak izan ziren, eta askotan gutxi, bakarrik eta errotuta sentitu ginen. Eta zenbatetan sentiarazi gintuzten inozo!

Beldurrak eta egoera problematiko eta urduriei ihes egiteko erosotasunak eragozten zuen gu babestuta egotea. Zenbat ahots entzun ditudan xuxurlatzen, "ados nago zurekin, baina ez naiz ausartzen!". Nire baitan pertsona batzuen hotsak eta aurpegiak gordetzen ditut. Zalantzarik gabe, haien zailtasunak ulertu nituen; beraz, gaur ez diet ezer leporatzen.

Urteak igaro ziren egurats gorria diluitu zen arte, eta nolabaiteko estaldura sortu zen gizartean, komunikabideetan eta erakundeetan. Nik neuk Bakearen Aldeko Koordinakundearen aurkezpen-ohar bat idatzi nuen Iñaki Gabilondorentzat, 1988ko maiatzean *El Correo* egunkariak "Giza Balioak" atalean herri-bozketa bidez emandako lehen aintzatespena jasotzean. Ez zekiten zehazki nor ginen, ezta Bilboko Arriaga Antzokian egindako galaren aurkezleak ere. Eta esan dezakegu Espainia osoarentzat gure existentziaren eta egintzen aurkikuntza Julio Iglesias Zamoraren askapenaren alde egindako ekintzetatik eta lazo urdinaren sinbolotik abiatzen dela ia, 1993an Asturiasko Printzearen Elkartasun Saria ematearekin batera.

IRITSI AL GARA?

Azken batean, Bakearen Aldeko Koordinakundea esperientzia bizia izan da niretzat, giza hazkuntza eta heltze prozesu gisa, indibiduala zein kolektiboa. Izan ere, errealitate gogor bati aurre egin behar izan genion, eta horrek eragotzi egiten zigun gu geu izatea, nortasun zibikoa duen gizarte integratua eta, aldi berean, integratzailea eta plurala izatea. Lortu genuen ala ez, edo guk egindako ekarpenetik benetan zer geratzen den, historiak (eta historialariek) epaituko du etorkizunean.

Nire kasuan, behintzat, 2003ko martxoko hauteskundeetan mehatxupeko kideak zituzten alderdien zerrendetan aurkeztu ginen apaizok adierazitako zerbaitekin identifikatzen jarraitzen dut egindako konpromisoaren zentzua: "Argi eta garbi ulertzea nahi dugu egiten dugun keinua ez dela gure ideia politikoen ondorio, baizik eta Jesukristoren ebanjelioarekiko

koherentzia-saiakeraren ondorio, zeina hil ostean gu guztiongatik berpiztu baitzen”.

Orain, ETArek terrorismoak euskal eta espainiar gizartearen oraintsuko historiaren atal triste bat itxi duela dirudien honetan, merezi duen tokiren batera iritsi garen jakiteko zain gaude oraindik. Nolanahi ere, horretaz iragan-denboran hitz egiteak lasaitasuna eta nolabaiteko poztasuna dakar.

ETAren HILKETA LAUKOITZ BATI BURUZKO TESTIGANTZA

SILVERIO VELASCO



Silverio Velasco Filosofia irakaslea izan zen Euskal Herriko Unibertsitatean. 1986ko urriaren 25ean, ETAk bere arreba Daniela, honen senar Rafael Garrido Gil (Gipuzkoako gobernadore militarra) eta bien semeetako bat, Daniel Garrido Velasco, erail zituen, baita oinezko bat ere, María José Teixeira Gonçalves. Lerro hauen gainean, *El Diario Vasco*, 1986ko urriak 26.

Lerro hauek idazten ditut 1986ko urriaren 25ean ETAk Rafael Garrido Gil Brigadako jenerala eta Gipuzkoako Gobernadore Militarra (59 urte), haren emaztea, Daniela Velasco Domínguez de Vidaurreta (58 urte), bien semea, Daniel Garrido Velasco (21 urte) eta María José Teixeira (27 urte) hil zituenetik hogeita hamar urte baino gehiago igaro direnean. Azken emakume hau, portugaldarra, urte hartako azaroaren 11n hil zen, atentatu hark eragindako zauri larrien ondorioz. Gainera, ezin ditugu ahaztu larritasun ezberdineko dozena bat zaurituak.

Bai nire amak, bai Rafaelenak, Presentación Gil Faulínek, adorez biziraun zioten familiaren hondamen hari. Nire amak, Guadalupe Domínguez de Vidaurreta Izcoek, 90 urte zituen, burua

oraindik urritu gabe (oraindik hamar urteko bizitza geratuko zitzaion, ehun urtetara iritsiko baitzen) eta bere alaba bakarraren hiltzaileei barkatzeko gai izateko eredugarritasuna izan zuen: “Ez diezaietela ezer egin”, esan zuen hitzez hitz.

Terrorismoaren biktimei babes emateko kausa noble honen betiko lagunari, Alfredo Tamayo jesuitari (Antonio Beristain kide erlijiosoarekin tandem bat osatu zuena), eskerrak emanaz, 2011ko urriaren 24an *El Diario Vasco* egunkarian idatzitako artikuluaaren paragrafo hauei bide ematen diet:

Orain hogeita bost urte bete dira talde terroristaren atentatu odoltsu-
netako bat gertatu zenetik. Urriaren 25eko goiz erdia zen leherketa gor-
garri batek hiriaren erdigunea astindu zuenean. Bulebarraren eta
Donostiako Legazpi kalearen arteko bidegurutzea zen lekua. Ibilgailu
baten karrozeria zatiak, hurbileko erakusleihoetako kristal zaparrada
bat, su eta ke laino bat, izu eta laguntza oihuak ziren eszenografia tragiko
hura osatzen zutenak. Kea desegin eta minutu batzuen buruan, ibilgai-
luaren hondakinen artean hiru gorpu txikituta ikusi ahal izan ziren, eta
espaloietan oinezko batzuk zaurituta. Gorpuak Rafael Garrido goberna-
dore militarrena, bere emazte Danielarena eta bien seme Danielenak
ziren. Zaurituetako oinezko bat María José Teixeira portugaldarra zen,
egun batzuk geroago hilko zena. Motor batean zihoan etakide bikote bat
zegoen atentatuaren jatorrian. Ibilgailuaren sabaian itsaspenezko bonba
magnetiko indartsu bat jarri, eta ziztu bizian ihes egin zuten.

Atentatuak astindu handia eragin zuen hirian eta Espainia osoan. Ondoren jakin zen Garrido jenerala berehala ohartu zela lehergailua jarri zutela, eta ibilgailuko gidariari oihu egin zion autoa berehala uzteko. Horrela salbatu zuen bizia soldadu hark, baina ez jeneralak eta haren familiak. Gorpuak Jakara eraman zituzten, familiarentzat gogokoena den hirira. Hileta elizkizunak hemen egin ziren, Donostiako Santa Maria elizan, eta José Elgarresta parrokoa izan zen ekitaldiaren buru, Garrido familiarekiko gertutasunez eta enpatiaz betetako homiliarekin. Hala ere, keinu horrekin eta elkartasunezko beste batzuekin batera, noski, herritarren ohiko axolagabekeria kontuan hartu

behar izan zen. Baita poz ankerreko erakusgarriak ere. Garai hartan EHUko Filosofia fakultateko irakaslea nintzen, orduan Zorroagan, eta luzaroan jasan behar izan genuen pintada bat areto betean, honela zioena: "Garrido familia kandelen kea bezala joan zen". Agintari akademiko bakar batek ere ez zuen astetan zehar hura ezabatzeko ekimenik hartu. Are gehiago. Silverio Velasco, jeneralaren koinatua, hiriko institutu bateko irakaslea zen. Irakaskuntzari berrekitean, Jarraiko ikasleen txantxak, barreak eta popatik-keinuak jasan behar izan zituen. Silveriok ezin izan zituen luzaroan jasan gizatasunik gabeko erakusgarri horiek, eta eszedentzia eskatu behar izan zuen.

Garrido familiak, kristau sinesmen sakonak zituenak, ez zuen atentatuaren biktima izan zen neska portugaldarra ahaztu. Senarrari eta seme-alabei lagundu zien. 2003. urtea iritsi behar izan zen Garrido-Velasco familiaren senitartekoek, ekitaldi solemne batean, Donostiako udalbatzak, orduko alkate Odon Elorzaren eskutik, ematen zuen jatorrizko Urrezko Domina jaso zezaten.

Aita Tamayok On José Elgarresta Donostiako Santa Maria elizako parrokoari egindako aipamenak, gertaera gertatu zenean, nire familia-ren hiletan (1986ko urriaren 26an) esan zuen homilia zirraragarri hura transkribatzera narama. Egileak hitzez hitzeko kopian niri emateko adeitasuna izan zuen. Honekin bukatzen dut nire lekukotasuna, non oraindik ez den aipatzen laugarren biktima, María José Teixeira Gonçalves, hamabostaldi mingarri baten ostean hilko zena:

Agintari bikainak, Rafaelen eta Danielaren seme-alabak, Danielen anai-arrebak, minaren familia, lagunak eta anaiak denak Kristo Berreroslearengan.

Ahotsa dardarka daukat, bihotza dardarka, denok oinazezko sentimendu itzel batez betetzen gaituen tragedia honen aurrean. Hemen daude, gure aurrean, gizon on baten, bere emazte eta semearen gorputz zuloz beteak. Jardunbide distiratsuko gizona, noblezia berezikoa, sutan garbitutako leialtasunekoa, gorputz osoko eta arima osoko kristaua, guztien laguna, lagun handia,

gorrotozko izpirik gabea. Esku errugabeko eta bihotz garbiko gizona, Eskritura Santuek eskatzen duten bezala. Daniela, bere emaztea, errugabea. Bere semea, Daniel, errugabea. Hemen dago errugabetasun sakrifikatua! Bere aberriarentzako egun apokaliptiko batean, Foch jeneralak zioen: "Frantziak odol isuri asko behar du bere bekatuak garbitzeko". Agian, guk ere bai...

Eta hilketa hirukoitz honen aurrean, zer esan? Ahoa esaldi gogor-gogor eta mingotsez betea badut ere, ez dut bakar bat ere esango, gaitzespenik gogorrenak ehun aldiz errepikatu baitira; bakerako eta elkartasunerako deiak etengabeak dira. Ez dago hitzik kalifikatzeko. Bene-benetan eta literalki kalifikaezina da. Gainera, Basilika honetan gaude, eurek hainbeste maite zuten gure Koruko Ama buru dugula. Beti nahi izan dugu elkartasun eta harrera gune bat izatea.

Ez da doktrina-sermoia egiteko garaia, ezta manuak edo jarduteko irizpideak azaltzeko garaia ere. Baina bada garaia barruan dugun atsekabea eta mina elkarri adierazteko eta beren seme-alaba eta lagunekin partekatzeko, hemen izaki maite batzuen heriotza deitoratzen dugun guztiekin..., eta guretzat, kristauok, errukien Jaunari gure erregu larritua goratzeko ordua da.

Gure sentimendu gizatiar hutsei men egiten utziko bagenie, honelako hitzak aterako litzazkiguke: justizia, errebantxa edo, agian, mendekua. Baina kristauak gara, eta Jainkoari eskatuko diogu gizatasunez ezin duguna eman diezagula: suminetik barkamenera igarotzeko grazia.

Baina Jauna, betiko Jainkoa! Noiz arte, Jainko Handia! Gure bekatua aitortzen dugu. Gure artean Kainen odol asko dagoela aitortzen dugu. Gure ezintasuna aitortzen dugu. Bakea eta senidetasuna lortzeko gure gaitasunik ezaren esperientzia dugu. Altxa zure besoa. Izan zaitez Zu gure urratsak zuzentzen dituen. Argitu zure aurpegia gure gainean. Eta ireki diezaiogun bularra itxaropenari.

Gizakiok, giza ikuspegi hutsetik, zentzugabetzat jotzen ditugu gure giza itxaropenak suntsitzen dituzten heriotza horiek, eta ezin dira erabat antzuak izan. Balio bat izan behar dute, lurrean usteldu

eta galburu lerdenetan loratzen den gari-aleak balioa duen bezala.

Pentsa dezagun, bizitzaren mugaz bestaldean, bizi den Jainkoarekin topo egingo dugula. Izan ere, Jainkoa bizi da, eta konfiantza dugu hiru martiri errugabe hauek Berarengan sinesten dutenentzat prestatutako atsedenerako lekuan hartuko dituztela. Izan ere, "neu naiz piztuera eta bizia, niregan sinesten duena, ez da betiko hilko eta nik berpiztuko dut".

Bizitza hauen prestutasunak eta haien heriotzen holokaustoak negarrik eta dolurik, heriotzarik eta minik gabeko udaberri amaiezin bat merezi izateko adina adore izango dutela uste dugu, espero dugu eta sinesten dugu.

Bidal diezaiegun gure anai-arreba maiteei, Rafael, Daniela eta Danieli, gure adiskidetasun eta otoitz mezua.

Azkenean, erraza ez dena, egin dezagun ahalegin bat gure izpiritua baketzeko. Parte har dezagun kristau guztiok, Kristorekin batera, Aita Jainkoa, errukien Jainkoa goratzen dugun otoitz handi honetan.

HIPERCORREKO ATENTATU TERRORISTAREN BIKTIMA BATEN KONTAKIZUNA

JOSÉ VARGAS



José Vargas (argazkiaren erdian, Fernando Altuna, Jon Juaristi, Elena Faba eta Teresa Freixesekin batera) Erakunde Terroristen Biktimen Kataluniako Elkarteko presidentea da. ETAk 1987ko ekainaren 19an Bartzelonako Meridiana etorbideko Hipercor merkataritza-gunearen aurka egindako atentatuan zauritu zuten. Talde terroristaren sarraski handiena izan zen, 21 pertsona erail zituzten, tartean lau adin txikiko. Bartzelonako lehen komandoak burutu zuen 1987ko ekainaren 19an, ostirala, 16:08ak aldera. Eraitza: 1989ko urriko epaiaren arabera, 21 hildako (20 bezero eta langile bat) eta 45 zauritu (44 bezero eta langile bat). Egileak: Domingo Troitiño Arranz eta Mercedes Ernaga Esnoz (1989ko urriko epaian zigortuak), eta Santiago Arrospide Sarasola eta Rafael Caride Simón (2003ko uztaileko epaian zigortuak).

Atentatua gertatu ondoren, hainbat protesta-manifestazio antolatu ziren, eta, egindako guztien artean, Bartzelonakoa izan zen jendetsuena. Alderdi politiko guztiek bat egin zuten aurrekaririk gabeko protesta batean, baina batasun hori murriztu egin da urteen poderioz, zenbait sektore politikok biktima eta atentatu jakin batzuk alderdikieriaz erabili izan dituztelako.

1987ko ekainetik abendura arte, eraildako biktimen familia bakoitzak eta zaurituek, senideekin batera, bakardadean bizi izan zuten beren atsekabea. Klase politikoko kide bakar batek ere, ezta klerokoak ere, ez zuen interesik erakutsi biktima bakoitzaren egoera zertan zen jakiteko. Hilabete horietan, auzokide izateagatik elkar ezagutzen zuten biktima batzuek bakarrik izan zuten nolabaiteko harreman pertsonala.

Gogoratu eta eskertu behar da egun goibel haietan gutxienez bizpahiru pertsona saiatu zirela kaltetuak biltzen, kolektiboaren ordezkaritza bat erdietsiz, gutxienez laguntza hobea eta, batez ere, antolaketa mediko eta administratibo hobea eskatzeko balio izan zuena. Lan hori baliagarria izan zen, hasiera batean, norbaitek biktimen izenean hitz egin zezan, Zaintza Intentsiboko Unitateen barruan edo, zoritxarrez, pertsona maiterik gabeko etxe batean bakardadean bizitzen ari ginen askoren errealitatea ezagutarazteko.

174 egun lehenago hainbeste hitzeman zuen Administrazio hark biktima larrien taldea erabat abandonatuta utzi zuen; izan ere, une horretatik aurrera, lesioak larriagotzen baziren, biktima bakoitzak bere kabuz hobetu behar zuen. Bi adibidek ondo laburbiltzen dute zein den biktimek merezi ez duten tratua, baina tratu horrek berdin jarraitzen du gaur egun ere. Hildakoen senideei doluminak eta "animoak" emateko telegramez gain, besterik ez. Era berean, ez al zuten animozko telegrama bat merezi zaurituek eta haien familiekin ere? Eta istorio honen gauzarik inkongruenteena: komunikabideek irailaren 5ean egileetako bi atxilotu zituztela jakinarazi bazuten ere, albiste horren komunikazio idatzia bi aste geroago iritsi zitzaigun biktimoi. Gainera, "ETAren historiako atentaturik larriena" bezala izendatu zutenaren biktimok gure kabuz bilatu behar izan genituen

konponbideak, administrazioaren erabateko utzikeriaren aurrean.

Medikuen aldetik, inork ez zuen planteatu zauri fisiko zein psikologikoen segimendu jarraiturik. Inori ez zitzaigun gure eskubide juridikoen berri eman, biktimek atentatuaren egileen aurkako ekintzak gauzatzeko izan genitzakeen aukerak planteatuz. Izapidetutako gai juridiko bakarra senide baten hilketagatiko kalte-ordainak izan ziren, eta, izapide horretarako, gehienek beren kabuz mugitu behar izan zuten ezagutza juridikorik txikiena ere izan gabe. Zaurituen kasuan, auzitegiko medikuen balorazioen mende zeudenez, kontua are okerragoa izan zen. 1987ko abenduko balorazio-forentsearen egunaren ondorengo lesioen sekuelak edo larriagotzeak bide judizialetik erreklamatu behar ziren.

Administrazio-lankidetzaren inolako zantzurik gabe, gertaera positibo bakar bat aitortu behar da: Gobernu Zibileko funtzionario batek egindako lan eskerga, zeinak, bere lan-ordutegitik kanpo lan eginenez, biktima askorenganako giza interesa erakutsi baitzuen, eta guk beti eskertu izan diogu. Pertsona horrek bakarrik erakutsi zuen guganako interes pertsonala, basamortuko gure zeharkaldi osoan gogoratzea merezi duen laguntza bakarra izanik.

1989ko urrian gauzak aldatzen hasi ziren. 1987ko apirilean Bartzelonan burututako atentatu batengatik Auzitegi Nazionean egitekoa zen epaiketa baten berri eman zuen komunikabideren batek, hain zuzen ere, Hiperkorrekoaren aurreko atentatuarena. Ondoren, logikoa denez, gure atentatuaren epaiketa egin behar zen. Dei eta ikerketa asko egin ondoren, epaiketa urriaren bigarren astean izango zela jakin genuen. Atentatu bereko hiru biktima, alde zurretik elkar ezagutzen ez genuenak, gure senideen hiltzaileen edo zauriak eragin zizkigutenen aurkako epaiketa batean sartzeko prest geunden, inongo administraziok ezerk jakinarazi gabe eta parean topatuko genuen horretarako prestatzen lagunduko gintuen inorekin harremanik izan gabe. Gogoratu behar da epaiketa azkarra izan zela. Bi egunetan amaitu zen dena, sekuelen eta zauri fisikoen balorazioak barne. Esperientzia horrek balio izan zigun geroago terrorismoaren beste biktima askori une zail haiek gainditzen laguntzeko. Epaia berehala eman zen jakitera.

Troitiño eta Ernagari 794 urteko espetxe-zigorra ezarri zieten, eta aurreko atentatuengatik zutena kontuan hartuta, mila urte baino gehiagoko espetxe-zigorra jaso zuten. Gogorarazi behar da biktimoi ez zitzaigula epai horren kopia bakar bat ere eman, nahiz eta pentsatzekoa den gure datuak justizia-administrazioaren esku zeudela.

Egun batean zerbait oso garrantzitsua ulertu genuen, urte batzuk geroago oso beharrezkoa izango zena. Legeak bihozgabeak dira. Dokumentazioa aurkezteko eta dagozkion ekintza juridikoak gauzatzeko epeek mugaeguna dute. Epe hori amaitzen bada, nahiz eta inor ez arduratu zuri horren berri emateaz, zure eskubide guztiak galtzen dituzu. Biktima gehiagoren bila jarraitu behar genuen, ez bakarrik Hiperkorreko atentatukoak, beste atentatu batzuetakoak baizik. Detektibe-lanetan ibili ondoren aurkitu ahal izan genituen biktimak. Izan ere, gertatutako guztian nahastutako administrazioen laguntza izan bagenu, denbora, arazo eta, ez dezagun ahaztu, baliabide ekonomiko pertsonal ugari aurreztuko genituzkeen. Artikuluak, araudiak, legediak, jurisprudentzia eta dokumentazio ofizialaren zerrenda luze bat ikasi genituen, hilabete batzuk lehenago, bazenik ere ez genekiena. 1990eko lehen hilabeteak oso zailak izan ziren, eta gure ahaleginaren ondorioz agertzen zihoazen beste biktima batzuen agerpena gehitu behar zaio horri.

Egunen batean, hau guztia oroitzapen triste batean istorio triste bat besterik ez denean, Auzitegi Nazionaleko atean elkar ezagutu genuen hiru lagunok denbora apur bat hartuko dugu 1989ko urrian aurre egin beharreko gastu guztiak zenbatekoak izan ziren kalkulatzeko.

Hainbeste urtez Katalunia osoan biktimak bilatzen aritu ondoren, Hiperkorren aurkako atentatuaren biktima ugari aurkitu ahal izan genituen, Katalunian bizi zirenak edo, denborarekin, Espainiako beste leku batzuetara bizitzera joandakoak.

2000. urte inguruan Hiperkorren aurkako atentatuaren arduradun ziren beste bi terrorista estraditatu zituzten Espainiara: Rafael Caride Simón eta Santiago Arrospide Sarasola. Bi horiek ez zituzten auzipetu 1989ko urriko lehen epaiketan, eta, beraz, beste

auzialdi bat egin behar zen haien aurka. 2003ko ekainaren amaieran egin zen.

Data hori baino apur bat lehentxeago, eta Kataluniako biktimok AVTren zuzendaritza berriarekin genituen komunikazio arazoak zirela eta, Erakunde Terroristen Biktimen Kataluniako Elkarte (ACVOT) sortzea erabaki genuen. Elkarre honek hiru sortzaile nagusi ditu: José M^a Fuster-Fabra abokatua, Roberto Manrique biktima (Hiperkorreko langilea) eta ni, saltokietako bezeroa. Kataluniako Generalitateko Justizia Kontseilaritzan aurkeztu genituen estatutuak, eta haiek onartu ondoren, jendaurreko aurkezpen bat egin genuen Bartzelonako Abokatuen Elkargoan, 2003ko ekainaren 26an.

Azpitarratu behar da ETaren ahultasuna ez dela kasualitatearen ondorio, baizik eta Zuzenbidezko Estatuak terrorismoaren aurkako borrokan eta Estatuako Segurtasun Indar eta Kidego ezberdinek izandako jardueraren ondorio. Era berean, gure jarrera berretsi nahi nuke, hau da, biktimen elkarreok ez dugula inola ere bide eman behar Gobernuaren jarduna oztopatzeko.

Biktimek justiziarako duten eskubideak berekin dakar hiltzaileek eta hainbeste min eta sufrimendu eragiten dutenek gure Zuzenbidezko Estatuak eta gure justiziak lege ezartzen dizkieten zigorrak betetzea. Biktimok jakin behar dugu ahotsa izango dugula amaiera horretan, baina erabakiak gure legezko ordezkariak hartu beharko lituzkete. Terrorismoaren biktimok funtsezko eginkizuna bete dugu mendekua ez gauzatzeko, Zuzenbidezko Estatuarekiko eta justiziarekiko konfiantza erakutsita. Alderdi guztien arteko adostasuna eska daiteke, ohartaraziz ETaren terrorismoaren amaierak ezin dituela gainditu Zuzenbidezko Estatuarekin eta biktimen beren duintasunarekin lotutako zenbait ildo. Biktimok legitimitate osoa dugu ezarritako ildoak gainditzeko dituzten jardura politikoen aurka egiteko. Ildo horiek legitimitatea lortzeko, biktimen beren munduan adostuta egon behar dute, ez bailuke inolako zentzurik izango alderdi politikoei adostasunak eskatzea eta biktimen baitan halakorik ez egotea.

ETAren amaierak ezin du inolako prezio politikorik izan; beraz, terroristekin negoziatzea baztertzen da. Amaiera horretan gauzatzen diren ekintza guztiek lekua izan behar dute gure Zuzenbidezko Estatuan. Terroristen halabeharrari dagokionez, legeek aurreikusten dutenaren arabera aplikatu beharko da gure ordenamendu juridikoa, eta proposamen horiek indibidualizatuak izan beharko dute. Ez lirateke onargarriak izango konponbide kolektiboak ETAko presoek kolektiboarentzat. Gure Zuzenbidezko Estatuan aurreikusitakoa izan behar dute buru: 1978ko Konstituzioa, Espetxeen Lege Orokorra, Zigor Kodea eta Espetxeen Erregelamendua. Era berean, beharrezkoa da delitu terroristen prozesu-egoerari buruzko informazio-bide bat ezartzea.

Ez dakigu barkamena posible den. Ziur aski bai. Baina planteatu beharrezkoa ez da barkatzen dugun ala ez, baizik eta zer egin behar duten hemendik aurrera preso etakideek biktimek barka diezaiegun. Delitugile horiek beren krimenak justifikatzea babesten badugu, prozesu demokratiko bat garatzeko baldintza nahikorik ez zegoen garai batean egin zituztelako aitzakiapean, gure jarrera guztiz barkaezina izango litzateke.

Kirrinka egiten didan beste gauza bat ezker abertzaleetik eta hiltzaileen lagunen aldetik inposatu nahi diguten diskurtsoa da. Beren diskurtsoek biktimen diskurtsoek baino bitarteko eta oihartzun gehiago izan dituzte beti. "Garaileak eta garaituak" dituen kontakizun bat nahi dugu, ez dugu ustezko "gatazka" baten kontakizuna nahi, inposatu nahi digutena bezalakoa. Hor oso adi eta erne egon behar dugu, eta argi utzi behar dugu hemen ideologia faltsu baten ondorioz erail duten hiltzaile batzuk eta haien gorrotoa, irrazionaltasuna eta indarkeria jasan duten biktima batzuk baino ez direla egon. Hori argi eta garbi geratu behar da hurrengo belaunaldien aurrean. Biktimen eta haien sufrimenduaren kontakizun hori ikasgeletatik erakutsi behar zaie gure ikasleei, dagoeneko pairatu ditugun mamu ideologiko eta hiltzaileak berriro sor ez daitezen.

Horregatik, egokiagoak iruditzen zaizkigu "eragindako kaltearen aitortza eta haren erreparazioa" rekin lotutako adierazpenak, barkamenarekin lotutakoak baino. Guk Gobernuari

eska diezaiokegu terroristak atxilotzeko eta giltzapetzeko, hori baita beti egin duguna, eta argi gera dadila horretan jarraituko dugula.

TXANDA ALDAKETA ETA BIZITZA ALDAKETA

ROBERTO MANRIQUE



Roberto Manrique, ETAk 1987ko ekainaren 19an Bartzelonako Hipercor supermerkatuaren aurka egindako atentatuan zauritua, Erakunde Terroristen Biktimen Kataluniako Elkartearen sortzaileetako bat da. Gaur egun, UAVATEko (Terrorismoak Kaltetutakoei Arreta eta Balorazioa emateko Unitatea) aholkularia da.

Ikasle guztiok izan ditugu gure irakasgairik gustukoenak, eta nire kasuan geografia eta historia ziren. Ezagutzaren bidez ikasi nuen gerretan krimenak egiten zirela, beti zegoelako "bere ideiak

inposatzea erabakitzen zuen norbait, besteren heriotzak eraginez". Agian hori izan zen nire burua kontzientzia-eragozle deklaratzeko arrazoietako bat, garai hartako kartzelaren batean sei urteko kondena bat izateko arriskupean. Edo, agian, beste irakasgai bat, literatura, izan zen 15 urterekin Institutuko aldizkariaren zuzendaria izateko arrazoa. Izenburuak dena esaten zuen: "Zerebelo asaldatur".

Denbora pasa ahala, 1983an ezkondu nintzen, eta 1987an bi urteko haur bat eta 10 hilabeteko beste bat genituen. Bizitzak nire lehenetasunezko hiru irakasgaiekin lotura gutxi zuten beste bide batzuetatik eraman baninduen ere, gazte-gaztetatik gozatu nuen harakin gisa lan egiten. Ekainaren 18an, osteguna, kide batek hurrengo eguneko txanda aldatzeko eskatu zidan. Arazorik gabe onartu nuen, eta une horretatik aurrera, kaltetu bat gehiago izateko hautagai bihurtu nintzen inoiz arreta gehiegi jarri ez nion "gerra" hartan, politikak ez zidalako inoiz interes gehiegi piztu. Komunikabideren batek ETAk (edo beste sigla batzuek) atentatu bat egin zuela esaten zuenean ere, bertsio ofizialarekin konformatzen nintzen, "Gobernuak bere gain hartuko ditu familiak", eta gai horrek ez zuen zerikusirik ez nirekin ez nire inguruarekin.

Ostiral goiza libre nuenez, haurrak amonarekin utzi eta haurtzaroko lagun handi batekin joan nintzen tenisean jolastera. Ordu horretan bertan, euri-tanta gogaikarri batzuek partida amaitzera behartzen gintuzten bitartean, handik kilometro gutxira hiru terrorista beren lehergailu hiltzailea prestatzen ari ziren.

Umeak ikustera joan nintzen, haiekin bazkaldu eta, gero, oinez joan nintzen lanera. Hipercorretik hurbil, gero eta euri gehiago ari zuen, eta aparkalekura sartzeko atetik sartzea erabaki nuen, Ford Sierra baten ondotik. Haren azpiak lurra ukitzen zuen. "Hau makina!", pentsatu nuen. Kotxe hura justu nik lan egiten zuen harategiaren azpian aparkatu zuten.

Handik pixka batera, mostradorean Agustina andreari eta haren alaba Mari Carmenentzat hamar solomo-liburuxka prestatzen ari nintzela, makina hark eztanda egin, eta uhin hedakor bat sortu zuen. Uhinak lurra txikitu, eta,ugarrekin eta

bero-bolada ikaragarri batekin jarri gintuen aurrez aurre eta behetik gora. Makinak 300 kilo lehergai zeramatzan barruan, amonalaren, talka-itsasgarriaren, xaboi-ezkaten eta hainbat metrailaren artean. Arrazoiz, lurra ukitzen zuten azpiek...

Ez naiz sartuko erretzen ari zarenean sentitzen denari buruzko xehetasunetan, talka-itsasgarriaren eta xaboi-ezkaten nahasketa azalari itsasten zaiola eta ke trinkoak itotzen zaituela, aurpegiko azala urtzen eta betazalak ixten ari zaizkizula, oinak mugiezinak diruditela eta guztiarekin talka eginez alde egin behar duzula, besoak eta eskuak ere erreta daudelako.

Beheko solairuan, makina hiltzailea zegoen lekuan, hamabost ziren jada hildakoak. Zauriturik larrienak hogeiren bat ginen, eta horietatik seik ezin izan zuten bizirik iraun.

Supermerkatuko hozkailu batek eztanda egin zuela besterik ez nuen pentsatzen. Nire buruak sinetsi nahi zuen istripu bat izan zela eta nola edo hala biziraun behar nuela. Asteartean, hilak 23, eskuineko besoa salbatzen saiatzeko ebakuntza-gelara ninderamaten bitartean, bereziki kaltetua zentzumenen eta nerbioen mailan, ahots bat entzun nuen esaten: "bai putasemeak ETakoak, nola bururatzen zaie supermerkatu batean bonba bat sartzea". Ez dakit nork esan zuen, baina esaldi horrek kraska bat eragin zidan burmuinean: ospitaleko korridore bateko ohatilan jakin berri nuen atentatu terrorista baten biktima izan nintzela.

Frantzian bizi zen euskaldun batek palentziar bati, nafar bati eta galiziar bati aginduak eman zizkien Katalunian jatorri geografiko desberdineko gizakiak hil zitzaizuten, supermerkatu batean "besteren heriotzak eraginez euren ideiak inposatzeak" nolabaiteko abantailak ekarriko zizkielakoan. Politikoak? Ekonomikoak? Une horretatik aurrera, terrorismoaren biktimen taldekoa nintzen, inoiz gertuko sentitu ez nuen "gerra" batek kaltetua, eta ebakuntza-gelatik hiru aldiz igarotzera behartu ninduen, hatzak, eskuak eta besoak injertatzeko, bai eta aurpegian eta buruan izandako erredura larriak osatzeko ere. Sendaketa gogor eta mingarrietan inork pentsatzen ez duen arren, beti esan izan dut ebakuntza bat baino okerragoak zirela. Ebakuntza-gelan

anestesiaturatu zeunden, baina sendaketetan eta errehabilitazio-ariketetan guztiz kontziente zinen.

Hilabete askoan lanean altak eta bajak izan ondoren, 1989ko urrian joan nintzen epaiketara, eta pentsaezina zen zerbait aurkitu nuen. Eraildako pertsonak zituzten pertsonen kopuru handiaz edo zaurituen zerrenda zabalaz, bik baino ez zuten beren testigantza emango: zauritu larri bat, atzerritarra zenez eta hizkuntza menderatzen ez zuenez, bere bertaratzea desenkusatu zuena, eta atentatuko zauritu arinenetako bat. Pantomima horren arrazoa galdetu nuenean, zozketa bidezko aukeraketa bat izan zela azaldu zidaten. Zozketa? Justiziak biktimen ahotsa, mina eta esperientzia zozketa baten bidez entzuten zituen? Ehun kaltetu baino gehiagotatik bi bakarrik entzungo zituzten?

Epaiketa hartatik irten nintzenean, iruditu zitzaidan biktima zela justiziari gutxien axolaz itzaia, desegokikeriaren pertsonifikatua gina. Egun batzuk lehenago ere egon nintzen epaiketa batean, eta harrituta geratu nintzen, epaitzen zuten atentatuaren biktima hilgarri bakarraren senide bakar bat ere ez zegoelako bertan. Zozketa, utzikeria hutsa edo ezgaitasuna?

Beharbada, barne amorru horrek eta justiziarekiko mesfidantzak eragin zuen 1990eko martxoan AVTko arduradunek aurkeztu zidaten gonbidapena onartzea, eta, segundo batez ere zalantza egin gabe, Katalunian bizi ziren biktimei ordezkari gisa laguntzeko neure burua eskaintzea.

Gerora izandako nire esperientziagatik eta 1989az geroztik talde terroristetako ehunka biktimari elkarre-mailako laguntza integrala eskaintzen emandako urte guztiengatik, hainbat esperientzia, pasadizo, istorio edo era guztietako egoerak zerrenda nitzake: tristeak, alaiak, lotsagarriak, nahitaezkoak, patetikoak... Ikasgai handiak ikasi ditut biktima askorengandik, eta beste batzuk, berriz, nahiago dut ahaztea. Zinismoaren, hipokrisiaren eta ordezkari politiko batzuen, administrazioetako hainbat kideren eta, ezin uka dezaket, terrorismoaren biktimen azpimunduko batzuen muga noraino heltzen den azal nezake. Baina hau ez da horretarako lekua, ezta unea ere. Horretarako denbora egongo da, nahiz eta informazio gehiago nahi duenak "El

Trastero Azul” webgunean kontsultatu besterik ez duen egin behar.

Aitzitik, eta jasandako min ukaezina gorabehera, bai da nire itxaropena agertzeko unea, 2011ko urritik ETA talde terroristak bere jarduera hiltzailea utzi duelako eta beste inork ez duelako jasango askok eta askok pairatu duguna, eta garrantzitsua da hori azpimarratzea, bai Euskal Herrian bai Euskal Herritik kanpo: askok, gehiegik, maite dugun pertsona baten hilketa. Beste batzuek, egunero bizitako mina gogorarazten diguten zauri iraunkor eta baliogabetzaileak.

Soilik espero dut idatzi xume hau irakurtzen duenak herri honetako bazter guztietako terrorismoaren biktimen gehiengo amaigabeari —anonimoak edo ez, ezagunak edo ezezagunak...— egindako omenaldi gisa ikustea. Gure duintasunarekin eta pazientziarekin gertatutakoarekin bizitzen ikasi dugu, eta mundu hobeago bat izateko elkarlanean eta lanean aritu gara, mendekuan erori gabe eta inoren heriotza desiratu gabe.

Eta gainerako herritar zintzoei, beren bizitzako unerren batean gure kausarekin konprometitu zirenei, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu jasotako babesagatik.

NIRE LEKUKOTZA

ERNESTO LADRÓN DE GUEVARA



Ernesto Ladrón de Guevara López de Arbina Araban jaio zen, familia osoa probintzia horretan sustraitua zuelarik. Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan doktorea da. Ermuko Foroan militatu zuen hasieratik.

Educación y nacionalismo (2005) liburuaren egilea da.

Nire lekukotasunak ez du hizpide hartzen horrenbeste terrorismoaren zuzeneko biktima izatea, baizik eta milaka euskal

herritarrok bizi izan genuen sufrimendua, ezberdina dena jazartzeko, baztertzeko eta mehatxatzeko testuinguru batean.

Laurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera, hezkuntza-sistemaren instrumentalizazioaren eta doktrinamenduaren aurkako borrokan parte hartu nuen, batez ere eskolatze-fase primarioenetan; batez ere, garai hartan, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean.

Euskara irmoki inposatua, ikastola jakin batzuk joera nazionalistadun eskolatze sistema paralelo batean sartuak, eta hedatzen ari zen nazionalismorantz jotzen zuten hainbat irakaslek tirabira handiak sortzen zituzten klaustroetan, euskalduntzearen inguruko aldarrikapen-giroa sortzen zuten tresna gisa, eta eskola kutsatzen zuen osagai ideologiko bat. Nire irakasle-sentiberatasunak gizabanakoa eta bere eskubideak balioesten zituen, umearen interesarekiko errespetu handiagoa izatea, eta garai hartan nabarmentzen ari zen eta gerora hedatzen joango zen politizazio bizkorrari eta joera abertzale indartsuari aurre egitera eramán ninduen. Horren erakusgarri izan da sindikatuen botoa, osagai ez-nazionalista zuten sindikatuetatik izaera bereziki nazionalista zuten (ETAren aldekoak ez baziren) beste batzuetara bira egin zuen.

Testuinguru horretan proposatu zidaten Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaría izatea, Ardanzaren Gobernuan, Ramón Jáuregui lehendakariorde zela, ni kide nintzen Euskadiko Alderdi Sozialistaren zutabe garrantzitsua zen Enrique Casasen hilketak markatutako hauteskundeen ondoren. Gertaera horrek markatuta utzi ninduen, eta ETAren terrorismoarekiko distantzia erlatiboko jarrerak aldatu nituen. Ordura arte, sumindu egiten ninduten Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako eta Indar Armatu etako kideen hilketek, baina ez nintzen bereziki ukitua sentitzen. Gaur egun lotsatu egiten naiz nire axolagabekeriaz, baina euskal gizartean nahiko ohikoa zen gertaera gisa adierazi nahi dut, gaixotasun moral baten ondorioz, gertaera makur horietatik kanpo sentitzen baitzen.

Lurralde ordezkaría izanik, euskal herritarrak eurak baino ez direla uste dutenen fanatismoa sentitu nuen zuzenean, eta berdin

pentsatzen ez dutenei beren irizpideak inposizioaren eta jazarpenaren bidez aplikatzeko eskubidea dutela sentitzen dutenen fanatismoa. Nire helburua probintziako hezkuntza-plangintza egitea zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren jarraibideei jarraituz, eta legezkotasuna zorrotz betetzea, inolako arbitrariotasunik gabe. Baina hezkuntza jendetzaren nazionalizazioa lortzeko gudu-zelaia zela uste zutenek ez zuten horrela ulertzen, eta beren asmo sektarioetarako oztopo izateagatik beren amorru eta jazarpenen objektutzat ninduten. Hiru urte horiek, dimisioa eman aurretik, nire bizitzako txarrenak izan ziren. Nire etxebizitzaren aurrean manifestatzen ziren, beren seme-alabekin batera, eta era guztietako oihuak eta irainak zuzentzen zizkioten nire pertsonari, nire familiari, emaztearen eta haur-adineko nire bi seme-alabei sufrimendua eraginez. Batzuetan, gizabanako batzuk atzetik ibiltzen zitzaizkidan nire joan-etorrietan, jarrera hertsagarrian; beste batzuetan, maisuaren eguneko ospakizuna bezalako ekitaldiak sabotatzen zituzten, urtero, bere zaindari-egunean, ospatzen genuena, edo Hezkuntza Ordezkaritzaren egoitzetan sartzen ziren indarrez. Hala gertatu zen, adibide gisa, 1988ko Gabonen aurreko egunetan: hamabost kaputxadun indarrez sartu ziren Ordezkaritzara, zabor-poltsak irauliz eta funtzionarioak izutuz. Nire bulegoko leiho batetik salto egin behar izan nuen, barruko patio batera ematen zuena. Giro horretan garatu ziren egun haiek diabetesa eta tentsio handia utzi zizkidaten, baita antsietatea ere, eta azken horren arrastoak geratzen zaizkit oraindik.

Denboraren poderioz, mende berriaren atarira iritsita, Miguel Ángel Blancoren hilketaren ondoren Ermuko Foroarekin bat egin, eta bere lehen manifestuekin erabat identifikatu nintzen. Aurretik, Bakearen Aldeko Koordinakundeak deitutako Ortega Lararen bahiketaren aurkako elkarretaratzeetan parte hartu nuen. Eta, halabeharrez, Ermuko Foroko ordezkaritza batek Estrasburgora egin zuen bidaian parte hartu nuen, euskaldunon askatasunik gabeko egoera eta etengabeko salbuespen-egoera salatzeko. Geroago, orain azaltzeko lekurik ez dudan arrazoi batzuengatik, Foroaren idazkaritza eta bozeramaile-kargu bat hartu behar izan nituen neure gain, erantzukizunagatik.

ETako akolitoek eta nazionalismo demokratikoa deiturikoak partzuergo bat eratu zuten Lizarrako Itunean, Ermuko hilketaren aurkako protesta-mugimendu soziala neutralizatzeko, boterea nahi erara erabiltzen zutenen kontrol eta nagusitasun sozialaren *statu quo*a arriskuan jartzen zuelako. Handik gutxira, beldur ginena gertatu zen. Gutako norbaiti eraso zioten. Agustin Ibarrola jazarpenaren biktimetako bat izan zen, bere obraren aurkako erasoak eta etengabeko mehatxuak jaso zituen. Baina Ermuko Foroak doktrina eta oinarri ideologikoak sortzeko eta Zuzenbidezko Estatua eta demokrazia bermatzeko egin zuen lan frenetiko harengatik bere bizitzarekin ordaindu zuena José Luis López de Lacalle izan zen, Ermuko Foroaren funtsezko laguna, maitagarria eta lagun ona. Totalitarioen atzaparkada horren ondoren, gutako batzuek berehala eskatu genuen babesa, gehiegi nabarmendu baikinena, ituen eta Internet bidezko mehatxu zuzenen bidez frogatuta geratu zen bezala, baita ETari konfiskatutako dokumentuetan agertutako seinalatze esplizituen bidez ere. Lehenago, Fernando Buesa eta bere bizkartzain Jorge Diez izan ziren Miguel Ángel Blancoren osteko urte haietan gogor zebilen izurrite hiltzailearen biktima, axolagabekeria baino zerbait gehiagorekin abertzaleen aldetik.

Gogoan dut euskara ikastaro bat egiten ari nintzela Arabako Iralen. Euskalduntze zentrorra bi poliziarekin joaten nintzen. Hainbat ibilbidetatik eramaten ninduten, aldatuz zihoazen autoetan. Haiek zuten informazioagatik jakiten nuen irakasleren batek ETako presoei laguntzeko jardueretan parte hartu ote zuen. Ni nintzen —ez dakit beste inor zegoen— aisialdirako irteeran *Egunkaria* jasotzeari uko egiten zion bakarretakoa. Lizuna iruditzen zitzaidan gure askatasunaren gaineko presioa, keinu horrena. Ez jasotzeak markatuta geratzea esan nahi zuen. Ikasturtearen amaiera iritsi zenean, Iraleko zuzendariak iragarri zidan ez genuela euskalduntzearekin jarraituko. Ez zuen argudiorik garatu behar izan. Niretzat argi zegoen.

Jazarpen-terrorismoa egoera hori hamaika urtez bizi izan nuen gero. Luzeegia litzateke gabetasun-urte horietan bizi izan nituen pasadizo eta egoera guztiak aipatzea, beste batzuek bizi izan

dituztenekin alderatuta ez oso ezberdinak, esango nuke. Baina barne-konbultsio bat suposatzen zidan institutuan nire irakaskuntza ematera sartzen nintzen bakoitzean, eta ikasleek galdetzen zidaten zer egin nuen nik nire aingeru zaindarien lagunduta joateko. Bizkartzainen bat nire gelako ateraino joaten tematzen zen, baita nire lanaldi osoan institutuan egoten ere. Begi-bistako arrazoiengatik, nik uko egiten nion horri, eskola-normaltasuna hausten zuen egoera baitzen, eta nik ez nuen eskubiderik hezkuntza-komunitateko gainerako kideei anomalia hori ezartzeko. Behin edo behin bizkartzaina guardian jartzen zen nire ikasle batzuen txantxa xalo baten aurrean, eta lasaitu egin behar izaten nuen ezeren beldur izan ez zedin. Horregatik guztiagatik arma bat erostea aholkatu zidaten, prebentzio arrazoiengatik.

Nire gizartetik baztertu gisa bizi izan nituen nire bizitzako gertakari horien ondoren, oraindik ere neure buruari galdetzen diot zergatik urruntzen zen nigandik nirekin harreman ona izan behar zuen jendea, intrantsigentziaren, biolentoen tiraniaren eta askatuen aurka borrokatzea delitu bakarra izan zuen pertsona batekin erlazioa ez zezaten? Baina bakoitzak jakingo du zer egiten duen bere kontzientziarekin.

Denbora igarota, dagoeneko erretiroa hartuta, 66 abendu atzean utzita, eskolako doktrinatzearen aurka, haurrak helburu politikoekin erabiltzearen aurka eta eraikuntza nazionalistarako hezkuntzaren instrumentalizazioaren aurka borrokan jarraitzen dut. Orain gutxi arte, esajeratua deitzen zidaten. Baina lerro hauek idatzi aurreko egunetako eszenek, Kataluniako gatazkan sezesionisten saiakera dela eta, non haurtzaroa propaganda nazionalistaren kanoi-bazka gisa erabiltzen baita, agerian utzi dute errealitate hori bere gordintasun osoz, orain arte ukatua edo baztertua izan dena. Gizarte totalitarioen ezaugarri da fenomeno sozial eta kultural hori, eta sugearen habia da.

GAZTEA NINTZENEAN

EDUARDO "TEO" URIARTE



Eduardo "Teo" Uriarte 1964an sartu zen ETAn. Burgosko Prozesuan (1970) heriotza-zigorra ezarri zioten, baina ondorengo protestek zigorra konmutatzen lagundu zioten. Trantsizioan Euskadiko Ezkerrako buruetako bat izan zen, eta 1991n Alderdi Sozialistan sartu zen. Handik aurrera, ia 20 urtez, "Teo" ETaren mehatxupean egon zen.

Gaztea nintzenean gazte batek bezala pentsatzen nuen. Bat-batean, lotura politikoarekin ordezkatu nuen nire lotura erlijiosoa, eta, nerabe baten zalantza eta larritasunen artean, aberri bat aurkitu nuen, basatitzat jotzen nuen erregimen baten aurrean asmatu beharrekoa, Espainiak pairatu zuen gerrarik okerrenetik eta aliatu irabazleak berak ere ukitzera ausartu ez ziren diktadura betiereko batetik sortua.

Gazte haren gauzarik okerrenea zera izan zen, integrismo politiko-erlijioso eta kontserbadore gutzia —ez baitzuen kultura demokratikoa, ezta errepublikanoa ere jaso—, eskuzabaltasun arriskutsuarekin eta immolazioaren onarpenarekin eskaini zuela Francoren nazionalkatolizismoak hezi gintuen ideologia bera bezain kontserbadorea zen oinarriko nazionalismo bat asmatzeko zereginean. Haren seme-alaba sasiko ugarietako bat izan nintzen, eta oinarri ideologiko berberekin aurre egitea erabaki nuen. Herri honetan oraindik ezaguna ez dena: noraino den liskar eta erraiarekiko gustu hori erreakzio kontserbadorearen emaitza Ilustrazioarena baino gehiago.

ETAko nire belaunaldiari dagokio Espainian hilketa politikoa berriz hasi izanaren ohore izugarria. Egia da gerra zibil batetik, legez eratutako gobernu errepublikanoaren aurkako matxinada batetik sortutako diktadura zela; egia da dialektika, gerra hotz betean, on eta gaiztoena zela, eta gazteriak eredutzat hartzen zituela borroka anticolonialista edo antiinperialistaren prozesuak —artearen zeuden falangista bakanek ere Che Guevara miresten zuten—.

Aitzakia horietan oinarritu nintekeen beste gizaki bat konbikzio politikoz hiltzeko gure akatsa justifikatzeko, baina ez dago aitzakiarik. Ez zen istripua izan. Beste batzuek, gerran garaitutako ia guztiek, uko egin zioten pistolen dialektikari. Gure kasuan, indarkeriaren aldeko aldarria egiten zuen aztarna ideologiko gehiegi zegoen. Aztarna gehiegi, lehen eraiketa horrek heriotzaren kultura bat has ez zezan, ondorengo belaunaldiek bere gain hartua eta agortu arte praktikatua, ortodoxiarik irrazionalenaren aldareetara igoz, indarkeria purutasun iraultzailearen bermatzaile zela iritzita.

Garai hartan, gaztea nintzela, gazte batek bezala jokatu nuen. Ez dago zalantzarik jende gutxik onartzen zuela egin genuena, Brigada Sozialeko polizia bat erailtzea. Baina gure guraso ideologikoei, Gudarosteko militar atzerakoienek, antolatutako Burgosko Prozesuan, jende askok, bai Espainian bai atzerrian, erregimen haren basakeriaren aurrean, elkertasuna eta begikotasuna adierazi behar izan zien heriotzara kondenatutako

gazte haiei, beste basakeria bat. Epaiketa zibila izan balitz eta hogei urteko zigorra ezarri izan baligute, eta ez hainbeste heriotza-zigor, seguruenik ETA desagertu egingo zen. Baina frankismoak ezin zuen arrazionalki jardun. Gu bezalakoa zen. Eta misiolari martiri gisa fedegabeen lurretara joan ez ginenez, azkenean gudari gisa immolatu ginen prozesu hartan.

Diktadorea ohean hil zen, orain, hirurogeita hamar urte geroago, gerra irabazi nahi dutenen lotsarako, eta fanatiko ikonoklastak bezala, diktadorearen monumentu edo aztarna guztiak suntsitzen eta kentzen aritzen dira. Utz diezadatela Buruzagiaren monumenturen bat, nik bai egin bainion aurre, ez dadila gerta historia memoriarekin ezabatzeko ahalegin honetan, azkenean ez niola ezeri aurre egin, gerra gorriek irabazi genuelako. Barkatu gogoeta.

Diktadorea hil egin zen, eta Espainia bien alde batetik eta bestetik, pertsona batzuek gatazka zaharrak politikaren bidez, demokraziaren bidez konpontzea erabaki zuten. Herriak demokraziaren alde egin zuen. Konstituzioa idatzi aurretik, Amnistiari buruzko Legea adostu zen. Konstituzio horretan nazionalitateak eta eskualdeak aitortu ziren, baita haien autonomia-eskubidea ere. Eta orduan, nire erakundeak terrorismorik basatienaren aldeko apustua egin zuen, demokraziaren aurka diktaduraren aurka baino terrorismo handiagoa eta basatiagoa erabiltzeko. Izan ere, Francok ondare faxista gisa utzi zuena geurea zen. Legitimismo karlistako probintzia zahar haietan, muineraino kontserbadoreak, gure nazionalismotik terrorismoa sortu zen.

Eskekrrak diktadorearen heriotzaren berri eman aurretik, batzuek pentsatu genuen ETArek iraupenak ez zuela zentzurik Espainiako herriaren borondate demokratikoaren aurrean. Egia da, halaber, zalantzak izan genituela Trantsizioaren garaian bizi izan zen errepresioaren gorakadaren aurrean. Baina ez zuen zentzurik indarkeriari eusteak, are gutxiago gero eta odoltsuagoa zen terrorismo bati, arazoak sistemak baimentzen zuen elkarriketa eta negoziazio politikoaren bidez konponbazitezkeen. Arazoak konpondu nahi baziren, indarkeria soberan zegoen.

Beste kontu bat da asmatu berri zen nazionalismo baten asmakuntza sostengatzeko, hain oinarri arrazional —nazionalismo gehienek horrelakorik ez duten arren— eta historiko —nahiz eta nazionalismo orok ez duena erakusten duen, are gehiago oroimenak historia ordezkatzeko duen garai hauetan— gutxi zuena, indarkeria beharrezkoa izatea: sinestezina sinesgarri egiten duen odolaren erritu sakratu eta asaldatzailea, esango luke René Girardek.

Horrela pentsatuz erraz ulertzen da zergatik joan nintzen Alderdi Sozialistara eta zergatik utzi nituen nire lagun zaharrak horren nazionalismo kriminogenoa sostengatzeko ahalegin setatsuan, eta hori nire lagunak moderatuak eta heterodoxo abertzaleak zirela (beste kontu bat da denborarekin euskal sozialistak nazionalistak bihurtzen joan zirela, ez hain zuzen nire babesarekin). Prietoren alderditik, eta ez Largo Caballerorenetik, non Gonzálezek esker nengoela uste bainuen, nire zinegotzi lanari lotu nintzaion, nire pentsamendu-ildoak zaurigabea zelakoan, zintzotasunez jokatu nuelakoan eta indarkeriak pixkanaka desagertu behar zuelakoan, atzera begiratu gabe, eta nik, besteak beste, hasitakoaren erantzukizuna neure gain hartu gabe. Francorena Francorena izan zela eta kito. Zegokidanarekin betetzen nuen: Bakearen Aldeko Koordinakundeak biktimen alde egiten zituen elkarretaratzeetara edo Cristina Cuestak deitutakoetara joaten nintzen.

Oso hilabete gutxi neramatzan zinegotzi sozialista gisa, uda zen, eta alderdiko kide gehienak oporretan zeuden. Orduan, ETAK aurreko egunean hil zuen guardia zibil gazte baten hil-kaperara hurbiltzeko eskatu zidaten, Bizkaiko Gobernu Zibilerara. Banekien joan beharra neukala, baina kezkatuta nengoen nire presentziak gaitzespenen bat piztuko ote zuen beilatokian zeudenen artean. Izan ere, urte batzuk lehenago, Santi Brouardenean Bilboko udaletxean, HBkoek handik bota ninduten. Baina ez, Guardia Zibileko koronelaren hitzak atseginak eta esker onekoak izan ziren. Guardia zibila demokrata bat zen, heziera onekoa izateaz gain. Baina han ikusi ahal izan nuen isiltasuna eta mina jabetu ziren nitaz. Han zeuden guardiaren gurasoak eta anai-arrebak,

jende apala. Ama negarrez, sumintzen ninduen baitaratze batez. Joder! Ez al genuen borrokatu apalen alde, askatasunaren alde, jendearen zorionaren alde? Cezurra: borroka egin genuen gutxi batzuk primeran bizi zitezen, eta, bitartean, ama gaixo hura izugarri sufritzen ari zen.

Zer espoleta basatia jarri genuen martxan! Izan ere, gauza bat da arazoak estrategia baten edo sorgin-ikastunaren hoztasunaz planteatzea, eta beste bat ama haren oinazea ikustea, neurea izan zitekeena, Buruzagiak nire heriotza-zigorrak indultatu izan ez balitu. Gazte hura ez zuen inork indultatu, eta, beharbada, herrialde honetako lokal askotan ETA hil itzazu! oihukatu zuten (eta oihuka jarraitzen dute).

Beste pertsona bat nintzela atera nintzen handik, begi negartsuetan biktimen atsekabeari begiratu ondoren.

EUSKAL TRAGIKOMEDIA TXIKIA HIRU EKITALDITAN

GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA



Gaizka Fernández Soldevilla historialaria da. Terrorismoaren Biktimen Oromenerako Zentroko Ilerketa, Artxibo eta Dokumentazio arloko arduraduna da. Florencio Domínguezekin koordinatu du *Pardines: ETA erailtzen hasi zenean* (2018) liburua. Halaber, *Allí donde se queman libros: la violencia política contra las librerías (1962-2018)* (2023) edo *La voluntad del gudari: génesis y metastasis de la violencia de ETA* (2016) liburuen egilea da (lerro hauen gaineko irudia Memorial Zentroko artxibokoa da).

I. EKITALDIA

Uste dut I. zuela izena, baina ez nago ziur. Badakit argala, beltzarana eta baxua zela. Nik baino urtebete gehiago zuen, baina errepikatu egin zuen azkenean. Beraz, eskolako azken ikasturteetan egon ginen elkarrekin. Ezin dut esan lagunak ginenik. Ez dut gogoratzen gogoko ote nuen, baina uste dut baietz.

Bi eszena ditut grabatuta, non I. protagonista izan baitzen, eta ni ikusle. Lehenengoa OHOk 8. mailan geundela gertatuko zen. Jolas-orduan izan zen. Ez ditut nondik norakoak gogoratzen. zergatik hasi zen edo zer gertatu zen gero, baina irudia ezabaezina da: Goliat Daviden aurka; nire laguna beste ikasle baten ostikadak jasotzen, hau ere errepikatzaila, baina askoz ere altuagoa eta indartsuagoa, inola ere gogoko ez nuena (ez nik ez klasearen gainerako ikasleek: abusatzaile tipikoa zen). I. tinko zegoen, ukabilak itxita, malkoei eusten. Erronka ere bota zion: "jo gogorrago, eduki beharrekoa baldin baduzu...!". Horrelako zerbait. Ezagutzen ez dudana arrazoiren batengatik, ezin zion erasoari erantzun. Baina ez zen makurtu. Xehetasunak nire oroimenean galdu dira, baina ez orduan sentitu nuena: miresmen sakona. Davidek irakatsi zidan zer zen garaipen moral bat Goliat bortitz eta tiraniko baten aurrean.

Errekaldeberri Bilboko auzo langile, erdaldun eta maketoa da. Eta Jesusen Bihotza ikastetxeko ikasleok errealitate soziologiko horren isla fidela ginen. Gure artean zegoen politizazio maila ia ezdeusa zen. Ikasgeletan ez ziguten doktrina politikorik irakatsi, ezta Euskadiko historiaren bertsio desitxuraturik ere. Ez ziguten erakutsi desberdinak ginela, hau da, hobeak ginela. Ezta gorrotatzen ere.

Nire belaunaldiko euskal haur guztiek ez zuten hainbeste zorte izan.

II. EKITALDIA

Batxilergoa beste ikastetxe batean egin nuen, Errekaldeberritik urrun, eta nire ikasle ohiekin harremana galdu nuen. Hala ere,

berriro ikusi nuen I. inauteri batzuetan. Hamazazpi edo hemezortzi urte genituen. Azken unera arte ezertan pentsatu ez genuenez eta aukera erraza zirudienez, kuadrillako lagunok guardia zibilez mozorrotzea erabaki genuen. Berdez gindoazen, plastikozko trikornio barregarri batzuekin, ordezeko biboteekin, pistoi-pistolekin eta mezu barregarriak zituzten karteekin: "Todo por la Patri", eta antzeko gauzak. Agian, baten batek Patriciaren batekin (eta bere lagunekin) hitz egiteko aukera emango zigula espero zuen. Zoritzarrez, ez genuen halako izeneko neskarik aurkitu. Nolanahi ere, ondo pasatzen ari ginen.

Gaua zen, eta Bilboko Alde Zaharreko bidegurutze batean geunden I.rekin topo egin nuenean. Berehala ezagutu nuen. Hazi egin zen, mototsa zeukan, eta koparen bat sobera ere bai. Berak ez ninduen ni ezagutu: uniforme berde bat besterik ez zuen ikusi. Gu ikusi bezain laster, guregana oldartu zen. "Alde hemendik!", oihu egin zigun, Euskal Herritik irteteko ate metaforiko bat seinalatuz bezala. Etengabe errepikatu zuen, gero eta ozenago, handik pasatzen zen jendearen arreta bereganatuz. "Alde hemendik! Alde hemendik!". Euskal nazionalismo erradikalaren eslogana zen, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak euskal lurrean egotearen aurkakoa, Trantsizioan zehar EIAk patentatu zuen "*¿Qué se vayan!*" haren oinordekoa. Saiatu ginen harekin arrazoitzen, baina ezinezkoa izan zen: I. erotuta bezala zegoen, bere onetik aterata. Lepoko zainak handituta zeuzkan, gorputza tentsioan, erasotzeko zorian dagoen felido bat bezala. Ez dut inoiz ikusi harena bezalako begiradarik, suminez horren betea. Ez dut inoiz ahaztuko.

Ez dakit beretarrek eraman zuten edo gu joan ginen kalte handiagoak saihesteko. Nolanahi ere, nire lagunek berehala ahaztu zuten haientzat anekdota hutsa besterik ez zena. Niretzat beste zer bait zen: haurtzaroko oroitzapen lausotu bat. Gertaerak tristura arrasto bat utzi zidan, festa samindu zidana. Davidek David izateari utzi eta Goliat bihurtu zen.

Neure buruari galdetu nion zer gertatu ote zitzaion egun batean mirestera iritsi nintzen mutikoari? Zer bihurtu zen? Zer bihurtu zuten? Nork inokulatu zion fanatismoaren birusa? Noraino iristeko gai izango zen?

III. EKITALDIA

Karrera amaitzean, Madrilera joan nintzen master bat egitera. Luze gabe galdu nuen harekiko lilura, baina urte hura ez zen erabateko denbora galtzea izan. Besteak beste, neska zoragarri bat ezagutu nuen, eta harekin harreman bat hasi nuen. Gaur egun lagunak izaten jarraitzen dugu, eta horri esker, nire oroitzapenak harenekin kontrastatu ahal izan ditut, eta, beraz, azken zati hau arrazoizko sinesgarritasun-berme batekin idatzi ahal izan dut.

Itzul gaitezen iraganera. 2004ko abuztuan, masterrari lotutako praktikak amaitu ondoren, Bilbora itzuli nintzen. Hara iritsitakoan, orduko nire neska-laguna gonbidatu nuen nirekin Aste Nagusiko jaiak pasatzera. Nire hiria bisitatzen zuen lehen aldia zen, beraz, oso egokiera berezia zen. Autoan etorri zen. Garai hartan ez zegoen GPS edo mugikorrik Google Maps-ekin; hortaz, Bilboko sarreratik gertu geratu ginen. Kopilotuaren eserlekura igo eta gurasoen etxera gidatu nuen. Handik minutu gutxira, ni bizi nintzen kalera iritsi ginen.

Gertu geundela, espaloian hiru gazte txanodun hurbiltzen ikusi genituen. Dena oso azkar gertatu zen. Justu gu pasa baino lehentxeago, haietako batek zaborrontzi batzuk jarri zituen errepidearen erdian. Bidea itxita geneukan. Ezin genuen atzera egin ere: gure atzean beste mutil batek hesi hori batzuk jarri zituen, obretakoak. Hirugarrenak molotov koktel batzuei eusten zien, zaborrontziak eta hesiak suzko langa gaindiezin bihurtzeko.

Ezer berririk ez. Eskuliburuko kale borroka: ultranazionalista asaldatuak, gasolina botilak, hiri-altzarietan eragindako kalteak, trafikoarentzat moztutako kale bat eta traba handiak bizilagunentzat. Beldurrak eragozten zien kaleko bandalismo ekintza horiengatik protesta egitea. Hemen oso ondo bizi gara. Euskadin ohikoa genuen "normaltasun" demokratikoaren parte zen dena.

Beno, dena ez. Gure autoa tranpa sukoi horren erdian blokeatuta zegoen. Eta gu biok barruan. Uste dut nire gaztaroko inkontzientziagatik izan zela, baina, egia esan, gehien kezkatzen ninduen ez zen fanatiko batzuen erruz kiskalita hil ahal izatea,

baizik eta neska-laguna nire sorterriko aurpegirik txarrenaren lekuko izan behar izatea. Sekulako lotsa sentitu nuen. Eta larritasuna. Denbora gelditzen zela uste nuen, baina zuzendu egin naute: une labur bat besterik ez zen izan. Ez nekien zer egin, bihotza taupaka zoroan zebilkidan, baina zer bait egin behar nuen. Birao bat esan, eta ekintzari lotu nintzaion: ibilgailutik irten, eta bidea oztopatzen ziguten zaborrontziak baztertu nituen. Kaputxadunak, koktelak eskuan, begira geratu zitzaizkidan. Susmoa dut ni bezain txundituta zeudela: gutako inork ez zuen espero nire erreakzioa. Nirekin zer egin ere ez zekiten. Zorionekoa izan nintzen: ez zuten ezer egin.

Ironikoki, nire neska zenaren oroitzapenaren arabera, harrituta eta euforiko zegoen: ez zegoen beldurtuta, oso seguru ikusi ninduelako. "Hori egunero gertatzen zitzaizula ondorioztatu nuen, autoan histeriko sartu eta 'abiaraz ezazu' oihu egin zenidan arte". Eta hori egin zuen. Ihes egin genuen handik. Ahal izan nuenean, Ertzaintzara deitu nuen gertatutakoaren berri emateko. Ongi hartu ninduten, baina bizpahiru aldiz errepikatu behar izan nuen nire kontakizuna, urduri baino urduriago bainengoen. Ez dakit nola amaituzen kontua. Biharamunean ez zengertatutakoaren arrastorik ere geratzen.

Ez nituen ezagutu gau hartan ia kiskali gintuzten gazte abertzaleak. Aurpegia buru-estalkiz estalita zeukaten. Edonor izan zitekeen. Agian ez ziren Errekaldeberrikoak, agian beste leku batetik etorri ziren, dibertimendu basati pixka baten bila (baina beren etxeetatik urrun). *Jaia bai, borroka ere bai*. Edo agian auzokoak ziren. Agian ezagutzen nituen. Agian, haien artean I zegoen.

Garrantzi handirik ez ematen saiatu nintzen. Ez zitzala gure oporrak hondatu. Zer esan ere ez nukeen jakingo. Zergatik egon ginen ez behar bat izateko zorian? Zerk eraman zituen hiru mutil horrelako zer bait egitera? Eta gizartearen gainerakoa hura anomalia gisa ez ikustera? Nola azaldu berari modu sinesgarrian, ni neu ulertzeko gauza ez banintzen? Ez nuen erantzunik.

Uste dut une hartatik nabilela erantzun horien bila.

1994KO MAIATZAREN 29A

RESU BASARRATE



Resu Basarrate eta haren alaba, Aranzazu García, larri zauritu ziren gaur egun oraindik ezezaguna den norbaitek Muskizko hondartzan diru-zorro batean ezkutatutako bonba batek eztanda egin zuenean. Egun horretan bertan, beste pertsona batek, Agustín Morenok, 72 urteko erretiratu batek, bi eskuen anputazioa pairatu zuen Artxanda mendian, Bilbotik gertu, beste diru-zorro-bonba bat hartu zuenean.

Resuk bere negozioa zuzentzen zuen: harategi bat.

1994ko maiatzaren 29a. Kontatuko dudan atentatu hau egun horretan gertatu zen, hain zuzen ere, igande lainotsu bateko goizeko getan.

Familia eta biok pozik genbiltzan, eskutik helduta, Muskizeko (Bizkaia) Arena hondartzako giro lasaiaz gozatzen. Nola jakin gabe, nire oinek diru-zorro txiki batekin tupust egin zuten, eta

hura hartzean lehertu egin zen, alaba eta ni harrapatu gintuelarik. Niri esku bat erauzi eta zauri handiak eragin zizkidan gorputz osoan, eta itsutasuna 15 egunez; alabari, zauri handiak eta erabateko itsutasuna 20 egunez. Hondartzan zerraldo erori ginen, inolako laguntzarik gabe, jendea ikaratuta ari baitzen korrika, arriskutik ihesi.

Bizitza hondatu ziguten. 22 urteren ondoren ere, kasua ikertu gabe dago; beraz, ez dakigu zein talde edo egile izan zen hain ekintza izugarriaren erantzulea.

Nork jarri zuen bonba hori? Zergatik igaro dira 22 urte eta ez da ikertu? Non dago justizia? Zergatik ez didate galdeketa-rik egin epaile, polizia edo autoritate batek?

BIZITZA HAUTSIA

Alferrikako konspirazio hura,
kez eta suz
bildu zuena ilunabarra
olatuen kexuen artean,
kantu erotu bat balitz bezala.
Nire arimaren eta hondarraren artean
kea eta odola.

NI BAKARRIK

Gaua egin zen nire begietan,
zerbaiten bila...
ez dakit zer...
non hustu nire negarra.
Atsekabe ozen eta hezea besterik ez nuen aurkitu
hondar gainean,
ezpata bat bezala erortzen zen
aire piztuan.
Orduan kaioen hegaldia entzun nuen.
zeru hutsaren azpian.

Ospitaletik itzuli eta etxetik irten nintzen lehen egunean, konturatu nintzen zein zaila izango zitzaidan handik aurrerako

bizitza. Konturatu nintzen gizarteko eta etxeko zailtasun askori aurre egin behar niela, eta, gainera, neure arazoa konpondu behar nuela.

Orduan, nire egoera barneratu, eta nire arazo guztiei aurre egitea erabaki nuen, baita orainaldian eta etorkizunean bizi behar nituen zailtasun sozial eta politikoei ere.

Bihotza uzkuratzen zait oraindik.
Burrumbak sentitzen ditut.
Sirenen joan-etorria.
Goizeko hotza.
Lainoa eta ur-tanta hotzak.
Malko mingotsak edan ditut,
atsekabea nirekin daramadala jakinda.
Isilune trinkoetan murgildu nintzen.
Amets gose.
Ezinezko amets.

Nire nahia bakea da, hitz sinplea, esanahi konplexukoa, baina arima soseguz eta lasaitasunez betetzen duena. Bakea ez da egun batekoa, bizitza osoko borroka baizik.

Patuaren egun txar bat
egun horretan nire bizitzaren zati bat galdu banuen,
gorputzaren zati bat.
Nire ilusioak hondarretan lurperatuta geratu baziren.
Keak nire ahotsa ito bazuen,
sufrimenduak arima hondoratu bazidan,
nire bizitzak heriotzaren aurka borrokatu bazuen,
nire ezpain urratuak ireki banituen
JAINKOari laguntza eskatzeko
eta irribarre bat marraztu bazitzaidan,
gaur irribarre hori besterik ez zait geratzen.

GUIRE HOOLIGAN URTEEN PANTAILAKADA (ERDI) HUTSALA

JESÚS CASQUETE



Jesús Casquete Soziologian doktorea eta Pentsamenduaren eta Mugimendu Sozial eta Politikoen Historiako irakasle titularra da Euskal Herriko Unibertsitatean. Berlingo Antisemitismoari buruzko Ikerketa Zentroko fellow-a ere bada. *En el nombre de Euskal Herria. La religión política del nacionalismo vasco radical* (2009) lanaren egilea da.

Iruñeko gertakari batek koska bat (bat gehiago) markatu zuen nire bizipenen inbentarioan, indarkeria politikoaren harira. 1995eko udaberri edo uda aldera gertatuko zen, sentitzen dut zehaztasun handiagoz helburuan ez jotzea, baina ez du garrantzi handirik, edozein unetan gerta zitekeelako, esan dezagun 1980 eta 2011 artean; hau da, adinak oroitzapenak harilkatzeko aukera eman zidanetik amesgaizto terroristaren amaieraren atariraino.

1993-1994 ikasturtearen hasieran New Yorkeko New School for Social Research-en topo egin genuen. Erwin Berlingo Freie

Universtität erakundearekin urtebeterako sinatutako hitzarmen baten ondorioz joan zen truke-ikasle gisa, soziologia sailari atxikita. Niri doktoratu aurreko beka batek, Espainiako Hezkuntza Ministerioak eskainia, eman zidan aukera zientzia politikoko master-programa bat osatzeko, ia bi urteko bizi-aldia sagar handiaren bihotzean, eta horiei master-amaierako lanaren idazketa gehitu behar zaio Bilboko nire idazmahaian.

Aldi berean ikasi genuen unibertsitate berean, baina inoiz ez genuen geletan topo egin. Washington Squareko liburutegiko 4. eta 5. solairuetan adiskide sakon bihurtu ginen. Ordu asko izan ziren ukondo ukondo ikasten, Village-n bazkaltzen, Bosgarren Etorbidea hasten den plazan eserialdiak egiten, tira, konplizitateak ehuntzen. "Berlinera etorri behar duzu", berak; "pasa zaitez Bilbotik", nik. Aurrea hartu zidan. Egun batean, naziak eraiki zituzten autobide horietako batean auto-stop egin, eta, kamioitik kamioira jauzi eginez, Bilbora heldu zen.

Erwinek Euskal Herriari buruz zekiena, jakin-nahia zuen garai hartako edozein herritar alemaniarrek zekiena zen: gutxi eta desitxuratuta. Astean behin, soziologiako ikasle talde batekin biltzen zen, Kreuzberg barrutiko *Ex* izeneko taberna batean. Taberna horretako hormetatik (komunera zeramatzenetatik, zehazki) Herri Batasunaren eta antolaketa-sare ultranazionalistako beste erakunde satelite batzuen kartelak zeuden zintzilik. "Euskalduna zena", esan dezagun horrela, sozialdemokraziaren ezkerraldean zeuden alemaniar sektoreen kausen panoplia inertziaz txertatutako osagai bat zen, baina gero eta distantzia handiagoarekin, bonba-kotxez eta garondoan jotako tiroz bildutako askapen nazionalaren erretorika gero eta digerigaitzagoa eta justifikaezina baitzen. Urrunetik begiratuta, Euskal Autonomia Erkidegoan koartada politikoa duen indarkeriaren fenomenoaren ikuspegiak nahastuta zuen ezkerraren zati hori, zeinak ingurumena, feminismoa, nazioarteko elkartasuna eta bakezaletasuna aldarrikatzen baitzituen. Alde batetik, euskal nazionalismo erradikalak halako miresmen bat pizten zuen haien artean, Espainiak aspalditik zapal dutako nortasuna berreskuratzeko borrokan ari zen "herri" bat izaki, eta begira

zenbat birrindu zituen Francok euskaldunak, nahiz eta ordurako terrorismoak erne jartzen zituen zerbait izan, hain zuzen ere alemaniar *milieu* alternatiboaren arrasto bakezalearengatik, eta bere herrialdeak ere ez zituelako duela hainbeste urte atzean utzi bere agerpen terrorista autoktonoaren, Armada Gorriaren Frakzioaren (RAF), unerik txarrenak. Baina, beste alde batetik, euskal nazionalismo independentistak bere diskurtsoa "nazio askapenaren" helburua seinalatzen zuen patina iraultzaile batez jantzi izanak aztoratu egiten zituen: ez al da oximoron bat nazionalismo sozialista bati buruz hitz egitea? Alemaniarrez ari garenean —gehiengo zabalarentzat, eta ez soilik ezkerrekoentzat— nazionalismoa da bere herrialdea Historiako pasarterik lotsagarrienera, Holokaustora, eramaneen ideologia, gaur egun etorkinen eta errefuxiatuen aurkako diskurtso eta praktika xenofoboak bultzatzen dituen ideologia bera, eta Europaren ideiarene atzera egitea planteatzen duena, ustezko "esentzia nazionalak" babesteko edota berreskuratzeko.

Erwinek Euskal Herrira egin zuen bidaiaren agendan zalantza horietako batzuk uxatzea zegoen; hau da, euskal jingoismoarekiko elkartasunaren arrazoiak oraindik zentzurik ba ote zuen Alemaniako ezkerraren "sorta"n. Bilbo, Donostia eta Iruñearen artean banatu genituen gure bisitak, New Yorkera joan aurretik bertan bizi izan bainintzen.

Hain zuzen ere, Nafarroako hiriburuan, larunbat gau batean, Euskal Herriko eta Nafarroako kaleetan eguneroko ogia ziren gertakari batzuk ikusi genituen lehen lerroan, nahiz eta gure inguruko edozein gizarte demokratikotan garaiz kanpokoak izan. Izan ere, Jarauta kalearen ingurumarietan, Iruñeko alde zaharreko asteburuko indarkeria-errituaren ohiko agertokian, kale borrokako gertaera batean harrapatuta geratu ginen. Eroaldi bortitzak iraun zuen bitartean, taberna batean sartzea lortu genuen: pertsiana erdi jaitsita, tentsio giro nabaria, bertan zeuden guztiek egoera horretatik igarotzera ohituta dagoenaren naturaltasunarekin eramana, gidoiaren nondik norakoak ezagutu eta nahigabeko figurante gisa sarritan jokatzen duenaren naturaltasunarekin, nahiz eta inoiz ez dakizun ataka horretatik

onik ateratzeko gakoak kontrolpean edukiko ote dituzun. Tarte bat igaro genuen (ordu erdi, agian?) taberna barruan estutasun larrian, gomazko piloten eta iskanbilaren musikaz inguratuta, harik eta gure gauari berriro heldu edo, zehatzagoak izateko, amaiera eman genion arte. Ez ziren istilu bereziki aipagarriak izan, eta ez zuten inolako ondoriorik izan (nire oroitzapen-hutsuneak kale egiten ez badu) atxiloketaren bat edo beste alde batera utzita; badakit, atxilotuetako baten arreba gurekin ari zelako aterpea partekatzen. Dena izan zen normala, normalegia, batzuetan patologia mugatzen duen naturaltasun horri jarraiki. Normala niretzat, noski; Erwin zur eta lur gelditu zen.

Egia esan, ez zen nire biografian inflexio-puntu bat markatzen zuen bizipen berezi bat izan. Aitzitik, eguneroko gertakari hutsal bat izan zen, Euskal-Nafar Herriko edozein pertsonak hamaika aldiz bizi izandakoa, *hooligan* hamarkada haietan bizi izan bazen. Biolentzia gure gizarteaz nagusitu zen, gure bizitzak menderatu eta gure gizarte-ehunaren neurri morala probatu zuen. Kasua berezia izan zen: apartekotzat bizi izan zuen norbaitekin partekatu bainuen, eta ikusi berri genuen ikuskizuna azaltzen saiatzea egokitu zitzaidan.

Ez dakit nire azalpenak behar bezain argigarriak gertatu ote zitzaizkion Erwini orduan; eta, aitzakia gisa, beti argudiatu ahal izango dut hizkuntzaren zurigarria. Izan ere, nola azaldu nik ere ulertzen ez nuen zerbait? Dakidana da ordutik *hooliganismo* politikoa nire kezka intelektual eta humanoen frontoian agertu dela, gaur arte.

P.S.: *Ex* tabernak luze gabe aldatu zituen maizterrak, izenak... eta dekorazioa.

DUINTASUN KONTUA

CONSUELO ORDÓÑEZ



Consuelo Ordóñez Terrorismoaren Biktimen Kolektiboko (COVITE) presidentea da. 1995eko urtarrilaren 23an, ETAk bere anaia, Gregorio Ordóñez PPko zinegotzi eta Donostiako alkategaia, erail zuen, erakunde terroristak eta bere inguruneak "sufrimenduaren sozializazioa" deitu zuten aro bati hasiera emanez.

2000ko abenduaren 21eko goizaldean, gazte askok San Tomas jaiak gozatzen zituzten bitartean, beste batzuk Donostia nire aurpegiarekin papereztatzen aritu ziren. Hurrengo goizean hiriko erdigunea kartelez beteta agertu zen, non kaputxadun bat manifestazio batean parte hartzen ari zirenei erasotzeko prestatzen ari zen. Ondoan, Fernando Savaterren lehen plano bat eta neure buruaren beste bat ageri ziren. Gure aurpegien gainean dianak zeuden inprimatuta.

Koldarkeria kutsakorra da, baina ausardia ere bai. Une horretan harro sentitu nintzen ETAk txakurkumeek Savaterren neurriko erreferente batekin kartela partekatzen jarri nindutelako. Azken urteotan, mehatxuez gain, manifestazioak, pankartak eta foroak partekatu genituen, eta horietan terrorismoaren aurka egiten genuen, askatasunak aldarrikatzen genituen eta

Zuzenbidezko Estatua defendatzen genuen Euskal Herrian inposatu nahi zuten nahitaezko nazionalismoaren aurrean. Savaterri eta beste pertsona miresgarri batzuei terrorismoa beren etxeetako atera hurbildu gabe iritsi zitzairen beren konpromisoa. Nire hastapenak, ordea, zoritxarreko 1995eko urtarilaren 23aren ondoren sortu ziren.

Arratsaldeko hiru eta erdiak ziren, eta, prokuradore gisa lan egiten nuen bulegora joateko prestatzen ari nintzenean, telefonoak jo zuen. "Enteratu zara?" esan zidan Eugenio Damborienaren amak oso asaldaturik. Nire nahasmena ikusita, eskegi egin zuen. Berehala deitu nion koinatari, Ana Iribarri, eta Udalarekin eta anaiaren lankideekin harremanetan jartzen hasi ginen. Beste dei batean, Anak bere etxera korrika joateko eskatu zidan. Atarira iritsi nintzenean, udaltzain batzuk ikusi nituen hura lokarritz hesitzen. "Zer gertatu da?", galdetu nion haietako bati. "Imajina dezakezu", erantzun zidan.

Anaiaren bizitzako azken hilabeteak zurrunbilotsuak izan ziren. 1994ko abuztuan mezu mehatxagarri bat jaso, eta berehala eman zuen horren berri. Gertaera haren ondoren, asteak iraun zuen ekaitz politiko bat etorri zen. Uste dut berak bazekiela ETak hil zezakeela. Nik, ordea, ez nuen inoiz onartu. Ezta ETaren aldeko emakume batek, zeinarekin animalien babeserako elkarte batean topo egiten bainuen, haren heriotza opa eta gero ere. Bai jabetu nintzen haren ospeak gora egin zuela. Inkestek gero eta indar handiagoz adierazten zuten Donostiako alkate bihur zitekeela 1995eko hauteskundeetan. Imajinatzen dut galdeketa berri bakoitza beste arrazoi bat zela bere heriotza agindu zutenentzat. Haien izenak misterio bat dira oraindik, nahiz eta beti susmatu izan dudan erabakia Goyoren ondoko bulego batean hartu ahal izan zutela.

Handik gutxira, Denon Arteanen elkarretaratzeetan parte hartzen hasi nintzen Donostiako Bakearen Usoan. Elkarretaratze horiek gudu-zelai bihurtzea zen araua. Minutu batzuk isilik egon ondoren txaloka hasten ginenean, erradikal aldra bat harriak botatzen hasten zitzaigun. Furgoneta urdin batek inguruan deskargatzen zituen harriak, modu arduratsuan. Hori guztia

Ertzaintzako agenteen begirada arretatsuaren aurrean gertatzen zen, ez jarduteko agindua baitzuten. 1995eko irailaren 7an harrietako batek buruan jo zidan. Kolpeak lurrera bota ninduen, eta, une batez, konortea galdu nuen. Gertaera hark pertsona publiko bihurtu ninduen, biktimen familiak, salbuespen gutxi batzuekin, apenas agerikoak ziren une batean.

Orduz geroztik, ez nion ezeri huts egin: udaletako osoko bilkuretara joan nintzen Herri Batasunak hilketak gaitzetsi ez izana kritikatzera; hileta elizkizunetan eta hil-kaperetan izan nintzen; manifestazioetan pankartei eutsi nien; eskatu zidaten bakoitzean adierazpenak egin nituen komunikabideetan. Hori, noski, ez zitzaidan debalde atera: ezin konta ahala itu marraztu zituzten nire izenarekin eta eslogan mehatxagarriekin hiri osoan zehar, nire etxeko atarian barne; ETArek bozgorailu gisa funtzionatzen zuten hedabideetan editorialak eskaini zizkidaten; Polloeko hilerrian lau aldiz profanatu zuten nire anaiaren hilobia; Donostiako alde zaharrean botilakada batez burua ireki zidaten; eta ohitu ere egin nintzen kalean eta kontramantestazioetan niri zuzendutako "Ordóñez Polloera" eta "Ordóñez, itzul iezaguzu bala" oihuak entzutera. 2000ko uztailaren 2an zazpi molotov koktel bota zituzten nire etxearen kontra, Intxaurrondo auzoan, eta sute bat eragin zuten terrazan. Kokteletako bat egongelara iritsi zen, besaulkiaren atzera, baina, mirariz, hura izan zen lehertu ez zen bakarra. Hazi egin nintzen zoritxarraren aurrean: nahiago nuen erradikalek ni amorruz gorrotatzea, horrek esan nahi baitzuen, neurri batean behintzat, anaiaren lekukoa hartu nuela.

Egun batean, garai hartan Barne ministroa zen Ángel Acebesek deitu, eta esan zidan komando desegin berri batek niri buruzko informazioa zuela: non ibiltzen nintzen, nire autoaren eta nire motorraren modeloa eta matrikula. Dena egia zen. Orduan uste nuen ez nintzela inoiz Euskal Herritik joango, baina oker nengoen. Azkenean, babesa jarri zidaten, baina horrek beste arazo bat sortu zidan: bezeroek ez zuten nahi ni haien prokuradore izatea. Nahiago zuten beste pertsona diskretuago bat aukeratu, publikoki hain seinalatua ez zegoena. Azkenean, ez ninduen ETak

zuzenean Euskal Herritik kanporatu, nire herrikideek baizik, ostrazismo sozialari zioten beldurra beren duintasunaren gainetik maila bat jarri baitzuten.

Duintasunagatik ere, ez nuen etsi terrorismoaren biktimen askatasunen eta eskubideen alde borrokatzen jarraitzeko ahaleaginean. Azken urteotan, COVITEren lehen lerrotik egiteko ohorea izan dut. Une zailak bizi izan ditugu, eta, agian, une zail gehiago biziko ditugu, baina ezbeharraren aurrean, berriz ere, hazteko betebeharrean gaude. Gure kausaren zuzentasunak gure ahalegin guztia merezi du. Ez dugu atzera egingo.

ASKATASUNA, EGUNEROKO KONKISTA

JAVIER MARRODÁN



Javier Marrodán Informazio Zientzietan lizentziatua da eta Komunikazioan doktorea Nafarroako Unibertsitatetik. Urte askoan *Diario de Navarra* egunkariko erredaktorea izan zen. 2012 eta 2014 artean *Relatos de plomo: historia del terrorismo en Navarra* proiektua zuzendu zuen.

1995eko martxoaren 27a egun seinalatua izan zen Nafarroako kazetaritzaren historia txikian. Herri Batasunak prentsaurrekoa deitu zuen Kale Berriko bere egoitzan, sei egun geroago ospatuko zen Aberri Eguna iragartzeko. Oraindik urte batzuk falta ziren epaileek koalizioaren ahaidetasun politiko, finantzario eta militarrek deskubritzeko, eta haien buruzagiak eroso zebiltzan kaleetan, karteletan eta mikrofonoetan. Duela 22 urteko astelehen hartan, Jon Idigoras, Adolfo Araiz eta Panpi Saint-Marie (abagune horretarako Frantziako hegoaldetik etorria) kazetarien aurrean eseri ziren. Testuingurua gaur egungoa baino gogorragoa eta

korapilatsuagoa zen: ETAk kadentzia basatiarekin erailtzen zuen oraindik, Jarraiko gazteek autobusak eta edukiontziak erretzen zituzten ezbehar berezirik gabe, HBko zinegotziak zeuden udal guztietan eta, politikari bat beligeranteegi agertzen bazen — demagun, Ramón Jáuregui—, HBko legebiltzarkide batek —Mikel Zubimendik, urrutira joan gabe— haren aulkia kare biziz bustitzen zuen. Azken eraildakoa Gregorio Ordóñez zen, Donostiako Udaleko zinegotzia, Kazetaritzan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatetik, eta aurreko urtarilaren 23an tiroz hila, Donostiako alde zaharreko taberna batean bazkaltzen ari zela. HBk prentsaurrekoa eman baino hiru egun lehenago, Errenterian, kaputxadun batzuek segada bat egin, eta barruan bost agente zituen Ertzaintzaren furgoneta bati su eman zioten. Ez zen hildakorik izan, baina polizietako batek, Jon Ruiz Sagarnak, erredurak izan zituen gorputzaren ehuneko 75ean.

Kazetaritzaren arloari dagokionez, presioa ez zen txikiagoa: erreportaje ohi baino landuago edo konprometituago batzuek kartel eta paskinen erreplika bat izan zuten, egileak *txibatotzat* jotzen zituztenak, eta erreportari batzuei zuzenean aurpegiratu zitzairen izandako jarrera, lehergailu bat jarrita beren etxeko eskailera-buruan. Mehatxuak "gatazka"ren beste ondorio bat ziren garai hartan. Kale Berriaren deialdia egin baino hiru hilabete lehenago, *Eginek* hedapen tipografiko handiarekin elkarrizketatu zituen ETArekin zerikusia zutelakoan atxilotu zituzten bi pertsona. Lerroburua adierazgarria zen: "Polizia- eta kazetaritza-operazio bateratuaren frogak ditugu". Elkarrizketatuek salaketa bana ere aurkeztu zuten atxiloketaren berri eman zuten tokiko egunkarien aurka, baina ekimen judizialak ibilbide laburra izan zuen. Bide batez, denborarekin demandatzaileetako bat zinegotzi aukeratu zuen HBk Atarrabian. Baina HB beste gauza bat zen urte haietan. Edo hori zioten eurek.

Prentsaurrekoa normaltasunez hasi zen. Bozeramaile abertzaleak ohituak zeuden beren hitzaldi sutsuak nahiko erraz errepikatzen, eta egun hura ez zen salbuespena izan. Jon Idigorasek adierazi zuen Euskadi "euskal nazio burujabe, independente, euskaldun, bateratu eta sozialista" izatera deituta zegoela, eta

Nafarroan eta Euskal Herrian “edozein herritarrek edozein aukera askatasunez defendatzeko” aukera izango lukeen agertoki “demokratiko bat” eratzea nahi zuela. Aberri Egunari zegozkion zenbait kontu ere aipatu zituen, eta galderen txanda ireki zuen axolagabekeria keinu batekin.

Kazetarien artean prentsaurrekoetan ohikoa den isiltasun lodi samar hori zabaldu zen orduan. HBrenetan, galderen nagitasunaz edo alferrikakotasunaz gain, zalantza metafisikoago bat egoten zen giroan igerian: “Zertan ari gara tipo hauei mikrofonoa eskaintzen?”. Baina beti izaten zen profesional zintzoenek beren buruari pribatuan egiten zioten galdera bat. Prentsaurrekoak, normalean, zenbait zalantza kaltegaberekin konpontzen ziren, eta *Egineko* ordezkariak planteatutako kontu gutxi gorabehera konplizeren batekin. Isileko gidoi horretatik ateratzea arreta erakartzea zen, eta horrek ondorioak ekar zitzakeen beti. Zertarako tentatu zoria? Irribarrez eta agur lakonikoz ixten zen topaketa. Batzuk etsipena eta lotsa nahasian itzultzen ziren berenerredakzioetara, eta beste batzuek abertzaleen gogoetak lehenbailehen transkribatzea zuten buruan, gero beste gai bizigarriago bat jorratzeko edo bazkaltzera laster iristeko.

Hala ere, martxoaren 27 hartan ustekabeko zerbait gertatu zen, baita neure buruarentzat ere. Suposatzen dut, hainbeste konplexu eta ez-egitez aspertuta, benetan egin nahi nuen gogoeta azaltzeari ekin niola, eta hizlariari galdetu beharrean zenbat jende espero zuten Aberri Egunean edo zer iritzi zuten sailburu berri baten azken-aurreko adierazpenei buruz, aurreko minutuetan hausnartzen aritu nintzen paradoxa azaldu nion Jon Idigorasi: “Baieztatu duzu —esan nion— herritar bakoitzak edozein aukera libreki defendatu ahal izatea dela zure nahia. Orduan, zergatik ez da gai izan zure alderdia Gregorio Ordóñezek hilketa gaitzesteko, HBrena ez den beste aukera bat defendatzeagatik hil bazen?”. Idigorasek harrituta entzun zuen ezorduko galdera hura, eta irmotasunez, dena esan beharra dago, erantzun orokor eta iheskor bat inprobisatu zuen, Lasa, Zabala, Brouard eta Muguruzaren aipamenekin amaitu zena. Bera hizketan ari zen bitartean, hankei eusten nien mahai azpian, inork ikus ez zezan nola ari zitzaizkidan

dardarka. Uste nuen nire galderak ez zuela ibilbide luzerik izango, kontuak ez zuela gehiagorako emango, baina erreportari batek — Ana, zein ondo gogoratzen dudan— hartu zidan lekukoa: “Herriar guztientzat bilatzen duzuen bizikidetza demokratikoaz hitz egin duzu —gogorarazi zion Idigorasi, eta ordurako nolabaiteko deserosotasuna sumatzen hasia zitzaion—. Zer zerikusi du horrek ertzainez betetako furgoneta bati su ematearekin?”. HBko bozeramailea bere hitzaldi manikeora, polizia-etxeetara eta Muguruzara itzuli zen. Erantzuna asmatu bezain laster, hirugarren kazetari batek —Joseba izan zela uste dut, edo agian Beatriz— beste galdera bat egin zuen: “Nola konbentzituko duzue gizartea ustez desio duzuen errespetu horretaz, HBko pertsona bat politikari sozialista baten eserlekuan kare bizia botatzen ikusi dugunean?”. Idigorasek baretasunari eutsi zion, baina Adolfo Araizek, bere ondoan, ezin zuen urduritasuna ezkutatu. Prentsaurrekoa amaitutzat jotzeko keinua ere egin zuen, baina HBk egun batzuk lehenago deitutako “mobilizazio”en inguruan, liskarrekin eta hiri-kalte handiekin amaitu zirenak, beste galdera pare bat ere egon zen.

Martxoaren 27 hartan, kazetariok Kale Berriko egoitza abertzaleetik irten ginenean, harrotasun sentimendu gero eta handiagoa zegoen gure artean —galdetu genuenon artean behintzat—: hura ez zen besteak bezalako prentsaurreko bat izan, zer pentsatzen genuen esan genuen azkenean, oraingoan bai transkribatu ahal izango genuela topaketa, inolako kontzientzia erredurarik gabe. Hankak dardarka jarri zitzaizkidan, bai, baina konturatu nintzen askatasuna jomuga bat ez ezik, are eskubide bat, konkista bat ere badela.

HEMEN NIRE EKARPEN APALA

LUCILA ORTEGA LARA



Lucila Ortega Lara ETak 1996ko urtarrilaren 17an bahitu zuen José Antonio Ortega Lararen arreba da. Guardia Zibilak 1997ko uztailaren 1ean askatu zuen, 532 egunez Arrasaten (Gipuzkoa) zulo txiki batean

Orain dela urte batzuk zuzeneko senide baten bahiketa luzean bizi izan nuen esperientzia pertsonala kontatuko dut. Ezer baino lehen, esan behar dut oso ikuspegi pertsonala dudala nire bizitzan jazotzen diren gertaerei buruz, normalean *aurkakoak* deritzogun egoerei buruz. Nire analisia, gertatu ondoren, atzean dagoen irakaspena bilatzea da, ikasbidea nire bizitzan aplikatzeko; izan ere, nire irizpidearen arabera, esperientziak aldekoak direnean, gure analisi gaitasuna murriztu egiten da, espero genuena gertatzen baita. Beraz, ez dugu zalantza edo galderarik planteatzen, eta aberasteko aukera galtzen dugu. Horrekin ez dut esan nahi arazoak gustatzen zaizkidanik, alderantziz, baina aitortzen dut egoera zailtan egin ditudala irakaspen handienak.

Hori esanda, nire esperientzia zehatzari dagokionez, esan behar dut hasieran *shock* emozional oso handia izan zela. Ez nituen sinisten iristen zitzaizkidan albisteak. Galderak egiten nizkion neure buruari etengabe, erantzunik jaso gabe. Egoera surrealista eta aldi berean gogor batean egotea bezalakoa zen, nirekin eta familiarekin zerikusirik ez zuela zirudiena. Baina denbora aurrera zihoan, eta egoerak bere horretan jarraitzen zuenez, onartzen joan behar izan nuen, gu nahastuta geunden arazoa ikusita. Nik, garai hartan, liburu-denda bat nuen eta prentsa saltzen nuen. Beraz, egunero lehen eskutik irakurtzen nituen bahiketari buruzko albiste nazionalak, egunkarietako iritzi pertsonalak, herritarren parte-hartzea, askatasuna aldarrikatzeko ekintzak eta abar. Gertakari sorta horrek erakutsi zidan bizitzea eta, posible bazen, konpontzea egokitu zitzaigun errealitate latza.

Oso gogorra izan zen gertaeren eta emozioen korrante hori guztia kudeatzen ikastea, osasunean eragin ez ziezadan. Arazo handi bat zegoen, eta nik ezin nuen beste bat gehitu, orduan bi izango nituelako.

Egunero esperimentatu ahal izan nuen gizakiaren zatirik onena, baita txarrena ere. Beti baloratu izan dut lehenengoa. Harengan jarri nuen arreta, eta hortik ikasketa asko atera nuen

nire bizitzan aplikatzeko. Ezin dut ukatu garai baxuagoak izan nituela kemen aldetik, nire ingurua sufritzen ikusita, eta nahiago dut egoera horiek ez aipatu. Mingarriak izan ziren bere garaian, eta gaur egun ez dut gehiago sufritu nahi iraganagatik. Gainera, ez dut inolako damurik. Ez daukat inolako gorroto sentimendurik; izan ere, horrela ez balitz, nik inoiz eragin ez nituen emozioek baldintzatuko lukete nire bizitza, eta uste dut hori egin zuenak ez duela merezi nik horretan arreta jartzea, merezi ez duten boterea emango niekeelako. Niretzat, ikasketa ikastaro trinkoa izan zen, eta indartuta atera nintzen hartatik. Pertsona zoragarriak ezagutzeko aukera izan nuen, horien artean Bakearen Aldeko Koordinakundekoak (Lucía Cristóbal), mota guztietako ekintzetan inplikatu zirenak, familiari bere hurbiltasunarekin lagunduz, etorkizunean bizikidetzan eta bakean oinarritutako gizarte bat izateko helburu handiarekin. Eskerrik asko guztioi.

BI ISILUNE

FERNANDO MOLINA



Fernando Molina ikertzailea eta irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Berriki, *ETA. Terror y terrorismo* (2021), *Los caminos de la nación: factores de nacionalización en la España contemporánea* (2016) eta *El peso de la identidad: mitos y ritos de la historia vasca* (2015) lanak koordinatu ditu. Irudian, manifestariak Santutxuko (Bilbo) herriko tabernaren aurrean protestan, Miguel Ángel Blancoren hilketaren ondoren (*El Correoko* argazkia).

Miguel Ángel Blanco ezagutu nuen egunean, izen hori zuen pertsona bat existitzen zela jakin nuen egunean, hogeita sei urte neramatzan ETA ezagutzen. Gogoan ditut autobusik gabeko larunbatak amonaren etxetik itzultzeko, amarekin eta anai-arrebekin eskutik helduta, istiluak izango ziren tokiak saihestuz. Gogoan ditut nire auzoan kiskalitako autobusak, inork hura saihestea bilatu gabe (ezta jazartzea ere), nahiz eta jende guztiak zekien zer egunetan erreko zuten autobusa, baita loteria hori jasotzeko *saria* izango zuten lineak ere. Ezin dut inoiz ahaztu, haren ondotik pasatzen naizenean, bi polizia eta haurdun zegoen emakume bat hil zituzten garajea, edo polizia nazional baten

burua leherrarazi zuten komisaria zaharreko lonja. Nerabezaroa atzean utzi nuenean, gogaituta nengoen indarkeria horren inpunitatea zela eta. Esaldi batzuk mingarriak egiten zitzaizkidan: "Zerbaitegatik hilko zuten", "pertsonea ona zen, baina politikan sartu zen", "pena da hiltzea, baina herri honek asko sufritu du", eta abar. Unibertsitatean protesta aktiboa egitea erabaki nuen, nire auzoko Bakearen Aldeko Koordinakundearen elkarretaratzeetan parte hartu nuen, eta lazo urdinaren ekimena iritsi zenean, harekin bat egin, eta gorrotoz zuzentzen zidatenen begiradari eutsi nion. Nekearen ondorio zen dena.

Ikasketak amaituta, gogaitasuna areagotu egin zen. Francisco Tomás y Valiente erail zutenean, Madrilera joan nintzen hilkutxa laguntzera. José Antonio Ortega Lara telebistan ikusi nuenean askatu berritan, nire gogoak Jugoslaviako gerrako preso bosniarren eraman ninduen. Gauzen pertzepzio horrekin nengoen Miguel Ángel en bahiketaren berria zabaldu zen uztailera egunean. Autobus bat hartzeko bezperan izan zen, GKE baten auzolanderi batera eramango ninduen. Autobus hori hartu aurretik, Bilboko protesta-manifestaziora joan ahal izan nintzen. Bidaia erdian jakin nuen Miguel Ángel hilzorian aurkitu zutela. Bidaia irratia eramangarriak entzuten egin nuen bidaia, larridura izugarri batean murgilduta. Gau hartan ezin izan nion negar egiteari utzi.

Igande goizean, auzolanderi alde egitea erabaki nuen. Autobus bat hartu nuen, eta Bilbon utzi ninduen, hilketa gaitzesteko manifestazioa Kale Nagusitik igarotzen ari zenean. Bi manifestazio bi egunetan. Funtsezko ezberdintasun bat: larunbatekoa isila eta ordenatua izan zen, Bakearen Aldeko Koordinakundearen eredu inspiratua. Igandekoa zatitua eta nahasia izan zen, batez ere alboetan. Manifestarietako batzuk HBren egoitzaren aurrean bildu ginen. Besteekin batera oihu egin, eta erantzule gisa seinalatu genituen. Nire auzora igo nintzenean, bertako Bakearen Aldeko Koordinakundeko elkarretaratzearekin bat egin nuen. Isilean ospatu zen, eta ohi baino askoz jendetsuagoa izan zen. Bukatutakoan, jendea protestara hasi zen. Bakearen Aldeko Koordinakundeko neska bat

negarrez hasi zen, eta esan zuen hori ez zela bidea. Bat-bateko mobilizazio bat sortu zen elkarretaratze horretatik, eta auzoko kale batzuetatik barrena eramangintuen. Auzoko Herri Batasunako jarraitzaileen izenak oihukatu genituen errudun gisa, eta bizilagun batzuk haietako bat, apaiz ohi bat, bizi zen atarian sartu ziren, atea ukabilkatu ostean. Haren kidea atera zen, minik ez egiteko eskatuz. Batasunakoak ordura arte nahi bezala kontrolatutako kaleetatik desagertuak ziren.

Biharamunean, astelehenean, dendak itxi zituzten hilketa gaitzesteko. Arrebarekin kalera jaitsi nintzen, eta herriko tabernatik pasatzean, ikusi nuen hura zela zabalik zegoen denda bakarra. Barruan jendea zegoen, kale erdi irekiei eta denda itxieiei desafioka begira. Ez dut gogoratzen zehazki nola gertatu zen. Norbait gelditu zegoela uste dut. Haien aurrean. Isilik begiratzen zien, autorik gabeko galtzada batek bereizita. Bakarrik zegoen. Eta guk. arrebak eta biok, harekin bat egin genuen. Hiru pertsona herriko tabernaren parean. Pixkanaka, beste batzuk batu zitzaizkigun. Isilunea nagusitu zen herriko tabernaren aurrean. "Eskuadristetako" bat bertatik atera, gorroto aurpegiarekin begiratu, eta mehatxu egin zigun, bereziki pertsona bat seinalatuz. Ez dut gogoratzen inork erantzun zuenik. Handik gutxira, ordea, norbaitek kamera bat atera zuen goiko solairutik, eta grabatzen hasi zitzaigun. Hari oihuka hasi ginen. Ordurako jendetza txiki bat ginen, eta baldintza horren babespean, aurreko gauean bezala, alde batera utzi genuen Bakearen Aldeko Koordinakundearen errepertorioa. Minutu batzuen buruan, herriko tabernaren aterpean zeudenak baino askoz ere pertsona gehiago ginen, eta, aterpean diot, haien bilera desafio bat izatetik aterpe izatera igaro zelako. Ordurako jada ez ginen isiltzen. Galtzada gurutzatu eta moztu egin genuen. Gertatzen ari zena inoiz ikusi gabekoa zen. Auzoko "eskuadrismoa"ren egoitza nagusia sumindutako bizilagunek inguratuta. Ertzaintza istiluen aurkako materialarekin agertuzen. Lokalaren sarreran geunden jada, sartzeko asmoarekin. Gehien errepikatu genuen oihuetako bat "ikurrina hori ez duzue merezi" izan zen. Grabatu gintuzten pisuko terrazatik zintzilik zegoen banderaz ari ginen. Mutil bat zuhaitz batera igo, eta txalo

artean erauzi zuen. Norbait lokaleko kristalak hausten hasi zen. Kalez jantzitako ertzain bat hura eragozten saiatu zen, eta Batasunaren jarraitzaileztat hartu, eta kolpatu egin zuten, eta kideek erreskatatu behar izan zuten.

Lokaleko atea itxita zegoen, eta barruko jendea guri begira zegoen, aurpegi harrituarekin. Poliziek eraso saihestea erabaki, eta herriko tabernaren pertsiana itxi zuten. Pertsiana horrek, lehen aldiz eskaini zion errespetua ETAk hildako bati. Txaloka, barrezka eta trufaka lehertu ginen denok "eskuadrista" batzuen aurrean, "zipaio" deitzen zituzten horien atzean babestuta zeudenak. Denok hasi ginen kontsigna bat oihukatzen: "5etan, herriko tabernan". Leihoetara begira (haien atzean zeuden bizilagunen txalo artean) oihukatu genuen ideia, erabat inprobisatua, "eskuadristek" kontrolpean zuten auzoko jai-gunera manifestazioan joatea zen. Txosnen gunea irekita egon zen aurreko gauean, herritarrek dolu-ekitaldi gisa ixteko eskatu arren.

Handik alde egin nuenean, euforia sentimendua nuen, ni bezalako pertsona suminduez inguratua, eta izua sumatzen nuen beti izua ereiten jardun izan zutenengan. Bostetan herriko tabernan nengoen. Eguerdian lagun on bati deitu nion kotxez etor zedin. "Ezin duzu galdu, epikoa izango da". Eta hala izan zen. Bostetan, herriko tabernan, auzoan inoiz ikusi gabeko jendetza zegoen. Ehunka lagun, oihuka eta kantari. Han, urrunean, azoka-esparrura zihoan kale estuan, haiek zeuden. Kale borrokan parte hartzen zutenak. Herri Batasunaren jarraitzaileak. Eta gutxiago ziren. Beti gehiago izan ziren. Gehiengo desantolatu baten aurrean gutxiengo antolatua izatea alde edukita, nahi erara oihukatu, iraindu eta jipoitu izan zuten. Orain, lehen aldiz, askoz gutxiago ziren. Gainera, beren akziozko erreperitorio bereizgarria kendu genien. Haien oihuei gureekin erantzuten genien, haien irainei gureekin. Haien gorrotoari, gurearekin. Haien indarkeriazko komunitateak, lehen aldiz, aurre egiten zien bat-bateko beste komunitate batekin topo egin zuen. Garrasi eta leloak ateratzen ziren gure ahoetatik, baita abesti sarkastikoak ere, non koldartzat jotzen baikenituen, ETaren antzera. Bakearen Aldeko Koordinakundearen erreperitorioa desagertua zen. Baina hura

baztertzeak ez gintuen akziozko erreperteriorik gabe utzi, askoz indartsuago bat genuen: futbolarena. Gure elkarretaratzeak partidu bat ikusten edo gol bat ospatzen ari den jende multzo batek bezala funtzionatu zuen. Kantu berberak, ospakizun doinu bera.

Pixkanaka egin genuen aurrera, istiluen aurkako agenteek kontramaneifestaziotik bereizita, jakitun ezingo luketela ezer kontrolatu masak jardutea erabakitzen zuenean. Baina masek ez dute jarduten kanpotik edo barrutik inarrostoen dituen banakorik ez badago. Kanpoan ez zegoen inor, ez zegoen liderrik. Barruan sumindura zegoen, eta honen zamak eragiten zien mobilizatzailenei. Nik beste inork baino oihu gehiago egiten nuen. Beste inork baino barre gehiago egiten nuen jendearen burutazioekin. Lehen lerroetakoak bultzatzen nituen, beste inork baino gehiago aurrera egiteko. Ertzaintzak kargatzeko mehatxua egin zigun. Baina jendeak barre egiten zuen. Niri berdin zitzaidan, borondaterik ez nuelako, ingurukoei eman nielako, haiek euren utzi zidaten bezala. "Masa bihurtua" nintzen, Elias Canettik kontatzen duen moduan. Nire masatik fruituak eta harriak eta aurkitzen genuen guztia ateratzen zen kontrako masakoei zuzenduta. Nekez erantzuten zuten, gero eta sinesmen gutxiagoz, gure masa etengabe hazten eta objektu-zaparrada areagotzen zihoan heinean. Eta, horrela, poliziari entzungor eginez, aurrera egiten hasi ginen.

Ordurako, "deskarga" eginda zegoen. Canettiren arabera, masa bateko kide guztiek beren ezberdintasunak erantzi eta berdina sentitzen diren unea da. Jada ez zara gizabanako bat, oihu bat zara. Jada ez zara lehengoa, pertsona zarenean, ez eta gero ere berriro izango zarena. Une hori zara. Masa zara. Hartan urtuta zaude, eramaten zaituztela sentitzen duzu, eta, aldi berean, zuk daramazula. Atzetik bultzatzen ninduten, eta, aurrean, berriz, istiluen aurkako materiala zuten polizia batzuk neuzkan oihuka. Baina ez zidaten niri oihurik egiten. Bakarrik egon izan banintz, gelditu egingo nintzen. Baina ez nengoen bakarrik. Neu parte nintzen masa bati zuzentzen ari zitzaizkion. Beraz, bultza egiten ninduten neurrian, neuk ere bultzatzen nuen. Eta batzuetan bultza

egiten nuen bultza egin gabe, nik, hain txikia izanik, hain gauza handia nola mugi nezakeen ikusteak ematen zidan atseginagatik bakarrik, ehunka pertsona mugitzen ziren ni bultzaka nenbilelako.

Halako batean, nire aurrean zeudenak, urrutian, gertu geratzen hasi ziren azoka-esparrura iritsi ahala, eta jada ezin zuten atzera egin modu ordenatuan. Eta guk aurrera jarraitu genuen. Eta polizia guri mehatxuka oraindik. Eta nik bultzaka jarraitzen nuen. Eta gero eta hurbilago ikusten nituen. Haien aurpegiak ikusten nituen. Institutuan Bakearen Aldeko Koordinakundeko lankideak mehatxatzen zituztenen aurpegiak ziren. Kalean haien aurrean kontramaneifestazioa egin, eta iraindu, tu egin eta belaunkadak jotzen zizkietenak. Presoen alde bildu, eta auzoan "Gora ETA" oihukatzen zutenenak. Eta aurpegi horiek, lehen aldiz, etsipena adierazten zuten. Gu oihuka ari ginelako etengabe. Eta oihuen, abestien, leloen eta irainen errepertorioak guztiok geure egiten genuen ausardia elikatuz zihoalako, elkarri oihukatzean: "Goazen haien bila". Hori da besteak itotzen hasi zen garrasia. Aurrekoak bultzatzean nik egiten nuena eta atzekoek ni bultzatzean egiten zutena. Poliziena itotzen zuena. "Goazen haien bila". Gero eta ozenago: "Goazen haien bila, putakumeak!".

Eta orduan masaren deskarga bere gorenera iristen da. Nire disoluzioa erabatekoa da. Orain baino ez naiz. Oihuak baino ez naiz, irainak baino ez, bultza egitea baino ez, barre urduria. Amorrua baino ez naiz, nire bihotzaren taupadak baino ez naiz, orduko ehunean, beroa baino ez naiz aurpegian. Eta orain, hoguei urte geroago, gogoan dudana metafora hutsa da. Beste isilune bat gogoratzen dut (isiltasun intimoa, ez girokoa, isiltasun horren inguruan oihuak, irainak, hegan doazen objektuak eta lasterketak nahasten baitira). Konturatzen naiz, erabat haluzinatuta, ezin dudala gehiago bultzatu, bultzatzen ditudanak jada ez daudelako, aurrean ditugunengana korrika hasi direlako. Eta bultza egiten zidatenek ere aurreratu egin didate, korrika. Eta nik, korrika doazen pertsonen inguratuta, ikusi dut poliziak aldendu egin direla mundu guztia korrika hasi den bitartean. Eta korrika ere hasi naiz, zeruertz lauso bati begira, non aurrez aurre nituenak desagertzen hasi diren, lasterka ihesi doazelako. Nire masako

lehenengoe bakarrik lortu dute haienaren azkenak harrapatzea. Bakan horiek lortu dute beste dohakabe horiek zangotrabatzea eta jotzea. Borrokaldiaren sakabanatzea erabatekoa da, azokaren gunetik behera doan aldapa Herri Batasunako jarraitzaile kikilduz bete da, korrika eta estropezuka doazenak San Ferminetan bezala. Eta ni ohartzen naiz beste guztiek egiten dutena egiten dudala: azoka-esparruari eraso. Jendea nire ondoan korrika ikusi, eta berriro haiekin korrika hasi naizen arte, nora goazen jakin gabe, eta baranda bat igotzen saiatu naizenean, polizia bat daukat aurrez aurre, eskopetarekin ni apuntatzen eta gelditzeko oihu eginez. Eta nik besoak luzatzen dizkiot, amore ematen dudala erakusteko, gelditu, arnasa hartu eta begira geratzen naiz. Presoen argazkiak, txikituta. Txosnak, deseginda. Oihal zintzilikariak, botata. Jendea, sakabanatuta. Batzuk maldan behera irten dira, ihesean joandako Batasunaren jarraitzaileen atzetik. Beste batzuk ikusten zutena apurtzen aritu dira. Beste batzuk erakustazoka-esparrutik hartutako garaikurrak erakusten hasi dira. Berriro ni naizela konturatu naiz. Nire gorputzera itzuli naiz. Noraezean nabil. Nire amorrua desagertu da. Canettik kontatzen duen bezala, eratzen den bezain azkar desintegratzen da masa. Oso nekatuta nago. Polizia desagertu egin da niri oihu egin bezain laster, beste batzuei eutsi nahian. Lagunaren bila nabil, eta alde egin dut.

Ermuko egunez gogoratzen dut nire auzoan masa bat sortu zela eta ni bertako kide izan nintzela. Eta beti bortizkeria erabili zutenak, egun hartan, ikaratu egin zirela. Egun haiek gogoratzean, haien aurpegiak datozkit burura, eta irribarre egiten dut. Eta inoiz ezagutu ez nuen Miguel Ángelez gogoratzen naiz.

ETA ETA NIRE KILOMETRO SENTIMENTALA

MARÍA JIMÉNEZ



María Jiménez kazetaria eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea da. COVITE Terrorismoaren Biktimen Kolektiboko prentsa-burua izan da. Nafarroako terrorismoaren historiari buruzko *Relatos de plomo* lanaren egileetako bat da, hiru liburukitan banatua. *Heridos y olvidados: los supervivientes del terrorismo en España* (2019), Ana María Vidal-Abarca: *el coraje frente al terror* (2020) eta *El tiempo del testimonio. Las víctimas y el relato de ETA* (2023) liburuak idatzi ditu.

1998ko Bakearen Eguneko goiza izan zen. Eskolan dena prest zegoen: hitzaldi bat, agian abestiren bat eta airera askatuko genituen uso batzuk. Noiz hasiko zain geundela, irakasle bat hurbildu, eta esan zigun aurreko gauean Sevillan ETAk senar-emazte batzuk hil zituela eta gu bezalako hiru haur umezurtz geratu zirela. "Horrela ospatzen dute bakea batzuek", baieztatu zuen. Eguerdian, Antena 3ko albistegian, Alberto Jiménez Becerril eta Ascensión Garcíaren hilketa nolakoa izan zen azaldu zuten. Amonetako baten adierazpenak ere jaso zituzten, eta esan zuen bilobek oraindik ez zekitela gurasorik gabe geratu zirenik. Txikienak lau urte zituen.

Nire ikastetxeko patiotik Euskal Herriko hegoalderago zegoen lekuraino mila kilometro inguruko distantzia zegoen. 1998ko urtarrilaren 3oera arte, ia ez nuen ETAREN terrorismoaz ezer entzun, José Antonio Ortega Lararen askapenaren irudi batzuetatik edo kamera motelean gertatu zen Miguel Ángel Blancoren hilketaren astindutik harago. Egun horretara arte. Orduan jakin nuen hiltzaileak gertu zeudela, etxetik ordubetera, hiru haur gurasorik gabe utzi zituztela eta ume horiek ni bezalakoak zirela. Eta beldurra sentitu nuen.

Sentsazio hori ez nuen berriro izan 2008ra arte, ETAK laurogei kilo lehergai zituen bonba-auto bat jarri zuenean Nafarroako Unibertsitatean. Ibilgailua aurreko bi urteetan ni egunero igarotako lekutik metro gutxira zegoen aparkatuta. Segundo batzuen tartean, ez nuen jakin non zeuden nire lagun edo irakasle batzuk, eta ziur nengoen ezta norbait eraman zuela aurretik. Guraso askok ere hala pentsatu zuten, hala nola nireek. Ateratua gertatu ostekoak telebistaz zuzenean ikusi zituzten, eta gurasoen fenomeno eskusiboa bat bizi izan zuten: seme-alabengandik zenbat eta distantzia handiagoa izan, orduan eta larritasun handiagoa dute. Zorionez, oker nengoen, eta ez zen hildakorik edo zauritu larrik izan, gurasoek izua gainditu zuten, eta seme-alaba batzuk heldu bihurtu ginen bat-batean.

ETA 2010eko urriaren 3oan sartu zen nire kilometro sentimentalean. Taldearengan jarri nuen arreta, zergatik egin zuten atentatua nire unibertsitatean eta zergatik izan zitekeen ikasle bat erakunde terrorista baten helburu. Javier Marrodánek, garai hartan *Nuestro Tiempo* aldizkariko zuzendaria zenak, atentatuaren inguruko 24 orduak berreraikitzen zituen erreportaje batean parte hartzeko aukera eman zidan. Orduan ezin nuen imajinatu urte batzuk geroago Iruñera itzultzeko eta "gure bizitzako lanean" parte hartzeko deituko zidanik. *Relatos de plomo* izena zuen, eta hari esker terrorismoaren biktimak izandako berrogeita hamar pertsona baino gehiago elkarrizketatu genituen. Emaiza hiru liburu, mila orrialde baino gehiago, ehunka argazki, dokumental bat eta ikasitako lezio batzuk izan ziren.

Relatos de plomo kazetaritza-lana izan zen, baina ez hori bakarrik. Elkarriketatutako pertsonak aukera eman ziguten beren iraganeko gertakari lurperatuak argitara ateratzeko, egun batean egunkari batean tarte bat bete zuten ehunka albisteri izen-abizenak jartzeko eta terrorismoak beren familiengan utzitako ondorioen norainokoa neurtzeko. Beste era batera esanda, aukera eman ziguten Svetlana Alexievitx idazleak "infernuetara jaitea" deitzen duen horretara edo Victor Hugok "kasamata zeharkaezinak" deitu zituen horietara hurbiltzeko, non "arimen bilakaera sekretuak" dauden.

Prozesu horretan egoera zailekin egin genuen topo. Adibidez, María Josék bost urteko bikiei azaldu behar izan zien bere aita ez zela itzuliko; Kikok amaren hilketaz lehen aldiz hitz egitea erabaki zuen, eta barrena erabat hustu zuen, inoiz ez bezala; edo Carmen lur jota geratu zen, ETAk alargun utzitako bere amak bizi izan zuen depresio sakonaren berri ematean.

Jokabide ausartak ere aurkitu genituen, eredugarriak. Olvidok, bere semearen hilketaren ondoren, ospitalean boluntario gisa denbora eskaintzea erabaki zuen, eta konturatu zen bera ez zela sufritzen zuen bakarra; Martinak bere herriko giro itogarrian bizitzen jarraitzea erabaki zuen, eta are gehiago, adorea bildu zuen bere anaia hiltzeagatik atxilotu berri zituzten terroristei babesa eman nahi zien udal osoko bilkuraren aurrean azaltzeko; eta Marinak bere anaiaren hiltzaileak ez gorrotatzea erabaki zuen, bere kontzientzien muinean gizaki batek egin dezakeen okerrean egin izanaren pisua zeukatela uste zuelako. Javierrek arrazoi zuen: gure bizitzako lana izan zen.

Ondoren, beste pertsona batzuen istorioekin bizitzen jarraitu dut, hala nola Conchirenarekin. Ez zuen zalantzarik izan bere herrira, Altsasura, joateko eta bi guardia zibilen eta hauen neskalagunen erasotzaileei babesa ematen zieten ehunka pertsonen aurre egiteko; Consuelok urteetan jasan zituen "Ordoñez, itzuliezaguzu bala" esaldiaren gorroto-tiroak, eta borroka bizian jarraitzen du, orria pasatzeko eta azkar ahazteko prest dagoen gizartea duintasunez janzteko; edo bere mamuen aurka borrokan ari den Fernandok gogora dakar sare sozialetan 300 hilketaren baino


gehiago daudela, bere aitarena barne, inoiz argitu ez direnak, eta hori, besterik gabe, bidegabekeria bat dela.

Kazetaritzak abantaila bat du: ustekabeko biografietara hurbiltzen zaitu, baina estutasun batzuetan ere jartzen zaitu. Horietako bat elkarrizketatuen mailan egoten saiatzea da. Erronka zaila da, ziur bainago, niri gertatu izan balitzait, ni ez nintzatekeela Consuelo edo Martina bezain ausarta izango, María José bezain indartsua edo Olvido bezain ona. Baina pertsona horiei esker zerbait ikasi badut, hori da ez dela etsi behar.

Kazetari bezala, eta tarteka ikertzaile bezala, aukera bakarra bururatu zait: bere bizipenei ahotsa jartzea. Ez da estrategia narratibo bat bakarrik, ezta garai bateko protagonistei merezi duten lekua emateko betebeharrak historikoa ere. Egia esan, eskakizun moral bat da. Beste testuinguru batean eta garrantzi handiagoarekin, pertsona horiek zerbait egiteko premia morala sentitu zuten egun batean, nahiz eta ezerk ez zuen bermatzen berenkausarenarrakasta. Orain, jokoandagoeneanterrorismoaren letra larrizko Historiaren zein bertsio finkatuko den belaunaldi berrientzat, batzuek berriro sentitzen dute esku hartu behar dutela gai horretan. Kazetariak badute, badugu, eginkizun bat esleituta: gertatutakoa kontatzea. Kontua ez da iragana aldatzea, baizik eta, beren kontakizunarekin, nolabaiteko atzeraeraginezko justizia bat lortzen laguntzea, gertatu zena ez dadin ahanzturan erori edo berriro errepika.

URTE LOTSAGARRIA HAIEK

EDUARDO MATEO SANTAMARÍA



Eduardo Mateo Santamaría Politika eta Administrazio Zientzietan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatetik eta Institut d'Études Politiques-Sciences Po Bordeaux-en Ikasketa Politikoen Ziurtagiria du. Gaur egun, Fernando Buesa Blanco Fundazioaren proiektuen eta komunikazioaren arduraduna da. Berriki, *Justicia, verdad y convivencia. Víctimas y presos en el escenario postterrorista del País Vasco* (2023) liburua koeditatu du.

Duela hilabete batzuk kale borrokako hainbat ekintza jazo ziren Bizkaiko eta Arabako unibertsitate-campusetan, eta aspaldiko garaiak gogorarazi zizkiguten batzuei. Baina ez hain zaharrak, herri honetako kale indarkeriak duela bi egun arte iraun baitu. 2017an 40 urte bete nituen. Atzera begiratuz gero, ETA defendatu eta kale borroka praktikatzeko zutenek ereindako indarkeriak eta izuak markatu dituzte hezkuntza-maila desberdinetatik (eskola, institutua eta unibertsitatea) egin ditudan urratsak. Egoera horri buruz galdetu beharko genieke nire garaikide askori, ikastetxe berberetan ikasi baitzuten eta nire egoera bera bizi izan baitzuten.

Ziurrenik, askok ez zuten minutu bat ere ematen gure aurrean egunero gertatzen zen guztiari buruz hitz egiten edo hausnartzen.

Eta zergatik? Gertatzen ari zena ez baitzihoan beraiekin, ez ziren interpelatuak sentitzen. Nire belaunaldia jaio zenerako, indarkeria terrorista jada existitzen zen. Eguneroko panorama informatiboaren parte zen, eguneroko ogia, eta askok ezinbestekotzat jotzen zuten. Adierazpen askatasuna erabiltzea, alderdi ez-nazionalistetan militatzea, epaile, polizia nazional, guardia zibil, ertzain, enpresaburu, kazetari edo unibertsitateko irakasle izatea, horrek bizi-arriskua eta arrisku erantsia zekarren. Larriena da egoera hori gizartearen zati handi batek normaltzat hartzen zuela. 90eko hamarkadan eta 2000ko hasieran euskal unibertsitate publikora joaten ginen gazte askok onartu genuen. Ustez elkarriketarako, errespeturako eta ezagutzarako izan behar duen foroa, lurralde librea zen batzuen liskar probokatzaileko eta gehiengoaren pasibotasunerako.

Indarkeria terroristaren legitimazioa beti ageri zen kartelen, pintaden, irainen eta mehatxuzko begiraden bidez. Paisaia horretan garatzen zen unibertsitateko bizitza, eta nik bertatik bertara bizi ahal izan nuen Leioako campusean. Bizitza hori ez zen gehiegi aldatzen ETak jarduten zuenean, baina bor-bor egoten zen terroristen atxiloketen edo borroka egunen aurrean. Oso gutxi ginen nire campusean ETaren indarkeriaren aurka antolatzen ziren elkarretaratzeetara joaten ginenak, irakasle konprometitu batzuk, horietako asko mehatxupear, eta dozenaka ikasle. Elkarretaratze horietara joanda, gehiengoa zen ikasle-masa pasibo bezain absente baten aurrean nabarmentzen ginen.

2000ko abenduan Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean sarraskia eragin zezakeen atentatua izan zen inflexio-puntua, zorionez huts egin zuena. Arbuio eta gaitzespen elkarretaratze hartara jende asko joan zen. Beharbada, batzuk konturatu ziren eurei ere egokitu ahal zitzaizela, eta ukituak sentitu ziren, nahiz eta urte haietan ez zen beste elkarretaratze jendetsurik izan. Gertaera hura pasata, axolagabekeriaren eta soraiotasunaren urak bere bidera itzuli ziren. Biolentoek horma eta zutabeak hartu zituzten berriro zalutasunez betiko kontsignekin, eta ingurunea

ETari eta bere presoei arnasa emateko mezuz tindatu zuten berriro.

Testuinguru horretan, ETaren eta bere proiektu politikoaren aurka zeundela argi eta garbi adieraztea ia balentria zen. Baina bazen hori egiten zuen jendea, nire fakultateko dekanoa eta ondoren errektorea izan zen Manuel Montero (bere taldearekin batera urte oso gogorrak bizi izan zituen), irakasle dezentet eta baita ikasle batzuk ere. Nabarmentzeak, aurpegia emateak eta isilik ez geratzeak, batez ere irakasleen esparruan, handik joan behar izatea suposatzen askorentzat, beren autoen azpian begiratu behar izatea, irainak eta mehatxuak jasatea eta eskolta eramatea.

Nire kasuan, klasean greba egiteari edo presoen aldeko panfletoak biltzeari uko egin nion aldietan, irainak eta begirada desafiatsuak jaso nituen. Horrek beste batzuk gauza bera egitera eta gehiago izatera bultzatu ordez, honako iruzkinak ekartzen zizkidan nire ikaskide batzuen aldetik: "zerorri ari zara bilatzen, ez probokatu, ez du ezertarako balio", "ez sartu politikan" edo "zerbait gertatzen bazaizu, zure erantzukizuna izango da". Zientzia politikoetako ikasleak ginen, eta, beraz, arazoa are larriagoa zen. Gurea bezalako karrera batean, zure lankideek indarkeriaren eta mehatxuaren aurrean zer esanik ez zegoela pentsatzea, onartezina zen zalantzarik gabe.

Bada garbi gogoratzen dudan beste une bat ere. 2000ko otsailaren 22ko arratsaldean izan zen. Ni karrerako bigarren mailan nengoen, eta arratsaldeko bostak pasata, Francisco Llera irakaslearekin klasean nengoela, norbaitek atea jo zuen, eta arraroa zen, oso gutxitan eteten baitziren eskolak. Kanpotik zetorren ahots batek ateratzeko eskatu zion irakasleari. Minutu gutxi batzuk geroago, Llera burumakur sartu zen berriro ikasgelan, eta aurpegia desitxuratuta, guregana jo, eta Gasteizen atentatu bat izan zela eta Fernando Buesa eta bere eskolta erail zituztela jakinarazi zigun. Llera bereziki hunkitua zegoen, PSE-EEko Buesaren taldekidea baitzen, ezin zuen sinetsi gertatu berria zena. Errieta egin zigun tonu kementsu eta suminduz, esanez gazte eta unibertsitario bezala ezin ginela besoak gurutzatuta geratu,


gazteria egiten uzten ari zela eta gure isiltasuna konplizea zela. Haren hitzak ozenki entzun ziren aretoan, eta gogoa izan nuen gelako beste zati horri, zirkinik ere egin ez zuenari, galdetzeko zer sentitzen zuen halako basakeria baten aurrean. Llerak ezin izan zuen jarraitu, eta klasea bertan behera geratu zen.

Nire karrerako azken urtea atzerrian eman nuen. Erasmus programak beste errealtate bat ikusteko aukera eman zidan, non pentsatzea, desberdina izatea eta ados ez egotea normalena zen, espero zena, eta, batez ere, errespetatua. Hura aukera, hura askatasuna. Nire urterik onena izan zen unibertsitatean, nire herritik urrun, Euskadin bizi genuena benetako amesgaiztoa zela ohartuta, zeinaren aurka borrokatu eta konprometitu beharra zegoen.

Hau da nire bizitzako atal honetan gertatutakoaz, unibertsitatean izan nintzenekoaz, gogoratzen dudana. Hala ere, nire bizitzako eta beste bizitza askotako beste atal batzuk ere ETAre zentzugabekeriak markatu ditu. Bizi izandakoa kontatu behar dugu. Ezinbestekoa da iragan hurbileko historia hau gertatutako guztiaren egiazko kontakizun baten oinarri diren testigantzez bete dadin. Batez ere biktimei zor diegu, baina baita etorkizuneko belaunaldiei ere.

BETI EGITEN EZ DIREN GALDERAK

CONCHITA MARTÍN



Conchita Martín ETak 2000ko urtarrilaren 21ean Madrilen eraildako Pedro Antonio Blanco teniente koronelaren alarguna da. Lerro hauekin batera doan ilustrazioa On Kixote bat da, Florencio Galindo artistak, Conchitaren lehengusuak, margotua. Cuencako Katedralean egin zen "Askatasunaren Poetika" (2016) erakusketarako.

Hilketa indibiduala, terrorismo bihurtua, adin oso goiztiarretan finkatu zen gure artean; *gut*zat ulertuta Euskal Herrian bizi zirenak, uniforme armatuak zeramatzatenak eta kargu publiko instituzionalak zituztenak, gero beste sektore batzuetara, beste hiri batzuetara, zabaldu zelarik. Ordura arte, Albaceteko edo Algecirasko haurrek ez zekiten horretaz, bazkalorduan albistegi batean ezustean ikusten zutena baino, ez baitzen gauza bera zure

aita aseguru-agentea bazen edo gure geografiako edozein lekutako polizia bazen!

Eroso bizi nintzen Gaztelako nire hiri txikian, aitak autoaren atzerako ispiluan identifikatzen zuen panpina eta etxeko ateko txapa (ohikoa zena) kendu zituenean. Izan ere, horrek guztiak potentzialki jomuga bihurtzen zuen. Orduan bai, galdetu nuen zergatik, eta amak erantzun zuen suhartasunik gabe, labur azalduz guardia zibil guztiak atentatu terrorista baten jomuga izan zitezkeela. Askoz geroago, Lurreko Gudarosteko ofizial batekin ezkondu nintzenean, beste alerta eta kezka egoera batean sartu nintzen.

Ignominia gero eta handiagoa zen heinean, gure askatasun-egoerak behera egin zuen, eta gure segurtasuna asko murriztu zen. Nire seme-alabak eta ni horretara egokitu ginen. Haiek eskolara eramaten hasi nintzen, autoa garaje batean gordetzen genuen eta linterna handi bat erosi genuen, beti maletategian zegoena. Goizero, ateratzen ginenean, edo astebururo, klubera joaten ginenean, gure haurren kirol-jardueretara bidean, inor ez zen kotxera igotzen, lehenago Pedrok edo nik linterna maitagarri harekin autoaren azpialdea begiratzen ez bagenuen, aurreko ateetako sarrailek bortxatuak izatearen zantzurik ba ote zuten behatzen ez bagenuen. Posta bulegoan baino ez genuen zabaltzen, baita bankuko komunikazioak ere.

Hala ere, esan beharra daukat, nik eskutik helduta eramaten uzten ez banizkion ere, pentsatua genuena egiten jarraitu genuela. Ez zuen inoiz esan etxean geratzen zenik, eta ez zituen mugatu erosketak egiteko arratsaldeak, lagunekin bilerak. Nahi gabe, modu jakin batean bizi zen populazio horren zati bihurtu ginen, baina besterik ez. Nire seme-alabak ez ziren inoiz asaldatzen garajeko lurrean etzaten ginenean, haiek urrunago beren paper-zorroekin, edo auzoko bat gauza bera egiten ikusten zutenean. Ezta gure auzoan bonbak lehertu (bat baino gehiago), eta nolabait haien eguneroko zeregina aldatzen zutenean ere. Jakinaren gainean zeuden.

Horregatik, gertaerak gu harrapatu gintuenean, garai hartan pertsonatxoak ziren haien galderak, kezkak, ezin ziren ohikotzat

hartu. Ez zuten inoiz galdetu "zergatik?, zergatik aita?, zergatik guri?". Hori gure entrenamenduaren parte zen, garatzen ari ginen ingurune militarren parte. Bagenekien zergatia, zauriak sendatzen asko lagundu ez arren. Agian, beren buruari galdetzen zioten aita sufritu ote zuen, hiltzen ari zela ohartu ote zen, aurrera jarraitzeko dirurik izango ote genuen, horrelakoak, azken batean. Apetazko hilketaren zentzugabekeria beste digestio mota bat da. Pertsonalki eskertu egin nuen, neurri batean, ariketa emozional hartan jadanik murgilduta egotea. Kontua da horren ondotik gu berriz osatzeko lan zaila etorri zela, gure kidekoak zebiltzan mundu globalizatu mendebaldirrean, ongizate-egoeran. Ez zen galdera askorik egon, malkoak, hortz estutuak eta buru tenteak baino ez. Hori izan zen ondorengo entrenamendua, gogorra eta oso luzea. Ez zaitu sasioan jartzen, baina arima gehiegi ez urratzen laguntzen du.

URTE LATZ HAIEK

MARTA BUESA



Marta Buesa abokatua da eta Fernando Buesa buruzagi sozialistaren alaba, 2000ko otsailaren 22an ETak Gasteizen eraila, bere bizkartzain Jorge Díez Elorza ertzainarekin batera.

ETAren 2018ko maiatzaren 3ko oharrean, talde terroristak esaten zuen bukatutzat ematen zuela "bere ziklo historikoa eta Erakundearen funtzioa".

Bere presentziaren berrogeita hamar urteetan modu positiboan lagundu izan balu bezala Euskadiren aurrerabidean eta aurrerapenean, euskal herritarren ongizate-estatua eraikitzen, eskubide sozialen konkistan, industriaren hedapenean, modernizazio demokratikoan...

ETAren historiara hurbiltzen den edonork min izugarria, sufrimendu latza, maila imajinaezineraino, krudelkeria amaigabea besterik ez du aurkituko. Hainbeste, ezen atzera begiratzen dugunean, biktimen kontakizunak irakurtzen edo entzuten ditugunean, urte hauetan guztietan Euskadin gertatutakoaren errealtatera hurbiltzen garenean, harritu egiten baikara nola izan ginen jasateko gai.

Oroimena apetatsua omen da. Nire oroimena agian hala da, edo agian bizirik irauteko estrategia bat besterik ez da, lasaitasun onargarri batekin bizitzen jarraitu ahal izateko, hainbeste astakeriak eragindako amorru eta mingostasunaren mende egon gabe. Testigantza hau idazteak gogoeta egitera, gogoratzera eta denboran zehar bidaia bat egitera behartu nau, nire buruak ahaztea erabaki zituen pasarteak argitara ekarriz.

Hautzaro zoriontsua izan zen nirea, lasaia. Bizi izan nintzen, ikasi nuen eta hazi nintzen inguruneagatik, nire bizitzako garai hartan terrorismoaren basakeriatik kanpo geratu nintzen. ETA telebistan zegoen. Etxean beti ikusten genuen albistegia, eta, une horretan, atentatu baten berri ematen zutenean, gurasoek, oso serio, isiltasuna eskatzen ziguten, "albiste garrantzitsu bat ematen ari zirelako".

Gogoan dut telebistaren aurrean zutik nengoela eta neskatila baten irudia ikusi nuela, lurrean etzanda, amak eskolara gidatzen zuen autoaren ondoan, eskolako uniformeak jantzita (jertse urdin iluna eta gona grisa), hankarik gabe, zutitu nahian. Dena ke beltza, sirenak, izua... Hamar urte nituen orduan. Neskatoa Irene Villa zen.

Jakin badakit, aitzak zerbitzari publiko gisa zuen konpromisoa handituz joan zen neurrian, pixkanaka murriztu egin zela haren eta amaren askatasuna. Ezin izan zuten bizitza sozialik izan, lagunartearekin atera, Euskadiko txoko zoragarriak bisitatu. Denborarekin, bizkartzainen presentzia errutina bat gehiago bihurtu zen.

Askatasuna oporretara joaten ginenean iristen zen, beti Euskaditik kanpo. Kotxean gindoazen, eta atzetik bizkartzainen autoa zetorren, guri jarraika, mugaraino edo Armiñongo ordainlekuraino. Orduan gu bakarrik pasatzen ginen, eta haiek, bizkartzainak, atzean geratzen ziren, baratuta, guk gure bidaia egiten genuen bitartean. Nik burua jiratu eta han ikusten nituen, geldia eta, handik gutxira, buelta ematen. Eta haiekin batera gelditzen ziren itzalak.

Zuzenbide ikasketak egin nituen Deustuko Unibertsitatean. Atentatu bat zegoenean, bazkalorduan, goiz erdian, pankarta bat

jartzen zuten unibertsitateko esparruaren pasealekuan, eta, haren atzean, 20 bat lagun baino ez, isilik, dolu-keinu gisa. Noizbait, gurekin, irakasleren bat egoten zen. Eta munduaren gainerakoa gure aurretik pasatzen zen, gelditu ere egin gabe, guri begiratu gabe edo enpatiarik txikiena adierazten zuen keinu bat bera ere adierazi gabe. Hobe zen ez nabarmentzea, ez aipatutzat jotzea. Bakardadearen eta hutsaren sentsazioa handia zen.

Ordurako, ia ez nuen telebista ikusten, baina asko entzuten nuen irratia. Jaiki, eta nagiak atera bitartean, irratia pizten nuen. Geldi geratzen nintzen, soinu hark nire gelako isiltasuna nola betetzen zuen entzuteko itxaropenez... Atentaturen bat izan ote da gaur? Eta bai, berriro gertatu zen.

Goiz hartan bezala, non Iñaki Gabilondok Gregorio Ordóñezzen bulegoko leihotik ikusten zuenari buruz egiten zuen deskribapena entzuten jaki bainintzen.

1995eko Gabonen aurreko egunetan egunkarian irakurri nuen Araba komandoa desegin egin zutela, eta, besteak beste, nire aita hiltzeko asmoa zutela. Etxera iritsi nintzenean, bere logelako ohean berarekin eseri, eta egunkariak zioena egia ote zen galdetu nion. Begietara begiratu eta baietz esan zidan, egia zela. Zer moduz zegoen galdetu nion, eta baretasun mezu bat eman zidan: "Lasai nago, orain familiaz, Gabonez gozatzea besterik ez dut buruan, nire babesaz arduratzen direnek zainduko naute".

Orain, ama naizenez, badakit zer den seme-alabekiko kezka, zer dakarren haiek zaintzea eta babestea. Nire gurasoek anai-arrebengatik eta niregatik egin zutenaz jabetzeko balio izan dit horrek. Haiek izan ez zuten askatasunarekin bizi gintezen lortu zuten. Imajinatzen dut ez zela erraza izan haientzat, baina, egia esan, beldur izan baziren, ez ziguten inoiz transmititu.

Inoiz ez dut haiengandik alerta-mezurik jaso, inoiz ez zidaten esan "hori arriskutsua izan daiteke, ez ibili leku hauetan, kontuz jende honekin, ezin duzu jantzi modu jakin batean, edo kolore zehatz batzuekin...". Ez zidaten inoiz beldurrik edo larritasunik transmititu. Ez nituen inoiz kexatzen entzun.

Argi eta garbi gogoratzen ditut Miguel Ángel Blancoren bahiketaren eta hilketaren hiru egunak. Denboraren joan-etorri

motela, egin genezakeen gauza bakarra egiten genuen bitartean, kalera irten. Bilboko manifestazio jendetsura joatea, gure dolua adieraztea gure erlojuak 1997ko uztailaren 13 hartako 16:00ak markatu gabe, eta kalean jarraitzea. Igandean Lekeition nengoen, manifestazio espontaneo bat sortu zenean, eta harekin bat egin genuen nire mutil-lagunak eta biok. 50 bat pertsona izango ginen, ez gehiago, baina hori harrigarria zen herrian, ETArek aurka zeudenek ez baitzituzten inoiz kaleak hartzen. Eta gogoan ditut herriko jendearen aurpegiak, tabernatik ateratzen zirenenak edo kalean geldirik geratzen zirenenak, manifestazioan gindoazenei begira, mespretxuzko keinu batekin esanez: "Nola ausartzen zarete hau egiten!".

Eta hurrengo egunetan berriro kalean nengoen, deialdi formal baten ondoren herriko tabernetarainoko ibilbidea bat-batean hasten zuten manifestazioetan, gure nazka oihukatzeke. Errespetuz, baina argi eta garbi, irmo.

ETAk 1998ko irailean emandako su-eten erabateko eta mugagabean, ETako Ituren komandoak nire aitari jarraipena egin, eta haren hilketa planifikatu zuen. Su-eten hartan, zeukan babes guztia kendu zioten. 1999ko abenduan nire aitari eskolta zerbitzu bat jarri zioten. ETAk amaitutzat jo zuen su-etena.

2000ko otsailaren 22a asteartea zen. Astearte zero grisa, tarteka euri fina ari zuelarik. 28 urte nituen. Urte eta erdi zen ezkondu nintzela, eta ilusioz beterik nengoen nire etxe berria eraikitzen. Gogoan dut egun hartan armairu bat muntatzen amaitu zutela eta gauzak jartzen aritu nintzela; horregatik, ohi baino beranduago joan nintzen lanera. Hilketaren une zehatzean, 16:30ean, autoan nengoen, etxetik bulegorako bidean.

Justu atetik sartzean sirena hotsa entzun nuen, eta, nire lankidearekin batera leihotik begiratzean, Gasteiz Etorbidetik polizia autoak, suhiltzaileen kamioia eta anbulantziak pasatzen ikusi genituen. Orduan begiak altxatu, eta ke zutabe handi bat ikusi nuen urrunean, sarria eta beltza.

Nire kideak esan zuen: "Hori bonba bat izango zen, hemen sentitu dugu, indar handiko bonba bat izango zen". Orduan

erantzun nuen nik: "Ba hori unibertsitateko eremua da, nire gurasoen etxetik oso gertu izan da".

Gogoan dut begietara begiratu geniola elkarri, beldurra agertuz itaigun segundobatzuetan, eta, berehala, konbentzimendu gutxiko iruzkina etorri zen, ziur aski han ez zela izango.

Aitaren telefono mugikorrera deitu nuen, eta ez zuen erantzun. Etxera deitu nion, eta inork ez zuen erantzun. Ez nengoen lasai, barne borroka batean murgilduta nengoen; batetik, zerbait ikaragarria gertatu zela uste nuen, eta, bestetik, ez nuen sinetsi nahi benetan gertatu zela.

Irratia jarri, eta Gasteizekin bat egiten zutela entzun nuen, atentatu bat izan zela. Hiru zauritu aipatu zituzten... Dena oso nahasia zen.

Gurasoen etxera deitu nuen berriro, eta nire anaia Carlosek telefonoari erantzun zion. Zuzenean galdetu nuen: "Carlos, zer gertatu da?". Eta berak esan zidan: "Aita izan da, Marta, hil egin dute".

Une hartatik aurrera, hain atsekabe handiak hartu ninduen, hain tristura izugarriak, gainezka egiten zidanak, hautsi eta ezin izan niola negar egiteari utzi.

Egun hartako eta hurrengo egunetako oroitzapenak *flashak* bezala datozkit:

Nire gurasoen etxea jendez gainezka; atea irekita, eta jende piloa eskailera-burutik, sarreratik, jangelan, sukaldean... Bizilagunak, adiskideak, senideak...

Legebiltzarrean estalitako zerraldoa, eta hura ikustean pentsatu nuen: "Jada ez dut gehiago ikusiko. Ezin izan diot agur esan".

Aire freskoa aurpegian, legebiltzarreko ateak ireki zirenean, eta tristura zorrotza ohorezko aureskua jo zutenean, hiriko hainbat kaletatik martxa bat hasi aurretik, katedral berrira iritsi arte.

Ilbilbide osoan pilatutako jendea txaloka.

Lore guztien usaina katedralean sartzean, jende mordoa sarreran pilatuta.

Egun haietan ez genuen irrati, telebista eta egunkarien berririk jaso.

Ostegun arratsaldean anai-arrebak eta biok paseatzera irten ginen, eta, nahi gabe, gure urratsek atentatua izan zen lekura eramán gintuzten. Gaua zen, euria ari zuen eta aterkien azpian lurra lokaztuta ikusi genuen, belarra erreta, hondatuta... Eta han kandela pila bat piztuta, marrazkiak, gutunak, mezuak. Hainbeste jenderen maitasun-adierazpen horiek guztiek hunkitu egin gintuzten, eta eskertu egin nahi genituela sentitu genuen.

Idatzi bat prestatu, eta 26ko larunbat goizean irakurri nuen. Hona hemen idazki horren pasarte batzuk:

Une zail hauetan gure ondoan egon zaretenoi, kalera atera zaretenoi, loreak ekarri dituzuenoi, mezuak idatzi dituzuenoi, azken finean, zuen babesba eta maitasuna erakutsi diguzuen guztioi eskaintzen dizkizuegu hitz hauek.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu. Jende askoren babespean sentitu gara.

Ez dugu gorrotorik, herrarik eta are gutxiago etsipenik sentitzen. Tristura sakona eta hutsune handia besterik ez dugu gure aita galtzeagatik.

Ez dugu errukirik nahi, ezta gure mina erabiltzea ere.

Guretzat zuen babesba zein suspergarria izan den jakin behar duzue. Indar izugarria da, aprobetxatzen jakin behar duguna. Espiritu hori baliarazi behar dugu.

Nitaz jabetu zen tristura luzaro geratu zen nirekin. Nire familiaren antolatzearekin egokitu behar izan nuen, aita erail eta hilabete batzuetara jakin bainuen nire lehen seme-alabaren zain nengoela.

18 urte igaro dira eta atzera begiratu, balantzea egin eta jakin badakit eutsi egin niola, bizirik iraun nuela, minari aurre egin niola eta bizitzen jarraitu nuela. Eta sentitzen dut, ahalegin handiarekin eta lan pertsonal oso handiarekin, oreka pertsonala lortu dudala eta bizitzari ilusioz, gogoz eta baikortasunez aurre egiten ikasi dudala.


Pena ez da inoiz joaten. Batzuetan, gutxien espero dudanean, abesti bat, usain bat, albiste bat edo pasadizo bat oroitzapen batekin lotu (memoria albe batera utzitakoa), eta nostalgia pizten zait, hondartzan espero ez duzun olatu bat bezala.

ETAk jarduera armatuaren behin betiko amaiera iragarri zuenean, negarrari eman nintzaion mingostasunez. Nire buruan, besoa luzatu eta 2000ko otsailaren 22ra arte irits nintekeela irudikatu nuen, eta aitari esaten niola: "Heldu gogor nire eskuari, nik ekarriko zaitut hona, hemen ez zaizu ezer gertatuko, hemen salbu zaude". Zenbat min, zenbat sufrimendu ezertarako!

Tristuratik idazten amaitzeari uko egiten diot. Izan ere, oinazea, atsekabea eta pairatutako kalte izugarria gorabehera, gauza izan naiz nire amorrua eta atsekabea gauza on batera bideratzeko. Nire seme-alabak gorrotorik gabe hezi ditut, gertatutakoaren ezagutzan, baina pertsona aske eta bihotz oneko gisa; jarrera zintzoa eta adiskidetzaila izan dut, baina irmoa eta benetakoa; ezagutu ez nituen beste pertsona batzuen sufrimenduaren errealitatea ezagutu eta horri aurre egin diot; eta, batez ere, min hori entzutea, hari aurre egitea eta jasotzea dagokigula ulertu dut, horrela bakarrik eraiki ahal izango baititugu bizikidetzaren osasuntsu baten oinarriak. Urte izugarri haietan bizi eta haietatik bizirik atera ginenoi dagokigu zeregin hori. Ezin diogu utzi gure seme-alabei, ezta gure bilobei ere.

NIRE ALETXOA

MARÍA CARMEN HERNÁNDEZ



María Carmen Hernández Jesús María Pedrosaren (irudian), ETAk
2000ko ekainaren 4an erail zuen Durangoko PPko zinegotziaren,
alarguna da

Gogora datorkit, nire alaba zaharrenak lau urte zituela, ETaren gaiarekiko benetako larritasuna sentitu nuen lehen aldia izan zela; izan ere, sarritan, ETaren alde zeudenek Durangoko sarrerak blokeatzen zituzten (bertan bizi naiz), atxiloketaren batengatik edo beste edozerengatik protesta gisa.

Zazpi kilometrora egiten nuen lan, eta eskolatik abisua eman bezain laster errepidea irentsi behar izaten nuen herrira sartu eta neskatoa hartu ahal izateko, haiek itxi egiten baitzuten. Orduko hartan ez zidaten pasatzen utzi nahi, eta erreguka hasi nintzaion, larritasunagatik ia negarrez, haurra bakarrik sentituko zelako. Azkenean, haietako batek pasatzen utzi zidan. Ordutik aurrera izan zen, 1975-80 urteetan... familia batzuk bizitzen ari ziren izuaz jabetzen hasi nintzen, agintariak oharkabea edo ahalik eta zarata txikienarekin pasarazten zituzten hilketak, etab.

Nire senarrari garondoan tiro egitea erabaki zuten. Hamahiru urte zeramatzan PPko zinegotzi gisa. Mehatxatuta egon arren, ez duzu espero bera erailtzea. Aurreko hiru urteetan jazarpen izugarria jasan genuen: irainak, mehatxuak, manifestazioak gure etxe azpian amaitzen ziren mezuen irakurketarekin, eskailera ituekin papereztatuta, pankarta zintzilikatuak kandela piztuekin, etxera bidalitako paketeak eta abar luze bat.

Non daude agintariak?, galdetzen nion neure buruari. Nola liteke horrelako gauzak gertatzea eta inork ezer ez egitea?

Ertzaintzari deitzen nion, baina... ez ziren heltzen edo berandu heltzen ziren beti. Gainera, jendearen hutsunea sentitzen duzu, paso egiten dute beldurragatik edo hurbiletik eragiten ez dielako. Hitz egiteari eta agurtzeari uzten dizuten bizilagunak, pertsonak. Betidanik ezagutu duzun jendea zure etxe azpian manifestazioa egiten. Oso tristea da!

Linterna handi bat ere banuen, ateratzen nintzen bakoitzean autoaren azpiak begiratzeko, nahiz eta Jesus Mari aspaldi ez zen gurekin joaten. Egoera horrek min egiten dizu. Hasieran gogortu egiten zara, eta egunerokoari aurre egiten diozu, baina denborak aurrera egin ahala beldur handia sentitzen duzu. Gure familiaren egoera nahiko tristea zen horregatik.

Gertatzen denean, ezinezkoa da zer sentitzen duzun azaltzea, larritasunak itotzen zaituelako. Min handia sentitzen duzu. Galderak datozkizu burua: Zergatik? Zertarako?

Erantzunik gabe, erantzunik ez dagoelako.

Nola egin aurre? Indartsua izango nintzela agindu nion neure buruari, batez ere alabengatik. Behar nuen laguntza profesionala bilatu nuen, eta, batez ere, nire bizitzako etapa berri horretarako indarrak eskatu nizkion Jainkoari. Gainera, nire aletxoak jartzeko asmoa ezarri nion neure buruari, ahal nuen neurrian, bakean elkarrekin bizitzearen aldeko mezu eraikitzaile bat emateko. Ahalegin handia eginez, eskatu didaten lekuetan egon naiz, hitz egiten, nire testigantza ematen, gorrotorik eta herrarik gabe. Nire ustez, gorrotoak kalte handia egiten dio geure buruari.

Eguneroko gogoetetan banekien nahi nuela, barkatuko nuela. Hasieran larritasuna eta amorrua azaleratzen dira, baina

barkatzeak askatu egiten zaitu, nik hala sentitzen dut. Horretarako, ez da beharrezkoa haiek barkamena eskatzea. Agian ez dute merezi, eta ez da betebeharrak bat, ezta ahanztura ere. Agian, nire fedeagatik, Jesusen ebanjelioaren jarraitzailea naizelako, errazagoa izan zait. Barruko bakea behar nuen, neure buruarekin ongi egotea.

Ekimen plural batean parte hartu nuen (Glencree, 2007-2012), terrorismo ezberdinen biktimen artean: GAL, BVE eta ETA. Bi urteren ondoren, giza eskubideen beste urraketa batzuetara zabaldu zen taldea: jazarriak, torturatuak, etab. Oztopoak eta estereotipoak hautsiz, elkarrengana hurbildu ginen, elkarbizitzarako oinarriak aztertuz. Esperientziak partekatzeko, haiek ezagutzeko, ulertzeko eta jasandako indarkeria zein bidegabea, justifikaezina eta alferrikakoa izan zen jabetzeko aukera eman zigun. Elkar ezagutzetik bestearekiko enpatiara eta aitorpenera igaro ginen. Horrekin guztiarekin elkarbizitzaren aldeko ekarpena egin nahi izan genuen. Gizarteari, oro har, eta norberari bereziki, iraganari buruzko hausnarketa eta autokritika egiteko gonbita egin genion, egiarekiko eta justiziarekiko konpromiso saihestezin baten bidez.

Langraiz Okako presoekin izandako topaketa errestituatiboetan parte hartu dut. Uste dut programagarrantzitsua zela, ETArekin loturarik ez zuten presoek gizarteratzen laguntzen ziena, kartzelatik irtetean. Ona zatekeen proiektu honek aurrera jarraitzea.

Ikastetxeetan ematen den Adi-adian programan nago. Gure testigantzekin ikasketa mezu eraikitzaile bat eramaten saiatzen gara, gertatutakoa sekula berriro gerta ez dadin.

Nire bizitzako etapa honetan balio handiko pertsona bikainak ezagutzeko aukera izan dut. Horrek guztiak "nire aletxoak" jartzen jarraitzera animatzen nau.

NIRE OMENALDI TXIKIA RAMÓN RECALDERI

LUIS CASTELLS



Luis Castells historia garaikideko katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean 1993tik. Valentín de Foronda Gizarte Historiako Institutuaren sortzailea da, eta liburu eta artikuluko ugari argitaratu ditu modernizazioaren eragin sozial eta politikoari. Espainia garaikideko nazionalizazio-prozesuei edo terrorismoaren ondorioei buruz.

Bizitza kanpoko baldintzarik gabe libreki hartutako erabakiek markatzen dutela uste dutenen aurrean, batek uste du, aitzitik, zoria, zirkunstantziak, erabakigarriak izan direla gure ibilbidean. Nire kasuan, Donostiako familia “on” eta kontserbatzaile bateko kide izanda, matxinatuekin borroka egin zuen aita batekin, Ramón Recalde nire arreba María Teresaren senar gisa familian sartzeak astindu bat eragin zuen gu guztiongan. Ez, jakina, ezkontzogatik, baizik eta 1962an atxilotu zutelako, ezkerreko erakunde bateko (ESBA) kide izateagatik, Melitón Manzanasek eragindako torturengatik, eta, ondoren, Gerra Kontseiluagatik, non fiskalak hamar urteko eskaera egin baitzuen. Familia osoarentzat ohartarazpen bat izan zen hura, egoera ezezagun batekin topo egitea izan zen, eta horrek erreakzio kolektiboa eragin zuen, aitarengandik hasita. Suhariari emandako babes irmoak bere gizarte

ingurunearekiko harremanak etetea ekarri zuen, eta hiriko elkarte nabarmenetako batzuen etsaitasuna. Frankismoaren aurkako bere aktibismoak, gainera, Ordena Publikoko Auzitegian epaitua izatera eraman zuen (frankismopeko notario baten kasu bakarra), eta, ondoren, frankismo berantiarrean ekimen demokratikoak sustatzera.

Baina itzul gaitezen nire historiara eta halabeharraren eraginetara. 1962. urtea zen, eta nire koinatu Recalde zigorra betetzen ari zen Carabanchelen. Erregimen diktatorial errukigabe hark keinu paternalista txikiak zituen, sistemaren gogortasuna agerian utzi baino ez zutenak egiten. Horietako bat hamar urtetik beherako presoen seme-alabei aitarekin eguberri eta errege egunak pasatzen uztea zen. Bada, erregimenak eraginkortasunik ez zuenez, hamaika urte nituela sartu ahal izan ninduten, Ramónen seme gisa, Andresekin, bere seme zaharrenarekin, zeinak, bi urte zituenek, baldintza guztiak betetzen baitzituen. Bi egun haiek esperientzia ezabaezina izan ziren niretzat, presoekin bizi izan ginelako, eta bigarren egunean agur esan zigutelako "Agur bihotzarekin" abestuz, haien beso elkartuen azpitik pasatzen ginen bitartean. Haurtzaroa gorabehera, zaila zen izugarria iruditu zitzaidan jende harenganako askatasun-irrika sakonari ihes egitea, eta jarraibide bat markatu zidan, hurrengo urteetan frankismoaren aurkako jarduera bizi batean islatu zena, nahiz eta ohitura txar sektarioz eta politikoki infantilak ziren jokabideez betea egon jarduera hura. Dena den, Ramónen aginpideak aurrera egin zuen nigan, politikoki desberdindu gintezkeen arren, eta gehien eskertu behar diodan alderdietako bat ETaren indarkeriaren gaitzespenean izandako eragina izan zen. Egia da, Ramónek berak zioen bezala, motibazioak utilitarioagoak zirela, "aukerabidezko judiziozkoagoak", etikoak baino. Zalantzarik gabe, gaitzesgarria da hori, baina urte haietan batzuei balio izan zigun ETarengandik urrun edo haren aurrean kokatzeko, eta horrek ingurune horren erasoan jomuga izatea ekarri zuen.

Hau da nire bizitzaren lehen etena. Bigarrena jarraipen-irtenbiderik gabekoa izan zen. Trantsizioarekin batera frankismoa eta haren hondakinak desagertzen joan ziren, baina euskal

gizartean beste diktadura eredu bat sortu zen, inposizio totalitariokoa, ETAk ordezkatzeko zuena. Militantziak aurrera jarraitzen zuen, baina grisen aurrean korrika aritzen ziren gutxi batzuk izatetik, oso gutxi, beste gutxi batzuk —kasu askotan lehengo berberak— izatera pasa ginen, ETaren hilketengatik protestatzen hasi ginenak gazte erradikalen irain eta erasoaren aurrean. Lehenik, PCEn deialdiekin, gero beste mugimendu batzuekin, manifestazio, elkarretaratze asko izan ziren, bakardade eta atsekabe sentsazioarekin, gizartearen babes faltagatik, “leio itxien” sentsazioarekin, eta ETaren bidegabekeria sakonaren (lehen frankismoarekin gertatzen) ueste sendoak bakarrik eramaten gintuen salaketan etengabe irmo irautila.

Gauzak aldatuz joan ziren, ETari emandako erantzun soziala handituz joan zen, eta honek ohi zuen bezala erreakzionatu zuen, bere ohiko basakeriaz, bere jomugan fokua anplifikatuz. Testuinguru horretan gertatu zen nire koinatuak 2000ko irailean jasan zuen atentatua, eta mirariz ateratu zen bizirik bere hiltzailearen trebetasun faltari esker. Atentatuaren ondorengo egunetan tentsio ikaragarria izan zen ospitalean, Ramón zoriak eragindako ziurgabetasunarekin, bizitza eta heriotzaren artean, medikuek ematen ziguten informazioarekin, ebakuntzekin... Ospitaleko egun haietatik bi egoera geratu zaizkit bereziki iltzatuak. Bata, Lagun ixteko erabakia: liburu-dendak ezin zuten Konstituzio Plazan jarraitu, bertan lan egiten zutenen bizitza arrisku larrian baitzegoen. Gogoan dut erabaki hori hartu genuen bilera estugarri hura, eta denda ixtea atsegin ez zuten Ignacio Latierri egin genion iruzkina argazki baten kariatara, non bera ETak urte horretan bertan eraildako PCko beste bi buruzagi ohiekin agertzen baitzen, José Luis López de la Calle eta Juan Mari Jaureguirekin. Giroa beldurgarria zen. Beste egoera Ramón seme-alabak triste eta haserre etorri zirenean jazo zen, Ibarretxe ospitalera egindako derrigorrezko bisitaren ondoren. Hizketaldian zehar, Euskadin “ondo bizi” ginela esan zien, eta enpatia falta izugarria erakustez gain, sakoneko arazo politiko bat ere bazela agerian geratu zen.

Pertsonalki, gertaera horrek bigarren sekuentzia bat izan zuen Ramón aurkako atentatua egin zuten etakideen epaiketan.

Epaiaketa hori hamabi urte geroago egin zen. Berak hala eskatuta, aretoan egon nintzen babesa ematen, eta bizi izan dudana esperientziarik gogorrenetakoa izan zen. Izan ere, atzera 62ra eramanez ninduen Carabanchelera. Gela hartan zeuden atentatuaz arduratu ziren lau etakideak, agindua eman zuen Txapote barne, guztiak bere itxura arranditsuaz, harroputz puntu batekin, hant gertatzen ari zenarekiko inolako sentimendu-zantzurik erakutsi gabe, gertaeren kontaketa aurrean izukaitz. Atentatuaren prestaketari buruzko kontakizun zehatza — haren deskribapen xehatua, prestaketaren hoztasuna, ETAren jardunaren giza gabetzea haztatzea—, mingarria gertatu zitzaidan, eta samintasun sakona utzi zidan, areagotua, hant kontaktzen zenaren zentzugabekeriak kontrastea egiten zuelako taldeak edo haren oinordeko zibilek Euskadin zuten babes sozialarekin. Atentzioa eman zidaten, halaber, bi auzitegi-medikuen azalpenak, bikainak akusatuak (zeinak beste auzipetuak salatu baitzituen) jasotako tratuari buruzko zehaztasunean, eta horrek ezinezkoa egiten zuen berak alegatutako tortura-salaketa.

Utzi gintuen arte, Ramónekin izan nuen tratua bizia izan zen, gure bat-etortze —asko— eta desadostasunekin —batzuk—, eta baikortasun zuhur goresgarria erakutsi zuen, gertatu zenaren ondorio agian. Horrela, 2011n ETAk armak utzi baino lehen, haren porrota egiaztatu zuen, eta bizi ahal izatea eta eragileetako bat izatea bere pozetako bat izan zen. Beste batzuei geratzen zaigu orain porrot hori egiazko kontakizun batekin amaitzea.

BIKTIMA BATEN PENTSAMENDUAK ETA ESKAKIZUNAK

SANTOS SANTAMARÍA ZARAGOZA



Santos Santamaría Zaragoza ETak 2001eko martxoaren 17an Gironako Roses herrian hildako Santos Santamaría Avendaño mossoaren (argazkian) aita da. Gaur egun ACVOT Erakunde Terroristen Biktimen Kataluniako Elkarteko kide da, eta elkarte horretako presidente izan zen.

OMENALDIAK

Ez dugu omenaldirik behar, badakigulako terroristaren tresna besterik ez garela izan gizarteari izua sortzeko. Tresna soilak. Benetako biktima bakarra gizartea izan da eta da. Baina gizartea eroso da, edozein konponketa koldar egiteko aukera onartzeraino, “niri ez egokitze” baino ez.

Pozik onartzen dugu gure oroitzapen-ekitaldietan “agintariak” egotea eta bertaratzea, horrek gure ekitaldiak

ikusgarriago egiten dituelako, baina min ematen digu ikusteak nola erabiltzen duten batzuetan gure mina beren promozio politikorako (jarri biktima bat zure argazkian).

Muzinduegitengaituahantzuraselektiboetamanipulatzailleak, esaterako Kongresuko eskaileretan Sirian hildako haurrak omendu bai, baina ETAk hildako 22 haurrak ahaztu egiten dituen Espainiako alderdi batek egindakoak. Beharbada, bere buruzagiak herriko tabernaren batean egin zuen, hiltzaileekin baxoerdiak hartzen ari zela, haien ditxoekin barre egin bitartean.

OROITZAPENA ETA MEMORIA

Gure pertsona maiteak gogoratu nahi ditugu. Norbaitek gogoratzen dituen bitartean gure artean egongo direla pentsatzeak kontsolatzen gaitu.

Memoria eskatzen dugu. Gertatutakoaren memoria. Nori gertatu zitzaion gogoratzea. Nork egin zuen eta zer egin zuen gogoratzea.

PEDAGOGIA

Belaunaldi berriak gertatu zenaren ezjakintasunean hazten dira, edo, okerrago, gertatu ez zen horretan doktrinatuta.

Memoriaren pedagogia eskatzen dugu, eta hori egiten dugu gizartea kontzientziatu eta berriro ez gertatzeko beharrezko bitartekoak jar ditzan, eta gure sakrifizioak zerbaitetarako balio izan dezan.

ERRESPETUA

Errespetua eskatzen dugu, hirugarren bat, gizartea, izutzeko mina jasan dugun pertsonak garelako, eta hirugarren horrek batzuetan ("zerbait egingo zuen") axolagabekeria susmagarritz begiratu gaituelako.

Gaur egun espantuz eta harriduraz ikusten ditugu sare sozialetan ohiko Casandren adierazpen sasi-barregarriak, adierazpen-askatasunaren eskubidean eta umore beltzean babestu nahi dutenak. Nahiago dugu sinetsi gorrotoz gaixotutako jendea dagoela, hori onartzen duen gizarte gaixo bat dagoela sinetsi baino.

Badirudi batzuei barregura ematen diela horrek. Barregarria iruditzen zaie.

Adierazpen-askatasunak, zigortua izan gabe pentsatzen dena libreki esateko, adierazteko eta zabaltzeko oinarritzko eskubide gisa, mugak ditu. Inork ezin du ideia onartezinik adierazi, hala nola hiltzaileak txaloka adoretzea edo gorrotoa sustatzea.

Segurtasun-indarrekiko errespetua eskatzen diegu, uniforme bat eramateagatik jomuga seinalatu bihurtzen diren langileak baitira. Eta hori ez, ez dago soldataren barruan. Gizartea defen-datzeke eta babesteko ordaintzen diete.

Cogoan izan beti polizia edo militar bat kalean ikusten dugunean ez dugula kontuan hartzen, baina gero, hura behar dugunean, beti aurpegiratzen diogu zenbat berandutu den.

EGIA

Egia eskatzen dugu. Desoreka kuantitatiboa eta kualitatiboa oso larria da.

Orain, gainera, badirudi eskerrak eman behar ditugula gudari heroiko horiek hiltzeari utzi diotelako, eta egin zutena ahanzturarekin saritu behar dugula, eta jomugatzat zuten gizartean sartu behar ditugula. Ahal dela, ondo ordaindutako erantzukizun politikoko karguetan jarritz.

Hor ditugu adibide batzuk, esaterako Miguel Ángel Blancoren hiltzailea, exekutatzaila, izan zen Txapoterena. Hiltzailerik koldar eta gupidagabeenetako bat. Piztia gaizto bat. Bere aita zahartuta eta gaixorik dago, eta epaileak espetxetik ateratzeko baimena eman dio. Miguel Ángel Blancoren gurasoek ikus al dezakete semea hilarri hotz batetik harago? Zergatik ezin ditut nik

kilometroak egin nirea ikusteko, hiltzaileen amak hori egin beharraz kexatzen diren bitartean? Zergatik jasan behar izan genuen gure pertsona maiteen heriotza mafia etarraren esku eta harakin horrek eskubide filialak ditu?

Bien bitartean, 300 familiak baino gehiagok beren kasuak argitu gabe jarraitzen dute, egiletza ezkutatzeko isiltasun konplize eta koldarraren aurrean.

Laburbilduz, ez dugu inoiz onartuko pertsona bat hiltzea "ideal bat defendatzea" izatea. Pertsona bat hiltzea baino ez da, hilketa bat. Ez dezagun iparra galdu eta ez dezagun amore eman. Ezin gaituzte isildu, eta ez gaituzte isilduko. Agian, biktimok gutxiago hitz egin beharko genuke "nirez" eta gehiago "gurez".

Zoritarrez, herrialde honetan, Espainian, oso merkea da hiltzea. Oso merkea!

ETAK ERAILDAKO HAURRAK:

- JOSÉ MARÍA: 13 urte 1980an.
- ALFREDO: 13 urte 1985ean.
- DANIEL: 14 urte 1986an.
- SONIA: 15 urte 1987an.
- SUSANA: 13 urte 1987an.
- SILVIA: 13 urte 1987an.
- JORGE: 9 urte 1987an.
- SILVIA: 7 urte 1987an.
- SILVIA: 6 urte 1987an.
- ROCÍO: 12 urte 1987an.
- PEDRO: 16 urte 1987an.
- ESTHER: 3 urte 1987an.
- MIRIAM: 3 urte 1987an.
- LUIS: 3 urte 1988an.
- CORO: 17 urte 1991n.
- MARÍA CRISTINA: 14 urte 1991n.
- MARÍA DOLORES: 8 urte 1991n.
- ANA CRISTINA: 10 urte 1991n.
- VANESSA: 11 urte 1991n.
- FRANCISCO: 17 urte 1991n.

- FABIO: 2 urte 1991n.
- JUAN JOSÉ: 13 urte 1992an.
- SILVIA: 6 urte 2002an.

1987an hildako guztiak Otegi (bake-gizona, Bartzelonan Mr. *Selfie*) ETako kide zelarik hil ziren..

Hauts maitemindua bezala ere izango zara.
 edonon zatzala eta atsedeen hartzen duzula.
 Orain, egin lo, hartu atsedeen bidetik.
 Zure ametsak zaintzen ari gara zure lagunak
 VIDAL DE NICOLÁS⁹.

9. Portugalete, 1991-04-20. *Escritos, poemas y vivencias*, Barakaldo, Ediciones de Librería San Antonio, 2001.

ESKALA HANDIKO SUFRIMENDUA

JOSÉ ANTONIO REKONDO



Jose Antonio Rekondo Hernaniko alkate izan zen Eusko Alkartasunaren eskutik bi alditan: 1991-1999 eta 2003-2007. *Bietan jarrai: guerra y paz en Euskadi* (1998) liburuaren egilea da.

ETAren munduak eguneroko bizitzaren eremuan eragin zuen jazarpenbortitzariburuz nire esperientzia kontatzeko gonbidapena jaso dut. Testuinguru horretan, jazarpen estrategia horrek bilatzen eta lortzen zuena, jazarriaren lagun eta bizilagunei eragitea zen. Era horretan, beldur publikoa etxe askoren bihotzera heltzea lortzen zuten.

Egia da Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren presio hertsatzailea ez dela intentsitate berarekin bizi izan herrialdeko bazter guztietan. Oso indartsua izan da Gipuzkoan, Donostiako periferiako leku jakin batzuetan areagotua, beldurra larruazal sozial guztira zabaltzeko helburuarekin. "Sufrimenduaren

sozializazioa” gauzatu zutenen errepertorioko ekintzarik ohikoenak, era guztietako mehatxu eta presio moralez gain, honako hauek ziren: bide publikoan hainbat jazarpen eta jarraipen mota, ondasunen aurkako atentatu errepikatuak, familia-ingurune zuzenena beldurtzeko etxez etxeko hertsapenak, behin eta berriz errepikatzen ziren erasoak... Azkenean, derrigorrez erabiltzen duzun prebentzioak, zeure buruarentzat eta familiarentzat segurtasuna bilatzeak, nahitaez behartzen zuen jazarria bere bizitza soziala nabarmen murriztera.

Esperientzia hori bizi izanak gauza asko ekarri zizkidan arlo pertsonalean. Lehenik eta behin, erresistentzia izpiritu sendo bat indartu zuen nigan. Bigarrenik, errealitate hori bizitzeak nire posizio politikoa erabaki du. Hirugarrenik, ETAk bere ekintza politiko eta kriminalari aplikatzen zion logika ideologikoz interesatu nintzen.

Hemen euskal iraultza sozialista bat esperimentatzera jolastu da, eta Xabier Lete poetak salatu zuen bezala, samina, sufrimendua eta miseria morala besterik ez du utzi balantze gisa. Ausartuko naiz esatera nekez onbidera daitekeela euskaldunen arteko bizikidetza, denbora honetan guztian larderiak eta terroreak bizitza sozialaren dimentsio guztietan eragin dituzten kalteak konpondu gabe. Ondorio gisa, esan nezake oroimenaren kartografia ezin dela osatu “sufrimenduaren sozializazioaren” errelatorik gabe. Hain zuzen ere, eskala handian burututako oinaze-kanpaina honen bultzatzaileek beraiek sortu zuten adierazpen hori.

ERRUDUNAK ETA BAHITUAK. MEHATXU TERRORISTA: BIZI- ONDORIOAK ETA JARRERA SOZIALAK

MANUEL MONTERO



Manuel Montero Historia Garaikideko katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta bertako errektore izan zen 2000 eta 2004 artean. Mehatxu terroristek erbesteratzera behartu zuten. Euskal Herriko historia garaikideari buruzko hainbat liburu eta artikuluren egilea da. Haien artean, *El sueño de la libertad. Mosaico vasco de los años del terror* (2018) dago.

2003 inguruan izan zen, Euskal Herrian jende askok eskolta eramane behar zuenean. Ez dut gogoratzen bilera mota, munstroen azoka edo kongresu politikoa ote zen. Jenioren bati tramankulu bat erakustea bururatu zitzaion, non sartu eta eskoltatua sentitzen baitzinen. Hori zioen albisteak.

Ezin dut imajinatu nolakoa izan zen asmakizuna, zalantzarik gabe ergelentzako tresna bat, ezinezkoa baita eskoltak eragiten duen isolamendua edo denboraren poderioz sortzen den higadura birsortzea. Garrantzitsuena: mehatxatua, bere bizi-larritasun guztia, ikuskizun bihurtzen zen, errentagarritasun politikoren bat bilatuz. Horrek ere garai hura deskribatzen du, non eskoltatuak —ni hala nintzen— bahitu gisa ere senti baitzitezkeen, noren bahitu ondo jakin gabe. Zentzu batean, senti/zaitez/eskoltarekin makina zero gradua izan zen, umiliatzen duen fribolizazioa.

Uler ezazue: ez naiz esaten ari eskolta txotxongilo bat zenik bi aldean artean eta biak erantzuleak zirenik. Dena jazarpen terroristatik etorri zen, ez dago beste errurik. Hala ere, bizi-triskantza haiek zentzuz ulertzeko, adierazi behar da ez zela beti maila eman.

Lehen geltokia. Egoera horien kontakizunek kutsu epikoa ematen diote, erresistentzia minoritariozkoa baina gorakorra. Horrelako zerbait izan zuen, eta hobe da oroitzapen hori isiltasuna baino. Mehatxu terrorista “indarkeria guztien” pilaketan sartzen duen perbertsiora iritsiko al gara? Eskoltatuak eska diezaiola barkamena bere mehatxugileari indarkeria beraren bi aurpegiak zirela ez ulertzeagatik. Gero adiskidetzea etorriko da, hemen bakea eta gero aintza. Ez garailerik, ez garaiturik. Euskal gizartearen inbertsio kontzeptual tipikoek beste alde batera begiratzen zuenari gorazarre egingo diote *a posteriori*. “Mehatxatuta? Zerbait egingo zuen”.

Bigarren geltokia. Eskoltatuak errudunarena egiten zuen, bere lehen adieran: ´errua egiteagatik zigorra merezi duen pertsona´. Hitzegiak ez du delituak edo faltak egiteaz hitz egiten, erruak egiteaz baizik, posible balitz bezala. Akatsa izango da, baina oso egokia da gure kasurako, errua bekatu gisa, berekin ekintzarik izan gabe. “Zerbait egingo zuen”; krimenak ulertzeko balio izan zuen tik-a ere aplikatu zitzaion. “Izorra zaitez, kabroia”, murmurikatzen zizuten pasatzerakoan. Trantzetik igaro den edonork behin baino gehiagotan entzun zuen.

Hirugarren geltokia. Pozten ez ziren askoren artean, egoera makurrak logikaren bat zuelako ideia ere bazegoen. Gero azalduko dut. Are harrigarriagoa da mehatxatuek berek beren burua erruduntzat jotzeko joera zutela. Denek aurkitzen zuten bere ospe txarraren arrazoia. Askorekin hitz egitea egokitu zitzaidan, fede ematen dut: inork ez zion terrorearen irrazionaltasun arbitrarioari egotzi. Errudunak bere zigorrari logikaren bat aurkitzeko duen beharra zen nagusi. Are ulergaitzagoa zen galdera kazetarien ahotan: “Zergatik mehatxatzen zaitu ETAk?”.

Mehatxatuari egiten zioten, ez egin behar ziotenari, mehatxugileari. Biktimak ezagutzen zuen kausa-efektu harreman bat ematen zuten ziurtzat. Erruaren zama partekatua izatea eragiten zuten. Eskoltatuak badaki zer egin duen; beraz, zerbait egin du. Terrorearen logika makurra gure artean bizi izan zen.

Eskoltatuaren ikuspuntutik, gertatutakoaren benetako ondorioak epikak suposatu ohi dituenetatik zertxobait desberdinak izan ziren. Ez dakit terrorismoaren aurkako erresistentziari meritu handiagoa ematen dion ala balioa kentzen dion. Urruntze edo egonezin hori, egunerokotasunean narrasetik asko izan zuen egoera bat idealizatzeko nire ezintasun pertsonalari zor zaio. Eta hori hamar urte eraman zizkidala lehen takadan, eta geratzen zaidana, batek oraindik ezin izan baititu ondorio batzuk gainditu.

Hamarkada batean entzundako esaldien bidez kontatzen ari naiz. Ahaztu ohi diren alderdi erabakigarri batzuk deskribatzen dituzte. Egoerak zertxobait aldatuko ditut, estimatzen ditudan solaskideak identifikatu ezin izateko. Istorio honetan duten erru bakarra, jende askok pentsatzen zuena esatea baino ez da.

Laugarren geltokia. Hilabete haietan, 2000 edo 2001ean, ETAk erail egiten zuen, Eusko Jaurlaritzak hautsi egiten zituen eta ez zituen hausten bere babes politikoak; Jarraiko afiliatuak bere ogibideari lotzen zitzaizkion: kale borrokaz landa, pintadak egiten zituzten, aldarrikatzaileak ez eta mehatxagarriak zirenak, ituak eta abar; beren helduek Lizarran jarraitzen zuten, “Euskal Herriaren etsaiak” irainduz.

Gaur egungo itxurakerietan, demokraziaren aurkako jazarpenak izan zuen partaidetza- fisionomia ahazteko joera dago. Inork ez al die jadanik erantzukizunik eskatzen mehatxugileei, kolaboratzaileei, juglare jostalari moduko batzuk izan balira bezala? Adibide bat. Nire helbidea, demagun, "5. eskuina"n amaitzen zen, eta horrela agertzen zen toki guztietan, hautesle-erroldan izan ezik; akatsa txikia eta garrantzirik gabekoa zen, aldatzeaz arduratzen ez zaren horietakoa, "5. A" zioen. Arrunta. "Helbidea: 5. A". Komandoak zuen nire "fitxan", ni 5. A-n bizi nintzen, hain zuzen ere: juglare jostalaria hauteskunde-ahalduna izango zen; edo juglare-poesiak helbide guztiekin jasotzen zuen diskoa, lana aurrezteko. Inork ez du erantzukizunik? Ahaztu behar dugu? Abemaria bat bakearen alde?

Bosgarren geltokia. Ez genituen garai onenak bizi, nahiz eta lehen okerragoak izan. Garai hartako egun batean, beste behin ere, pintada-olde basati bat izan zen unibertsitatean, gehienak nire izenarekin ituan edo "espainiarra" (des)kalifikatzailearekin, jada ez baitzegoen modan "espetxero", errima aldetik hobeto dagokidana. Arratsalde hartan, bada, terrorearen aurka zegoen lankide batekin topo egin nuen. Bere atsekabea adieraztera etorri zitzaidan, nola sentitzen zuen jazarpena, aintzakotzat har nezakeela. Nire kezka adierazi nion, jazarpena heda zitekeela. Bera bezalako jendeari ere pintadak egin ziezazkioketela.

"Niri? Zergatik niri?". Txundituta geratu zen gertaera horrekin, zergatik mehatxatu behar zuten bera. Ez zen ohartu onarpen inplizituaz, zeinaren arabera bere solaskideari tokatzeko arrazoiak baitzeuden. Hain ohikoa eta kroniketan ateratzen ez den arriskurik gabeko adorekerian al zebilen? Gutxienekoa da. "Zerbait-egingo-zuen" eskemak eremu guztiak higatu zituen. Beste ondorio bat: honek zerbait egin bazuen, ez egitea zen kontua.

Seigarren geltokia. Urte haiek ETArekiko erresistentzia tinkoaren arrastoa daramate, baina zaila da mundu haren mataza desegitea. Bizkartzainak paisaiaren parte bihurtu ziren, eta, denboraren distantziatik ikusita, harrigarria da zein erraz onartu zen anomalia

hori, zeina, bestalde, ez baitzen guztiz berria. Urte batzuk lehenago, ontzat hartu zen irakasleren bat (ni neu, adibidez) eskolara joatea bi edo hiru pertsona aldarrikapen-pankarta batekin (ez, preseski, laudagarria) segika zituela. Babesa iritsi zen, irainaren orde. Paisaia tristea izan zen, makurra ez esatearren, normalean ematen zaion eite heroikoaren antipodetan. Gainera, lehen eta bigarren mailako mehatxatuen artean desberdintzeak sortu ziren. Azken hauek izan ziren agintean zegoen alderdiarekin bat etorri ez zirenak. Adibidez, unibertsitate publikoari egin zioten gaitzespenarekin, terrorismoaren kolaboratzaile gisa, ados ez egoteak, estigma zekarren.

“Abertzaleak pozik daude zurekin”, esan zuen ironiaz. “Orain beldur gutxiago izango diezu terroristei”, eta hori ez zen sarkasmoa, maltzurkeria baizik. Adierazpen zehatza, zaurgarriagoa, irakurlearen irudimenaren esku geratzen da. Nahiz eta fikzio kutsua izan, zintzotasunik ezaren kalumnia ateratzen zitzaizun bidera. Bat ez bazentzen, a) beldurragatik zen; b) zeure burua babesteko; d) bi gauzengatik. Inork ezin zuen bestelako iritzirik izan. Pentsamendu bakarra deitu zitzaion, eta espektro zabal batek lerroak itxi zituen halako jarreraren inguruan. “Stockholmeko sindromea dauka”, “bere burua nazionalismoari saldu dio”, “koldarkeria morala” bezalakoak areagotu ziren. Koldarkeria eta traizioa terminoak kategorikoak direla ikasten duzu. Behin esanda, inork ez du zalantzarik. Askori edo gutxiri eragin, hori ere paisaiaren parte izan zen.

Zazpigarren geltokia. Urteek aurrera egin zuten, Polizia indarrek terrorismoa zokoratzen zuten. Eusko Jaurlaritzak bereari eutsi zion, jo eta ke, nekoso. Mehatxatuak egunkarietako lehen orrialdetik atera ziren. Neskak hazten joan ziren. Dena aldatu zen, eskolta eramateko beharra izan ezik, maltzurkeriak ez zuen egoerarik aldatu. Kanpotik pentsatzen da karga errutina bihurtzen dela, baina ez da horrela. Uneoro daramazu, eta une bakoitza egiten da astun.

“Zer egingo duzu bihar?”. Eskoltaren galdera ez zen gogaikarria egiten, larrigarria baizik. Batez ere, ostiral

arratsaldeetan. Badakit esperientzia partekatu zuten askorentzat horixe zela okerrena, ostiralero errepikatzen zen galdera hori. Eta horrela aste bat eta beste bat, sei hilabete gehiago, urte bat eta beste bat... Denbora amaigabea bihurtzen da.

Zortzigarren geltokia. Bi hirurteko baino gehiago daramatzazunean bizkartzainarekin, ez dakizu zenbat geratzen zaizun, ezta amaierarik izango duen ere. Askatasuna galtzeak eragindako lehen larritasunak umekeriak iruditzen zaizkizu. Lehen eta bigarren mailako mehatxatuen arteko desberdintzea, intentsitate publikoa galtzen zuena baina fosilizatzen zuena —ondorioak izaten jarraitzen du: bi kontsulta egin dizkiot agintean dagoen alderdiari, orduko bera, eta isiltasuna jaso dut trukean— umekeria iruditzen zaizu. Posizio horretatik ikusita, mundua apurretan zatitzen ari da. Une bakoitzean zaudenarekin zaude, baina errealitateak jarraipenik ez duela dirudi, etenka dator. Gutxi irtetera ohitzen zara.

“Baina oraindik horrela zabiltza?”. Galdera hutsik egin gabe dator, denbora badaramazu lankidea ikusi gabe. Ez zaio buruan sartzen tarteko denboran (sei hilabete, urtebete, bi) beti berdina izan dela, unez une. Handik gutxira, laguna larrituta dago.

Norbaitekin topo egiten duzunean, badakizu haren egonezina irakurtzen, bizkartzainak aurkitzeko ematen duen begiratu azkarra eta elkarrizketa laster amaitzeko beharra. Ez zaitez maltzurra izan: ez da nahitaez gertatzen zurekin ikustea nahi ez duelako, baizik eta, zorte txarra izango litzatekeelako, justu une horretan... Segurtasun grina giza sentimendu bat da, ulertu behar duzu.

Bederatzigarren geltokia. Lankidearekin izandako elkarrizketa beste ildo batzuetatik zihoan, baina berak terrorismoa amaituta zegoelako sentsazioa izan zuen azkenean. Ez dio jada garrantzirik ematen, zorionez azkenetan daude. Porrot eginda. Azkenean, bakean bizi gaitezke, jada ez da lehen bezala. Bizkartzainen egoerak asko larritzen du, lehengoan, urrutira gabe, eskoltatu batekin topo egin zuen, eta pena eman zion. Labur esanda, ez du ulertzen zergatik ez duen alde egiten. Beti lagunduta ikusteak larritasuna eragiten digu. “Zoriontsu izateko eskubidea dugu”.

Berarentzat, indarkeriaren irudikapena ez ziren ETA eta haren aldekoak, eskoltatuak baizik, zehazki zu. Baloreen transferentzia burutua zegoen. Modu politikoki zuzenean esatearren, “gatazkaren” agerpen bihurtu zinen, eta zerbait agertzen ez bada, ez da existitzen. Begiitsuak, negarrik ez. Planteamendua ez zen berekoa, sinetsi egin behar duzu. Joaten bazara, zoriontsuagoak izango gara, eskubidea baitugu; zuk ere, jada ez zarela eskoltatuta joango, zerbait egingo zenuen arren.

Hamargarren geltokia. Nire aletxoak jarri nuen euskaldunen zoriontasunaren alde. Joan egin nintzen. Hasieran arraroa egiten zaizu bizkartzainik gabe bizitzea. Gero badakizu egunero gozatuko duzula, askatasuna, filosofoak alde batera utzita, batez ere baimenik eskatu gabe egunkaria erosteko edo nahi duzuna egiteko askatasuna dela ikasi ondoren. Arretatsuak uste izango du, urruntzearekin, mehatxatuak hala sentitzeari uzten diola. Arretatsuak ez ezik, kaltetuak ere uste du dena atzean geratu dela. Iragana baino ez dela.

“Ez da komenigarria gizon hori hemen egotea”.

Bertsioa perifrastikoa da, niri iritsi zaidana mingarriagoa baita, eta kontua ez da sikodrama bat idaztea, nahiko zamatua baitoa hau. Lankide bat ordezkatzeko nuen zentroko arduraduna pertsona zentzuduntzat eta aurrerakoitzat hartzen zuten. Ni han egoteagatik, protesta egin zuen zuzendaritzara. Nire egoeraz jabetu berria zen —ez zioten lehenago jakinarazi, orduan ulertu nuen zergatik—. Arazoa? Mehatxatutako pertsona bat da, eta, beraz, guztiak arriskuan jartzen ari da.

Alegia, ni.

Orduan jakin nuen bidaia amaitu zela, eta porrot egin zuela.

Beraz, eszeptikoa zara halabeharrez egokitu zaizun bizi-esperientziaren sendotasunarekin. Nire zalantza, merezi ote zuen. Ez, behintzat, eragiten didan horri dagokionez: egin behar zuena egin nuen, eta erabaki zuzenak hartu nituen, hori uste dut. Zalantzan jartzen dudana zera da, alderdi pertsonala alde batera utzita, horrek guztiak zerbaitetarako balio izan ote zuen. Ez dakit.

Zorionez, hura ez da berriro gertatuko. Berriro gertatuko balitz, hona hemen aholku batzuk tokatzen zaionarentzat. Lehenik eta behin, inola ere ez jardun alderdi politiko baten babesik gabe. Bigarrenik, alde egin behar baduzu, gezurra esan eta esan terrorista ohia zarela, ez terrorismoaren biktima. Hirugarren, ez ahaztu intelektualak tribuan bidaiatzen dutela.

Eta batez ere: ez pentsa zure gorabeherak zentzurik izango duenik inorentzat. Zuretzat ere ez du izango, horretara ohitu beharko duzu.

Esan dizute: "Zerbait egingo zenuen, izorra zaitez, kabroia", "zergatik mehatxatzen zaitu ETAk", "5. A-n bizi zara", "zergatik niri?", "koldarkeriaz jokutzen duzu", "zer egingo duzu bihar", "baina oraindik horrela", "zoriontsu izateko eskubidea dugu", "arriskuan jartzen gaituzu".

Ahaztu egin behar duzu, baina esan zizutenek ez dizute inoiz barkatuko esan izana.

Ez zenuen ezer egingo eta erruarekin biziko zara beti.

AITORTZA ERRESISTENTEEI ETA HAIEN FAMILIEI

GLORIA VÁZQUEZ



Gloria Vázquez alkateordea eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren bozeramailea da Zarauzko udalean (Gipuzkoa). Biologia ikasi zuen, eta ingurumen-kudeaketan master bat dauka.

Kosta egin zait proiektu handi honetarako zertaz hitz egin erabakitzea. Zorionez, ez dut pertsonalki atentaturik jasan, baina asko dago kontatzeko. Nire nerabezaroko oroitzapenez jardun nezake Errenterian, Trantsizioko urteetan, nire herria “legerik gabeko hiria” zenean, edo Sopelan antolatu nuen Bakearen Aldeko Koordinakundearen lehen elkarretaratzeaz, nire bikotekidearekin, bi auzokiderekin eta zinta isolatzailez egindako letradun izara batekin bakarrik. Gero etorri ziren bahiketak, lazo urdina eta kontramaneifestazioak, arrautzakadak, irainak. Era berean, Donostiako Alde Zaharrean (komantxeen lurraldean) askatasunez sartzeko eskubidea gauzatu genuenekoa, Donostiako Udaleko

Bilduko aholkulari Ibazetaren dimisioarekin amaitu zena. Hark "gora ETA militarra!" oihukatu zuen, eta behin eta berriz esan zigun "pipa aterako dut, eta bi tiro emango dizkizuet", hatzarekin gure bekokiak pistola gisa seinalatu bitartean.

Eta zer esan hauteskunde-prozesuei buruz! Batasunakoak legez kanpo zeuden, eta mahaietan egon eta zenbaketetan parte hartu nahi zuten, baina batzuk han geunden legezkotasuna errespetarazteko, eta horrek liskarrak, oihuak eta borrokak ekartzen zituen. Ahaztu gabe ENArekin¹⁰ bozkatzera zihoazenean. Presidenteak eta mahaikideak ez ziren ezer esatera ausartzen, baina poztu egiten ziren PSE-EEko ikuskatzaileek aurre egiten genienean. Mehatxatutako militanteak bakarrik geunden. Legezkotasuna defendatzeko prest geunden bakarrik ginen, eta bakardade horretan geunden PSEkoak eta PPkoak. PPko ikuskatzaileak, batzuetan Espainiako beste leku batzuetatik etortzen ziren, eta harritu egiten ziren Euskal Herrian genuen harreman ona ikusita; logikoa zen hori, arrisku berdinei aurre egin behar genielako eta mehatxu beraren biktima ginelako. Eta osoko bilkurekin hasiz gero... beste testu baterako emango luke.

Une horiei guztiei buruz, eskoltatuta bizitzeak nire familiarentzat eta, bereziki, nire seme-alabentzat zer suposatu zuen aztertzea aukeratu dut, gutxi hitz egin baita gai horretaz, oso garrantzitsua izan arren. Testigantza hau gizon eta emakume erresistente guztiei eta haien familiei egindako omenaldi gisa ulertzea nahi dut.

2007ko maiatza, udal hauteskundeak. Nire alabak hiru hilabete zituen, eta Zarauzko Udalean zinegotzi aukeratua izan nintzela esan zidaten. Bere aitak bizkartzaina zuen ere, aurreko legegintzaldian zinegotzi izan baitzen, eta berriro aukeratu zuten (hauteskunde haietan Zarauzko PSE-EEK bost zinegotzi atera zituen). Berak uko egitea eta nik jarraitzea zen asmoa, baina denbora asko behar izan genuen hura ordezkatu nahi zuen norbait aurkitzeko. PSE-EErentzat oso zaila zen zerrendak osatzea, eta are

10. *Euskal Nortasun Agiria*, NANaren ordezeko nazionalista, balio ofizialik gabea.

zailagoa lehen postuetan egotea. Geroago, azkenean, uko egin ahal izan zuenean, Isaias Carrasco gure kidea hil zuten, Arrasateko zinegotzi ohia, eta alderdiak bizkartzainak jarri zizkien berriro zinegotzi ohiei; beraz, lau bizkartzain izan genituen luzaroan.

2007ko uda hartan, zortzi urteko seme batekin eta hilabeteetako alaba batekin, inoiz baino gehiago atera ginen Euskaditik, jasanezina zelako umeekin herrian zehar ibiltzea edo hondartzara lau pertsonarekin joatea, gure urratsak jarraitzen. Nik banekien jada zer suposatzen zuen eskolatuta bizitzeak, eta nire seme zaharrenak ere bazekien. Lehen fase batean, Ikerren laguntzat hartu zituen, eta "zergatik ez datoz gurekin oporretan" esatetik "zergatik ezin gara autoan bakarrik joan, jende guztia bezala" esatera pasa zen; azken fasea, berriz, "ez dut nahi atzetik etortzea" izan zen.

Nire alaba, zorionez, "gure lagunak, autoan hartzatxo bat daramaten horiek" fasean geratu zen, eta hartzatxoarekin jolasten zuen autora igotzean. Pertsona onak ziren nire bizkartzainak. Berak 5 urte zituen babesak kendu zigutenean, eta nire seme zaharrenak 13. Alaba *lagun* deitzeko fasean zegoen, eta semea, berriz, oso deseroso sentitzeko fasean. Beraz, nirekin batera zihoazenean, urruntzeko eskatu behar nien.

Nire seme-alabek orduan ez zekiten gure babesleak zirenik, gu zaintzen zihardutela. ETakoek autoan bonbarik ez jartzeko edo tirorik ez botatzeko. Autora igotzen ginenean, entretenitu behar izaten nituen, autoaren azpiak nola miatzen zituzten ikus ez zezaten. Ez nien inoiz errealitatea azaldu, ETak amore eman zuen arte. Zorionez, ez nuen atentaturik edo mehatxu zuzenik jasan. Beste familia batzuek erasoak jasan zituzten beren etxeetan. Ez dut pentsatu ere egin nahi zer den hori haur batzuentzat. Nahikoa zuten beren intimitatea murriztuta ikustearekin, beti lagun arrotz horiek inguruan, atarian zain eta etxeko ateraino laguntzen. Nire semea, adinez nagusiagoa zenean, askotan haserretzen zen haiekin joan behar izateagatik, baina benetako arrazoiak azaltzea are okerragoa izango zen. Zinegotzi izateagatik zela esaten zion. Eskerrak ez zekien zinegotzi guztiek ez zutela bizkartzainik eraman behar. Ez dut inoiz ahaztuko Joseba Egibar behin Donostian lasai

ibiltzen ikustek eragin zidan inpresioa; nik, berriz, herri bateko zinegotzi soil batek, eskoltarekin bizi behar nuen.

Lagun batzuek berekin eskolta zekarren kargu publiko bat onartu izana aurpegiratu zidaten, seme-alabak edukita. Nire seme-alabak arriskuan jartzen ari banintz bezala. Terrorismoaren eta haren jarraitzaileen maltzurkerietako bat da, gerta zitekeenaren erantzukizuna mehatxatuen esku utzi nahi baitzuten. Eta lortzen zuten, auzotar batzuek deitu zuten bilera hartan agerian geratu zen bezala, eskoltak etxetik jaitsi arte atarian zain ez egotea eskatu baitziguten. Oso gogaikarria egiten zitzairen bizkartzainak beti zelatan ikustea, baita atariko sarreratik paperontziak kendu izana ere, segurtasun-arrazoiengatik. Eskerrak eman behar dizkiet auzotar gehienei, babesa eman zigutelako eta protesta egiten zutenak isilarazi zituztelako.

Gero, bere semeak nire etxean jolasterik nahi ez zuen lagun hura zegoen; hobe berera joatea. Badakigu ETak oharrak bidaltzen zituela, herritarrei helburu posibleetatik aldentzeko esanez, eta kargu publiko sozialistak lehentasuneko helburu ginen zenbait unetan... "Zuk aukeratu duzu zinegotzi izatea, zure erabakia da, baina nik ez dut nire seme-alaba arriskuan jarri nahi". "Zer egin behar dugu? Mendira bizitzera joan, odolak zipriztindu ez zaitzaten? Nire seme-alabak arriskuan jarri nahi ditudala uste duzu? Zergatik ez diezu hori esaten mehatxatzen gaituztenei? Gu demokrazia salbatzen ari gara". Bitxia bada ere, beste haur batzuk nire etxera etortzeko beldurra handiagoa izan zen eskoltatua ni nintzenean, ama, ezen nire orduko bikotekidea zenean baino.

Gaur egun, nire seme-alabek badakite zergatik bizi behar izan genuen eskoltatuta, eta harro daude beren amak ez zuelako amore eman beldurraren aurrean. Harritu egiten dira beren lagunek ETari buruz ezer ez dakitelako, eta nire alabari klasean horretaz hitz egin ahal izatea gustatuko litzaioke.

Seme-alabak izanda arrisku hori zergatik hartu nuen ulertu ez zuten pertsonen esan behar diet emakume eta ama izateak ez nauela inoiz mugatu; aitzitik, haiek pizgarri bat dira nire konpromiso politikoan. Eta askatasuna galtzen nuela ziotenei, esaten diet orduan errepresalien beldur isilik geratu ziren guztiak

baino askoz askeago izan nintzela. Terroristek mehatxuarekin mugatzen zutena nire intimitatea eta mugitzeko erraztasuna zen, ez nire askatasuna. Askatasuna printzipiouka ezin handienetakotzat hartu izan dut beti, eta oso harro sentitzen naiz hura totalitarioen aurrean defendatu izanaz, nigatik eta nire seme-alabengatik.

EGIAREN ORDUA

MARÍA DEL CARMEN ALBA FIGUERO



Carmen Alba Zuzenbidean lizentziatua da eta master bat du Segurtasunean. Auzitegi Nazionalako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoko koordinatzailea izan da.

2010eko ekaineko goiz eguzkitsu hartan, terrorismoaren biktimen oihua entzun zen Auzitegi Nazionalean: "Justizia eta egia!".

Urte gehiegi isilik, denbora gehiegi itzalean, min ikusezin eta inbisibilizatu gehiegi.

"Justizia eta egia!" oihukatzeko ordua iritsi zen.

Eta horrela, beste egun bat bezala argitu zen egun hartan, iluntasunaren amaierarako atzerako kontaketa hasi zen. Hilik edo hilzorian zeuden terrorismo-delituengatiko auzi judizialak argia ikusten hasiko ziren.

Ekimena ez zen inolako goi-mailako instantziatik abiatu. Terrorismoaren biktimak berak hautsi zuen, bere duintasunaren eta ausardiaren lantzaz, ahanzturaren sabaia.

Handik aurrera ezer ez zen berdina izango. Isiltasunaren erregealdia amaitu zen. Egiaren ordua iritsi zen.

Egun hartan, Terrorismoaren Biktimen Fundazioak, Maite Pagazaurtundua buru zuela, eta beste elkarte eta fundazioetako ordezkari batzuek terrorismoak hildako 349 biktimaren auzi judizialen egoera prozesala ezagutzeko eskaria egin zioten Auzitegi Nazionaleko presidenteari, eta topaketa historiko horren lekuko zuzena izateak niretzat ohore bat suposatzen zuela pentsatu nuen.

Hautsitako 349 bizitza, miresten dudan Florencio Domínguez-en hitzetan. 349 sakrifikatu, askatasunaren, demokraziaren eta guztion eskubideen alde. Haien familiek eta gizarteak ez zekiten zein izan zen prozedura horien zoria. Terroristaren batek edo batzuek haiengatik ordaindu zuten ala ez, oraindik ikertzen ari ote ziren edo itxita ote zeuden, justiziarako aukerarik gabe.

Hala ere, inork ezin zion berehalako erantzunik eman hain bidezko eskariari, ezta arrazoizko denboran erantzun ere. Ez, harik eta kausa judizial horiek zegokien erregistro-zenbakiarekin identifikatu arte (kardinal bat, ondoren barra bat eta espedientearen irekitze urtea) eta, era berean, tramitazioaz arduratu zen organo judiziala zehaztu arte.

Biktimekin elkartu eta minutu gutxira jakin nuen nire zeregina lekuko hutsa izatetik harago joango zela; izan ere, garai hartan sortu berria zen Auzitegi Nazionaleko Terrorismoaren Biktimen Bulegoaren buru ziren auzi judizialak identifikatzeko eta aurkitzeko ardura eman zidaten, biktimari egia helarazteko. Ez zitzaidan ohore handiagorik bururatzten.

Ohore-sentimendu horrek eta terrorismoaren biktimari zerbitzua emateko bokazioak bultzatu zituzten lan honetan eman ditudan minutu guzti-guztiak.

Lan handia zen. Auzi judizialak erregistro-zenbakiarekin bakarrik identifika zitezkeen, eta ez genituen zenbaki horiek. Detektibe lana eginez bakarrik heldu ahal ginen auzira, biktimaren izenetik sumaria eraman lezaketen hari finei hemerroteken bidez tira eginez, epaitegietan, Segurtasun Indar eta Kidegoetan,

erregistroetan, epaile zaharrenen memorian... sakabanatutako informazioaren bidez. Edozein datu txiki baliagarria izan zitekeen.

Zenbakiak identifikatzea zen kontua, izenei lotu ahal izateko. Azken batean, berrogeita hamar urte baino gehiagoz giza datuak zenbatu zituen Administrazioak egindakoaren alderantzizko bidea egitea. Orain datuak humanizatu behar ziren, giza eskubideen urraketen biktimei justizia eta egia hurbiltzeko.

Hurrengo urratsa, kausa judiziala identifikatu ondoren, fisikoki aurkitzea eta digitalizatzea zen, hura kontserbatzeko.

Bi urte eta erdiko lan gogorraren ondoren, 349 biktimen kausa guztiak identifikatzea lortu genuen (bat izan ezik, Frantzian hildako herritar frantziar bati zegokiona, eta, beraz, aldameneko herrialdeko jurisdikzioaren esku zegoena), eta horietako gehienak aurkitzea; ondorioz, prozedura judizial horietatik ehundik gora amaitu ziren erantzuleentzako kondena-epaiarekin. Izugarri harrigarria izan zen ikustea senideek ez zutela inoiz beren kausen egoera prozesalaren berri izan. Zalantzarik gabe, agerian geratu zen Justiziak kasu askotan ondo funtzionatu bazuen ere, prozesu judizialean biktimaz ahaztu zela.

349 biktima horien kausa judizialak identifikatu, aurkitu eta digitalizatzeko lanen ondoren, alderik gogorrena hasi zen. Lan hori terrorismoaren gainerako biktimen sumarioetara hedatzea. Guztienetara, hil ziren biktimetatik hasita.

Lehen oztopo handia berehala agertu zen. Administrazio publikoan ez zegoen terrorismoaren biktimen erregistro ofizial eta osorik, gehienera jota, kalte-ordaina, laguntzak edo aitortzak jaso zituzten biktimen erregistro bat, baina datu judizialen zerrendarik gabe.

Horrela, terrorismoaren biktimen erregistro judizial bat eratzeko beharra sortu zen, biktima kausa judizialaren zenbakiarekin, organo judizialarekin, ikertutako edo kondenatutako terrorista edo terroristekin eta prozeduraren egoera prozesalarekin lotzeko gai izango zena.

2010ean hutsetik abiatu ginen. 2013an, gutxienez, 348 hildako biktima sartzea lortu genuen erregistro horretan. 2017ko maiatzean, bulegoko langileen bi errefortzu eta bilaketa-ordu

luzeen ondoren (erregistro-liburuak, artxiboak, iturri ofizialak eta estraofizialak), erregistro judizialak 1.275 hildako biktima barne hartzen zituen, gure herrialdean edo gure mugetatik kanpo eraildako nazionalak kontuan hartuta, terrorismoak 1960tik gaur arte aurrera eragindakoak, urte horretan, Directorio Revolucionario Ibérico de Liberaciónek ustez Begoña Urroz haurra hil baitzuen, bere amaren besoetatik kenduz.

1.275 hildako horietatik, erregistroa 1.238 beren auzi judizialarekin lotzeko gai izan da 2017ko maiatzera arte, eta, beraz, Auzitegi Nazionalako Terrorismoaren Biktimen Bulegoak biktimen ehuneko 97 baino gehiagori beren prozeduraren egoera prozesalari buruz informazioa eman diezaieke, eta prozedura horri buruzko gai juridiko guztiei buruz orientatu.

Erregistro judizial hori egiteko, bi hamarkada atzera egin behar izan genuen, Auzitegi Nazionalaren sorrerara arte (1977ko urtarrilaren 4ko errege dekretuaren bidez gauzatua), eta, ondorioz, auzi judizialak artxibo militarretan bilatu behar izan genituen, Auzitegi Nazionala martxan jarri arte, jurisdikzio horretako organoei baitzegokien terrorismo-delitu larrienak ikertzea eta epaitzea. Prozedura horiek beste organo judizial batzuetatik pasa ziren ere: gertakarien lekuko epaitegiak ere parte hartu zuen atentatuak argitzen. Batzuetan, organo eskudunen alde inhibitzeko betebeharra bete zuten. Beste batzuetan, egiaztatu ahal izan dugu inhibizio betebehar hori ez zela inoiz bete, eta eskumenik ez zuen organoak artxibatu eta itxi egin zituela auzi judizialak, baita, kasu askotan, bere eskumenik ezaren jardute eta adierazpen goren gisa, auzi judiziala suntsitu ere.

Halakorik bizi izan ez duen inork ezin du imajinatu nolako errespetuzko zirrara sentitzen den kutxa batean (agian zokoratuta, agian denbora, burokrazia zahar, bakardade eta itxialdi usainarekin) altxor hori, giza sakrifizio baten historia judiziala, aurkitzen duzunean, beti goizegi, beti bidegabeki eta kriminalki kendutako bizitza batena, bahituaren askatasun lapurtua, kaltetuaren osasun galdua... Norbera barrutik belaunikatzen da, ez duin sentitzen da, auzia kontu handiz hartzen du eta "egiaren ordua heldu da", murmurikatzen du.

Iluntasuna argitzea ez da izan, ez da, lan erraza, kontuan hartuta, gainera, ez dela lan bereziki estimatua itzala bilatzen dutenen aldetik, beren erruak ezkutatzeko.

Baina zor bat da. Denok, batez ere erakunde publikoek, terrorismoaren biktimarekin dugun betiko zor bat. Haiek egiarako eta oroimenerako duten eskubidea bermatzea ez da biktimari egindako oparia edo kontzesioa; presazko betebeharrak saihestezina da.

Betebeharrak horrek, Estatua ez ezik, gizartearen osatzen dugun guzti-guztiak ere lotzen gaitu. Guztiok kitatu behar dugu terrorismoaren biktimekiko betiko zorra, dagozkigun lanpostuetatik eta ahal dugun neurrian.

Terrorismoa ez zen izan besterik gabe gertatu zen zerbait, kolpatu ez zituen zorionekoen isilpean gertatutako zerbait. Aitzitik, eguneroko tragedia bat da, guztiok biktimizatzen gaituena eta gaizkiaren hutsalderian eta zuzeneko biktimen ahanzturan bere aliatu onenak aurkitzen dituenak.

Ez dezagun utzi.

Ireki ditzagun are gehiago artxiboak, atera dezagun are gehiago egia argitara, gorde dezagun memoria eta berma dezagun terrorismoaren biktimek justiziarako duten eskubidearen eraginkortasuna.

BIZI LEZIOAK

Lucía Cristóbal Gómez



Lucía Cristóbal Gómez (irudian, lehen planoan) Bakearen Aldeko Koordinakundearen biktimen batzordeko kide izan zen. Bilboko Itsasadarra Itsas Museoan lan egiten du.

Maite emakume ausarta da, indartsua, bere abizenari ohore egiten dio; beraz, proposatu zidanean, ez nuen zalantzarik izan: "Lucía, M. bisitatzera noa, nirekin zatoz?". Eta bidean kontatu zidan terroristek alargun utzi zuten emakume bat ikustera gindoazela, hiru seme-alaba txikirekin. Zaharrenak 10 urte zituen aita erail ziotenean. Ados, hara joan, eta hantxe azaltzen zara, eta zer esango diozu bizi artean bihotza erauzi eta betirako txikitu dioten norbaiti? Ez dago mina, min izugarria, arintzeko gai den Fierabrásen baltsamorik. Izan ere, bizitza oso gaitza da, oraindik gehiago, eta beste kolpe gogor pare bat gordeta zeukan berarentzat: bere semerik gazteena eraman zuen 19 urterekin eta, handik denbora batera, maitasun amaigabez bere bihotz hautsia berregiten lagundu zion hura. Batzuetan, Jainkoa beste norabait begira dagoela pentsatzen dut. Baina hor jarraitzen du M.k,

eusten, bizitzak hala eskatzen duelako eta horrela izan behar duelako.

Hura izan zen terrorismoaren biktimen munduarekin zuzenean izan nuen lehen kontaktua, duela urte asko, baina sakon-sakon hunkitu ninduen, eta, geroztik, zerbait jarraitua izan zen, da, azalari itsatsitako konpromiso bat. Bisita egin eta handik denbora batera, politikari batek galdetu zidan ea nola uste nuen ekin behar zitzaie la biktimei, nola hurbildu batzuetan zure presentzia nahi ez zuten horiengana... Gogoratzen dut horrelako zerbait erantzun nuela: egoera batzuk dagozkion karguaren seme-alabak dira, baina, nolanahi ere, esku zabalik eta begirada garbiarekin, biktimek GPS berezi bat dute, jarrera itxurazkoak antzematen dituen, eta alde batera utzi behar da norberak zerbaiti buruz sentitzen duena gai bati heltzeko modu egokia delako ideia. Esku ireki horrek hala egon behar du, bere barrena begiratzen uzten dizuten horiei baldintzarik gabe eusteko, eta begirada garbiak entzute bare eta hurbil bat eskain dezakeen sosegurako gonbidapen zabal-zabala behar du izan. Konfiantza sortzea, enpatia transmititzen duen korrante bero bat, gizakiaren alderik ilunenak zapla jotzean hautsi zitzaaien barne-bakeari nolabait (inoiz ez nahikoa) eusten diona.

Biktima batekin harremanetan jartzen zara, eta kito? Zerrenda bat osatu behar du, zenbaki bat gehiago izan? Norbaitek behin esan zidan sentikorrengia nintzela gai horiek ukitzen nituenean, baina, zintzoki, jarrera apala hartzea besterik ez zait bururatzen terrorismoaren biktimek, oro har, eta urte askoan zehar lagun izan ditudanek, bereziki, beti erakutsi duten sendotasunaren aurrean. Nola entzun, bestela, bere esperientziaren kontakizuna: atarian bere senide eraila aurkitu zutela, lehen jaunartzea egin baino lehentxeago beren aita erail zutela, amaren osasuna larriki ahuldu zela senarraren hilketaren ondorengo mina somatizatzen zuelako, nerabezaroa amaitu orduko zure aitaren hileta antolatut behar duzula, zure aitarengandik geratzen zaizun gauza bakarra ume txikia zineneko oroitzapena dela, zure seme-alabek aitona-amonak ezin izango dituztela ezagutu, zauri oso larriak eragin dizkizutela, eta, horien ondorioz,


anputazioak egin dizkizutela edo gurpil-aulkietara edo oheetara iltzatuta geratu zarela, gela baten lau puntu kardinaletara mugatuta besterik ez...? Ongi, sentibera naiz, eta? Nola ez izan horrelako oinazearen aurrean! Ezin duzu izotzezko bihotza eduki!

Beraz, haien ondoan egon behar dut justizia eskatzen dutenean, haien ondoan memoria eskatzen dutenean, haien ondoan egia eskatzen dutenean. Izan ere, moralik gabekoa iruditzen zait argitu gabeko hirurehun eta milaka hilketa egotea, biktima horiek beren kasuak konpontzeko ikerketarik merezi ez balute bezala. Izan ere, lotsagabea iruditzen zait beren borraroei omenaldia egitea kartzelatik irtetean eta "Euskal Herriaren askatasunaren aldeko soldaduak" zirela jasotzea Historiaren letra txikian, hurkoa erailtzea harro egoteko moduko zerbait balitz bezala. Izan ere, begietara begiratu behar zaie eta esan behar zaie ez daudela bakarrik, eta beste gizarte bat posible dela, beren sakrifizioaren balioa aitortzen duen gizarte bat. Haien senideak ez baitziren magiaz desagertu, ez zituzten hargatik zauritu, baizik eta batzuek plan gaizto bat egin zutelako eta nor bizi zen eta nor ez erabakitzeako eskubidea esleitu ziotelako beren buruari. Entzunak izateaz gain, errespetatuak izatea ere merezi dute. Errespetatuak izatea hitz egin nahi dutenean eta nahi ez dutenean, beren burua ageriko egin nahi dutenean edo isilik egon nahi dutenean, haiekin ados gaudenean eta ez gaudenean... Entzutea eta arreta ematea dagokigu, ez epaitzea, ez inposatzea, ez daudenen memoria defendatzea, gure ahotsa ez daudenena izan behar baita. Begirada zerumugan, burua tente, bizitzak aurrera jarraitzen duelako eta kemenez jokatu behar delako.

Oso maitea dudan norbaitek behin esan zidan bizitza karpeta bat bezalakoa zela, non orrialdek pixkanaka sartzen genituen, beti eskura dugun liburu bat osatuz. Biktimen begietara begiratzen dut eta nire karpetan gehitzen noan benetako bizitza-lezioak ikusten ditut. Izugarri eskertzen diet pertsona hobea egin izana, hala dela uste dut.

NORMALTASUNA EUSKADIN?

DAVID BERMEJO REDONDO



David Bermejo Redondo COVITE Terrorismoaren Biktimen Kolektiboko kidea da. Urteetan, ETAk estortsioa eta mehatxuak egin zizkion. Artxiboko irudian, ETAre gutun bat, 1976ko urtarrilean bahitu zuten José Luis Arrasateren erreskatearen truke 100 milioi pezeta eskatuz (Bilboko Udal Artxibategia, *La Gaceta del Norte* Funtsa).

Duela egun batzuk, paseoan nenbilela, lagun batekin topo egin nuen, gizon ona, gogoetatsua, zentzuduna eta patxadatsua. Elkar agurtu ondoren, esan zidan: "Euskaditik kanpora noa zenbait egunetarako, Costa del Solera, lasaiago eta erlaxatuago egoteko asmoz, nahiz eta jada ez den berunezko urteetan bezala eta normaltasunaz gozatzen dugun". Eta erantzun nion nik: "Itxurazko normaltasuna, pertsona asko zaurituta eta oso zaurituta baitaude ETAre terrorismoagatik urte askoan jasandako gaitzaren ondorioz. Batzuk beren pertsona maiteek jasandako jazarpenagatik eta haien hilketagatik; beste batzuk estortsio eta xantaiaagatik, ezin susmatuzko mailaraino pairatua; beste batzuk etengabe mehatxatuta eta eskoltatuta bizitzeagatik, bonba edo garondoan jotako tiroa burutik kendu ezinik". "Bai, baina Jainkoari esker, urte gogor horiek atzean geratu dira", errepikatu zidan. Jarraian, honako baieztapen hau egin nion: "Ziurrenik, gaur egun sufritzen

ari den norbait ezagutzen duzu, bai eraildako senideengatik, bai estortsioa edo mehatxuak jasan izanagatik, eta ondorioz fobiak, beldurra edo depresioak izan dituen, eta, kasu askotan, noski, baita zailtasun ekonomikoak ere. Dena gizakiak duen gauzarik garrantzitsuena salbatzeko: bere bizitza, eta, are mingarriagoa dena, bere pertsona maiteena”.

Nire adiskideak erantzun zidan: “Nire aitaginarrebakide bati estortsioa egin zioten, eta garesti ordaintzen ari da osasun aldetik”. Bere aitortenaren aurrean, hau idazten duenak esan zion: “Ba zure aurrean baduzu beste pertsona bat, jasandako estortsio ekonomiko eta emozionalaren erruz, inork ez dakiena jasaten ari dena”. Zur eta lur geratu zen, eta esan zidan: “Jakina, Euskal Herriko enpresa indartsuenetakoa batean postu jakin bat, garrantzi gutxikoa, bete izanaren ondorio izango da; gure bi langilek — lankidek— giza gertakarien artean zitalena eta koldarreana jasan zuten, garondoan tiro eginda erail zituzten. Horrekin pozik ez, eta langile guztiak mehatxatu zituzten, enpresa horretan lan egitearen bekatu hutsagatik”.

“Normaltasuna al da hori?”, galdetu nion berriro. Ez zuen jakin zer erantzun. ETak eragindako izugarrikeriaren gaitza zuzenean pairatu ez duenak alai esan dezake, arretaz pentsatu gabe, hemen ez dela ezer gertatzen! Lehen ere ez zen gertatzen. Hori gezurra! Zein erraza den etorkizunari begiratu eta iragana ahaztu behar dela esatea! Zenbat hildako, zauritu, estortsionatu eta jazarri, horretarako inolako arrazoirik gabe. Zenbat euskal herritar zintzok “emigratu” behar izan dute, juduei gertatu zitzaizen bezala, beren lurra, familia, lagunak eta ondasunak utzita?

Cogoan dut, eta bizi naizen bitartean ez zait burutik kenduko, Madrilen euskal industrialari batekin izandako lan-bilera batean, malkoak begietan zituela esan zidala: “Nik, ia-ia Santimamiñeko kobazuloan jaioa naizen honek, Euskaditik kanpo bizi behar dut, tinko lan eginez bere kabuz aurrera atera zen enpresari bat izatearen bekatu hutsagatik. Ongia besterik ez dut egin, aberastasuna eta lanpostuak sortzearekin batera”.

Behin eta berriz entzuten dugu komunikabide guztietan hemen ez dela ezer gertatzen. Ez, noski, batez ere oso lasai bizi

izan ziren eta bizi diren batzuentzat, hemen terrorismoa nazismoaren antzera existitu izan ez balitz bezala. Alemanian ere ez zen ezer gertatzen. Hemen asko poztu ziren eta pozten dira gertatu zenaz eta gertatzen denaz. Hemen dena jada "normala" dela etengabe errepikatze horrek, artikulua hau idaztera behartzen nau, ozen eta indartsu ezetz esateko. Gogaitu arte errepikatu behar dugu hemen oraindik badirela sufritzen ari diren pertsonak eta gainerako egunetan sufrituko dutenak. Ez dezagun iragana ahaztu.

Gaur egun, oraindik ere, ETAk hiltzen jarraitzen du. Ez herritar errugabe baten garondoan tiroa jota edo lapa-bonbarekin, baina bai modu entzungor eta isilean. Duela gutxi, eta min handi horren ondorioz, pertsona on bat galdu dugu, Fernando Altuna Urcelay, ETA politiko-militarrak 1980an Araban (bizi zen tokian) erail zuen Basilio Altunaren semea. Zorigaiztoko egun hartatik, Fernandok 10 urte besterik ez zituenetik, etengabeko oinazealdia izan da bere bizitza. Fernandok justiziaren bidegabekeria jasan zuen, instituzioen ahanztura, euskal erakundeena bereziki, baita herritarrena ere. Niri tokatzen ez zaidan bitartean, ezerk ez du axola, horixe zen leloa. Beste alde batera begiratzea.

Pertsona askok itzel pairatu dugu eta pairatzen ari gara lotsagabekeria, gizagabetze eta beldurrezko urte luze haien ondorioz. Gizarteak ez du inoiz jakingo zein muturrekoa izan den bizi izan dugun ankerkeria eta izugarrikeria; gure bizitzak ez zuen inolako baliorik, eta are okerragoa eta gogorragoa dena, zure pertsona maiteenen bizitzarekin mehatxu egiten zizuten.

Ekonomia asko daude gutxitua, ez bakarrik aberats handi eta "oligarkenak" —haien arabera—, baita autonomo txiki edo langile normalenak ere, zeinen bekatu bakarra enpresa handietan, lanbide liberaletan eta abarretan lan egitea izan baitzen. Pertsona horietako asko baliabideak ozta-ozta dituzte beren familiak mantendu eta aurrera ateratzeko. Orduko aurrezkiak eta etorkizunerako gordetzen genituenak imajinatu daitekeen modurik zital eta koldarreanean lapurtu zizkiguten askori. Geure bizitzak eta geureenak erosi genituen. Ondasunek garrantzi gutxi zuten heriotza-mehatxuaren aurrean.

Hemen Alemania nazian eta Auschwitzeko kontzentrazio-esparruetan gertatu zena gerta dakiguke, non hiltzera kondenatutako presoek esaten baitzitzaien “etorkizunean infernuaz jarduten bazuten, inork ez ziela sinetsiko”. Haien bizipen makabroak eta ankerrak kontatu zituzten pertsonak geratu ziren hartatik; hemen, botere publiko eta mediatiko jakin batzuek historia oso krudel eta orainsukoa ezabatu eta zirriborratu nahi dute, eta, kasu askotan, biktimak biktimagileekin berdindu. Nazien ankerkerietatik bizirik atera zirenek izuaren eta terrorearen beren odisea kontatu ziguten. Hemen ETArek gaitza pairatu duten eta pairatzen jarraitzen duten pertsona asko daude, eta inor ez da ezer esatera ausartzen; are gehiago, beren gertuko zirkuluetan ere ezkutatzen dute. Zergatik izango da? “Normaltasuna” dei al dakioke horri?

Normala al da Altsasun guardia zibilen aurkako erasoarekin gertatu dena? Normala al da Hernaniko institutu batean ETAk presoek omenaldia egitea? Normala al da autobusak erretzea Loiu? Normala al da Lekeition etakide bati omenaldia egitea eta alkatearen besaulkian eseraraztea? Normala al da ezker abertzaleak elkarretaratzeak egitea ETAk pertsona on bat, Txema Agirre Larraona ertzaina, hil zuen leku berean? Hainbeste galdera egingo genizkieke hemen normaltasuna dagoela dioten pertsonen! Calde diezaietela ertzain askori nola sentitzen diren Euskadiko zenbait herritako kaleetan patruilatzen dabiltzanean. Normalak al dira EHUn gertatu berri diren azken gertakariak? Zer erakutsi edo kontatu diete gaur egun basakeria horiek egiten dituzten gazteei? Zer ikusten dute beren hurkoengan, duten lanbidea dutela, uniforme bat edo bestea janzten dutela, edo pentsatzen dutena pentsatzen dutela? Zein iturritatik edan dute? Normalak al dira Euskal Herrian egunero gertatzen diren hainbat eta hainbat gauza? Hainbeste dira geure buruari egin diezazkiokegun galderak (eta nik ez dut haientzat erantzunik), beldur naizela aitortzen baitut!

Gizarteak biktimak alde batera uzten dituen garai batean gaude, edo hala uste dut, eta hori oso txarra da. Biktimek zurztasun ezmorala eta ulertezina pairatu dute, batez ere alderdi politikoen

aldetik, eta, aldi berean, babesik eza Estatuko botereen aldetik. Errealitate oso krudel eta gogor baten orrialdea pasatu nahi da, eta ez dugu ahaztu behar, ez etiketatik bakarrik, baita bere historia eta iragana ezagutzen ez dituen herriakakats berberak errepikatzen dituelako ere. Egia kontatu behar da, batez ere erakundeen aldetik. Badirudi historia beldurgarri hori duela bosturtekoak gertatu zela, eta hilketak, estortsioak eta bahiketak oso urrun daudela denboran. Baina ez da horrela. Ez dezagun hain azkar ahaztu. Askorentzat beraiekin hilko den istorio bat izango da. Biktimek ez dute merezi zuten tratua jaso.

Gaur egun, oraindik ere, ertzain batek ezin du nabarmendu, eta bere identitatea ezkutatu behar du; zer esanik ez Guardia Zibilaren kasuan. Edo euskal enpresari askok Euskadin lan egiten dute, baina ez dira bertan bizi. Hori al da daukagun eta nahi dugun normaltasuna?

BIKTIMAK ETA HAIEN EGIA

ALFONSO SÁNCHEZ



Alfonso Sánchez guardia zibil erretiratua da. 1985eko irailaren 9an, ETAk Madrilén egindako atentatu batean zauritu zuten, non Eugene Kenneth Brown estatubatuar herritarra hil zen. 2016 eta 2018 artean AVT Terrorismoaren Biktimen Elkarteko buru izan zen, eta gero Vitepaz (Asociación Víctimas del Terrorismo por la Paz) erakundea sortu zuen.

1985eko irailaren 9an Aldiriko trena hartu eta Guzmán el Buenora joan nintzen, Madrilén, Unitatea genuen lekura. Han mikrobusean sartu nintzen. Ondo baino hobeto gogoratzen dut erreleboa: Raimundo Fernández Villaverde kaletik jaitsi ginen, Argentinako

Errepublikak plazara iritsi arte. Goizeko 07:20ak ziren, eta semaforoaren aurrean nengoen. Oraindik gaua zen, baina une batean eguna argitu zen. Kolore asko ikusi nituen: gorria, horia, beltza...

Tinpanoak lehertu zitzaizkidan eta entzumena galdu nuen. Aurpegia odolez bete nuen.

Zuhaitz baten atzean babestu nintzen, eta egoerara ohitu nintzenean, zauriturik larrienak mikrobusetik atera eta tiroetatik kanpo zegoen eremu batean etzan genituen. Zorionez, ez zen hil egun hartan nirekin lan egiten zuten guardia zibiletako bat ere, baina, zoritxarrez, bai inguruan *footing*-a egiten ari zen zibil bat: Eugene Kenneth Brown.

Atentatu terrorista bakoitzak erabat baldintzatzen du biktimaren bizitza, eta nirea 1985eko irailaren 9 horrek markatzen du. Baina ez egun horregatik bakarrik, baita lagunak atzeko atetik lurperatu behar izan nituen guztiengatik eta terrorismoaren biktimek merezi duten justizia eta errekonozimendua jasotzen ez dutela ikusten dudana guztiengatik ere.

Okerrena ez da oraindik gorputzean daukadan metraila, ezta oraindik geratzen zaizkidan zauri psikologikoak ere: okerrena hurrengo belaunaldiei utziko dieguna da. ETAk jada ez du hiltzen, baina orain erakundeetan dago, terrorezko historia bat eta bizitza hautsiak zuritu nahian.

Terrorismoaren Biktimen Elkarteko (AVT) presidentea izan naizen bitartean, hori izan da beti nire maximetako bat: benetako kontakizunak iraun dezan zaindu. Kontakizun hori biktimena besterik ez da, egun batean terrorista odolzale batzuek bizitza suntsitzea erabaki zuten pertsonena.

Kontakizun horietako asko *Testimonios* proiektuan eta *Voces Calladas. El verdadero relato* dokumentalean ikus ditzakezue. Benetako kontakizun zehatza. AVTren Youtubeko kanalean dago eskuragarri dena, doan eta osorik. AVTren ustez, egia eskaintzeko betebeharra dugu. Terrorismoaren egia bakarra.

Biktimok amaiera bat nahi dugu, noski. Baina amaiera ordenatu bat nahi dugu. Irabazle eta galtzaileekin. Egiazko kontakizunarekin. Eta kondenak bete, damu zintzoa adierazi,

eragindako mina aitortu, erakunde terrorista gisa desegin, arma guztiak entregatu eta justiziari laguntzen dioten terroristekin.

Hori guztia biktimak eta haien beharrak ahaztu gabe. AVTren sail psikosozialaren ikerketek frogatu dutenez, atentatuaren biktimek laguntza psikologikoa berehala ez ezik, epe ertain, luze eta oso luzera ere behar dute, baita 20, 30 edo 40 urte geroago ere. Horrek zalantzan jartzen du denborak dena sendatzen duela dioen ideia herrikoia, eta, horrez gain, zalantzan jartzen ditu atentatuak gertatu zirenetik 3 edo 6 hilabete igaro ondoren biktimei laguntza psikologikoa emateko zerbitzuak edo laguntzak jada beharrezkoak ez izatea dakarten osasun- eta gizarte-politikak. Horregatik, AVTn atsedetik gabe lan egiten dugu biktima bakoitzak merezi duen arreta izan dezan. Guk ez genuen aukeratu terrorismoak gure bizitza suntsitzea.

Nik, Alfonso Sánchezek, terrorismoaren biktima eta AVTko presidente ohiak, beti zainduko dut biktimak eta haien egia izatea bost hamarkada baino gehiagotan Espainia odolez tindatu duen historia triste honen heroiak.

ERRAUTSAK

MAITE PAGAZAURTUNDUA



Maite Pagazaurtundúa Terrorismoaren Biktimen Fundazioko presidente ohia da. 2003ko otsailaren 8an, ETAk bere anaia Joseba, Andoaingo udaltzainburu ohia, militante sozialista eta Basta Ya-ko kidea, erail zuen Gipuzkoako udalerri horretako Daytona tabernan, kafe bat hartzen ari zela.

Errautsak, hautsa, kaosa, beldurra, mina... benetakoak izan ziren, eta gure begietan, gure begiradan nolabait makurtuta daude. Batez ere, gure kale bakoitzean identitate fanatiko bat denbora gutxian hazten ikusi genuenon artean, hura antzeman genuelarik. Euskal aberriaren fanatikoen identitatea dogma izugarria zen...

Hiltzaile bihurtutako identitateak eragin zuen errealtatea izugarria izan zen ere. Esan dudan bezala, hedatzen eta kale horietan, festetan (non itolarrira arte irakurtzen baikenituen kontzientzia sorgortzen zuten esaldiak, bizilagunen hilketa, baita familia kideena ere, onargarri egiteko), nonahiko bihurtzen ikusi eta hotzikara bat sentitu genuenon artean ezkutatuta dago.

Geruzaz geruza, dena itsutzen zuten ehunka kartelen bidez, askatasuna edo bizitza izateko eskubidearen aurkako

sentikortasuna idortzen zuten. Dozenaka milaka aldiz idatzi zuten "ETA hil itzazu", agian milaka pertsonen eskutik. Horrela zeuden paretak eta murrak, gorrotoaren pozoia faroletatik, hegaletako pankartetatik, fatxadetatik, zubietatik... zintzilik zegoen.

Laurogeita hamarreko hamarkadako uneren batean, Hernaniko zinegotzi sozialista baten alaba lineako autobusera igo zen unibertsitateko klaseetara joateko. Ibilbide laburra da. Donostia, campusa dagoen tokia, oso gertu dago. Gazte batzuek jo eta aurpegia hautsi zioten. Gertaeren memoriak huts egiten ez badit, autobuseko inork ez zuen defendatu. Izututa egongo ziren ziurrenik. Ia haurrak ziren gazte batzuek neskaren aita eta beste bi zinegotzi jipoitu zituzten garai hartako beste une batean. Sadismo mota horretan eta arrasto fisikorik uzten ez duten beste batzuetan trebatuak izan ziren.

Nolabait, begiradaren bihurgune batean errautsezko herrialde baten irudia daramazu. Zer dira onetsitako gaitza, beldurra eragiten duena, gure milaka bizilagunen artean landutakoa errauts gizagabeak baizik? Esan dut, ankerkeriarako eta gizakien jazarpenarako gure baimenik ez zutela izango uneren batean esan genuenon artean makurtuta dago irudia. "Txakurrak edo txakurren seme-alabak" deitu zituzten, ziguten, baina euskaraz. Traidore, hiltzaile, faxista, antieuskaldun edo espainol deiturak ere erabiltzen zituzten, edozein hizkuntza ofizialetan era berean.

Nire ustez, zaila eta deserosoa zen begiak zabalik edukitzea. Egia esan, errealtatea nolabait gure begi-ninietan grabatuta geratu zen, pilaketa hutsez. Eta begiak, belarriak eta ahoa ez ixteagatik jazarri gintuztenean, axolagabekeriaren eta minaren errautsaren zapore zuzena zein zen jakin genuen. Batzuetan susmatzen dut ezagutzen ez gaituztenek zer bait sumatzen dutela, baita memoriak dena gogoratzetik libratu gaituenean ere.

Pentsatu ohi dut sistematikoki gaitz handia egin duten gehienek —esaterako, etakideek eta haien ingurukoek hamarkadetan zehar—, energia handia dutela gero gezurra esateko. Zalantzan jartzen dut gehiago ote den botere grina —muturrekoa eta totalitarioa zen jazarren eta hiltzen zutenean— edo beren

burua zuritu eta tragedia zikin eta izugarri batean erantzukizuna hartzea saihesteko beharra.

Joseba Arregik askotan hitz egiten du demokraziaz azken aurreko egien gune gisa. Esaldi labur bat da, ikasketa kolektibo mingarri bat dakarrena, egiteke dagoena neurri batean. Izan ere, hemerrotekak argi eta garbi adierazten du euskal nazionalista fanatizatu eta bortitzek beren iparorratzaren ipar bihurtu zutela haiek bezala pentsatzen ez zuena isildu edo joan egin behar zela, edo estigmatizatu, jazarria edo eraila izan zitekeela.

Egindako kalte erradikala onartzen duen gizakiari eboluzionatzea ahalbidetzen dion lotsa moralari buruz idatzi zuen behin Martín Alonsok. Gizakiaren irudimen moral sakonaz idazten ari zen. Hiltzaileengan, haien konplizeengan, erailtzeko edo hertsatzeko salatzaileengan, gu hiltzeko oihuka ari zirenengan, ikusezinak bagina bezala begiratzen zigutenengan, deserosotasun eta gaitzespenezko keinu ez-disimulatu batez, ezaugarri hori berreskuratzeari buruz idazten ari zen.

Irudimen moral hori ez da iritsi 2018an. Lerro hauek idazterakoan, beti bezala premia, digeritzen ari gara ETA erakunde terroristak agur esan duela hildako asko ondo erailak izan zirela justifikatuz. Eta hori esatea, jartzzea eta hiltzea ondo egon zela esatea da. Eta bere oinordeko politikoak gezurraren fabrikazioari lotuta daude. Eta beren baliabideen zati handi bat zuritu nahi duten errauts ankerra disimulatzen saiatzera bideratzen dute. Lotsagarria da hiltzaileen senideen mina erakusten lan egitea, eta estrategia politikoek ez onartzea hamarkadatan zuzendu zituzten milaka boluntarioren makineriaren erantzukizun erraldoia, haiek bezala pentsatzen ez zuten bizilagunak beldurtzeko, isilarazteko eta jartzeko. Zati hori Euskadiri eta Nafarroari dagokiona da, noski. Krudelkeriaren zati hori zehatza izan zen. Erail, gure herri osoan erail eta izutu egin zuten.

Lerro hauek idazterakoan, hilabete ere ez da pasa garai berriaren digestio astunetik. ETArri terrorearen besoa izateagatik eskerrak ematen dizkioten pintada eta pankartekin iritsi dena. Arnaldo Otegik, jazarpena dela- eta lotsa moralik sentitu nahi izan

ez dutenen buruzagi politikoak, uko egin dio horri buruzko epaiketa politikoa egiteari, eta adierazi du "ez direla horrenbeste", eta "ulertu behar dela hori ere herrialdearen parte dela". Ez dago inozentziarik Otegiren begiradan.

Lotsagabekeria berriak eragiten digun min berria metabolizatzen ari gara. Argi dago urrezko aukera bat alferrik galdu dutela. Ez dituzte gauzak ondo egin. Orainaldiko eta etorkizuneko haurrei ez diete argi uzten identitate politiko toxiko batez kutsatu zirela, eta urte luze, oso luzeetan zehar, hura etengabe lantzen aritu zirela.

2016ko urtarrilaren 27an, Ágnes Heller filosofoak muturreko gaizkiari buruzko irakaspen bat eman zuen Europako Parlamentuan. "Torturatzeko eta erailtzeko gogoa sortzen duten gaizkiaren bi maximen konbinazioa dela esan zuen, bertute gisa haiek legitimatuz". Ireki begiak. Orain ere, ireki begiak.

TERRORISMOA EZ DA HISTORIA

ANA VELASCO VIDAL-ABARCA



Ana Velasco Vidal-Abarca ETAk 1980ko urtarrilaren 10ean Gasteizen eraildako Jesús Velasco Zuazola Zalditeriako komandante eta Arabako Foru Aldundiko Miñoien Kidegoko buruaren eta Terrorismoaren Biktimen Elkarteko sortzaile Ana María Vidal-Abarcaren alaba da.

2011n 858 bizitza errukigabeki kendu, milaka pertsona fisikoki eta emozionalki mutilatu eta Espainiako gizartea alerta eta beldur egoera iraunkorrean jarri zuen talde kriminalak *establishment* politikoarekin hiltzeari uztea hitzartu zuen, kontrapartidekin eta existitzeari utzi gabe.

Harrezkero, presaka eta etenik gabe, axolagabekeriazko giro bat nagusitu da, begirada hotz bat, jarrera urrun, nekatu, are aspergarri bat ahaztu nahi den iragan mingarri baten aurrean. ETAk jada ez du hiltzen, gainerakoak berdin dio. Berdin dio burutu zituen ehunka krimen oraindik zigorrik gabe egotea. Berdin dio kartzelatik irteten diren terroristak beren herrietan omenaldi publikoekin hartzea, berdin dio Eusko Jaurlaritzak milioiekin finantzatzea terrorismoa "beste indarkeria batzuekin" parekatzea, ezta aldi historikoen amalgama batean sartzea ere, parez pare jarri nahi dituen. Berdin diote biktimek ere, terrorearen justifikazio lizuna eragotziko luketen gogorapen gogaikarri horiek.

Biktimak, aztergai bihurtzen ari direnak, asepsia ikertzailearekin ikusten den analisi soziologikoaren xede. Biktimak, erreferente izateari, Espainiaren defentsaren, demokraziaren eta askatasunaren ikur izateari utzi diotenak. Ordezkatzen duten balio handia, beren indarra, espainiarrak batzeko duten gaitasuna, fanatismo separatista eta kriminalaren aurrean nazio gisa dugun erresistentziaz harro senti gaitezen, hori guztia diluitzen ari da defentsarik gabe, gu zuzentzen gaituztenen borondatezko desertzioaren aurrean; izan ere, nazionalistei atsegin ematea erabaki dute, azken hauek deseroso sentiarazten dituzten bekatuak zokoratzeko nahian.

Baina terrorismoa eta biktimak ez dira historia. Oraindik ez. Eta ez dira izango aitarik gabeko seme-alaba bakar bat, seme-alabarik gabeko aita bat, senarrik gabeko emazte bat, pertsona maite batez gabetutako anai-arreba bat, biloba bat, lagun bat dagoen bitartean. Eta ez dira izango hilketa bakar bat zigorrik gabe geratu eta terrorista bat epaitu gabe dagoen bitartean. Eta ez dira izango gizarte osoak ETAk eragindako ondorio suntsitzaileak gaituzten ez dituen bitartean, eta gaur egun oraindik hura elikatzen duten eta etorkizunera begira justifikatu nahi duten planteamendu gaiztoak erabat baztertzen ez dituen bitartean.

Denborak lagundu egin dezake galerak, ezin saihestuzko absentziak, eragindako minarekin bizitzen, baina lagungarria da, halaber, —eta asko— Estatuaren babes baldintzarik gabea sentitzea.

Terrorismoagatik mutilatutako familia batzuek jakin dutenean erailketaren egileak 1977ko amnistiak onura ekarri ziolako burutu zuela hilketa, ez dutela auzipetu akats judizial batengatik, arduragabekeriagatik edo ikerketarik ezagatik, Jaurlaritzarekin negoziazioetan parte hartu zuela, haur-parke bat, kale bat edo monolito bat haren oroimenari eskainiak daudela, institutu eta ikastoletan beren senitartekoa hil zuten etakideen omenaldiak sustatzen dituzten irakasleak daudela, zer senti dezakete? Ez, noski, Zuzenbidezko Estatuaren babesa.

Terrorismoaren aurkako borrokak argiak izan ditu — heroismoaren, ausardiaren, irmotasunaren eta erresistentziaren erakusgarri asko—, baina baita itzalak ere, eta konpondu ezin badira, aitortu beharrekoak dira behintzat. Eta ETAk merezi duen porrota eta horren inguruko guztia benetakoa, erabatekoa eta behin betikoa izango den etorkizuna eraikitzeke daukagu. Eta, horretarako, justizia behar da, itzalpean adostutako inpunitateekin zikindu gabe, argitasun kontzeptuala eta pertseberantzia behar dira, eta ezinbestekoa da eredugarritasunari, terrorismoaren biktimen esanahi moralaren aparteko balioari uko ez egitea, terroristak beren gaiztakeriazko amildegitik salbatu nahi dituztenei krimenak parekatze lotsagabeen magma batean diluitzen utzi gabe.

TERRORISMOA ETXEKO ATETIK GERTU

GORKA ANGULO ALTUBE



Gorka Angulo Altube kazetaria da. Komunikazio arduradun gisa lan egiten du Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroan. *La persecución de ETA a la derecha vasca* (2018) liburuaren egilea da.

Urte askoan *Santurcen* (Bizkaia) bizi izan nintzen, orain Santurtzi deitzen duten horretan. Izateko betebeharraren aurrean aukeratzeko askatasuna defendatzen dudanez, hemen beti esan zaion bezala deitzen diot itsas herriari, hemen eta izenkide duen San Juan de Puerto Ricon. Bizikidetza eta errespetua toponimo elebidunetan ere adierazten dira, inoiz ez izendapen bakar artifizial, berri, behartu eta batzuetan dottore ustekoetan, mendeak dituzten beste batzuk ordezkatzeko. Nire gurasoen etxea erdialdeko Capitán Mendizanal kalean zegoen, duela gutxi

Itsasalde bezala bataiatua. Kale horretan terrorismo kasu batzuk bizi izan nituen hildakoekin, eta inoiz ez ninduten axolagabe utzi.

1976an 8 urte nituen. Urte horretako uztailaren 9an, herriko jaien hasiera markatzen zuen Sardinaren Egunean, amnistiaren aldeko manifestazio bat jaitsi zen gure kaletik. Guardia Zibila agertu ondoren, talde txikitan sakabanatu zen. Ikurrinak zeramatzenek berehala ezkutatu zituzten. Euskal bandera bat zeramaten manifestari batzuk Sierra tabernan babestu ziren. Bertan, arrantzez jantzitako ustezko hiru ultraeskuindarrekin eraso egin, eta uniformedun guardia zibilen esku uzten saiatu ziren. Beste manifestari batzuek kalean inguratu zituzten hiru ultrak, eta inguratuta zeudela ikustean, tiroka hasi eta pistolarekin korrika alde egin zuten. Tiroetako batek Maria Norma Mentxaka Gonzalo harrapatu zuen, Normi Mentxaka izenez ezaguna. 46 urteko etxekoandrea zen, ezkondua, hiru seme-alabarekin, eta etxera bidean zihoan, gauzak hartzen ari ziren itxura ikusita. Espaloian geratu zen, justu gure etxeko atariaren parean. Hainbat zauritu izan ziren suzko armagatik. Gogoan daukat oraindik odola, zerrautsez eta lore batzuez estalia. Harrezkero, atentatueta ikusten nuen odolak hotzikarak eragiten zizkidan beti, erabat blokeatzen nintzen. Emakume horren hilketa Arturo Ruiz Garcíarena bezalakoa izan zen. Hemeretzi urteko igeltsero eta ikasle granadarra zen, eta ultra batek tiro egin zion Madrillo Estrella kalean (Gran Viatik gertu), 1977ko urtarrilean, Trantsizioa dardaraka jarri zuten zazpi egun beltz haietan.

Normiren familiak hainbat hamarkadatan borrokatu zuen terrorismoaren biktimatzat onartua izan zedin. Arrazoia zuten, eta epaitegietan eman egin zieten (oso berandu), Normiren hiltzaileak bete-betean terroristak zirelako. Cristo Reyko pistolariak izan ziren, frankismoaren nostalgikoak, diktadorea hil zenean, ETArekin eskuz esku, Euskal Herria "ulsterizatu" eta Espainia "argentinizatu" nahi zutenak. Haien eta etakideen existentzia justifikatzeko irtenbidea esku-hartze militar bat zen, Ipar Irlandan bezala, edo Armadaren estatu-kolpe bat, Argentinan bezala. Etengabe eskatzen zuten hori bere prentsan eta ETArekin eta GRAPOREn biktimen hileta batzuetan. Normi Mentxaka harroputz

armatu kontrolgabe haietako baten bala galdu baten ondorioz hil zen. Hala deitzen zieten, baina ez ziren erabat horrela, Polizia Armatuko edo Guardia Zibileko agintariekin zituzten harreman onengatik. Horri esker, Espainia salbatzeko bere misioan zigorrik ez zutela jasoko uste zuten. *Santurcen*, zurrumurruen ondorioz eta froga sinesgarririk gabe, militar erretiratu baten semeari leporatu zioten tiroa, Udaltzaingoa baten buru ohia. Urte batzuk geroago ETAk erail zuen, Konstituzioa onartu eta hiru egunera. Hilabete batzuk lehenago, Fuerza Nuevako agiria zuen udaltzain bat hil zuten, eta haren agindupean egotea leporatu zioten.

ETAren inguruneak martiri bihurtu zuen Normi Mentxaka, eta ez zen inoiz lorerik edo oroimenezko plakarik falta izan hura larri zauritutako tokian. Manifestazioak, Normi erail zuten egunekoa bezalakoa, nahiko ohikoak izan ziren ordutik laurogeiko hamarkadaren hasierara arte. Gogoan dut haietako bat ikusten ari nintzela etxetik, eta kalez jantzitako gizon bat ikusi nuen ihesi zihoazen manifestariei tiro egiten. Benetako pistola batekin da!, oihukatu nuen haur baten xalotasunez. Aitak lepotik heldu eta ziztu batean sarrarazi ninduen barruan. Egun hartan gure bila joana zen eskolara, Portugaletera, eta barrikadak saihestuz itzuli ginen etxera. Greba orokorreko egun haietako bat zen, non denak Belfasten antza zuen bere garairik txarrenetan, eta gure amonak 1936ko ez dakit zeri buruz hitz egiten zuen beti. Normi Menchacaren krimena hain nuen sartuta duramaterrean. non, terrorismoaren biktimatzat aitortu zuten egunean, bere seme-alabetako bat elkarrizketatzera joan bainintzen Cuatro katearentzat. Albistearen berri eman zuen lehen telebista katea izan ginen. Kazetari gisa, beti uste izan dut terrorismoaren biktimen aurrean ezin dela distantziakidea izan, tenis partida bateko aulki-epailea bezala. Hori, jakina, ez nuen inoiz ikusi, ezta ikasi ere, euskal komunikabide jakin batzuetan.

Urteek aurrera egin ahala, ez nuen inor emakume haren hilketaz pozten entzun. Ez nuen hilketa hura justifikatzen zuen pintadarik inoiz ikusi, ezta mezurik irakurri ere. Krimen horrek agerian uzten digu terrorismo parapoliziala edo eskuin muturrekoa izan genuela, babes sozialik gabe, publikoki babestuko zuen

alderdirik gabe, bere jarraitzaileek heriotza gehiago eskatzeko manifestaziorik egin gabe, eta ETaren eta bere txalo-jotzaileen argudioak asetzeko baino ez zuela balio izan. Normi Mentxakaren izena ez zen inoiz desagertu espazio publikotik, hil zuten tokitik, eta duela gutxi kalearen izena aldatu zutenean ere, izan zen bere izena ematea proposatu zuenik. Uste dut ez zela bidezkoa izango. Hura hil eta lau urtera, 1980ko irailaren 3an, ETak portuko langile bat erail zuen Normi Mentxaka hil zen lekutik hogeit bat metrora, orga-gidari gisa lanera zihoala. Asteazkena zen, egun batzuk falta zitzaizkidan OHOk 7. maila hasteko. Egun hartako goizeko zortziak aldera etakide batek zortzi pistola-tiro bota zizkion Antonio Fernández Guzmáni oso distantzia laburrera. Larri zaurituta, tiroka jarraitu zuten, lurrean akabatu zuten arte. Argitu gabeko beste krimen bat, hogeita hamazazpi urte geroago.

Zortzi hilabete lehenago, panfleto anonimo batzuk agertu ziren herriko taberna eta hormetan. Panfleto horietan "eskirol eta salataritzat" jotzen zuten, eta atentatu bat iragartzen zioten epe laburrera. Biktimaren lagun batzuek paskinak kendu, eta ustezko egileekin harremanetan jartzea lortu zuten. Akusazioak faltsuak zirela argitu zieten. Hala ere, krimena gertatu eta ordu batzuetara, ETak *Egini* (terrorismo abertzalearen buletin ofiziala) egindako dei baten bidez bere gain hartu zuen, eta biktimaren aurka egindako akusazioen bidez justifikatu zuen. Gogoan dut gorputz estali hura, espaloi baten ertzean, odol putzu batean, aparkatutako Seat 133 gorri baten atzean, fruta eta ogitartekoa zituen poltsa galdu batekin. "Berunezko urteen" ohiko krimenaren irudia zen: goizeko lehen orduan, gorpua espaloian eta maindire edo manta batez estalita. Bitartean, beldurrak kalteak eragiten zituen auzokoen eta jakin-mina zutenen artean. Ez zen sumindura edo gaitzespen agerpenik izan, isiluneak baino ez, ahopeko taldeak eta jendea inguruko eraikinetako leihoetatik edo polizia nazional batzuek ezarritako zirkuluerditik begira. Hamabi urte dituzunean ez duzu horretan erreparatzen, baina bai zaharragoa zarenean, eta eszena errepikatu egiten da.

Moraliki gaixorik zegoen gizarte baten argazki finkoa zen, urte askoan zehar konplizitate eta koldarkeria moralak mugatutako

espaziotik ateratzeko gai izan ez zena. Antonio Fernández Guzmán Huelma (Jaen) herrian jaioetako langilea zen. Handik gurasoekin emigratu zuen hirurogeiko hamarkadan, Andaluziako biztanleriaren erdia Bartzelonara, Madrilera, Bilbo Handira emigratzen zuenean hirugarren mailako trenetan, edo Irungo muga gainditzen zuenean, bizitza hobe baten bila. Antonio Mamarigan bizi zen, metro koadroko Herri Batasunako zale gehiegi zituen auzo batean, batzuk kanpotik etorritakoak, bera bezala, baina muturreko abertzaletasunera bihurtuak, maketo konplexuak astintzeko. Faltan botatzen ditut Euskadin hain ugariak diren kasu horiei psikiatriak egindako ekarpenak. Zenbait alderditan Erretereria zirudien auzo batean bizitzeak, inguruan salatari gehiegi zeudela esan nahi zuen. Nire gurasoen etxe aurreko espaloi hartan eraildako gizon baten gorpua geratu zen. Langile apal horrek emakume bat, 8 urteko seme bat, 5 urteko alaba bat eta doilor talde batek jarritako ospe txarra utzi zituen atzean. Doilor horiek, erretiroa hartuta jada, Mamariga auzotik ardoak edaten jarraituko dute, kontzientziako harrik gabe.

Eszenografia urtebete geroago errepikatu zen zoritxarrez: 1981eko urriaren 17an. Larunbata zen. Goizean futbol partida genuen eskolan. Ez nuen jokatu, etxera itzuli bainintzen. Portugaleterako bidean, El Burgon, polizia-lerro bat eta ikusmiratzaile talde bat aurkitu genituen. Santiago González de Paz erail zuten, 30 urteko Guardia Zibileko kaboa, Kanarietan jaioa, portuko aduanan lan egiten zuena. Etxetik eguneroko ordu berean ateratzen ari zenean hil zuten, bere autoa hartzera zihoala, Morris Marina bat, oso deigarria, "atzeritar" deitzen genien auto horietako bat zelako eta Tenerifeko matrikula zuelako. Borreroek ondo baino hobeto ezagutzen zituzten haren ordutegiak eta ohiturak. Bazekiten lanegun bakoitzeko errutinei eusten ziela, portuan egiten zuen lanagatik ezer gertatuko ez zitzaiola uste zuelako. Bere ibilgailu partikularrean zegoela egin zioten tiro, eta larri zaurituta eta zabuka atera zen hartatik, aurreko espaloiraino, eta hantxe hil zen. Beragandik gertu Herri Batasunaren pintada bat zegoen. Handik pasatzen ari ginen gorpua altxatu zutenean.

Berriro ere aurreko urteko eszena bera, berriro argazki bera nire memoriarentzat, zuri-beltzean baino ikusten ez dudan hori, biktimaren odola baino gogoratzen ez dudan hori. Odola, beti odola. Tarteka geldiarazten eta izutzen ninduen. Cuatro katearentzat Raul Centeno eta Fernando Trapero guardia zibilen hilketen berri ematea egokitzean gertatu zitzaidan. Capbretonen (Frantzia) hil zituzten, 2007an, eta, hiru hilabete geroago, Isaias Carrascorena egokitu zitzaidan Arrasaten. Odola asfaltoan geratu zen, eta, haien heriotza tragikoa gogoratzean, arima uzkuratzen zitzaidan. Kazetari petoa izanda ere, emozioek gainezka egiten dizute, nagusitu egiten zaizkizu.

Santiago González de Paz guardiaren hilketara itzuliz, hilketaren lekutik igaro eta bost ordura, hiletaren amaiera ikusi nuen San Jorge elizaren kanpoaldean. Egun berean! Betiko liturgiak, ohiko oihuak, betiko agintariak. Prentsak biharamunean esan zuen ezkondata zegoela, bi seme-alaba zituela, bata 5 urtekoa eta bestea 11 hilabetekoa. Gogoan dut seme zaharrenaren irudia. Hildako guardiaren laguna izan zitekeen gizon batek zeraman eskutik helduta. Hileta-furgoiaren atzetik zihoan auto baten kopilotuaren eserlekuan sartu ziren. Bada oraindik gogoan dudan irudibat: umehorrenaurpegia. Aitaren lagun batek kontsolamendu gisa laztantzen zuen haur beldurtu hark David zuen izena. Urte asko geroago jakin nuen putzu batean itota hil zela, hiru urte geroago. Bere anaia Guardia Zibilaren akademian sartu zen, baina ez zen Benemeritaren uniformea janztera heldu. Bere amak bere bizitza berregitea lortu zuen Euskal Herritik urrun.

Beste ama eta emazte batek ezin izan zuen gauza bera egin hamaika hilabete geroago. María Dolores Berisa Martínezen kasua datorkit gogora. 47 urterekin alargun geratu zen lau seme-alabarekin.

1982ko ekainaren 5ean, ETAko komando batek bere senarra, ardogile industrialari bat, erail zuen, eta ez dakigu oso ondo eskuinekoa izateagatik edo *iraultza-zerga* deiturikoa ez ordaintzeagatik. Haren borrarera, José Antonio Fernandez, Maguila ezizenez ezaguna, 22 urtez egon zen kartzelan krimen horrengatik. Atxilotu zutenean, hainbat lagun eta ni txundituta

geratu ginen, Mamarigako ikastetxe publiko bateko patioan areto-futboleko jolasten kointziditzen genuelako berarekin. 2014an, Mamariga auzoko *Santurce*ko kazetari batek aurkeztu zuen euskal telebista publikoko programa batean, eta, biktimekiko sotiltasunik eza erakutsiz (harekin eskuzabala izanda), “Maguila” delako hura “80ko hamarkadan merkatari bat hiltzeagatik” kartzelan egondako gizon gisa aurkeztu zuen. Merkataria trafiko-istripuz hil balitz bezala, eta 80ko hamarkadan, Pleistozenoaz ariko balitz bezala. Tipoak, damu izpirik gabe, etakideek eta beren predikatzailerek beren iragana zuritzeko eta justifikatzeko erabiltzen duten diskurtso “postarmatu” klasikoa bota zuen. Programaren gidariak ez zion inolako unetan gogorarazi merkatariaren alargunak, senarraren hilketa jasan ezinik, krimena gertatu eta hiru hilabetera, bizi ziren eraikineko seigarren solairuraino igo eta barruko patio batera bota zuela bere burua.

Gure kale berean bizi ziren, bi atari beherago. Amak etxean kontatu zuen berri izugarria, eta izoztuta geratu ginen. Hurrengo egunean José Luis Barrios Capetilloren hilketaren berri izan genuenean bezala, 1988an, gure kalean jatetxe bat zuen ostalari bat, San Jorge jatetxea, askotan familiarekin joaten nintzena. Bere aita PSEko zinegotzia izan zen, eta nire aitarekin eta biokin etortzen zen San Mamesera. ETArek azpilan zibilak gezurrak eta miseriak zabaltu zituen Barrios Capetillo familiaren gainean, narkotrafikoarekin lotuz. HBko jendilajearen inguruetik ateratako gezur bera, 1991n *Santurce*ko kaleetara itzuli zena, merkatari ezagun batzuk helburu hartuta. ETArek aldeko kontakatiluek gorroto zieten sozialistak zirelako. Ez zegoen beste azalpenik hainbeste kalumnia-zaborren aurrean. Duela egun gutxi, Nerea Barriosi, eraildako ostalariaren alabari, egindako elkarrizketa-testigantza bat irakurri nuen. Lerroburuak dena laburbiltzen zuen: “Hogeita bost urtez isilik egon naiz; orain, nire aitaren memoria garbitu nahi dut”. 25 urtez derrigortuta isilik, giro trinko horren gezurren artean, denbora luzez joan den mendeko 30eko hamarkadako Berlin eta Chicagoren antza izan zuen gizarte batean, naziak eta mafiak dena kontrolatzen zutela.

Hori guztia ikusi nuen kalea *Santurce*ko kale komertzial eta sozial nagusia zen. Maila nahiko aberatseko eremua, portuko beste auzo apalagoekin alderatuz gero, horietan Espainiako hainbat lekutako azentuak nagusi baitziren. Hirurogeiko hamarkadaren bigarren erdian kale hori jendez betetzen joan zen *baby-boomer*-ekin, Espainiako "demokraziaren belaunaldia" garenokin alegia. Gutako gehien-gehienak ikastetxe pribatuetan hazi ginen; beste auzoetako gehiengo zabala, berriz, ikastetxe publikoetara joaten zen. Hainbat hamarkadatan *Santurcen* izandako hauteskundeetako emaitzak aztertuz gero, Capitán Mendizabal kaleko bizilagunek zentro-eskuineko aukeren alde bozkatzten zuten gehienbat. Hor zegoen eskuin nazionalista edo espainolistaren hauteskunde-bihitegi nagusia. Hortik ondorioztatzen da giroak eta balio nagusiek terrorismoa argi eta garbi arbuiaitzeko aukera ematen zutela. Baina ez zen horrela izan. Euskal gizartea terrorismo nazionalistaren aurrean izan denaren metafora, isla edo sintesia izan zen: ongizate sozial eta ekonomiko altua, txirotasunaren mugan zegoen maila etiko eta moralarekin kontrastatzen zuena.

Nire belaunaldiko beste askok, kale berean, nik bezala terrorismoa izan zuten etxeko atean, baina edo ez zitzaaien axola izan, edo ez ziren hunkitu, ez ziren sumindu edo ETaren biktimak ondo hilda zeudela iruditu zitzaaien. Gizarte batek, belaunaldi batek, terrorismoa etxeko atean izan duenean, eta horrek bere kideen zati txiki bat bakarrik kontzientziatu eta mobilizatu duenean, beldurrak eta koldarkeria moralak terroristek berek baino kalte handiagoa egin dutela baino ezin da pentsatu. Gazteagoak izanik, etikak eta moralak huts egin bazuten, zaharragoak izanik, ez dezala memoriak huts egin.

ALONSOTEGIKO ESNE-SALTZAILEA

IÑAKI ARANA



Iñaki Arana Alonsotegiko Aldana tabernaren aurka 1980ko urtaririlaren 20an egindako atentatuan eskuin muturreko terroristek eraildako Liborio Aranaren semea da. Atentatu hartan beste hiru pertsona hil ziren. Trantsizioan Euskal Herrian talde ultraeskuindarrek egindako sarraskirik handiena izan zen. Argazkian, Iñaki eta bere emazte Angelita, Iñakiren gurasoak alboan dituztela: Liborio eta Eufemia.

Bederatzi anai-arrebako familia bat gara. Garai hartan, abereak genituen, eta esnea saltzen genuen; beraz, oso ezagunak ginen herrian. Alonsotegiko esne-saltzaileak ginen. Oso familia apala. Ni ezkondata nengoen, eta lau hilabeteko seme bat nuen. Denboraldi bat ematen ari ginen gurasoen etxean bizitzen.

Atentatuaren gaua larunbata eta San Sebastian egunaren bezpera zen. Etxean geratu ginen ama eta hiru anai: txikia, Pedro, zazpigarrena, Javi, eta ni. Ilunabarrean ukuilura joan nintzen, aita zegoen lekura, esnea hartu eta etxera eramán nuen. Orduan auzokoak etorri ziren, eta esne atera berria erosi zuten. Gero, esne-ontziak Land Roverrean sartu eta ukuilura eramán nituen berriro, zeren hurrengo goizean, seieta, aita berriro jecten baitzuen.

Hamar eta erdiak edo hamaikak izango ziren. Aita behiei jaten ematen aritu zen, eta tabernara joan zen. Tarte labur batez hitz egiten egon ginen. Sokatira talde bat genuen, taberna bezala deitzen zena, Aldana, eta gure aita zen utilleroa. Normalean jende jasankorrek parte hartzen zuen, baserrikoak, ahalegin handiak egiten ohituta zegoenak. Hurrengo egunean erakustaldi-tirada genuen, eta zehaztu beharra zegoen nor zegoen libre, nor ez... Denek ezin zuten beti.

Ettxera eraman nahi izan nuen, eta ezin izan nuen. "Begira, behiei alpapa eta ura emango dizkiet berriro, oraintxe bertan pentsua eman diet... Zoaz lasai". Ume txiki bat nuenez, etxera joan nintzen, eta... Hantxe geunden lasai, leherketa entzun nuenean: "Bum!". "Zer gertatu da?". Hasieran pentsatu nuen hedatze-uhina Guardia Zibilaren kuarteletik zetorrela, garai hartan atentatu asko ETArenek zirelako.

Arropa hartu, behera irten eta jendea korrika zebilen. "Aizu, Aldana taberna leherrarazi dutela". Arraioa, eta nik han utzia nuen aita. Azkar aldatu, Javi anaiarekin atera, eta dena nola zegoen ikusi genuen. Gure aita ikusi ote zuten galdetzen hasi nintzen. Bizilagunek buelta ematen zuten, ez zidaten esan nahi, larridura ematen zien. Bizkorren batek esan zidan batzuk ospitalera eraman zituztela, baina hautsez beteta zeudenez, ez zekiten nortzuk ziren ere. Ni handik kentzeko egin zuen. San Eloyra jaitsi nintzen, zaurituak eramandako lekura. Ebakuntza-gela batean ere sartu nintzen, non gizon bati hanka kendu zioten. Berriro igo nintzen herrira ziztu batean, eta orduan gure familiako medikua etorri zen, eta esan zidan: "Zure aita hilda dago". Gero, etxera joan nintzen albistea ematera. Garai hartan ez genuen telefonorik. 8o. urtea zen, eta ezin genuen luxu hori ordaindu.

Hurrengo goizean, senide batzuk gu laguntzera jaitsi ziren, jetzi beharra zegoelako, eta gainerakoak handik botatako aitaren zatiak biltzera joan ziren. Etorri zen garbiketa-taldeak dena aurretik eraman nahi zuen. Gogoan dut ditut nire senideak haiekin eztabaidan ari zirela, gibela puskak zeudelako, beso bat, haratago hanka bat agertu zen baratzean... Oso gogorra. Gau hartako atentatua ikaragarria izan zen.

Aldana tabernan asko hitz egiten zen Athletici buruz, ikurrina jartzen zuten... Jabea oso abertzalea zen, gustatu egiten zitzaion, eta jarri egiten zuen. Taberna hartan jende guztia sartzen zen, baita kuarteleko guardia zibilak ere. Kafe bat hartzera gelditu ziren senar-emazte batzuk (Pacífico Fika eta María Paz Armiño), eta aitarekin lan egiten zuen lagun bat (Manuel Santacoloma), garagardo bat hartzen ari zena pixka bat harago, ia elkarrekin, horiek izan ziren biktimak, zauritu ugarietz gain.

Azkar atera zen Batallón Vasco Español, eurak izan zirela eta hiltzen jarraituko zutela esanez. Polizia ere etorri zen, etsairik ote genuen galdetzera. Nire aita abarkak jarrita hil zen gizon bat zen, EAJri botoa ematen ziona, gaiztoen artean horren gaiztoak ez zirela esaten zuelako. Ez zen politika gizona. Bere behiei lotuta zegoen, bere familiari, zezen on bat izateari, lan eta lan besterik egiten ez zuen ohiko baserritar itxi bat zen, batzuetan ogerleko bat irabazi gabe. Poliziak oso gaizki jokatu zuen, batez ere ikerketan eta tratuan. Ikerketaren buru izan zen José Amedo (ondoren GALEko kide izateagatik zigortua), akusazioak eginez etorri zen ere: "Zeren zuek...". "Ea, guk ez dugu ezer egin, zer ari zara esaten".

Oso gogorra izan zen, baita gero ere. Izan ere, ez genuen horretaz hitz egiten. Nik semeari ez nion ezer esan atentatuaz duela gutxi arte. Hura argitzeko ertzain egin nintzen. 30 urte eman ditut pertsona batzuekin, haiekin ordu asko bizitzen, eta lankideei ez diet inoiz honetaz hitz egin, ez nuelako nahi aitari gertatutakoagatik han nengoela pentsatzea, merezi nuelako baizik. Jende asko harritu da erretiroa hartu, eta *La explosión del silencio* dokumentalean gertatutakoa kontatu nuenean.

Hasiera batean, ezker abertzaleak babestu egin zuen gaia. Lore-sorta bat eramaten zuten urteurrenaren egunean. Baina gero, ama esnea etxeetan banatzetik zetorrenean, mehatxuzko gutunak aurkitzen zituen. "Besteek senarra hil dizute, baina guk seme-alabak hilko dizkizugu ertzainak izateagatik". Oso gogorra izan zen nire amarentzat, 60 urteko andre batentzat. Ez genuen etxean telefonorik jarri nahi, mehatxuzko deirik jaso ez zezan. Ostiak ematen zizkiguten bi aldeetatik.

Urte asko behar izan zituzten, eta traba batzuekin, terrorismoaren biktima gisa kalte-ordainak emateko.

Oraindik ere ez dakigu nork eman zuen horretarako agindua. Eta ez da inor kartzelan geratzen eskuin muturraren atentatuengatik.

ESKUIN MUTURREKO TERRORISMOA

XAVIER CASALS



Xavier Casals Historian doktorea da Bartzelonako Unibertsitatetik. Profesionalki, ikerketa historikoa politologikoarekin, eta irakaskuntza akademikoa historiaren dibulgazioarekin uztartzen ditu. *La Transición española. El voto ignorado de las armas* (2016) lanaren egilea da.

1963an jaio nintzen, Bartzelonan, eta Trantsizioko urteak (1975-1982) izan ziren nerabezarotik gaztarora igaro nintzeneko testuingurua. Garai hartatik garai politiko asaldatuen oroitzapena gorde dut, eta, batez ere, indarkeria politikoaren biktimen irudiena, telebistan emanak edo garaiko prentsan zuri-beltzean argitaratuak, garai hartan kioskoak betetzen zituzten *Cambio 16*, *Interviú* edo *Arreu* bezalakoen goiburuetan. Horregatik, iragan hura, nire ikasle askorentzat gaur egun urrutikoa, oso hurbila da niretzat. Eta, neurri handi batean, hainbeste zirrara eragin zidan terrore haren logikak azaltzen saiatzean piztu zitzaidan historialari bokazioa.

URTE ARRAKASTATSUAK, BAINA BAITA BERUNEZKO URTEAK ERE

Orain, Trantsizioa memoriez, azterlanez eta hemerotekaren ezinbesteko baliabideaz hornituta jorratzean, erraza da ohartzea horri buruzko lan askok garai miresgarritzat aurkeztu (eta kodetu ere) dutela termino politikoetan. Eta hori baieztatzen dutenei ez zaie arrazoirik falta: hiru urte eskasean, 1975eko azarotik 1978ko abendura bitartean, Espainia diktadura batetik demokrazia batera igaro zen, mendebaldekoekin homologatzeko modukoa. Baina gauzak aldatu egiten dira arrakasta hori, gainera, aldaketa “baketsu” gisa aurkezten denean, hala izatetik oso urrun egon baitzen.

Gai horri buruz egin berri diren azterlanak birrintzaileak dira. Horrela, Ignacio Sánchez-Cuenca soziologoaren eta Paloma Aguilar politologoaren lan batek egiaztatu zuen 1975eko urtarrilaren 1etik 1982ko abenduaren 31ra bitartean indarkeria politikoak 504 heriotza eragin zituela: gehienak (% 96,2) talde terroristen eraginez hil ziren, eta ETAk 361 hilketa egin zituen (% 71,6); % 3,8a, berriz, hainbat istilutan. Beraz, Trantsizioa “greziarra edo portugaldarra baino askoz odoltsuagoa” izan zen, eta “Europako odoltsuena” bihurtu zen (Errumaniaren kasuan izan ezik), Sánchez-Cuencak ohartarazten duenez. Era berean, Mariano Sánchez Soler kazetariak 2.663 biktima zenbatu zituen 1975eko azaroaren 20tik 1983ko abenduaren 30era bitartean (heriotzak eta ospitaleratutako zaurituak batuta), eta horietatik 591 hil ziren. 2012an, Sophie Baby historialariak gutxienez 3.200 indarkeria-ekintza eta 700 heriotza baino gehiago zenbatu zituen 1975 eta 1982 artean (530 terroristek eragindakoa izan ziren). Horren guztiaren berri eman dut *La Transición española. El voto ignorado de las armas* (2016) lanean.

ESTRATEGIARIK GABEKO INDARKERIA POLITIKOA

Panorama horretan, atentzio gehien eman zidan terrorismoa eskuin muturrarena izan zen. Nire oroitzapenean (eta herritar

gehienean), inboluzio-estrategia bati lotuta geratu zen, *tentsioaren estrategia* deiturikoari. Zentzu horretan, oso zabalduta zegoen ezkutuko eskuin muturreko konploten sinesmena, sektore militarrekin konspiratzen zutenak erregimen diktatoriala edo autoritarioa ezartzeko. 1977ko urtarrilaren 24ko gauean jazotako Atochako sarraskiak berretsi egin bide zuen, GRAPOren eta eskuin muturraren ekintzak bata bestearen atzetik zetozen agertoki baten aurrean esku-hartze militarren mamua proiektatzean. Terrorismo ultraeskuindarrak maniobra kolpistekin zuen ustezko lotura horren ondorioz, eragindako heriotzak baino handiagoa izan zen eragin politikoa. José Manuel González historialariak uste du 33 eta 65 hildako artean izan zirela (baina kopurua aldatu egiten da beste iturri batzuen arabera).

Hala ere, gaiarekiko hurbilketa jarraituak egin ondoren, klixe horiekiko errealitate desberdina eta are kontraesankorra ikusi nuen, batez ere hiru alderditan. Lehena da ultraeskuinaren indarkeriak (beste sektore politiko batzuen bezala) bere espazio ideologikoaren aurka egin zuela. Espektrorik horretan sendotasun txikieneko talde edo erakunde armaturik egon ezenez, berez jardun zuten komandoek eragin zuten terrorea. Kideak askotan emozionalki desorekatuta eta militarismoarekin liluratuta egoten ziren, eta armak erabiltzen zituzten, kostuak eta onurak baloratu gabe. Hori dela eta, bere krimenak Fuerza Nueva (FN) alderdi neofrankista kaltetu zuten bereziki, 1979ko hauteskunde legegileetan ia 380.000 boto eta Blas Piñar buruzagiarentzat eserleku bat lortu zuena. Izan ere, indarkeria hori hainbat kasutan FNren ingurunearekin lotu zen, eta, horren ondorioz, "ordena demokratiko"aren ustezko alderdi hori "desordena" demokratikoarena izan zen azkenean, eta horrek kalte egin zion hauteskundeetan.

Bigarren alderdi azpimarragarria estrategiarik eza izan zen. Eskuin muturreko terrorismoari buruzko azterketek, oro har, aipatu dugun tentsioaren estrategiaren barruan kokatzen zuten, baina ez dago halakorik existitzen zenaren ebidentziarik. Izan ere, indarkeria ultraeskuindarrak, Atochako hilketei erreparatzen

badiegu, lortu nahi zituen helburuen aurkakoak ere bultzatu zituen, abokatu laboralisten heriotza basatiek Espainiako Alderdi Komunistaren legeztatzeari mesede egin baitzioten. Ez da harritzekoa, beraz, José Miguel Ortí Bordásek (1976 eta 1977 bitartean Barne idazkariordea izan zenak) biribilki esatea "ultraeskuindarren indarkeriak ez zuela inolako momentutan arriskuan jarri demokratizazio-prozesua".

Hirugarren eta azken alderdi nabarmena izan zen, ultraeskuina kolpismoarekin lotzen zuten espekulazio ugariak gorabehera, "bide armatua" eta "hauteskunde bidea" bereizi egin zirela. Hori 1982ko urriko hauteskunde legegileetan islatu zen, FNk Solidaridad Españolaekin (Antonio Tejero teniente-koronel ohi kolpista buru zuen alderdia) elkartzea saihestu zuenean, 1981eko otsailaren 23an huts egindako kolpearekin (O-23) ez lotzeko. Hala, esku-hartze militarra goratu zuen eskuin muturrak bere protagonistarik nabarmenenarekin politikoki elkartzea saihestu zuen.


AZTERKETA BERANTIARRAK ETA MUTUR SOLTEAK

Azkenik, garrantzitsua iruditzen zait nabarmentzea Estatuak muga argiak erakutsi dituela indarkeria horren aurrean bi eremu garrantzitsutan. Bata, hainbat hildakok terrorismoaren biktima gisa izan duten aintzatespen motela izan da. Horrela, 1976ko maiatzean Montejurra gertakarietan hildako bi gazteak, Aniano Jiménez eta Ricardo García, ez zituzten halakotzat hartu 2003ra arte. Halaber, Santurtzin 1976an eraildako Normi Mentxaka ez zuten biktimatzat hartu 2006ra arte. Arestian aipatu dudan beste eremua erabat argitu ez diren krimenetan dauden gune opakoak dira. Pentsa daiteke zenbait kasutan hori hala izan zela egileek Estatuko segurtasun-kidegoetako zirkuluekin edo inguruneekin (edo horietatik gertu zeudenekin) loturaren bat izan zutelako. Ondorioz, badira oraindik ere irauten duten inkognitak, eta zama emozionala dira biktimentzat eta haien ingurukoentzat. Atochatik bizirik atera zen Alejandro Ruiz-Huertak gertaera makurrari

buruzko gogoeta honetan islatu zuen: "Atocha kasua itxi egin zen. Itxi egin da? Ez dakit. Hainbeste gauza geratzen dira, oso zaila izango baita denon artean ixtea".

ATOCHA GOGOAN, ATOCHA HISTORIAN (1977-2017)

ALEJANDRO RUIZ-HUERTA CARBONELL



Alejandro Ruiz-Huerta Carbonell Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea da Cordobako Unibertsitatean. 1977an Madrilgo abokatu laboralisten bulego batean eskuin muturreko pistolariak egindako Atochako sarraskitik bizirik atera zen. Argazkia: Puntoreklamo (Utopía Libros).

Lanbro-oboie iluna: nola lurperatzen du itsasoak
hildakoak esnatzen dituen zure soinu solemnea.
Amets eginez memoria uxatzen duen bihotzera
olatu bareak bezala, hurbiltzen dira bizitza eta heriotza.

ANTONIO COLINAS

Atocha kaleko atentatua gure memoria demokratikoaren zati bat da, urte askoan hustua, manipulaturia eta desitxuratua izan dena; Espainian demokraziarako trantsizioan izan zen atentaturik indartsuenetakoa eta bortitzenetakoa baten memoria zabaltzea da kontua, loteslea izan behar baitu. Eta nire hasierako kezka adierazi nahi dut erronka pertsonal eta kolektibo honen aurrean, hau da, kontaezina dena kontatzea, Argentinan bortxazko desagerpenetatik bizirik atera zirenen artean esaten den bezala.

Dagoeneko ohitu naiz Atochaz hitz egitera, 1977ko urtarrilaren 24an nire bulego profesionala zen hartan burututako atentatuaz hitz egitera. Nik baino askoz hobeto egin zezaketen Miguel Sarabiak, Luis Ramosek edo Lola González Ruizek, gau ikaragarri hartan nirekin batera bizirik atera baitziren. Baina niri egokitu zitzaidan bozeramaile lanak egitea 1987an, 10. urteurrenetik aurrera, hedabideetan, unibertsitateetan eta hainbat espazio publikotan argitara ateratzen hasi ginenean.

Hain zuzen ere, orain, patuaren gorabeherengatik, Lola González Ruiz 2015ean hil ondoren, historia honetatik bizirik atera den azken pertsona bihurtu naiz. Urte batzuk lehenago Luisek eta Miguelek utzi gintuzten. Orain, nire diskurtsoak bakardade ehundura oso indartsua du, eta horrek objektibotasuna zailtzen du.

40 urte bete berri dira *Atochako sarraskia* bezala ezagutzen dugun hartatik —izena aldatu beharko litzaioke—, Garraioaren Sindikatu Bertikalaren zerbitzura zeuden ultraeskuineko pistolari batzuek Madrilgo abokatu laboralisten bulego batean (Atocha kalea, 55) eragin zuten hartatik. Atentatu oso larria izan zen, eta bost lankide hil eta lau zauritu zituzten. Haien artean ni neu nengoen.

TESTUINGURU HISTORIKOA

50eko hamarkadaren amaieran, Espainiako Alderdi Komunista (PCE) eta Eliza katolikoko zenbait sektore izan ziren, elkarriketatik, *adiskidetze-politika* zeritzona garatu zutenak,

demokraziarako trantsizioa eraikitzeko funtsezko datua izan zena. Alternatiba ideologiko ezberdinen aldekoen arteko adostasun gisa ulertu zena posible egin zuen; izan ere, haiek batzen zituen banantzen zituen baina askoz gehiago zela onartzea lortu zuten.

Berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, PCEren bidez, legez kanpoko Comisiones Obreras (CC OO) erakundeko kide zen Marcelino Camachok, PCEko abokatu eta militante M^a Luisa Suárez Roldanekin hizketaldiak izan ostean, abokatu-bulego kolektiboak sortzeko oinarriak ezarri zituen, langileei aholkularitza emateko konpromisoa hartuta. Alternatiba hori urte batzuk lehenago jaio zen Katalunian. Madrilen, PCEk bultzatutako abokatuen lehen bulego kolektiboa 1966an ireki zen, Cruz kaleko 16. zenbakian, M^a Luisa Suárez, Antonio Montesinos, Pepe Esteban eta abarren parte-hartzearekin.

Lan kolektibo horrek bulego asko sorrarazi zituen, hala nola Alcalán, Atochan, Españaletan, Listan, Vallecasen, Orcasitasen, Carabanchelen, Fernández de la Hozen, Conde de Xiquenan, Fernando VI-n, Canillasen, eta Palomerasen auzo periferikoetan, Vallecasen, Alcorcónen, Móstolesen, Fuenlabradan, Alcalá de Henaresen, Canillejasen, Hortalezan, Portugaleten, Vallecas pueblon, Torrejónen eta beste batzuetan. Topaketa- eta aholkularitza-zentroak ziren, askatasun-uharteak, hiri askotan jende askori laguntza eskaintzen ziotenak, hala nola Bartzelonan, Valladoliden, Sevillan, Oviedon, Xixonen, Ferrolen eta A Coruñan, Granadan, Malagan, Cadizen, Kordoban, Albaceten, Valentzian eta abar. Han demokrazia eta Zuzenbidezko Estatua eraikitzeko lan egin zuten, eskura zuten material urriarekin.

1976. urtearen amaieran, PCEk antolaketa-egitura aldatu zuen, abokatuena behintzat. Hiru frontetan antolatu zen: lehena, Madrilgo Elkargoko abokatuak eta berezko alternatiba profesionalak, zuzenbidearen jardueran ohikoak; bigarrena, Lan Magistraturekin lotura zuzenena duten abokatuak; jurisdikzio hori desagertu egin zen demokrazian. Hirugarren antolaketa-eremua *auzoetako abokatu* deitzen hasi ziren horietan zegoen. Batez ere, auzo-elkarteei, familia-buruei eta era guztietako elkarteei aholkularitza ematen genien abokatuak.

1977ko urtarrilaren 24ko gauean Atocha 55ean elkartzen ginen abokatuak auzoetako abokatuak ginen. Lana koordinatzeko bilerak izatengentuen hamabostean behin, edo behar kolektiboen arabera, eta gau hartan bilera hori egiteko asmoa genuen.

Atochako bulego kolektiboa 1973an ireki zen, Madrilgo Atocha kaleko 49. zenbakian. Bulego zabala zen, zaharra, eta kontsultak kanpotik zetozen egunetan 200 pertsona inguru biltzen zituen hormen artean, antolatutako kontsulten arabera. 1976an Atochako 49. zenbakiko bulegoa txiki geratu zen. Beste bat alokatu behar izan genuen. Atocha kalean bertan topatu genuen, pixka bat beherago, ia-ia Glorieta de Antón Martínen. 55. zenbakian, 3. ezberra solairuan. Azkar lortu genuen bulegoari bizia eta kolorea ematea. Etxeak argi asko zuen, eta Manuela Carmenak, zeinaren izenean baitzegoen alokairua, kuxin handi batzuk erosi zituen lore gorri handiekin. Urtarrilaren 24ko gaua ere ahaztu ezinezko oroitzapena da. Atsegina egin zitzaigun bulegoa. 1976ko azken hilabeteetan estreinatu genuen.

ASTE BELTZA

Indarkeria politikoaren hurbiltasuna presente zegoen jada Espainiako gizartean. Euskal Herrian, ETAren protagonismoarekin; Katalunian, non Terra Lure taldeak denbora batez jardun zuen; Galizian edo Kanarietan, eta eskuin muturreko erreferentzia jarraituak, Guerrilleros de Cristo Rey, Falangeko gazte-erakundeak, Guardia de Franco eta Fuerza Nueva; ezker muturrean, GRAPO bezalako talde anbiguo batek jardun zuen, herritarrek kezkaz beterik eduki zituzten larritasun handiagoko eta txikiagoko indarkeria politikoarekin, eta are adierazpen gogorragoa izan zuen urtarrilaren 24tik aurrera.

Urtarrilaren 23an, igandea, Arturo Ruiz ikaslea erail zuten Estrella kaletik gertu. Krimen hori eskuin muturrari leporatu zioten. Urtarrilaren 24an bertan, Gran Viaren inguruan, amnistiaren aldeko manifestazio batean, ikasle bat hil zen, M^a Luz Nájera, poliziaren ke-pote batek jota. Urtarrilaren 24ko goiz

horretan bertan, GRAPO bezala ezaguna izan zen talde terroristak Villaescusa teniente jenerala bahitu zuen Madrilen, Justizia Militarren Kontseilu Gorenaren buru zena. Atochako atentatuarekin modu basatian amaituko zen egun bat zetorkigun gainera.

1977ko urtarrilean bidaiarien garraioaren sektorean greba egin zuten Madrilen, eta grebak garrantzi berezia izan zuen. Aurreratu dudana bezala, Sindikatu Bertikalaren gabezien aurrean, langileak Atochako gure bulegoan biltzen hasi ziren, eta gure bulegoko lankideekin harremanetan jartzen, aholkua eman diezaieten. Harremanak ia hilabete osoan zehar izan ziren, hain zuzen ere bulegoan greba bertan behera uzteko langileen bilera jendetsua egin zen egunera arte, 24ra arte. Greba oso positiboa izan zen langileentzat. Aldarrikapenak lortu zituzten kaleraturik eta errepresaliaturik gabe. Bada, aste haietan, Joaquín Navarro, greba koordinatzen zuenetako bat, bulegoan geratzen zen, seguruago sentitzen baitzen bertan. Gauren batean ere han lo egin zuen.

Navarro ezaguna zen Sindikatu Bertikalean bertan, eta azken honetan tentsio handia egon zen grebaren ondorioz. Izan ere, Sindikatu Bertikalaren zerbitzura (garraioen sektorean) zeuden zenbait pistolarik tentsio hori baliatu zuten aitzakia gisa urtarilaren 24ko gauean bulegoan sartu zirenean. Izan ere, 1977ko martxoaren atentatuaren ustezko egile gisa atxilotutakoek eta zuzeneko laguntzaile eta inductore batzuek beren adierazpenetan adierazi zuten beren helburua Navarrori ustekabeko bat ematea zela. Eta aitzakia diot, zeren, jakina, gero aipatuko dudana bezala, ez baitirudi hori bat etor daitekeenik bost hilketa burutu eta lau zapuztu eragin zituen atentatu bortitzaren emaitzarekin.

Esan bezala, Atochako 55eko bilera gaueko 22:30ak aldera amaitu zen, eta ordu horretara arte bulegoa jendez gainezka egon zen. Gure bilera, auzoetako abokatuena, gaueko hamarrak edo hamar eta erdietarako deituta zegoela uste dut. Ordu berantiar horretan abokatuetakozazpi geunden bulegoan. Eguneko gertaerei buruz ari ginen hizketan. Zain geunden oraindik. Bat-batean,

ateko txirrina jo zuten, eta Luis Javierrek eta biok estropezu egin genuen irekitzera joaterakoan. Eserita geunden, sarrerako banku handiekin espazio biribil bat osatuz. 15 edo 20 metro koadroko bilera-gunea zen. Ataria zabalagoa zen; sarrerako atetik oso hurbil zegoen, eta kristal opakuzko manpara batek bereizten zuen hartatik.

Bi pistolari agertu ziren hallean, Luis Javierri beren armekin apuntatzen. Batek agerian zuen aurpegia, eta pistola handi bat zeraman eskuineko eskuan. Navarrogatik, andaluzagatik, oreztak zituenarengatik galdetu zuen. Bestea, aurpegia anorak baten edo antzeko jantzi baten kaputxaz estalirik, bulegoetara sartu, eta telefonoak erauzteari ekin zion. Ezin izan zuen erabat lortu, eta, aldi berean, bere armaz mehatxatuz, oraindik bere bulegoetan zeuden bi lagunak ekarri zituen hallera. Serafin Holgado zen bata, artean karrera amaitu gabea, Salamancakoa, bulegoan ordu haietan lan egiten zuena; eta, bestea, Ángel Rodríguez Leal, duela zenbait aste bulegoan lanean ari zena. Telefonicatik kaleratua izan zen, eta hainbat administrazio lanetan laguntzen zigun. Ángelek zeregin berezia izan zuen nire biziraupenean. Goizean boligrafo bat eman zidan, eta boligrafo horrek bizitza salbatzen lagundu zidan gauean. Joana zen, baina bulegora itzultzeko zorte txarra izan zuen, han utzi baitzuen *Mundo Obrero*ren ale bat, garai hartan PC Eren egunkari klandestino zena. Gora igo..., eta ez zen berriro jaitsi.

Eskuak goratuta jarraitu genuen. Batek Navarrori buruz hitz egiten jarraitu zuen. "Hobe duzue esatea non dagoen". Joaquín joana zen dagoeneko. Bigarren pistolaria atondoan sartu zen; Serafin eta Ángel zekartzan bere aurretik. Estropezu egin zuen atearen orpoarekin. Pistolak bere kabuz egin zuen tiro, eta balak anoraka doi-doi ukitu zion besoaren parean. Ez genuen uste ezer erabatekorik, ezer desatseginik, gertatuko zenik. Biak taldearen ertzean jarri zituen; pistoletatik oso gertu, denok osatzen genuen zirkuluerdi moduko batetik.

Une horretan nire bizitza bitan hautsi zen. Tiro hotsen isiltasun basati, konpasatua nagusitu zen. Ángelen aurpegia ikusi nuen, hurbil zuen hiltzailea ezagutuz. Uste dut Lope de Vega

kalean, Bertikalaren aretoetan, goizean egindako batzarretik ezagutzen zuela. Bigarren pistolaria zoraldi betean hasi zen tiroka. Lehen pistolaria ere hala hasi zen. Tiroka hasi ziren han bilduta geunden guztion aurka. Senez atzera egiten saiatu ginen, tiroak saihesteko. Lurrera erori ginen, bankuen artean, nahastuta, zaurituta. Lurrean errematea eman ziguten. Mugitzen zen guztiari tiro egiten zioten. Enrique nire gorputzaren gainera erori zen. Niri bizi-zatiak estali zituen. Nire eskuineko hankak bakarrik jaso zituen lau edo bost bala talka. Enriquek nire bizitza salbatu zuen ere. Hildakoaren plantak egin nituen. Badakit Luisek eta Miguelek ere hala egin zutela. Lola bere senar Javier Sauquillo bizirik mantentzen saiatu zen, baina berehala hil zen. Luis eta Miguelen oihuak entzun nituen balkoietan laguntza eske. Telefono bat berreskuratu zuten. Dei bat egin zuten. Berehala entzun genuen ateko txirrina.

Luis zen. Bilerara zetorren. Ate aurrean gurutzatu nintzen berarekin, ni lurretik arrastaka. Ezin nuen zutik egon. Bonba bat jarri zigutela esan nion. Hainbestekoa izan zen tiroen harrabotsa, kontzientzia galtzea, heriotzaren hots itogarria; ez nekien nor ginen, ezta non geunden ere. Luis korrika irteten zen abisatzera. Ate aurrean etzanda geratu nintzen. Segundo amaiezin batzuk igaro ziren. Berriro jo zuten txirrina. Segurtasun Indarretako kideren batek bere metrailadorearekin apuntatu ninduen. Erokeria ikaragarri baten aurrean zegoela antzeman zuen, etsipen basati, erdiragarri eta izugarri desatsegin baten aurrean. Altxatzen lagundu ziguten guztioi. Banan-banan pasatzen joan ziren nire aurretik. Ez nituen denak ezagutu. Azkena atera nintzen bulegotik. Polizia baten eta kale garbitzaile baten artean. Bizirauten lagundu zidaten. Gorputzarekin indarra eginez jaitsi nuen eskailera. Mailaz maila. Ezer gogoratu gabe. Artegatasunaren, agurraren, jada ez zegoen nire kide bakoitzarengan biderkatutako oinaze amaigabearen une basati hori bizitzen. Bizirauten hasi nintzen, hil ez izanaren kontzientzia txarrarekin, amaierara iritsi ez izanaren erruduntasun sentsazioarekin.

Madrilgo Urriaren Lehenean (gaur Urriaren 12an) ospitaleratu ninduten. Nire zauriak ez ziren larriak izan, *shock*

izugarria eta ondorioak izan ezik, oraindik ere batzuetan irauten dutenak. Ondorioek kezka beterik mantentzen naute. Hil egingo nintzela sentitu nuen taxi batean ekarri nindutenean. Lola, Luis eta Miguel beste ospitale batzuetan zeuden. Lola izan zen ziurrenik kaltetuena. Egun batzuk geroago izan zuen bere senar Javierren heriotzaren berri.

Ospitalean Antonio Pedrol Rius elkargoko dekanok bisitatu ninduen, dagoeneko hilda dagoena. Abokatu hori ez zen, hain justu, ezkerrekoa, baina portaera orbangabea izan zuen egun haietan, biktimekin eta haien familiekin, eta Gobernuaren aurrean egin zituen kudeaketa guztiekin, gure kideen hil-beila Elkargoan bertan lortzeko. Jokabide akasgabea, adeitsua, miresgarria. Atentatua gertatu eta lau egunera Poliziako eta epaitegietako kideak etorri ziren ospitalera. Oso azkar. Errudun posibleen argazkiakerakutsizizkiguten. Horien artean urtarrilaren 24ko sarraskiaren zuzeneko hiltzaileak zeuden. Nabarmentzekoa da arduradunak aurkitzeko azkartasun hori. Ezagunak ziren polizientzat. Ospitaletik atera nintzen alta jaso aurretik. Hilabete batzuk behar izan nituen fisikoki sendatzeko. Psikologikoki, askoz gehiago oraindik. Pixkanaka-pixkanaka gau hartan gertatu zitzaigun tragediatik atseden hartzen saiatu nintzen.

Hasitako prozedura judizialak ez zuen Justiziaren zerbitzura zeuden langile jakin batzuen profesionaltasuna izan. Gómez Chaparro epaileak baimen bat eman zion "komando"ko kideetako bati. Azkenean, hiru pistolari ziren. Haietako bat hiltzaileen ihesa zaintzen egon zen, eta ezin izan nuen ezagutu, ezta ikusi ere. Baimena justiziaren ekintzatik ihes egiteko aprobetxatu zuen. Ikerketan ezin izan zen atentatuaren eragileei buruzko ezagutza egokia lortu. Garraioaren Sindikatu Bertikaleko hainbat funtzionario atxilotu eta auzipetu zituzten. Horietatik ia denak hil dira gero, batzuk kartzelan. Ezin izan zen ikertu, horretarako borondate judizialik ez zelako egon.

Ia hiru urteren ondoren, epaiketa egin ahal izan zen. 1980ko otsailean izan zen. Epaiketa oso mediatikoa izan zen, korapilatsua, eta epaiketa aretoa bete zuten eskuin muturreko militante askoren babesa izan zuten hiltzaileek. Etengabeko jazarpen, irain eta

errepresio garaia izan zen. Villa de Paríseko plazatik egin genuen sarrera, gure abokatuekin bat eginda, izugarria izan zen. Inork ez gintuen artatu, inor ez zen gure segurtasunaz arduratu, lekuko garrantzitsuak izanik. Baina epaiketa egin zen. Burututako bost hilketaren eta zapuztutako lauren errudun aitortu zituzten, baita terrorismo-delituaren errudun ere, talde armatu gisa. Ehun urtetik gorako kartzela-zigorra ezarri zioten zuzeneko hiltzaile bakoitzari, eta zigor txikiagoa, berriz, beste funtzionario laguntzaile eta zuzeneko eragile batzuei. Ia guztiek bete zituzten zigorrak; 15 urte, eta hori zen, hain zuzen, zigorrik handiena, garai hartan indarrean zegoen zigor-araudia aplikatuz. Gure abokatuek ez zuketena inoiz heriotza-zigorrik eskatuko gure hiltzaileentzat. Eta ez zuten eskatu. Gertaerak Konstituzioa baino lehen jazo ziren, baina erabat argi genuen heriotza-zigorrak ez duela ezertarako balio; ez genituen gure kideak berreskuratuko. Inoiz nahi izan ez genuen mendekua besterik ez zen izango.

Cibeles plazaraino, baita Carabanchelgo hilerriraino ere, hilkutxa batzuk lagundu zituen manifestazio isil ikaragarria egun oso gogor batzuen amaiera izan zen. Baina isiltasunak, ziur nago, oihu batek bezala gainezka egin zuen. PCEko eta CCOOko milaka militantek antolatu zuten segurtasun harrigarria, Gobernuak egin izan ez zuena, parte hartzaile askok agertzen zuten min handiaren, amorru eutsiaren artean. Ez genuen ordain eta mendeku asmorik agertu nahi izan. Ez genuen nahi. Indarkeriaren kiribil amaigabearen haustura izan zen. Isiltasuna demokrazia eraikitzen hasi zen Espainian. Madrildarren eta beste probintzia batzuetatik etorritako kide askoren isiltasuna izan zen demokrata guztiok batu gintuen amalgama, min eta amorru eutsitik, askatasunaren eta guztiontzako demokraziaren alde aurrera egiteko.

MEMORIAREN LUZAPENA

Pertsonalki, asko kostatu zitzaidan nire bizitza normaltzea. Lolak eta Luisek denbora gehiago behar izan zuten sendatzeko, eta ez zuten inoiz erabat lortu. Lolaren min izugarria ere nabarmendu

behar dut. Bizitzan zehar hainbat tragedia bizi izandako emakumea. 1969an bere adiskide Enrique Ruano, hain gogoratua, erail zuten, eta gero bere senarra, Javier Sauquillo, Atochan; Madrilen edo Santanderren osatu ostean, lanean jarraitu zuen bere lagun askoren laguntzarekin, eta gero isilune luzeak izan zituen denboran zehar. Emakume indartsua, konprometitua, bizitzaren eta heriotzaren artean oso tarte txikian zebilena, 2015ean, 38. urteurrena eta gutxira, berari egokitu zitzaion arte.

Oroimenaren politika publiko baten hutsuneek, gure herrian nabariegiak direnak, denboraren poderioz Espainian askatasunaren aldeko borrokaren memoria demokratikoa ahanzturaren eta isiltasunaren artean nahastea eragin dute.

Gaur egun, Espainiako 30 udalerrik baino gehiagok dute Atochako Abokatuak izena daramaten plaza, gizarte-etxe edo kultura-etxe, kale edo parke bat. Eta orduan hil zirenen izenak ere badauzkate.

Espainian memoria demokratikoaren aldeko borroka funtsezko elementua da oraindik ere, 1977an geure buruari eman genion demokrazia benetan sendotzeko. Oraindik asko dago egiteko. Orain dugun demokrazia honen balio kolektiboetan sakondu behar da. Beharrezkoa da, aldi berean, bake eta errespetu kolektiboaren alde lan egitea; hori gabe, ezinezkoa da demokrazia finkatzea. Gau hartan bildutako Atochako abokatuak bederatzi lagun ginen; gau beldurgarri hartan bizi eta hil ginenak. Zortzi jada ez daude gurekin.

Miguel Sarabiak esandako hitzekin amaitzen dut:

Komeni da haien izenen soinua honela ematea, mantso... Ángel Rodríguez Leal... Serafín Holgado de Antonio... Francisco Javier Sauquillo Pérez del Arco... M^a Dolores González Ruiz... Luis Javier Benavides Orgaz... Enrique Valdelvira Ibáñez... Luis Ramos Pardo... Miguel Sarabia Gil... horiek esate hutsarekin zentzua hartzen duelako historiak, eta harmonia jartzen dute unibertsoan.

DAMA BELTZA

FIDEL RASO



Fidel Raso *Diario 16* egunkariko erreportari grafikoa izan zen Euskal Herrian (1986-1997). GAL auziaren ikerketaren berri eman zuen grafikoki (1987-90). Aurretik, Euskal Herriko idatzizko beste hedabide batzuentzat lan egin zuen, eta hamar urte horietan ETArehun atentatu baino gehiagoren berri eman zuen. Irudian, José María Irujo, Ricardo Arques eta Fidel Raso *Diario 16* egunkariko erredakzioan. *Crónica de 30 años en primera línea: ETA, Euskadi y el mundo* (2022) liburuaren egilea da.

Ricardo Arques izan zen GALak deskubritu zituen kazetaria, eta harekin ibili nintzen Frantziako hegoaldean zehar 8oko hamarkadaren amaieran. Batzuetan, Melchor Mirallesen laguntzen zigun. Egun batean, Ricardok telefonoz deitu, eta esan zidan: “Rasín, bihar beste aldera joan behar dugu. Prest egon”. Bera Madrilen zegoen.

Bilbotik Donostiarako autobideko ibilbidean, GALen Dama Beltz misteriotsuari buruzko arrastoak zituela esan zidan. Ekialdeko hazpegiak zituen emakume gazte bat zen, eta ileorde ilehori bat erabili zuen Frantzia hegoaldeko ETako kideen aurkako

ekintzetarako. Une horretan, Paue inguruko hotel zehaztugabe batean ari zen lanean.

Gure bilaketa tirabiratsua Hotel de Paris-en amaitu zen, Paueko *rue* Garet-en. Gure informazioen arabera, askotan elkarriketatu ziren GALEko Christian Hitier eta *Dama Beltza* deiturikoa.

1987ko azaroan kontua ez zegoen txantxetarako. Hilabete batzuk lehenago, uztailaren 24an, GALEn bonba batek Juan Carlos García Goena kontzientzia-eragozlea hil zuen Hendaian. Hotel hartan katua sakatzeko inolako eragozpenik erakutsi ez zuen emakume bat aurki genezakeen.

Ricardo eta biok bi solairuko establezimendu txikian sartu ginen, gure nortasuna deskubritu zutelako sentsazio zentzugabearekin. Gogoan dut hotz handia nuela, agian tentsioak eraginda. Handik minutu gutxira, emakume bat ikusi genuen egongela txiki baten atzealdean mahai batzuk prestatzen. Bihotza indartsu ari zitzaidan taupaka. "Baliteke", esan zidan Ricardok begiradaz.

Urte hartan bertan Donostiako Zinemaldian eman zidaten poltsa zuri baten barruan sartu nuen nire argazki-kamera, teleobjektibo argitsu txiki batekin. Sorbaldatik zintzilik neraman. Nire eskua barrura lerratzen hasi zen zuhurki, eta kamera atera eta emakume hari argazkiak ateratzeko leku ona hartzera nindoanean, emakume ahots bat entzun genuen gure atzean: "*Bonjour Monsieur, que voulez vous?*". Ni harri eta zur geratu nintzen, jarrera irrigarri batean, eskua poltsa baten barruan eta pausoa aldatuta, ez aurrera ez atzera. Ricardok, nik adina frantses zekienak, hau da, batxilergoan ikasitakoa, irribarre egin zuen, "ji, ji ji" arin bat zirriborratuz, eta esan zion leku hartan gure zain zegoen lagun baten bila genbiltzala, baina alde egingo zuela, ez genuelako inor ikusten. Korrika atera ginen, baserritar batek zuhaitzetik udare batzuk lapurtzen harrapatu dituen bi ume bezala. Beste baterako uztea erabaki genuen, hotela hain txikia zenez, zain zegoen pertsona bat edonondik ikus baitzitekeen.

GALEn inguruan Frantzian egindako ikerketa ez zen erraza izan. Lehenik Ricardo eta gero Miralles poliziak, OASeko agenteak

eta mertzenarioak nahasten zituen sare nahaspilatsu bat argitzen saiatu ziren. Gogoan dut Dama Beltzari buruzko arrastoek suposatzen zuten korapiloa. Inoiz ez zen emakume bakar bat izan, bi baizik. Lehenengoa erabateko hondamendia izan zen GALen antolatzaileentzat. Lehen misioan huts egiteaz gain, arrasto ugari utzi zituen ihes egitean. Guk Dominique aurkitu nahi genuen, ordezkoa.

Ricardok eta biok zenbait hoteletan bila jarraitu genuen. Horietako bat Chateau de Brindos izan zen, luxu handiko tokia, laku partikularrarekin eta Biarritzeko aireportutik gertu kokatua. Han, José Amedo Fouce komisariordeak bilera batzuk egin zituen Gerard Manzanal Baionako Atzerriko Legioaren errekrutamendu buru ohiarekin eta Patrick Bordouren informatzailearekin. Ricardo eta Melchorren ikerketen arabera, Manzanal arma hornitzailea zen, eta GALen biktimak seinalatzen zituen. Zenbait minutuz hotel-etxe hartako barruko egongeletatik ibili ginen. Haietako batean goizeko argia leihate handi batzuetatik sartzen zen, eta haietatik aintzira ikus zitekeen, lorategidun lur-eremu handi batez inguratutik. Harrizko hormetan blasoiak eta armarri ezberdinak zeuden zintzilik. Barruko argi elektrikoa ahula eta alferrikakoa zen. Atzealdean, leihoen kontrako aldean, tximinia handi bat zegoen, erabilia izateko prest, eta handik oso gertu bi armadura, itxuraz originalak. Mahaia isilean inguratuz nembilen, esku bat haren gainetik irristatuz, ukimenaren bidez giro jakobino hura sentitu nahiko banu bezala. Ricardo leihate batetik begira ari zen. "Rikardo!". Niganantz jiratu zenean, mahaiko lekurik onenean eserita nengoen. "Bai?". "Imajinatzen Pepe Amedo hemen eserita, dirua Donostiako kasinoan gastatu ondoren?". "Joder Rasín... Tira, goazen tabernara".

Denbora luzean, oroitzapen atseginak ekartzen zizkidan leku hartako baso-azpiko bat gorde nuen. Lis-lore urdinxka eder bat zeukan erdian. Eta oroitzapenak ekartzen zizkidala diot, haren gainean prestatu bainuen irudika daitekeen planik absurdoena, luze bilatzen aritu izan ginen emakume hari argazkiak egiteko. Segurutzat jo genuen Dominique han ari zela lanean, eta, gainera, arratsalde erdian aterako zela bere etxera joateko.

“Hemendik ez digu ihes egingo”, esan nion Ricardori, “eta argazkiak zuk egin beharko dituzu”, gehitu nuen.

“Nik...?”, Arquesek harrituta begiratu zidan. “Baina argazkirik egiten ez dakit eta!”.

“Bada, nire planarekin laster ikasi beharko duzu, zuk ez baituzu gidabaimenik, eta nire autoa berearen kontra jo nahi dut Chateau-tik hurbilen dagoen tokiko errepidera doan bide honetan. Zera esaten ari natzaizu, zu muino horretan ezkutatuko zara, pinuen artean, eta ateratzen ikusten duzunean, keinu bat egingo didazu. Nik autoa abiaraziko dut, eta bihurgune horretan, danba!, kolpea. Leun baina irmo. Bera histeriko jaitsiko da, frantsesez niri irain itsusienak zuzenduz, eta zu argazkiak ateratzen hasiko zara. Hori bai, enfokatuak, ahal dela. Bitartean, barkamena eskatzen saiatuko naiz, halako moldez non kameraren aurrean jarriko baita, eta, gainera, paperak eskatuko dizkiot. Plana perfektua da, argazkiak eta bere nortasunaren datuak izan ditzakegu”.

Erokeria bat zen. Plana martxan jarri aurretik, Chateau-tik beste buelta bat ematea erabaki genuen, hiltzaile ilehoria han lanean ari zen jakiteko beste modurik ba ote zegoen ikusteko. Hainbat pasealdi eman genituen tabernako barratik, aintzirari begira, B plana praktikan jartzea erabaki genuen arte. B plana harrerara joan eta han ezaugarri horiek zituen emakume batek lan egiten ote zuen zuzenean galdetzea zen. Erantzuna ezezkoa izan zen. Korrika atera, eta ez ginen gehiago itzuli.

Ez nion sekula esan Ricardori barru-barruan “talka-plan” horri eutsi niola denbora luzez, eta, agian, horregatik hasi nintzaion gaueko gidatze-eskola batzuk ematen Verdungo heroien monumentuaren ondoko parkean, Baionan.

AHALEGIN INSTITUZIONAL BATEN MEMORIA LABURRA

TXEMA URKIJO



Txema Urkijo Madrilgo Udaleko Giza Eskubideen eta Memoriaren Bulegoko arduraduna izan da. Hainbat erantzukizun izan zituen Eusko Jaurlaritzako Bake, Bizikidetza, Giza Eskubide eta Biktimen arloan 2002 eta 2014 artean, hiru lehendakariaren ardurapean (Ibarretxe, López eta Urkullu).

2003. urtea zen Euskadin. 2001eko maiatzeko hauteskundeetan bere une gorena izan zuten krispazio politikoa eta polarizazio soziala ia ez ziren gutxitu. Eusko Legebiltzarrak terrorismoaren biktimei buruzko legez besteko proposamen bat onartu zuen, eta benetako bide-orri bat bihurtu zen biktimen politika publiko ezberdin baten alde egiten genuenontzat (ordu arte egindakoaren aldean).

Ebazpen horren puntuetako batek Eusko Legebiltzarrari berari eskatzen zion terrorismoaren biktimen arazoari eta haien egoerari buruzko osoko bilkura monografiko bat egiteko. Nola zeuden gauzak, akordioaren zati hori betetzea ezin izan zela errealitate bihurtu 2007ko urrira arte. Soilik une horretan, beste

legealdi batean, egin zen azkenean osoko bilkura hura, urriaren 5ean.

Urte horretan bertan, apirilean, Eusko Jaurlaritzak, Maixabel Lasak zuzentzen zuen Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez, terrorismoaren biktimak aitortzeko eta omentzeko lehen ekitaldi instituzionala antolatu zuen, funtsezko ideia batekin: euskal gizarte osoak eta bere erakunde publiko eta pribatuek ETArean biktimekin zuten zor moral historikoa aitortzea eta kitatzea, hainbeste urteko utzikeriagatik, axolagabekeriagatik eta errukirik eta elkartasunik ezagatik. Mezua barkamenaren diskurtsoa zen, Ibarretxe lehendakariak euskal herritar guztien izenean adierazia.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzatik aurreikusia genuen, behin zor hori kitatuta, antolatutakoa bezalako ekitaldi solemne baten bidez, eta, ondoren, 2008ko Legean zehaztuko ziren laguntza-politiken jarraitutasunari eta bultzadari esker, minaren eta bidegabeko sufrimenduaren behatxuloa ireki behar zitzaiera beste biktima batzuei, haien errealitatea hein batean bakarrik ezagutzen baikenuen, eta ahanzturaren eta eskubideak ez aitortzearen estalkian bilduta zeudela antzematen baikenuen.

Horregatik, 2007ko urriko osoko bilkurari begira, Gobernuari babesa ematen zioten talde politikoei iradoki genien ebazpen bat bultzatzea, zeinaren bidez eskatzen baitzitzaion gobernuari, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bidez, talde inkontrolatuek, eskuin muturrekoek eta GALEk eragindako terrorismoaren biktimei buruzko azterlan bat egin zezala. Une horretan, biktimen talde horren gainean jarri nahi genuen gure arreta estrategikoa, Eusko Jaurlaritzatik biktimei buruzko politika publikoetan aintzatespenak eta tratamenduak parekatzeko. Eta horrela, Eusko Legebiltzarrak, osoko bilkura monografiko hartan, besteak beste, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari egindako agindu hori jasotzen zuen ebazpen bat onartu zuen.

Lan hori Zuzendaritzak garatu zuen 2007ko azarotik 2008ko ekainera bitartean. Denbora horretan, Maixabel Lasak, Jaime Arresek eta nik neuk ikerketa-lan bat egin genuen, eta horrek

Auzitegi Nazionaleko artxiboetara ere eraman gintuen. Bertan, Terrorismoaren Biktimentzako Fiskal Delegatua zen Fernando Burgosen laguntza ordainezina aurkitu genuen. Hark hainbat ate ireki, eta espedienteak aztertzeko aukera eman zigun. Zoritzarrez, neurri handi batean, espediente horiek ez ziguten informazio handirik eman, baina bai txostenean hitzez hitz jaso ahal izan genuen perlaren bat.

Aldi berean, familiarteko eta kaltetuekiko harremana bihurtu zen erronka nagusia. Maixabel buru zela, harrera eta abegia ez ziren beti adeitsuak izan, baina esan beharra dago gurekin elkarriketatzea onartu zuenak jarrera eredugarria izan zuela. Ezustekoren bat ere izan genuen, nabarmen hobe zitezkeen lege-egoerak detektatu ahal izan genituelako, hala nola erreklamatu gabeko eskubideak eta abar. Azken batean, mundu horretara hurbilketa garrantzitsu bat egon zen. Ordu arte, Zuzendaritzak mundu horretako pertsona batzuekin hasierako harremana izana zuen, baina ez, une hartan egin zen bezala, modu sakonean eta sistematikoki.

Pasadizo gisa, Maixabel eta biok beti gogoratzen dugu Batallón Vasco Españolak hildako baten alabarekin izandako elkarriketa bat, Juan Mari Jáureguiren alarguna ezertaz ezagutzen ez zuena. Taberna batean geunden, eta hizketan ordubete baino gehixeago generamanean, galdetu genion ea ETArekin biktima batekin aurrez aurre topo egiteko gai izango ote zen (urte pare bat generaman Glencree-renarekin lanpetuta). Neska serio jarri zen, eta argi eta garbi esan zuen inola ere ez zuela egingo, ezinezkoa izango litzaiokeela; orduan esan nion ordubete baino gehiago zeramala haietako batekin hizketan. Apur bat lotsatuta geratu zen, ia barkamena eskatu zuen, baina berehala konturatu zen proposatu genion hipotesia ez zela benetan hain traumatikoa behar bezala planteatzen eta bizitzen bada.

Aipatzekoa da, halaber, ezker abertzaleko zenbait sektorek ez zutela begi onez ikusi haiek beti berea uste izan zuten mundu batera egindako hurbilketa instituzional hori. Bere parrokiara predikatzeraz ausartu izan bagina bezala. Seguruenik, sentimendu hori izan zen une hartan jaso genituen ezezko batzuen atzean

zegoena, eta, urrats bat harago joanda, beti izan genuen susmoa Maixela eskolta jarri ziotela azkenean ETaren komunikatu batean agertu ondoren, hurbiltze-mugimendu hori egin, eta mundu ideologiko horretako biktima askorekin harreman ona izan ondoren hain justu.

Egia esan, hilabete batzuk geroago, 2008ko ekainean, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eskatutako txostena aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean.

Uste dut garrantzitsua dela txostenaren ezaugarri batzuk, bertan islatuta geratu ziren ondorioetako batzuk azpimarratzea. Batez ere, terrorismoaren eta, oro har, giza eskubideen urraketen biktimen eskubideei heldzerakoan gaurkotasuna dutela uste dudalako.

Txostenaren funtsezko balioa lan-tresna bat eratzea izan zen, administrazio publikoek terrorismoaren biktima guztiei, bazterketarik gabe, erantzun hobea eta osoagoa emateko. Iruzkina hau argitzen duen kasu bat Barne Ministerioari terrorismoaren biktima-izaera aitortzea eskatu zioten zenbait pertsonena da, GALEk aldarrikatutako ekintzetatik eratorria, eta ukatu egin zitzaizen, biktima izatearen funtsa zalantzan jartzen ez zuten akats formaletan oinarrituta.

Beharrezkoa da txosten hori behin betiko gisa kalifikatzea, eta, horregatik, osatu egin daiteke, une hartatik aurrera, eta etorkizunera begira, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza konprometitu zuen lan baten bidez.

Txostenaren denbora-eremua egiaztapen batetik abiatu zen: Francoren sistema diktatoriala indarrean zegoela, izaera politikoko indarkeriazko jarduerak nolabaiteko estaldura sasi-legala izan zuten, eta, beraz, hartutako definiziotik kanpo uzten zituen horrek. Aztertutako lehen kasua 1975ekoa zen.

Datuei dagokienez, adierazi behar da txostenak 74 ekintza terroristaren azterketari ekin ziola, talde kriminal desberdinek egindakoak, beren atentatuen errebindikazioetan izen desberdinak erabili zituztenak (Batallón Vasco Español, Triple A, Grupos Anti ETA, GAE, etab.), bai eta talde kontrolgabeek egindakoak eta, ondoren, errebindikatu ez zirenak ere.

74 ekintza terrorista horietan 66 pertsona erail zituzten, eta beste 63 zauritu, larritasun maila ezberdinarekin. Bahiketa bat ere izan zen. GALEk 24 erail eta 27 zauritu zituen. Batallón Vasco Españollek 18 hilketa egin zituen, eta 18 pertsona zauritu zituen. Triple A-k, bere aldetik, 8 hilketa hartu zituen bere gain, GAEk 6, ekintza kriminalei dagokienez talderik garrantzitsuenak aipatzearren.

Aztertutako 74 kasuetatik 44tan, bizirik atera ziren zaurituek edo, bestela, eraildako pertsonen zuzeneko senideek terrorismoaren biktima direla aitortzeko eskaera aurkeztu zuten Barne Ministerioan, zegozkien legezko eskubideak aplikatuta; funtsean, arau horretan ezarritako kalte-ordainak jasotzeko eskaera. 35 kasutan, Estatuko Administrazioaren erantzunak aintzat hartu zuen eskera; beste bederatzietan, berriz, ukatu egin zitzairen terrorismoaren biktima-izaera aitortzea, hainbat arrazoiengatik. Aztertutako atentatueta kaltetuta ateratako beste 30 pertsonetaz zioten inolako eskaerarik egin Barne Ministerioari.

Txostenean aztertutako atentatu terroristen egiletza zehatzari buruzko ezagutza-maila ez zen nahikoa, argi eta garbi, biktimek egia jakiteko eta justizia gertaeren gainean aplikatzeko duten eskubideari dagokionez. Era berean, indarkeriazko ekintza horien zati handi batean egindako polizia-ikerketa eskas eta akastunak gai horretan garrantzi berezia zuen datu bat argitzea eragotzi zuen, alegia, polizia-instantzia jakin batzuek ekintza kriminal horiekin izan zezaketen konplizitate-, lankidetz- edo inhibizio-maila.

Ez da ahaztu behar indarkeriazko jarduera mota horien ohar komun bat izan zela Estatuko polizia-egiturekin lotura izatea, neurri handiagoan edo txikiagoan, baina betiere lotura edo zerikusia izatea. Batzuetan, segurtasun-kidegoetako kideek zuzenean parte hartu zuten (ebazpen judizial irmoetan egiaztatuta); beste kasu batzuetan, lankidetz- mailak edo babes-, estaldura- edo tolerantzia-jarduerak izan ziren; eta, betiere, interes falta handia edo betebehar profesionalen utzikeria Justizia Auzitegien esku-hartzea ahalbidetzeko adinako ikerketa bat egiteko orduan.

Hutsune horiek tamalgarriak dira, ez bakarrik informazio horrek —lortu izan balitz— berez izango zukeen balioagatik,

biktimek egia eta justiziarako dituzten eskubideei dagokienez, baiziketa moduberezian, izan zitezkeen inplikazio politikoengatik; izan ere, biktima horiek merezi zuten errekonozimendu sozial eta bereziki politikoaren diskurtsoan zalantzarik gabeko eragina izango zuen ikuspegi berritzaile bat mahaigaineratuko zutelako.

Alde horretatik, komeni da azpimarratzea, orduan, Estatuaren edo haren segurtasun-indarren inguruan funtsik gabeko zalantzak ereiteaz susmagarri ez den iritzi baimendu batera jo genuela, hain zuzen ere, Espainiako justizia-auzitegiarena, eta, bereziki, Auzitegi Nazionaleko 3. sekzioak 1999ko ekainaren 4ko 24/99 epaian (1986ko otsailaren 17an gertatutako Christophe Matxikoteren eta Catherine Brineren hilketaren harira emandakora) adierazi zuenera, non GALa talde armatutzat jotzen den.

Ebazpen judizial horren zatietako bat bereziki adierazgarria eta argigarria da:

Barne Ministerioa izan zen azkenean, Frantziako Barne Ministerioarekin lankidetzan, ETAren aurkako legez kanpoko borroka eten ahal izan zuen erakundea. Hori horrela izan bazen, bi sailek inplikaturako pertsonen buruzko informazioa zutela esan nahiko luke, eta une jakin batetik aurrera bakarrik lortu zutela neutralizatzea. Horrek pentsarazten du badirela oraindik ondorioztatzeke dauden izaera desberdineko erantzukizunak.

Txosten hark jarraipena izan zuen Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak biktimen politikaren hedapen objektibo horri erantzuteko abian jarri zituen beste ekimen batzuekin: terrorismoaren biktimak aitortzeko eta omentzeko hurrengo ekitaldi instituzionalean, 2008ko maiatzean, Donostiako Kursaallean, haien protagonismoa aitortzeko ahalegina, Glencree ekimena bultzatzea, kolektibo hori biktima hezitzaileen artean sartzea, etab.

Tamalez, Gobernu zentralaren ondorengo jarduerak ez zuten bat egin planteamendu horrekin. Oso kritikagarria izan zen, zentzu horretan, 2011ko Biktimen Legearen aldebakarreko aldaketa, zeinean Gobernuari berari ahalmena ematen baitzitzaion

terrorismoaren biktima guztiei zegozkien kalte-ordainak ukatzeko, kaltetuek edo eskatzaileek erakunde terroristaren batekin nolabaiteko harremana zuten kasuetan, eta alderdi horren interpretazio hedakorra egiten zen, praktikan, ezker abertzalearen esparruko edozein motatako erakundera.

Oraindik bide luzea dago terrorismoaren biktima guztiak berdintasunez tratatzeko. Gehiegitan, diskurtso politikoek ahaztu egiten dute gure herrian jasandako terrorismoen aniztasuna. Eta, askotan, ahanztura hori nahita egiten da, biktimen munduan hegemonia politiko jakin bat bilatzen duen diskurtso zehatz baten alde.

Horregatik, gaur egun maitasunez eta emozioz gogoratzen ditut Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzatik terrorismoaren biktima guztien berdintasunezko tratamendurako oinarriak ezartzeko egin genituen ahaleginak, zori hobearekin edo txarragoarekin.

FRAPEN ABENTURA ARMATUA EDO LUZATUTAKO HERRI-GERRA EFIMEROA

JOSÉ M. ROCA



José M. Roca Informazio Zientzietan doktorea eta Soziologiako irakaslea da Madrilgo Complutense Unibertsitatean. 1994an *El proyecto radical: auge y declive de la izquierda revolucionaria en España, 1964-1992* liburua argitaratu zuen.

Ezker erradikaleko beste erakunde batzuek bezala, Espainiako Alderdi Komunistak (marxista-leninista) —PCE (m-l)— indarkeria kapitalismoarekin eta diktadura frankistarekin amaitzeko prozesuan beharrezko elementu gisa erabiltzea onartzen zuen. Beste alderdi batzuetan, borroka armatua printzipioen adierazpen bat zen, klase borrokaren etaparik zorrotzenezan kokatzen zena, oraindik urrun, indar korrelazioa zela eta, baina Alderdi honek eta

bere erakunde subsidiarioak, Fronte Iraultzaile Antifaxistak eta Abertzaleak¹¹, ez zuten jakin armen tentazioa baztertzen¹².

Frankismoaren izaerari, Estatuaren lurralde-antolaketari, gizarte-egiturari, produkzio-sistemaren garapenari eta mendebaldeko blokean sartzeari buruzko irizpen azkar batek, hirurogeiko hamarkadako Espainiaren eta hogeita hamarreko hamarkadako Txinaren egoeraren artean ezohiko analogia bat ezartzera eramán zituen agintariak, eta iraultzaren izaera demokratiko-herrikoa eta antiinperialista adieraztera, Herri Errepublika Federatibo batean amaitu behar zuena, indar aurrerakoiek herri gerra luze batean garaipena lortu ondoren, landatik hasi eta hiriak konkistatu arte.

Ez ziruditen oztopo gaindiezinak gerra honek denbora asko eta amaiera irekiko gudu asko behar izatea, atzera egiteko leku babestuak izatea, lurra konkistatzea eta okupatutako eremuak administratzea, eta, batez ere, etsaia garaitzeko gai izango zen armada erregular bat eratzea. Espainiak Txinaren hedadura eta orografia, Kuba bezalako Sierra Maestra bat edo Kolonbiako bezalako oihañ bat ez izateak ez zuen arreta handiagorik merezi.

Nazioarteko testuinguruak, Afrikako deskolonizazio-gerrek markatuta, Latinoamerikako gerrilla-borrokak, Estatu Batuetako armadak Vietnamen zituen estutasunek eta kapitalismoa gainbeheran zegoela pentsatzeak, iraultza exotikoek¹³ ezker erradikalaren gainea eragiten zuten erakarpenarekin batera, bereziki Kuban, Aljerian eta Txinan, PCE (m-l)-ren akatsa bultzatu zuten, eta, horrekin batera, baita Gerra Zibilaren oroitzapen idealizatuak, diktaduraren aurkako indarren gehiegizko balorazioak, batez ere eurenak, eta martxan zegoen iraultza bat zuzentzeko gai zen alderdi bakarra izatearen estimazioak ere.

11. PCE (m-l)-ren lehen kongresuak. Adelvec taldea (1985): *FRAP. 27 de septiembre de 1975*, Madril, Ediciones Vanguardia Obrera. A. Diz (1977): *La sombra del FRAP. Génesis y mito de un partido*, Ediciones Actuales, Donostia.

12. L. Castro: "La izquierda radical y la tentación de las armas", J. M. Roca-n (ed.): *El proyecto radical. Auge y declive de la izquierda revolucionaria en España (1964-1992)*, Madril, Los Libros de la Catarata, 1994.

13. José M. Roca: "Las revoluciones exóticas", *El Viejo Topo*, 358 zkia., 2017ko azaroa.

1975eko udaberrian FRAPeko zuzendaritzak "herri-gerra" hasteko lehen ekintza armatuak agindu zituen, bere ikuspuntutik baldintza objektiboak baitzeuden horretarako. Hala ere, komandoen trebakuntza faltak eta azpiegitura, baliabide material eta arma faltak iradokitzen du beste arrazoi batzuk daudela halako bat-bateko erabaki bat azaltzeko.

Horren azkar zihoazen gertakarien aurrean —Francoren osasuna eta erregimenaren eta oposizioaren baitako mugimenduak haren heriotza posiblearen aurrean—, PCE (m-l)-k, FRAPen bidez, esku hartzea erabaki zuen, Juan Carlos Borboikoa printzearen koroatzeak Francorik gabeko frankismoa ezar ez zezan, baina, gainera, Batzar Demokratikoaren, Konbergentzia Plataformaren eta ezker erradikaleko alderdien aurrean bere nagusitasuna (alegiazkoa) berresten saiatzeko, bere burua aldarrikatuz ustez hasitzat jotako prozesu iraultzailea benetan zuzentzen zuen alderdi bakartzat.

Euskal Herriko salbuespen-egoeraren eta Garmendia eta Otaegi etakideen epaiketaren esparruan, FRAPek, 1975eko udan, komando isolatuen jarduera bati ekin zion, bere prestakuntza eta estrategia falta agerian utziz. Armamentua prekariora zen —kalibre desberdineko pistolak, batzuk egoera txarrean, arma luzerik gabe, ehiza-eskopetak izan ezik, eta labanak, makilak eta molotov koktelak kalitate erregularrekoak ziren—, eta harekin zenbait "desjabetze" egin zituzten (autoak eta dirua), "salatariak" eta "faxistak" eraso zituzten, hiru polizia modu ausazkoan erail zituzten (Lucio Rodríguez Martín, Juan Ruiz Muñoz eta Diego del Río Martín), Uruguako enbaxada erasotzen saiatu ziren, Legioaren izen-emateko bulego bat, Hospitaleteko polizia-etxe bat eta guardia zibil bat (Antonio Pose Rodríguez) hil zuten.

Balantzea, hiru polizia eta guardia zibil bat hilda eta beste bat zaurituta, oso txarra da: ez zuten helburua lortu, eta, gainera, gaitzespena areagotu zen iritzi publikoan; poliziak komando guztiak desegin zituen, ehunka militante atxilotu eta espetxeratu zituzten, bost kideri gerra-kontseilu bat egin zieten, eta horietako hiruri, Sánchez Bravori, Baenari eta García Sanzi, heriotza-zigorra

ezarri zieten eta irailaren 27an exekutatu zituzten, Txiki eta Otaegiren egun berean.

Terrorismoa nahi gabeko emaitza gisa geratzen da, antza denez FRAPeke estrategekek ez baitzituzten gerra artearen oinarritzko arauak ezagutzen, Sunzi-k ("Etsaia eta bere burua ezagutzen duenak ehun borrokaldi egiten ditu arriskurik gabe. Etsaia bai, baina bere burua ezagutzen ez duenak behin eta berriz galtzen du")¹⁴ edo Von Clausewitzek azaldutakoak ("Lehen bereizketakintza, estadista batek eta buruzagi militar batek burutzen duten handiena eta erabakigarriena, egiten ari diren gerra mota behar bezala ezartzea da")¹⁵.

FRAPeke gerra konbentzional bat egin nahi izan zuen, baina aditu militarrek *gerra asimetrikoa* deitzen dutena hasi zuen, etsaiaren indarrak berdintzea ezinezkoa denean nagusitzen dena. Baina orduan konbentzionala den horretatik ihes egin behar da; aurkariari komeni zaion gerra motatik irten eta arau eta metodo ezagunetatik kanpo jardun, Qiao Liang eta Wang Xianghui koronel txinatarren arabera¹⁶. "Ziurgabetasuna gerraren parte da, eta asimetriak ziurgabetasuna sustatzen du [...]. Historiak etsaiaren gerra-estiloarekin berdintzeko ahaleginek eragindako porrot militarren adibide asko ematen ditu, nahiz eta indar-lagunak hori gauzatzeko desegokiak izan"¹⁷.

Emaitza abenturerismo armatuaren gertakari dramatiko bat izan zen, ez gerra herrikoi bat: "Etsai ahalguztidun baten aurrean, eta zenbait egoeratan, indar-harremana kontrakoegia denean, ez dago terrorearen erabileraren alternatibarik. Eta beste alternatibarik baldin badago, esadazue!", dio Ilich Ramírez Sánchez "Carlos"ek¹⁸.

Ezinegonaren eta ezintasunaren batura zen FRAPeke, baliabide

14. Sunzi: *El arte de la guerra*, Madril, Trotta, 2002, 127.

15. Carl Von Clausewitz: *De la guerra*, Bartzelona, Labor, 1976, 60.

16. *La guerra más allá de las reglas: evaluación de la guerra y sus métodos en la Era de la globalización* (1999), Antonio Maira Rodríguezek aipatua: "Popeye, Bin Laden y dos coroneles chinos", *El Viejo Topo*, 160/161 zkia., 2002ko urtarrila.

17. C. J. Ancker eta M. D. Burke: "La doctrina para la guerra asimétrica", *Military Review*.

18. I. Ramírez Sánchez, "Carlos": *L'Islam révolutionnaire*, Monako, Éditions du Rocher, 2003.

gutxirekin eta prestakuntza eskasarekin, denbora gutxian Trantsizioaren bilakaeran eragiteko borroka erabakigarri bat burutu nahi izan zuen; gerra asimetrikoaren saiakera inkontzientea izan zen, asimetrikoegia gertatu zena.

GRAPORI ETA BESTE GAUZA BATZUEI BURUZ

LORENZO CASTRO MORAL



UN 1º DE MAYO DE UNIDAD Y RESISTENCIA

En las dos áreas de reforma, el régimen de los monopolios junto a la oposición domesticada, no ha logrado engañar a las masas obreras y populares. Después de la celebración de las fuerzas electorales (Comisión, elecciones generales y municipales) se ha culminado esta reforma, al tiempo que se declara la guerra abierta al pueblo, tal y como nuestro Partido ya había señalado antes de realizar la fuerza constitucional.

Esta guerra se ve reflejada en el aumento desenfrenado de la explotación, en una represión indiscriminada, en condiciones de vida inhumanas para los presos políticos, en leyes represivas especiales...

Ante este terror y guerra abierta, el pueblo, y en especial la clase obrera, han opuesto la resistencia más decidida: el boicot masivo y consciente a las fuerzas electorales, oleadas de luchas sindicales, manifestaciones y manifestaciones en contra de la política represiva del régimen, de las extradiciones y por la libertad de los presos políticos, incremento de la lucha armada de los propios guerrilleros, así como el avance de las organizaciones que defienden los intereses obreros y populares.

De esta manera, se ha llegado a la polarización definitiva de las fuerzas sociales del país, situando a la oligarquía monopolista y sus crímenes, por un lado y, por otro, y enfrentados a ellos, al pueblo y sus organizaciones revolucionarias, que están desarrollando un poderoso movimiento de resistencia.

Ante esta situación y para que el movimiento de resistencia llegue a ser capaz de hacer al régimen por siempre, hoy se hace imprescindible el trabajo por la unidad de las fuerzas antifascistas.

Este 1º de Mayo, fiesta de la clase obrera, está marcado por estos acontecimientos. De ahí que la mejor celebración sea hacer de esta fecha un día de lucha para avanzar hacia la unidad del movimiento de resistencia. La clase obrera debe ponerse al frente de todo el pueblo en la lucha por alcanzar el objetivo de la unidad, en base al Programa de los Cinco Puntos, aprobado por el Comité de Ejecución de las organizaciones GRAPO, Socorro Rojo, ODEA, UJA, Pueblo y Cultura y PCE(r).

¡VIVA EL 1º DE MAYO!

¡ARAJÓ EL FASCISMO Y EL MONOPOLISMO!

¡VIVA LA REPÚBLICA POPULAR!

Apoyar la lucha armada es una necesidad y un deber

Más de 20 acciones en 10 días y muchas de ellas de gran envergadura, demuestran que la resistencia armada está experimentando un resaca incontestable. Los GRAPO y la organización ETA (ni) se están convirtiendo de hecho en el verdadero ejército del pueblo.

El desarrollo y fortalecimiento de las organizaciones armadas populares es imprescindible para poder llegar al derrocamiento del fascismo y a alcanzar las verdaderas libertades.

Pero no sólo eso, ahora mismo las acciones armadas están jugando un papel fundamental para frenar el terrorismo desatado por los fascistas, como apoyo de las reivindicaciones de las masas, para debilitar y minar a las fuerzas mercenarias y a todas las instituciones fascistas...

Hoy, más que nunca, es una necesidad y un deber para la clase obrera y el pueblo apoyar activamente a los grupos guerrilleros.



Los tres políticos asesinados por ETA en San Sebastián.

ACCIONES MÁS IMPORTANTES

Los GRAPO han anunciado a un partido nacional en Madrid y a un confederación en Vigo, al que tal vez la prensa ha presentado como un simple valderrama de Valdeano, han hecho un intento de gravedad al jefe de la Brigada de Información de Sevilla, desatado torturador de la zona y colado por todos aquellos que han pasado por sus manos asesinos. En Madrid, el día 10 de Abril, intentaron asesinar al director general de Instituciones Penitenciarias, García Valdeón, que logró salvar su vida por una sola gracia a que fallaron los asesinos del comando.

La organización política ETA (ni) ha anunciado a tres policías nacionales en San Sebastián (dos caídos y un herido) y ha colocado un explosivo en la comisaría Mariano de Perdomo, en la que resultó muerto su propietario. La comisaría era centro de reuniones de policías y su dueño un confidente. En un comunicado de esta organización dicen, entre otras cosas:

„Ambas acciones se inscriben en el contexto de la lucha política desarrollada por ETA y el conjunto de la izquierda abertzale revolucionaria por la consecución para Euzkadi de un régimen de democracia política capaz

de salvaguardar la identidad nacional de nuestro pueblo y capaz de garantizar a los trabajadores sucesos sus más elementales derechos socioeconómicos desde a la misma explotación que sufrimos por parte del capital...“

Entendiendo que ETA (ni) sólo verá su combate armado efectivo cuando sea aceptado el programa de la CAE. También han anunciado a un miembro de Villaverde de Gortázar, conocido fascista y han realizado numerosas acciones dirigidas contra los intereses del Estado francés en nuestro país, en represalia por la política fascista aplicada por este Gobierno contra los principios antirracistas en el país, entre las que destacan el explosivo colocado en el Consulado francés en San Sebastián que el explosor, además de los daños producidos, sirvió a dos policías de guardia.

El comando autodenominado Txakira ha reivindicado el asesinato de un confidente en Torpeda señalando que „seguido por sus amigos“.

Otras numerosas acciones han sido realizadas por la guerrilla antirracista como colocación de explosivos en distintas centrales y sedes del Gobierno y sus buques (COCO, UCO, ...) y en el coche de un fascista, oficial del Ayuntamiento de Arraigapaga (Vizcaya).

Lorenzo Castro Moral Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktorea da (UNED) eta delinkuentzia antolatuari eta terrorismoari buruzko irakasle elkartua (URJC). GRAPOr buruzko hainbat lanen egilea da, bestiek beste, bere doktore-tesia: *Terrorismo y afirmación revolucionaria: el caso PCE(r)-GRAPO*.

Terrorismoaren Biktimen Memorialeko lagunek ohar txiki bat eskatu didate urte askoan nire lanaren gai nagusiarekin izan dudan harreman akademikoari buruz, zientzialari sozial eta pertsonal gisa: GRAPOekin alegia. Eta erraza dirudi, baina, egia esan, ekintza bikoitz bat, atzera begirakoa eta introspektiboa, dakarren ataka zail batean jarri naute, denboran atzera eta barrura naramana. Biak korapilatsuak eta neurri batean mingarriak, talde horren ekintzengatik benetan sufritu dutenentzat fribolo samarra dirudien arren.

Nonbaitetik hasi behar, eta nik anekdota pertsonal batekin egingo dut. 1968ko udan, Logroñon geunden, nik uste. Aitak Meliton Manzanas komisarioa Irungo bere etxeko atean hil zutela jakin zuenean, esan zuen: "Lorenzo, hau oso gaizki jarriko da". Aitak ez zuen inoiz jakin zenbat asmatu zuen; izan ere, hurrengo urtean hil zen, eta ez zuen jakin zein gaizki jarri zen kontua, baina askotan gogoratu izan naiz hartaz Donostiako bere etxetik Kontxa pasealekuraingo joaterakoan (bi kilometroko lerro zuzena), ibilbide horretan gutxienez hamabi hildako zenbatu baititut, eta horietatik hamaika berdinek erailak. Komentarioa, zauriaren gainean piko egitea zen. Agian, horregatik geratu zitzaidan iltzatuta. Gerra zibilak orbainak utzi zituen familiaren bi adarretan (espetzeak, hormatzarrak eta hobi komunak) bi bandoen aldetik, eta, txikia izan arren, nolabait susmatzen nuen gauzak oker datozen garaietan denek jasotzen dutela egurra, eta jasotzeko ez dela meritu askorik egin behar, egurra banatzen den lekutik hurbil egon besterik ez.

Ez dakit zenbaterainoko eragina izan zuten aurrekari horiek hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean ni Madrilgo Complutense Unibertsitatean Soziologian matrikulatuta egoteko, baina bazegoen zerbait. Espainiako giro politiko-soziala konplikatu baten, Soziologian borborka ari zen. Han, Espainiako Alderdi Komunista alderdi kontserbadoretzat hartzen zuten kasik ("faxista-soziala", "errebisionista", "traidorea", garaiko hizkeraren arabera), eta ezker muturreko taldeak zatiketa eta berrekartze gutxi gorabehera iragankorren bidez ugaltzen ziren. Korronte ideologiko bakoitzaren barruan (maoismoa, troskismoa,

antikapitalismoa...) dozena erdi bat erakunde zeuden (maoistak zirenak bakarrik: ORT, PTE, MCE, PCE (m-l)-FRAP, PCE (r), PCE (i) lp, UCE, eta ziur baten bat ahaztu dudala), eta bakoitzak korronte horien legezko garbitasuna eta herentzia historikoa erreklamatzeko zuen berarentzat, eta etorkizunean saihestezina eta berehalakoa izango zen Espainiako iraultzaren protagonistatzat zuten euren burua.

Baina, zentratzeko, jar dezagun arreta 1975eko urriaren lehenean. Egun horretan, lau polizia armaturen aurkako atentatuak izan ziren ia aldi berean Madrilgo hainbat tokitan. Arrazoa agerikoa —ETAko eta FRAPeko bost kide irailaren 27an fusilatu zituztelako mendekua—, eta aukera argia izan arren —Francoren alde Plaza de Orienten deitutako manifestazioarekin bat zetorrelako—, inork ez zuen egiletza aldarrikatu, eta jakin gabe geratu zen. Nire kabalak egin nituen horri buruz, eta ondorioztatu nuen egilea nekez izan zitekeela FRAPa, jada norbait erail zuena, polizia-ekintzaren ondorioz desegin baitzuten. Era berean, ETApk ere ez zuen gaitasun operatiborik "El Lobo"ren infiltrazioaren ostean, eta ez zirudien ETAm-k hainbeste jende (dozena bat pertsona) mugitzeko gaitasuna zuenik Madrilén. Anarkistak geratzen ziren, baina hamabi anarkista horrelako gauza batean ados jartzea, eta Poliziak ez jakitea, oso zaila zen. Ondorioztatu nuen talde nahiko antolatu baten kontua izan behar zuela, oso klandestinoa, eta nire susmoak norabide egokian zihoazen, baina zalantza ez zen 1976ko uztailera arte argitu.

Uztailaren 18an, ordura arte ezezaguna zen GRAPO taldeak erreibindikatu zuen hainbat lehergailu jarri zituztela helburu sinbolikoen aurka Espainiako hainbat tokitan. Dataren aukeraketa ez zen kasualitatea izan. Haien ustez, gerra zibila ez zen arazo txar bat izan, baizik eta galdutako aukera bat, eta unean uneko inguruabarrek —amnistia-aren aldeko mobilizazioek, tentsio militarrek, "Bunkerrari" aurka egin zioten errejimene-ko erreformistek, haustura eskatzen zuen oposizio demokratikoak— bigarren itzuli bat egiteko aukera ematen zuten, Estatuaren legimititate-krisi baten esparruan. Haien ustez, terrorismoa

bitarteko eraginkor gisa agertzen zen talde txiki batek egoera politikoan esku hartu ahal izateko.

Ekinaldia uztailaren 3in errepikatu zen, eta, bataren eta bestearen artean, polizia zalantza argitu zuen. GRAPO Espainiako Alderdi Komunistaren (berreratua) beso armatua zen. Ez da GRAPOren historia azaltzeko unea, eta laburbildu egingo dut. Talde horrek erreforma politikorako legearen proiektuaren aurka egin zuen erasoaldiak, Estatu Kontseiluko presidente Antonio María de Oriol eta Emilio Villaescusa teniente jeneralaren bahiketarekin, amnistia osoa eskatzen zuen "Kromo Operazioa"rekin, Madrilen bost abokatu laboralista hil ondoren burutu zituzten polizia eta guardia zibilen hilketek trantsizio prozesua bere unerik delikatuenean jarri zuten (Martín Villaren arabera). Poliziak bahitutakoak askatzeak egoera konpondu zuen, PCE legeztatu zuten eta trantsizioa bera hasi zen; gero, 1977ko hauteskunde orokorrak etorri ziren, eta, azkenik, Konstituzioa.


Egia esan, ikerketan serioски inplikatu banintzen, lizentziatura-memoria egitearen ondorioz izan zen, eta GRAPOak aukeratu nituen gaitzat. 1983an aurkeztu nuen, eta oso harrera ona izan zuen epaimahaiaren aldetik, bai eta aipamenen bat ere komunikabideetan. Nahiko artisautzakoa zen, eta garai hartan nituen bitartekoekin egin nuen, funtsean prentsatik ateratako datuak (atentatuak, atxilotuei buruzko datuak eta egitura desartikulatuak...), PCE (berreratua)-GRAPOk sortutako materialen analisisa (panfletoak, argitalpenak eta ezer gutxi gehiago). Egia esan, aurkezteko modukoa atera zen, eta doktoretesia egitera animatu ninduen, puzzlea osatzen saiatzeko; puzzle hartatik pieza asko falta zitzaizkidan oraindik.

Terrorismoa bezalako fenomeno bat ikertzeak, batez ere terrorismo hori jardunean badago, baditu bere zailtasunak, eta lanean laguntza handia eman zidan Cadizko lagun batek, Guillermo Gozalbesek, esan zuen bezala, "suaren pean" egiten da ikerketa. Ikertzailea *outsider* bat da, susmagarri bat, erraza da batzuek terroristen jarraitzaile gisa ikustea, eta besteek, berriz, Estatuaren agente gisa. Hori dela eta, filigranak egin behar dituzu, zorrotz jardun eta estrategia sotilak garatu berez iluna den gai baten

inguruan giza iturriak eta iturri dokumentalak lortzeko. Bestalde, oso aberasgarria da, ezagutza teorikoaren eremua zabaltzera behartzen zaituelako, sozio-demografiatik psiko-soziologiara, ideien historiatic eta historiatic pasatuz.

Ez dakit honekin betetzen ote ditudan Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroko kideek nigan jarri dituzten itxaropenak, zeren, agian, ikerketaren historia ikerketa bera baino zabalagoa eta atseginagoa izango litzateke. Nolanahi ere, Alenza kaletik pasatzen naizen bakoitzean, bertan polizia armatu bat hil zutela gogoratzen dut, eta California 47 kafetegia gogora etortzen zaidanean, non hainbeste aldiz gosaldue nuen (GRAPOk 1979an leherrarazia, bere gain hartu gabeko atentatu batean, non zortzi pertsona hil ziren eta beste asko zauritu edo elbarri geratu ziren), ezin dut saihestu lasai-lasai askaria (*brioche* bat agian) hartzen ari zen jendearengan eta haiek artatzen zituzten zerbitzariengan pentsatzea, eta ikara bat sentitzea.

HORACIO ROLDÁN BARBERO



Se cree que algunos de los participantes en el atentado forman parte del mismo grupo que dio muerte al empresario Claudio Sanmartín

El Grapo asalta el Banco de España en Santiago y asesina a dos guardias civiles

Santiago (Redacción). Cinco miembros del grupo terrorista Grapo asaltaron en la mañana de ayer la sede del Banco de España en Santiago y asesinaron, disparados, a dos guardias civiles que se encontraban de vigilancia. Las víctimas del atentado son Pedro Cabezas González, de 47 años de edad, natural de La Coruña, casado y padre de dos hijos, y Constantino Limia Nogueira, cinco años mayor, nacido en Xunqueira de Ambra (Ourense), casado y padre de tres hijos.

El comando, formado por dos hombres y tres mujeres, una de las cuales dirige sus movimientos, comenzó el atentado alrededor de las once y media de la mañana, hora en la que algunos de sus miembros entraron en las dependencias del banco y dispararon a sangre fría, en un intervalo de segundos, contra los miembros de la Benemérita. Inmediatamente advirtieron a los empleados de la oficina que se trataba de un atraco y escudaron a una mozo de oficina y a un administrativo para que les facilitasen el acceso a la caja fuerte.

Antes de convernerse de la inextinguibilidad del área blindada del banco, en donde se encontraron los testigos, empuñados, los terroristas efectuaron hasta un total de once disparos de revólver contra el cristal, que resistió el impacto. Acto seguido se dieron a la fuga. Aunque todavía no han podido ser localizados por las fuerzas de seguridad del Estado, parece que las autoridades han logrado establecer que la identidad de tres de ellos corresponde a Laureano Ortega Oruga, María Jesús Romero Vela y Esteban León Lara, integrantes del comando que asesino en La Coruña al industrial Claudio Sanmartín.

Parece fuera de toda duda que los terroristas huyeron a pie, cruzando el casco histórico de la ciudad compostelana hasta la zona del Ensanche, en donde, según se supiera, tomaron un automóvil Talbot Horizon de color amarillo. La Policía y la Guardia Civil establecieron serios controles en Santiago y otros puntos de Galicia.

La práctica totalidad de las instituciones gallegas, fuerzas políticas y sindicatos expresaron su repulsa por el atentado.



Constantino Limia Nogueira y Pedro Cabezas González son las víctimas del brutal asalto

El presidente de la Xunta, que visitó el lugar de los hechos poco después de producirse estos,

los condenó sin paliativos. El director del espacio de la Televisión Gallega, «Antena», decidió no incluir en el mismo el

minicomenzo que desde hace un mes presenta Mayte Cabezas, hija de uno de los infortunados guardias. * Página 17 a 19

Horacio Roldán Barbero zuzenbide penaleko irakaslea da Cordobako Unibertsitatean. Honako liburu hauek idatzi ditu: *Los GRAPO. Un estudio criminológico* (2008) eta *El maoísmo en España y el Tribunal de Orden Público (1964-1976)* (2010). Irudian, *La Voz de Galicia* egunkariaren lehen orrialdean, 1989ko martxoaren 11n, Constantino Limia Nogueira eta Pedro Cabezas González guardia zibilen erailketaren berri ematen da, aurreko egunean gertatua, Santiago de Compostelako Banco de Españaren eraikinean, biak ere GRAPOko komando terrorista baten biktima.

Joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan ideologia iraultzaileko talde politikoak izan ziren. Hamarkada horietan gertatutako aldaketa kultural garrantzitsuez gain, mendebaldeko Europako zenbait herrialdek (Italia, Frantzia, Belgika,

Espainia) hazi marxista-leninista berragertzen zela ikusi zuten.

Espainiako berreraikitze iraultzaile hori, Europako beste herrialde batzuetan nagusi ez zen erregimen politiko baten pean gertatu zen. Hemen eredu autokratiko bat zegoen; han, joera liberaleko sistema demokratiko bat. Denek bizi izan zuten aldi berean nazioarteko eragile berri batek, maoismoak, bideratutako energia matxino hori. Esentzia marxista-leninista berretsiko zuen erreferente gisa ikusi zuten Mao, izaera hori ez baitzitzaion jada Sobietar Batasunari esleitzen 1953an Stalin hil zenetik.

60ko eta 70eko hamarkadetako talde marxista-leninista gehienak beren aktibismo iraultzailea bertan behera uzten joan ziren Espainian Franco hil ondoren, eta, urtebete geroago, Maorena bera. Horietatik PCE (r) baino ez zen geratu, eta GRAPO haien barruan eratu zen talde armatu gisa 1975etik. Ez al zen posible izango diskurtso komunista batekin jarraitzea, indarkeriara, terrorismora jo gabe? Hori da historikoki GRAPOren berezitasuna. Garaiko talde maoista nagusia izan gabe, inondik ere ez, atentatu hilgarriekin eta beste gertaera kaltegile batzuekin jarraitu zuen bakarra izan zen, hala nola bahiketak, lehergailuen erabilera eta bankuei egindako lapurretak. FRAPEk ere, Francoren garaiko azken urteetan ezker erradikalaren jatorrizko talde bortitzak, ez zuen bide horretatik jarraitu.

Mende honetako lehen urteetan, PCEko (r) eta GRAPOko militanteekin izandako harreman pertsonalen bidez jakin nahi izan nuen zergatik bultzatu edo gauzatu zuten indarkeria. Bistan denez, indarkeriazko praxia urte haietan bertan behera geratzen ari zen jada, baina oraindik beren azken hilketa hilgarria burutu zuten 2006an, enpresari zaragozar bati estortsioa egiten saiatu ondoren. Emaiza: haren emazte Ana Isabel Herrero Izquierdo hilik gertatu zen.

Indarkeria politikoaren erreferenteak, Mao hilda egonda ere, Leninen obran aurkitu zituen GRAPOk. *Gerrillen gerra* opuskulua militante orori gomendatutako irakurketa izan zen. Era berean, Latinoamerikako herrialde batzuk amu modukoak izan ziren, beren lurrean gerrilla fakzioak agertzen hasi zirenean.

Denboran gehien luzatu den kasua Kolonbiako FARCena izan da, duela urte gutxi armagabetze eta errekonbentzio prozesuan dagoena. Azkenik, talde iraultzaileko ekintzaileek beti baztertu zituzten Espainiako Trantsizio politikoa eta 1978ko Konstituzioa gizartea eraldatzeko bitarteko gisa, eta sistema kapitalistaren iraunaraztean justifikatu zuten indarkeriaren jarraipena.

GRAPOk onartu behar du ekintza terroristek ez dutela balio izan langileen artean kultura iraultzailea sustatzeko. Talde matxino honen helburuei buruzko nahasmen interesatuak, era berean, lagundu egin du langileek, gutxiengo batek izan ezik, atentatuak noren izenean egiten zituen jakin ez zezaten. Juan Luis Cebrián eta Pedro J. Ramírez bezalako kazetari garrantzitsuek erakunde hau Polizia frankistak berak sortu zuela idatzi dute. Nahaste handia. Beti jarri izan da zalantzan zeintzuk ziren GRAPOren benetako helburuak. Baina, beste edozein kontsiderazioren gainetik, Espainiako gizarteak oro har, agian erregimenaren aldaketaren lehen uneak igaro ondoren, helburu ideologikoak aitzakiatzat hartzen dituen indarkeriaren edozein erabilera gaitzetsi du.

Zer geratzen da gaur egun aktibismo bortitz horretatik? Bere militanteak beren bizitzaren zati handi bat amestutako kausa bati sakrifikatu dioten pertsonak dira: abangoardia iraultzaile batek zuzendutako sistema komunista bat, langile masa handi baten alde. Espetxe-aldi luzeak, torturak, heriotzak poliziarekin edo GuardiaZibilarekin izandako liskarretan, gose-greba dramatikoak, familia-hausturak... Horiek izan dira bere jardueraren ondorio nabariak. Eta, garaiak kontrakoak zaizkiela badakiten arren, haietako askok beren existentziari arrazoia eman zion (kasu askotan, oraindik ere ematen dion) ideologiari atxikita jarraitzen dute.

Eginahalaren ondoren, jarduera armatuaren biktimak daude. GRAPOk ez du inoiz ETak Euskal Herrian, batez ere Euskadi sakonean, sortu zuena bezalako terrore lausorik lortu. Haren eragina Madrilgo, Vigoko edo Cadizeko auzo edo herrigune txiki batzuetan baino ez da nabarmendu. Baina bidean txikia ez den biktima kopuru *jakin* bat geratu da. Nire ikerketen arabera, 85

pertsona hil dira talde armatuaren ekintzen ondorioz. Gehien kaltetutako sektorea polizia eta guardia zibilena izan da. Militarrek, enpresaburuak, udaltzainak, segurtasun-zaintzaileak eta Estatuaren goi-ordezkarik batzuk ere, horietako bakoitza lehenengoak baino askoz ere gutxiago, erakunde armatuaren balen mende erori dira.

GRAPOk eragindako hildakoen sekuentziazioan ikus daitekeenez, haien jarduera-aldi handiena 1975 eta 1984 artekoa da, hamarkada horretan 71 heriotza eragin baitzituzten. Urtean zazpitik gora, batez beste. 1985etik aurrera, atentatu hilgarriak nabarmen jaitsi ziren, eta 2006ra arte 14 izan ziren. Gogora ekarriko dut aitortutako lehen biktima Casimiro Sánchez García guardia zibila izan zela, 1975eko abuztuaren 2an hil zutena, artean izen hori ere ez zutenean —GRAPO—, eta ia inork ez zuenean talde maoista hori ezagutzen. Izan ere, poliziak FRAPi egotzi zion hasiera batean atentatua.

Beti eztabaidagai izan da California kafetegi zaharraren kasua, 1979ko maiatzaren 26an. Eztabaida biktimak *zibilak* eta *bereizi gabeak* izatetik etorri da, talde iraultzailearen aldetik atentatuak egiteko ezohiko modua. Bederatzi pertsona hil ziren atentatuaren ondorioz. Kafetegi horrek eskuin muturreko pertsonak fidelizatzeko ospea zuen garai hartako Madrilen. Dena nahasgarria izan zen: GRAPOk poliziari abisatu ote zion, bonba benetan lokal horretan ez ote zuten jarri eta norbaitek bertara eramane ote zuen... Edonola ere, PCE (berreratua)-ren egunkari organikoetako batean, ekintza gaitzetsi arren, hura legitimatzen saiatu ziren, hain zuzen ere bezeroen jatorri ideologikoan oinarrituta.

Historia astun honen amaieran sufrimendua besterik ez da egon: laidoztatuena eta erasotzaileena. Oinazeko gertakari bat, hildakoen eta beren pertsona maiteena.

ZUEN AITAZ HARRO

JOSEFA YANGÜELA



Josefa Yangüela José Ramón Muñoz Fernández Zaragozako Miguel
Servet Ospitaleko Barne Medikuntzako Zerbitzuko buruaren alarguna
da, 1990eko martxoaren 27an GRAPOk eraila.

Zaragozako Miguel Servet ospitalean gose-greban zeuden bi grapo ospitaleratu zituzten, egoera kritikoan. GRAPOk ez zuen nahi haiek suspertzea, hiltzea eta biktimarenak egitea nahi zuten. Baina, ospitaleratuta egonda, medikuek ezin zituzten hiltzen utzi. Arazotsuak zirenez, mediku bakar batek ere ez zituen tratatu nahi. Bazekiten zer arrisku zuten. Nire senarra saileko burua zen, eta haietako baten ardura hartu behar izan zuen; eta beste mediku bat bigarren kideaz arduratu zen. Hilabete zailak izan ziren. Grapoek

ez zuten nahi haiek elikatzea. Haiek indarberritzea oso zaila izan zen, hain gaizki zeudenez, hidratazioa eta elikadura oso pixkanaka eman behar zitzaielako.

GRAPO erakundeak etengabe mehatxatzen zituen. Hil aurreko egunean, erizain moja batek kontatu zidan grapoen senideak nire senarra bere bulegotik noiz irtengo zain zeudela, eta "bihar albisteren bat" izango zuela esan zioten. Hurrengo egunean Logroñora joan nintzen ama ikustera, oso heldua baitzen. Senarra izan zen ni joatea nahi zuena. Arratsaldean, gure etxe berean zegoen bere kontsulta pribatuan zegoela, pertsona batzuek kontsultarako ordua eskatu zuten, gaixo plantak eginez. Sartzean, tiro batzuk eman zizkioten buruan, eta berehala hil zen. Bi grapo ziren, gizon bat eta emakume bat, eta erakundeko burua Fernando Silva Sande zen.

Logroñotik bueltan, etxera iristean ezin nintzen pasa, hainbeste jende zegoen... Eta okerreana pentsatu nuen. Atarira iristean, polizia batek ez zidan sartzan utzi. Muñoz doktorearen emaztea nintzela esan nion, eta berak erantzun zidan: "Atsekabeen laguntzen dizut". Horrela jakin nuen nik. 14 eta 15 urteko nire bi semeak etxean zeuden nire zain, eta berehala etorri zen nire alaba, jada etxean nengoela. Mina ikaragarria izan zen. Denok elkar besarkatuta, esan nien: "Zuen aitaz harro egon zaitezket, bi pertsona salbatzeagatik, terroristak izanda ere, bizia galdu baitu".

PUBLIO CORDÓNEN OROIMENEZ

CARMEN CORDÓN



Carmen Cordón 1995eko ekainaren 27an GRAPOk Zaragozan bahitu zuen Publio Cordón enpresariaren alaba da. *Historia de un secuestro: toda la verdad sobre el caso de Publio Cordón, contada por su hija* (2009) liburua argitaratu du.

GRAPOk nire aita Publio Cordón bahitu eta erail zuen 1995eko ekainean. Baieztapen sinple bezain gordin hori, 20 urte baino gehiago igaro ondoren, ez da oraindik errealitate ukigarria, haren gorpua aurkitu ez delako. Ezin izan dira argitu haren heriotzaren benetako inguruabarrak. Hiltzaileen testigantzak baino ez ditugu izan, eta ezin izan dira argitu delitu hartan inplikaturako guztien erantzukizunak. Delitu hori ez zen biren kontua izan, baizik eta ondo antolatutako talde terrorista batek burututako ekintza bat. Talde horren ekintzek 80 hildako baino gehiago eragin zituzten. Ideologia bati eusten dion talde antolatu bat, Espainiako Alderdi Komunista berreratuarena, antisistema *vintage* batzuk, gaur berriro agertokian sartzen ari direnak, rap-kantariz, suminduz eta biktimismo faltsuz mozorrotuta.

“Justizia” sozialaren alde espantua egiten dituzten komunista eta antisistema horiei guztiei esan nahi diet Publio Cordón, nire aita, gerra zibilaren ondoren aitaz umezurtz geratu zen haur pobre bat izan zela. Bide batez esanda, aita errepublikazalea zuen, eta herri-maisua zen. Bere herrixka, bere etxea utzi behar izan zuen haur bat izan zen, bere ama eta arrebaren eskutik, gosez eta hotzez hiltzea saihesteko. Zaragozan hazi zen, bere ama gaztea, Benita Munilla, goizero artilez apaindutako beroki batean bilduta ateratzen zela ikusita, hainbat lanpostu betetzeko eta bera eta bere arreba Ester aurrera atera ahal izateko. Kontatzen zigunez, haurra zelarik, asko sufritzen zuen etxean diruz lagundu ezin zuelako eta amak bere izerdiz ordaintzen zituen ikasketetan arreta jarri behar zuelako. Barre egiten zioten ikasgelan, bere testuliburuak eskuz egin eta etxean jositako kopiak zirelako. 10 urterekin zin egin zuen arrakastaren atzetik ibiliko zela, eta atsedetik gabe lan egingo zuela bere familiari inoiz gehiago ezer falta ez zekion.

Karismatikoa zen, herrikoa, segurtasun ekonomikoaren aldeko borrokari ekin zion, Aragoi eta Errioxa osoan zehar atez ateko aseguruak salduz, 16 urte zituela. Mila aldiz porrot egin zuen, sudurren aurrean atearen danbatekoa jasota, eta beste hainbatetan saltzea lortu zuen. Gazte baikorra zen, suhar geldiezina, eta lan gogorrak eta ustekabeek ez zuten inoiz etsiarazi. “Amore ematen duenak baino ez du porrot egiten”, hori zen bere leloa. Behin kontatu zigun nola lortu zuen bere lehen aseguru-poliza auto-kontzesionario bati saltzea, non langile guztiek sinatu zuten. Orduko 7.000 pezeta irabazi zituen, etxera pozez jauzika itzuli, eta, iristean, zazpi mila pezetak sukaldeko lurrean jarri zituzten, biribil moduan, ama, arreba eta bera barruan elkarrekin dantzan aritzeko.

Amaren ekinari esker, hiriko elitearekin ikasi zuen, lagunak eta etsaiak egin zituen. Ikasketetan nabarmentzen bazen, gizarte-errespetua irabazten zuela konturatu zen, eta ez zion bere burua prestatzeari eta gainditzeari utzi. Aldi berean lan egin eta ikasten zuen, eta unibertsitateko lau karrera eta IESEko master bat metatzera iritsi zen; hori izan zen bere amaren ahaleginari eskerrak emateko modua. Gizon enpatikoa izan zen, eta esfortzua,

lana eta ongia egitea (nori egiten zion begiratu gabe) bihurtu ziren bere filosofia, bizitzan beti lagun izan zuena, eta hori izan da nire bizitzako ekintza guztietan nik ere lagun izan dudana haztegia.

“Justizia sozial”aren mesedetan, “kapitalista” hori atxiki zuten terroristei, berak “herriari lapurtutakoa” “desjabetzeko”, esango nieke bera zela herria, eta lortu zuen guztia merkatu librearen ekonomiaren munduan sartuz lortu zuela, eta partida bere arauekin irabazi ziela. Bere jatorriagatik gorrotorik eta aurreiritzirik gabeko gizona izan zela, eta maitemindu gazte bat izan zela, Pilar bere bizitzako emaztearen maitasuna konkistatu zuena. Familia oneko neska bat, ziur aski “suminduek eta antisistemek” gorroto duten guztia gorpuzten zuena. Pilar Murok, Aragoiko Falangearen buru izan zen mediku baten alabak, harengan erreparatu zuen. Artista oso ederra, intuitiboa, aurrerakoia eta izaera handikoa zen, puntu errebelde eta bohemio horrekin, guztia alde batera utzi eta bere bizitza beheak eta goiak irentsi nahi zituen “ero” horri emateko beharrezkoa. Elkarrekin bost anai-arreben familia zoragarri bat sortu zuten. Nire familia.

Oparotasunean hazi arren, austeritatean eta sakrifizio pertsonalaren eta zoriontasuna lortzeko lorpen pertsonalen balioan hezi gintuzten. Erakutsi ziguten ideologia, ideiak eta estatus sozial edo ekonomikoa ez daudela inoiz pertsonen gainetik. Nire etxean beti sustatu zuten izpiritu kritikoa, egiaren aurpegi ezberdinak, ideia propioen balioa, eta lehenetsi egin zuten pertsonen begietara begiratzea, aurrean genuenaren arima ikusteko, pertsonak katalogatu eta gorroto irrazionala sustatzen duen edozein aurreiritzi sektarioren aurretik. Gaur egun, horren modan dauden aurreiritzi horiek, liderrek masa inozoa maneiatzeko erabiltzen dituztenak.

Biek, Publiok eta Pilarrek, bat eginik, gure bizitza zen pribilegioa guri emateko borrokatu zuten, eta, elkarrekin ere, froga izugarriak jasan zituzten, hala nola, beren lehensemearen, nire anaia zaharrenaren, heriotza.

Nire aitak, gizon bikain eta oso maitatu horrek, bere bultzadarekin milaka familiarentzat enplegua eta aberastasuna sortu zuenak, hiru kaputxadun zituen zain etxearen kanpoaldean,

bere eguneroko *running* saioa egin bitartean, eta bahitu egin zuten 1995eko ekainaren 27an. Badirudi arriskua ikusi zuela hurbildu zirenean, ihes egiten saiatu zela, jazarri egin zutela, lurrera bota zutela, furgoneta batean kolpeka sartu, eta eraman egin zutela. Ez genuen berriro ikusi.

GRAPOkoek, 70eko hamarkadatik eszenatik agertu eta desagertzen ziren terrorista horiek, Espainia komunista bat nahi zuten... eta bere diru kapitalista, noski. Ez zuten gure aitaren bizitza errespetatu ezta 400 milioi pezeta biltzea eta haiei ematea kostatu zitzaigun denbora-epean ere. Zutik egoterik ez zegoen eskailera batzuen azpiko zulo batean eduki zuten, negar egin zuen, sufritu egin zuen, bere bizitzagatik erregutu zuen. Catibualdian, armairu batean kateatu zuten, eta ordu jakin batzuetan bakarrik ateratzen zen handik hankak luzatzera. Nire aitaren hiltzaileek diotenez, ihes egiten saiatu zen, haiek izandako hutsegite bat baliatuta, balkoi batetik lurrera erori, kolpearekin bizkarra hautsi eta tetraplegiko geratu zen, mugitu ezinik. Zer egin ez zekitela, eta bandaren Parisko kupulatik jarraibiderik jaso ez zutenez, zulora arrastaka eraman, giltzapetu eta zokoratuta hiltzen utzi zutela kontatu zuten, bizkarra zatituta eta txakur baten antzera uluka (hitzez hitz).

Hori izan zen bere familiaren oparotasunarekin amets egin zuen Soriako umezurtzaren amaiera.

Memoria gutxiko eta sentiberatasun anestesiatuko herrialdea gara, ez dakit informazio gehiegi dugulako edo analisi kritikoa egiteko gaitasunik ez dugulako. Nire aitagaur burua altxatuko balu, zer esaten duten ez dakiten rap-kantari gazteen errimak entzungo zituzkeen, bere tortura ospatzen. Bere hiltzaileen banderak ikusiko zituzkeen erreboltari "suminduen" manifestazioetan kulunkan. Zenbait zinegotziren adierazpenak irakurriko zituzkeen hedabideetan, terrorearen biktimen zorigaitzari iseka eginez, eta gaur egun hiltzaileek kargu publikoak nola betetzen dituzten ikusiko zukeen. Eta neure buruari galdetzen diot: zer irakaspen eskaintzen ari gara? Espainian, hauxe da ikasgaia: talde mafioso batek motibo erromantiko bat asmatzen badu krimena bere *modus vivendia* bihurtzeko, eta Gobernu

terrorearekin eta jarraitutasunaren bidez presionatzen badu urteetan, inpunitate osoan alde egiten du.

Ez dakit zein gaixotasun mentalek bultzatzen duen gizakia pentsatzera bere ideiek bizitzak hiltzea justifikatzen duela. Hogei urteko itxaronaldi honetan, epaiketen eta legeen justizia ere merezi ez duten hiltzaile eta zapaltzaile lotsagabeen gezurren artean, haien gizatasunera jotzea besterik ez zait geratzen, ezer geratzen bazaie. Bilobak bere eredupean distiratzten ikusteko zoriona ebatsi ziotenez; nire amona, bere ama harroa, bere semearekin zer gertatu zen jakin gabe hiltzen utzi zuten, eta bere urterik gozo eta urrezkoenak gozatzera erretiratzeko asmoa zuen gizon inspiratzaile haren konpainia ukatu zigutenez, aitortu dezatela egia, hileta duin bat egin ahal izateko, arimarentzako arnika pixka bat, gure dolua egin eta zauri odoltsu hau itxi ahal izateko.

ZERGATIK HELDU NAIZEN TERRORISMOA AZTERTZERA

JUAN AVILÉS



Juan Avilés Historian doktorea eta UNEDeko Historia Garaikideko Departamentuko katedraduna zen. Terrorismoari buruzko hainbat libururen egilea zen, adibidez, *Historia del terrorismo yihadista: de Al Qaeda al Daesh* (2017).

Nire senide eta lagunak zirkulu hurbilenean inork ez du inoiz terrorismoaren eragin zuzenik izan, eta, hala ere, esan dezaket terrorismoak nire bizitza markatu duela, hainbeste espainiarrena markatu duen bezala. Urte luzez egunkaria irekitzeak edo albistegiaren hasiera ikusteak maiz ekarri izan du atentatu berri bati aurre egitea. Oso ondo gogoratzen dut non nengoen, eta norekin, egunkari bateko lerroburuek Atocha kaleko abokatu-bulego batean izandako sarraskiaren berri tragikoa eman zidatenean, nire autoko irratitik bi hegazkinek Dorre Bikien aurka jo zutela entzun nuenean, telefono-dei baten bidez jakin nuenean zenbait bonbek eztanda egin zutela nire semeak goizero hartzen zituenak bezalako aldirietako trenetan, mugikorreko

pantailan ikusi nuenean atentatu batek heriotzak eragin zituela Rambletan. ETA, batez ere, obsesio bihurtu zen niretzat.

Ez daukat zalantzarik zein manifestaziotan parte hartu dudan emozio handiagoarekin, eta biak krimen terroristei erantzuteko izan ziren. Lehenengoa, 1977an, ultraeskuineko kriminalek (susmo hori zegoen, eta gero baieztatu egin zen) Atochan hildako abokatuei omenaldia egin ziena izan zen. Orduan mina eta beldurra sentitu nituen, baina baita protesta-adierazpen masibo eta lasai hark trantsizio baketsu bat iragartzeko itxaropena ere: biolentoak ez ziren nagusituko. Bigarrena hogeiei urte geroago izan zen, madrildarren uholde handi batek kaleak bete zituenean, Miguel Ángel Blanco zinegotzia ETako terroristek bahitu zutela- eta protesta egiteko. Emaztearekin eta seme-alabekin iritsi nintzen lepo zihoan aldiriko tren batean, eta bagoi osoa Recoletoseko geltokian hustu zen uneko zirrara senti dezaket oraindik: denok gindoazen Miguel Ángeli elkartasuna adieraztera. Azken hau Alderdi Popularreko zinegotzia izatea eta Atochako abokatuek Alderdi Komunistarekin lotura izatea niretzat, manifestazio batean eta bestean parte hartu genuen pertsona askorentzat bezala, guztiz garrantzirik gabea zen: biktimekiko elkartasunak ez du ideologekin zerikusirik, ezta demokrazia bere etsaien aurrean defendatzeak ere.

Oso azkar uztartu nituen nire oinaze, amorru eta ezintasun sentimenduak hain higuingarria zitzaidan terrorismoaren fenomeno hori aztertzeke grina intelektualarekin. Hala ere, luzaroan beste gai batzuk jorratu nituen historialari gisa. Bi bide guztiz desberdinetatik iritsi nintzen terrorismoa aztertzerara. Unibertsitateko ikasle izan nintzenetik, Francisco Ferrer Guardia pedagogo libertarioa fusilatzeke arrazoiek jakin-mina piztu zidaten, zeina 1909ko matxinada antiklerikalaren —historiara Aste Tragikoa bezala igaro dena— buruzagi izateagatik kondenatu baitzuten oinarririk gabe, eta, era berean, jendetzak bere haserre eraikin eklesiastikoen aurka zuzendu izanaren arrazoiek ere jakin-mina piztu zidaten. Ferrer akusatu eta absolbitu egin zuten Madrilgo historiako atentaturik larrienetako batean, Alfontso XIII.a eta Victoria erreginaren arteko ezkontzaren kariaz hogeita

hiru hildako eragin zituen horretan ustez konplizea izateagatik. Beraz, *Francisco Ferrer y Guardia: pedagogo, anarquista y mártir* (2006) liburua ekarri zuen ikerketa biografiko bati ekin nion. Azterlan hark piztu zidan anarkistenganako interesa, gaur egun terrorismotzat hartzen dugunarekin guztiz bat datorren indarkeria mota bat erabili zuten lehenak; hau da, prentsan sortzen zuten oihartzunaren bidez iritzi publikoan eragina izateko pentsatutako atentatuekin, haiek *gertakariaren aldeko propaganda* deitu zutena. Ikerketa horren emaitza izan zen *La daga y la dinamita: los anarquistas y el nacimiento del terrorismo* (2013) liburua. Liburu horretan, Espainiako historia nazioarteko testuinguru batean kokatu gabe ezin dela ulertu sinetsita, XIX. mendearen amaieran Bartzelonan izandako atentatuak eta Parisen edo Chicagon izandako beste batzuk lotu nituen.

Anarkismo bortitza aztertzen nuen bitartean, historiak bere bidea jarraitu, eta terrorismoa aro berri batean sartu zen, aurrekoak baino askoz hilgarriagoa. 2001ean New Yorkeko eta Washingtingo atentatu izugarriak gertatu zirenean, Guardia Zibilaren Azterketa eta Prospektiba Zentroarekin kolaboratzen nuen. Esperientzia horri esker, gertutik ezagutu ahal izan nuen erakunde hori, zeinaren gizonak eta emakumeek ETaren terrorismoaren aurkako borrokan modu erabakigarrian lagundu baitzuten eta prezio oso altua ordaindu baitzuten horregatik. Atentatu haietatik egun batzuetara, internet bezalako tresna zoragarri baten laguntzarekin, gaztea nintzenean imajinaezina, Al Qaeda buruz dokumentatzen hasi nintzen. Gogoan dut 2004ko martxoaren 11ko atentatuak gaitzesteko manifestazioa, non Al Qaedaren eta ETaren aurkako gaitzespen oihuek bat egin zuten (atentatuen erantzukizuna oraindik ez zegoen argi). Eta gogoan dut harrituta geratu nintzela jihadistak erantzukizun eksklusiboa zalantzan jartzen zuten eta ikerketa judizialarekiko mesfidantza ereiten zuten interpretazio konspiratiboengatik. Horrek indartu egin zuen nire uste osoa, historialaria ez dela benetako gertakariez bakarrik arduratu behar, baizik eta talde-irudipenez; hori dela eta, terrorismoaren historia haren eragin traumatikoak batzuetan sortzen duen teoria konspiratiboena ere bada, eta kalte larria

egiten dio batzuetan erakundeekiko konfiantzari eta herritarren arteko elkartasunari. Gero, Al Qaedaaren gainbehera eta Daexen igoera etorri ziren, eta orain, azken honek bere lurralde-oinarria galdu duenez, auskalo zer mehatxu terrorista berriri aurre egin beharko diogun. Horretaz guztiaz dudan kezka emaitza izan da *Historia del terrorismo yihadista: de Al Qaeda al Daesh* (2017) liburua.

Baina hain gaurkotasun handia duen gai horrekin batera, nire lehen gaztarotik datorren beste bat ere interesatzen zait azkenaldian. Batxilergoko ikasketak bukatzen ari nintzela, Parisko maiatzeko errebeldia gazte eta erromantikoko gertaerak jazo ziren. Pentsatzekoa denez, zer zen oso ondo ez nekien zerbaitekiko gogo bizia piztu zuten nigan. Udazken hartan, Madrilgo 68 unibertsitariora bizi izan nuen pixka bat, batzarrekin eta eztabaidekin, baina berehala iritsi ziren salbuespen-egoera eta polizia fakultateetan sartzea, eta giroa ilundu egin zen. Urte batzuetan gazteen protestako mugimenduak indarra galdu zuen herrialde guztietan, eta batzuen kasuan, berriz, errebeldia erradikala terrorismo bihurtu zen. 1968ko maiatzean irudimenak boterea hartu nahi zuen giro itxaropentsu batean, ekainean ETA erailtzen hasi zen, 1969ko udan indarkeria nagusitu zen Ipar Irlandako kaleetan eta urte horretako abenduan atentatu neofaxista batek heriotza eta izua zabaltu zituen Milango plaza batean. Horrela hasi ziren berunezko urteak deiturikoak, gaur egun nire aztergaia direnak, lankide bikainekin parte hartzen dudan ikerketa-proiektu baten esparruan.

JOSÉ ARTURO, NIRE ANAIA. EL DESCANSOKO BIKTIMETAKO BAT, EPAITU GABEKO ATENTATU BAT

MARÍA JOSÉ RODRÍGUEZ PATO



María José Rodríguez Pato 1985eko apirilaren 12an Madrilgo El Descanso jatetxearen aurka Espainian egindako lehen atentatu jihadistan hil zuten José Arturoren arreba da.

1985eko apirilaren 12an, nire anaia José Arturo Rodríguez Pato erail zuten El Descanso jatetxean, emaztearekin eta beste bikote batekin afaltzeko mahai baten zain zegoela.

HORRELA KOA ZEN BERA

José Arturo 1951ko uztailaren 6an jaio zen Madrilen. Aparejadore ikasketak egin zituen Complutense Unibertsitatean. Garai hartako ikasleen protestak bizi izan zituen, eta manifestatzeko adinik ez genuenoi zergatia azaltzen zigun. Gure anaia nagusia zen. Pertsona ona eta lagun handia. Ez da idealizatuta daukadalako, niretzat nire gida izan zen, nire sostengua une oro. Beti izaten zuen irribarre

bat eskaintzeko, eta trebetasun zoragarri hori besteak lasaitzeko, arrazoiarazteko eta gauzak argiago ikus zenitzan lortzeko.

Hasieran lana lortu zuen bere arloan. Oso pozik zegoen, bizitza ondo zihoakion, ezkontzea erabaki zuen, eta, etxean izaten ez bagenuen ere, beti prest egoten zen behar genuenerako. Baina, gauza onek betiko irauten ez dutenez, krisia iritsi zen, eta beste gauza batzuetan lan egin behar izan zuen. Gehien gustatzen zitzaiona ez bazen ere, bere interes eta kemen guztiarekin egiten zuen. Dena egiten zuen moduan. Bisitan etortzen zitzaigunean, lore batzuk ekartzen zituen amarentzat, eta beti egoten zen adi eta prest hark eskatzen zionerako, batez ere etxeko konponketak egiteko, oso ondo moldatzen baitzen. Nire oporretan haiek zeuden lekura joaten nintzen: Cadizera, Almeriara... Ez ditut inoiz ahaztuko uda haiek eta haren irribarrea.

HORRELA ZAPUZTU ZIOTEN BIZITZA, BAITA GUREAK ERE

Egun horretan, 1985eko apirilaren 12an, Arturok lan on bat lortu zuela ospatu behar zuen. Hilabete pare bat lehenago oposizio bat gainditzea lortu zuen. Madrilen lortu zuen plaza, familiarengandik gertu. Egun horretan, gutako edozeinek bezala, hura ospatzera eta lagun batzuekin gozatzerara irtetea erabaki zuten. 33 urte zituen, eta mila proiektu betetzeko.

Hori da, urteetan zehar, atentatuaren biktima batzuek kontatu didatena atentatuari berari buruz. Barran zeuden, afaltzeko mahaia noiz emango zain. Hiltzaileak poltsa bat utzi zuen lehegailuekin, eta lasai-lasai joan zen. Bonbaren eztandak 18 pertsona hil zituen, tartean nire anaia, eta 100 zauritu inguru eragin zituen.

Egun hartan etxean nengoen unibertsitateko azterketa partzialerako ikasten. Gurasoak asteburuaz gozatzen ari ziren Mendilerroan. Afaltzen ari nintzela, Telediario-an ikusi nuen berria, eta, beste edozeini bezala, beldurgarria iruditu zitzaidan, eta gaizki sentitu nintzen han zegoen jendeagatik. Ez nekien haietako bat nire anaia zenik. Ohera joan nintzen, eta goizeko

ordu biak aldera telefonoak jo zuen. Ez dakit nor zen. Nire koinata Ramón y Cajálen zegoela esan zigun, baina ez zekiten zein ospitaletara eraman zuten gure anaia. Gurasoei deitu genien, eta berehala itzuli ziren. Denok etxean ginela, Arturoren bila joan behar genuela erabaki genuen. Madrilgo ospitale guztietan ibili ginen, baina bakar batean ere ez zekiten hari buruz ezer esaten. Inork ez zigun berririk ematen. Irratia jarrita genuen, garai hartako komunikabiderik berehalakoena baitzen. José María Garcíaak, garai hartako kirol esatari ezagun batek, biktimen zerrenda irakurri zuen. Irratiaren bidez jakin behar izan genuen: Arturo eraildakoen artean zegoen.

Une horretan amak egongelako besaulki baten gainean konortea galdu zuen. Nire gurasoei ere zerbait hil zieten une horretan. Uste dut aurrera egitea lortu zutela, berezkoa zuten kemenarekin, beste seme-alaba txiki batzuk zituztelako eta hazten lagundu behar zitelako. Baina barrutik apurtuta zeuden. Ama emakumerikaktiboena eta osasuntsuena izatetik, dena somatizatzerara igaro zen. Ez bera ez nire aita ez ziren lehengo berak izan. Oinazeak, minak ondorioak ekarri zizkien, eta goizegi hil ziren biak.

Hurrengo hilabeteak hodei batean bezala bizi izan genituen. Ez genuen ulertzen. Ez genekien zer gertatu zen. Jihad islamiarrak, garai hartan guretzat eta gure inguruko jendearentzat ezezaguna zenak, atentatua erreibindikatu zuela esan ziguten. Inork ez zigun azalpenik eman, eta ez zigun esan zer zen hori. Nire anaia erail egin zuten. Nire koinata bizirik atera zen, baina dena metrailaz beteta eta gaur egun ere jasan behar dituen ondorio askorekin. Bera zen anaiarengandik geratzen zitzaidan gauzarik hurbilena, eta, beraz, ahalegin guztia egin nuen hari laguntzeko, aldi berean, neure buruari laguntzeko. Asimilazioa oso zaila izan zen.

Sumarioa oso luzea da, oso mardula, esan didatenez. Ez dut ikusi eta ez dut ikusteko aukerarik izan. Ez ziguten ezeren berri eman, ez jakinarazpenik, ez inolako informaziorik. Ezer ez. Sumarioa luzea izan arren, atentatu hau ez da epaitu. Ez dut ulertzen!

Nire informazioen arabera, zenbait lekukok Mustafa Setmarian (Poliziaren erregistroko argazki piloaren artean)

“ustezko” hiltzailea bezala ezagutu zuten, bonba lasai-lasai utzi eta ezer gertatuko ez balitz bezala joan zen koldarra bezala. Nolatan ez zuten atxilotu, galdekatu, epaitu? Atentatuaren ondoren, “gizon” hori Espainiako lurraldean bizi izan da, eta familia bat eratu du. Ez dakit zer gertatu zen ikerketa horrekin; non geratu zen “justizia”. Ulergaitza egiten zait!

Une horretan ez zegoen biktimen elkarterik, eta are gutxiago atentatu islamisten biktimentzat; beraz, bakarrik geunden. Nire gurasoek sufritu zuten gehien. Lagun onen eta familiaren babesa besterik ez zuten izan.

Atentatu horren biktima gehienek nahiago izan zuten isolatu eta bere erara eramaten saiatu, bakarka. Eta Espainiako gizarteak, denborarekin, ahaztu egin zuen.

Gerora gertatu den atentatu bakoitzarekin, dagoeneko sendatuta, gutxienez gaindituta, zeudela uste genuen sentimendu guztiak berpiztu zaizkigu. Baina ez. Norbait horrela galtzearen mina ez da ahazten, arindu egiten da, baina egokiera txikienaren aurrean, dena itzultzen da. Ez gaude mingostuta, minduta gaude. Pena ez da inoiz desagertzen. Orain gauzak desberdinak dira, biktimek laguntza eta aitortza asko dituzte, eskerrak! Eta biktima horietako batek ere ez du merezi ahaztua izatea, horregatik da garrantzitsua gure testigantza. Esperientzia izugarri hori bizi izan ez dutenek gure hitzekin ulertu ahal izan dezatela zer pasatu behar izan dugun, eta borrokatu egin behar dela gertakari horiek errepika ez daitezen.

Hainbeste urte igaro badira ere, jada 33. borrokan jarraituko dut nire anaiaren hilketa ahanzturan eror ez dadin. Eta gaur egun ilusio izpi bat dago: Madrilgo herri txiki bateko plaza txiki batek, zeinarekin lotura handia izan dugun beti (Soto del Real) eta non nire anaia lurperatuta dagoen, bere izena eramatea onartu berri dute: José Arturo Rodríguez Pato. Mila esker.

Oharra: nire koinatak dio hitz apur hauek besterik ez dituela jarri nahi: “Arturo, kidea, laguna, maitalea, senarra, zure falta sentitzen dut oraindik. Ez dut ahazten, ez barkatzen”.

OSTEGUNETAN

ANTONIO M. UTRERA



Antonio Miguel Utrera, historian lizentziatua, larri zauritu zuten 2004ko martxoaren 11n Madrilen izandako atentatu jihadistetan.

Osteguna izango da, zeren gaur, bertso hauek
hitz lauz jartzen ari naizela, txarrean jarri zaizkit
besahezurrak, eta sekula ez naiz lehenago,
gaur bezala, nire bide guztiarekin bakarrik izan. [...]
CÉSAR VALLEJO, "Harri beltza xuriaren gainean"

Iraganari begiratzen diozun bakoitzean, zure bizitzaren kontakizuna desberdina da bere ñabarduretan, gertatutako gauzen labirintoak bere hormak apetaz aldatuko balitu bezala. Ibilitako bidea osatzen duten elementuen aldaketak eta mutazioak apalak eta isilak izan ohi dira, baina behar bezain iraunkorrak, denboraren joanean, iragandako egunen islak gaur egungo uneari egokitutako

memoria desberdina eman dezan. Benetan gertatutakoa eta bizi izandakoa berehala ahazten duzu. Iragana orainaldira moldatzen da, ez gutxitan, etorkizuna eramangarriagoa izan dadin.

Literaturari esker, badakizu errealtateak ez duela ezer komunean egiantzekotasunarekin, eta iragana desitxuratzen den modu gaizto horregatik, ohikoa da zure bizitzako apunteak garbira pasatzeko lanari aurre egiten diozunean, zure bizitzak fabula kutsua izatea.

Hamalau urte igaro dira jada 2004ko martxoaren 11ko atentatu terroristetatik. Zein eskubiderekin hitz egin dezake hogeita hamabi urteko gizon batek hemezortzi urteko nerabe bati gertatu zitzaionaz, fikzio batera, iragana berreraikitze hotsera joz ez bada? Guztiarekin, nire testigantza tresna literario bat da. Bada, horregatik, nire kontakizunean sinesgaiztasunak daude, eta haietatik hasi behar dut.

Sinesgaitza da, adibidez, bidaiatzen ari nintzen trenak eztanda egin zuen kalea (Téllez) nire institutuko zuzendariaren (Marañon doktorea) abizena izatea, eta ordu batzuk geroago, institutuari izena ematen dion zientzialariaren izen bera duen ospitalera ni eramatea, konorterik gabe eta larri zaurituta.

Sinesgaitza eta ezin justifikatuzkoa da nire zorioneko zenbakia hogeita bira izatea, nire bizitza erdibitu zuen hilaren 11ko osteguneko goiz hartan. Bi erdi, Aurrekoa eta Ondorena, etortzeko zeuden egun zuri-ilunak egituratzeko ardatz gisa.

Are sinesgaitzagoa, ostegunak eta besahezurrak poema batean hizpide hartu zituen César Vallejok, poema hartan bertan bere heriotza Parisen iragarri izana, hura gertatu baino lehenago. Berehala neure egin nituen bertso horiek, nire existentzia traumatizatuaren erradiografia bat balira bezala, poeman ohartarazten zen bezala, ostegunez eta mamuz beteak.

2004ko martxoaren 11ko goizak, orain ikusten dudana bezala, badu zerbait onirikotik, lainotsutik. Ni naiz oraindik gaua denean jaiki, eta iratzargailua eskukatu zuena isilarazteko. Haztamuka jaiki nintzen, eta loaren pisua betazaletan, baldarki jantzi nintzen. Unibertsitatean metodikoa izaten hasia zen ikasle txarraren idazmahai gainean, ikasleen sindikatuak egun horretarako,

martxoaren 11rako, greba eguna iragartzeko prestatu zuen paskina. Une batez, ohera itzultzeko eta argiak itzaltzeko aukera aztertu nuen. Hala ere, nire oinek beste plan bat zuten niretzat, eta aurki nengoen autobusean Torrejón de Ardozera bidean. Autobus horretan ezagutzen ez nuen norbaitek ni bertara igotzen ikusi, eta urrutitik begiratzen ninduen. Bera da nire M-11ko lehen sinesgaiztasuna.

Trenera igo nintzen, ez dakit zein bagoitan eta zein ordutan zehazki. Gero harrigarria badirudi ere, geltokiko aire hotzean ez zen inolako iragarpenik irakurtzen, ez eta azkeneko lur zentimetroan amildegitik salbatuko ninduen seinalerik ere. Beti bezain eroso sentitzen nintzen jende ezezagunaren geldialdiaren erdian: beti fidatu naiz ezezagunen ontasunaz, errepikatzen diot goizero neure buruari, Tennessee Williamsek garraio publikoan bidaiatzen duten goiztiarrentzat idatzitako mantra bat balitz bezala. Eta gorputz anonimo eta logaletuen konstelazio horretan kokatu nintzen, nire motxilari atxikia eta handik urrun, haietako bakoitza bezain urrun, denok baikindoazen geure nahigabe partikularretan pentsatuz.

Aste batzuen buruan lan bat entregatu behar nuen irakasle oso itsusi haren irakasgairako, eta pentsatze hutsarekin, alferkeriarik handiena etortzen zitzaidan, intsektu tropikal baten ziztada balitz bezala. Eta begiak itxi nituen trenaren triki-trakaren erritmora, eta lo egotea desiratu nuen, handik milaka kilometrotara; bien bitartean, geltokiak goizeroko ordenan zihoazen errukirik gabe, letania aldaezin baten antzera: San Fernando... Coslada... Santa Eugenia... El Pozo... Baliteke azken segundo hartan, neure buruari ohera itzuli behar nuela esatea. Goiz hartako argiak garaiz itzali nahi nituzke.

Hogei minutu igaro ziren niretzat, neure buruarentzat ni existitu gabe, baina bai besteentzat. Berak, une bakoitzean guztiaren jakitun, anabasaren artean bilatu ninduen, autobusean eta geltokian ikusi ninduelako, eta bazekien tren horretara igo nintzela. Baina ez ninduen aurkitzen.

Neure onera itzuli nintzenerako, mundua beste bat zen, eta nire denbora betirako bitan hautsi zen. Orduantxe hasi zen

Ondorena. Gogoan dut ke zuri lodi bat, kotoizko hil-oihal bat bezala ni biltzen. Hartatik kostata azaleratu nintzen, ez tandaren oihartzuna oraindik belarrietan, odola zeriela. Bagoitik irten nintzen, ez dakit agian ezezagun onbera baten laguntzaz, eta geltokirik gabeko geltoki latz horretaraino eramane ninduen trenaren egoeraz ohartu nintzen. Tren apurtuak zer gertatu zen oihukatu zidan, eta nik ozenki oihukatu nion entzun ezin zidan edo entzuten ez zekien somnanbulu entzuleria bati. Han, miopiak handitutako distantzia batera (betaurrekoak, pentsatu nuen, non utzi ditut betaurrekoak), Atocha egunsentirantz agertzen ari zen, metalezko dinosauro baten bizkarra bezala. Bizi izan dudane hotzik mingarriena bezala gogoratzen dut. Amari deitu nion (zerbait gertatu da, esan nion, ni ondo nago), eta berriro deitu zidanean, ez nuen izan erantzuteko indarrik.

Une hartatik aurrera, desagertuen errealitate kuantikotik ibili nintzen. Gurasoen buruan, Schrödingerren katua bezala nengoen, aldi berean bizirik eta hilik. Zalantza horrek egun hartako ordu luzeak jan zituen, eta euren bizitzen gainerakoa baldintzatu du. Orduan jaiotako traumaren itzala ez da inoiz erabat desagertuko.

Paradoxa ebaztean, ni hilda nengoen bizirik baino gehiago, eta nire baitan ia ez zegoen semea gogoraraz ziezaiekeen ezer. Egunak anestesiarik gabe igaro ziren hainbeste min eragin ondoren. Ordu luze haietan heriotzak gertutik mehatxatu ninduen, egon gabe nengoen, koma indusituaren egoera amniotiko horretan flotatzen; jakitun direnek, berriz, nahiago dute lehenago hil izana.

Itxuraz saihestezina zen amaiera baten ondoren, etorkizuneko zerumuga bat sortu zen, guztiz alaitasunaren antzekoa ustekabez. "Itxura guztien kontra", agian, izango litzateke kontakizun honen izenbururik onena.

Lehen Ondorenaren hiztegian hemiplegia eta trauma osteko estresa, fisioterapia eta hipoakusia, akufenok eta ondorioak sartu ziren. Ondorioak gorputzean eta ondorio ikusezinak giza doilorkeriaren oroitzapen ezabaezin gisa. Eta amildegia. Lehenik, Angélicaren absentsia amaigabearen amildegia, beti euriaren eta gauza soilen jainkosa gisa lagunduko didana, Santa Eugeniako

trenean bere hilketaren berri eman zidaten apirileko gau hartatik. Harrezkero, Santa Eugenia orbaindu gabeko zauria izan da.

Eta gero, nire hurkoen begietako arbuioaren amildegia. Hemezortzi urterekin hondamendiaren behatzaile, eta ez partaide, izateko zoria izan zutenen arbuioa, eta besteen oinazetik ihes egin zutenena, gizarte ustel, hipokrita, ezgai baten garraztasunak ongi irakatsi zien bezala. Harrapatuta nengoen bakardadearen hustubidearekin izan dudana harremana fundamentalismo erlijiosoaren ekintza zitalaren biktima izatearen nortasuna bilatu eta eraikitzearen historia bera da. Bidea kendu zidaten. Norbaitek nire partez erabaki zuen ni bizitzatik eta gizartetik kanporatzea, eta, hala ere, ez nion inoiz utzi amorruari itzultzeko nuen gogoia erabat geldiarazten.

Ikasketei lehenbailehen ekitea erabaki nuenean, eta biktima izatea zer zen jakin gabe ere, intuitiboki lanean hasi nintzen biktima izateari uzteko. Eta lan horrek, Sisiforenak bezala, iraunkortasuna eta behin eta berriz hastea eskatzen du. Biktima izan denarentzat biktimizazioa eta birbiktimizazioa betiko mehatxua dira, eta ez aliatuak. Biktimak, orain badakit, biktimismoaren kiribil mendetasun-sortzailetik gorde behar du bere burua, bere biktimagilearen antza izan nahi ez badu, guztiarekin, eskrupulurik gabe egunkariak saltzen eta botoak bilatzen dituztenen esku bigunetan txotxongilo izan nahi ez badu.

Atentatuaren ondoren etorri ziren lehen egunetan (egunak diot eta urteak ditut gogoan), eta, jarduera gorabehera, tristuraren antzeko hutsune zuri bat besterik sentitu ez nuen egun horietan, ispilura agertzen zena ez nintzen ni. Berriro ezagutu nuen neure burua, eta nire gorputzaren ezkerreko erdia, orain desberdina eta traketsa, lehen bezain nirea zela sentitzea, Ondorena nire bizitzarekin bat etortzeko beharrezko konkista izan zen.

Ulertu nuen gainditzea ezinezkoa dela, niretzat ahanztura ezinezkoa den bezala, baina egokitzenari amore eman nion, eta haren ertzetan aurkitu nuen irteera, egun batean kanporatua izan nintzen bidera itzultzeko bidea.

Ez dut gogoratzen zein unetan hasi nintzen Orainean bizitzen, ezta Oraina sinesgarria den ere, bakarrik dakit denboraren alde

honetan beste edozein Ondorenean bezalako jende ezezagun eta zintzoaren eskuak daudela. Orainaren denbora, oroitzapenarekin eta memoriarekin bateragarria dena, existitzen den eta iraun behar duen bakarra dela.

Iraganera begiratzen dudan bakoitzean, kontakizuna desberdina da. Oraintxe bertan idazki hau berriro hasiko banu, hitzak eta irudiak beste batzuk izango lirateke, neure buruari istorio hau kontatzen diodan bakoitzean beste baten bizitza balitz bezala egiten baitut.

Horrela, iraganeko gauzen labirintoa fikzio eta ostegun-sail gisa konponduta geratzen da hemen. Azken finean, ni ez naiz jada kontakizun honen protagonista.

MARTXOAK 11

PILAR PARRONDO



Pilar Parrondo 2004ko martxoaren 11n Madrilén izandako atentatu
jihadistetan eraildako Soniaren arreba da.

MARTXOAK 11

Edozein egunetakoa bezalako goiza zen.
Denak etxetik irten ziren.
zegozkien geltokietarantz,
beren betebeharrak betetzea besterik ez zuten nahi.
Bakoitzak bagoi ezberdinak aukeratu zituen.

Bat-batean hainbat leherketa entzun ziren.
Bidaari batzuek bertan utzi zituzten ilusio guztiak
eta etorkizuneko plan asko egiteko.
Beste batzuk ospitaleetara eraman zituzten.
Batzuk zauritu mortalak dira eta
beste batzuk kontusioz beteak doaz.

Boluntarioak, osasun-langileak eta Udaltzaingoa iristen doaz.
Haien iritziak bat datoz, ez zuten inoiz halako krudelkeriarik
ikusi.
Sarraski honen erromesaldia hasi besterik ez da egin.
Jabeek inoiz erantzungo ez dituzten mugikorrak joka ari dira.
Familia batzuek ez dakite non bilatu ere.
Sumatzen da hau oso gaizki bukatuko dela.

Ehunka senide bildu dira Ifeman,
inork ez du senidearen izena entzun nahi.
Badakite zer esan nahi duen horrek, lurperatu egin behar dutela.
Ilunabarra heldu da eta oraindik jendea falta da agertzeko.
Familiek ez dakite zer egin ere,
makaltzen hasi dira.

BIHOTZAK

Ehun eta laurogeita hamabi argiontzi
daude gaur zeruan.
Ez daude beren borondatez,
beste batzuek nahi izan zutelako baizik.

Zerutik, kontsolamendurik ez duten
beren familiei begiratzen diete.
Ez dakite arrazez edo erlijioez,
bihotz guztien minaz
besterik ez dakite.

Beren eskuak batuta
eta bere argiaren indarraz
sendotasuna bidaltzen digute
madrildar guztiei
bakearen alde borrokan jarraitzeko,
horrela gure hiria
gaiztakeriarik gabe geratzeko.

BIRJAIOTZEA

ESTHER SÁEZ



Esther Sáez larri zauritu zen 2004ko martxoaren 11n Madrilen izandako atentatu jihadistetan. Lanera trenez zihoala, bera zegoen bagoi berean jarritako bonbetako batek eztanda egin zuen; El Pozoko geltokian.

2004ko martxoaren 11ko goiza oroitzapenen pilaketa bat da (irudiak, usainak, min bizia, *flashback*ak...), denboran zehar berreskuratzen eta ordenatzen joan naizena. Une hartan kordea ez galtzeak *shock* sakon batean murgildu ninduen, gertatu zena prozesatzeko gai ez nintzelako. Izugarri gogorra izan zen. Izugarri sufritu nuen, ez bakarrik fisikoki, baita moralki ere, ezin bainuen ulertu zergatik erabaki zuen norbaitek nire bizitzarekin amaitzea; nik ez nien ezer egin... Buelta asko ematen saiatu arren, ez naiz inoiz gai izan ulertzeko zer lortu nahi zuten, zer bilatzen zuten benetan. Ez naiz gai horren guztiaren atzean dagoen errealitatea zein den jakiteko. Beste atentatu jihadistak batzuetan, talde terroristek berehala errebindikatzen dute zergatik egiten duten, nahiz eta arrazoi horiek beraientzat bakarrik baliagarriak izan, baina M-11n oraindik ez daukat argi hainbeste urteren bueltan. Ez

dago inola ere justifikatuta nor bizi den eta nor hiltzen den erabakitzea.

Bakarrrik nindoan trenean, Jainkoari eskerrak, otsailera arte nire senarrarekin joaten bainintzen, baina lanaren kokapena aldatu zioten, eta martxoan, hain zuzen, autoarekin joaten hasi zen; zorionekoa izan zen hori, biok egokitu ahal zitzaigulako.

Hain larri nengoen... Koma indusiztuan eduki ninduten, nire biriken leherketagatik, erredurengatik eta nire gainera eroritako guztiak eragin zidan koagulu batengatik. Bost egunera esnatu ninduten, arnagailu bat izan arren, itotzen jarraitzen nuelako. Erizainek galdetu zidaten ea ba ote nekien zer gertatu zen. Eta benetan ez nekien, ez nintzen ezertaz gogoratzen. Kritikoen unitatean nengoela bakarrik nekien, makina pila bati konektatuta nengoelako; haien soinua gogoratzen dut, batez ere alarmak pizten zirenean. Eta gogoan dut sendatzen nindutenean edo nire oheko izarak aldatzen zituztenean, min handia izaten nuela. Ezin nuen hitz egin, ez mugitu, ez argi ikusi.

Pixkanaka, senarra ni ikustera sartzen zenean, zer gertatu zen kontatzen zidan, seme-alabak genituela gogorarazten zidan; hain da gogorra kontziente izatea ez zarela gogoratzen seme-alabak dituzula, ez duzula gogoratzen gurasoen aurpegia zu ikustera sartzen direnean...

Hain izugarria izan zen. Hasieran, nire senarrak nire bagoian bonba bat lehertu zela esan baino lehen, pentsatu nuen hegazkin-istripu batengatik nengoela han, lanarekin dezente bidaiatzen nuelako. Benetan zer gertatu zen esan zidatenean, kosta egin zitzaidan ulertzea. Behin eta berriz errepikatzen nion neure buruari: zergatik jarri didate niri bonba bat? Benetan ari al zarete?

Nire larritasunaz eta egun bakoitza nire bizitzaren azkena izan zitekeela benetan jabetu nintzenean, hondoa jo nuen, harik eta, nire baitan nire existentziaren benetakoena, nire sinesmenak, bilatuz "itsasoan barrena arraun egin nuen" arte, neure burua barrutik berreraikitzeke, edozein unetan hil nintekeela onartuz. Oso garbi neukan hori gerta zitekeela. Behin baino gehiagotan sentitu nuen bizitza bazihoakidala. Askotan, erizainak korrika

etortzen ziren, makina guztiak txistuka hasten zirelako eta nik banindoala sentitzen nuelako. Hala ere, gai naizen lasaitasun guztiarekin, nire barruan indarra bilatzeko ariketa egin nuen, norbaitek nire bizitza eta familiarena hondoratzeko erabakia hartu zuela-eta ez etsitzeko. Argi neukan nik ez nituela nire indarrak inor salatzen edo munduarekin haserretzen ahitu nahi, ez baininduen inora eramango. Ez nion nire buruari galderarik egin nahi baldin eta erantzunik izango ez bazuten.

Guztira, 19 egunez egon nintzen kritikoen unitatean, eta, ondoren, beste 40 egunez gela arruntean, lehen ospitaleratzean. Horren ondoren, 13 ebakuntza jasan ditut, eta orain beste ebaketa bat egin behar dut, belarriko protesia hondatu egin delako. Eta errehabilitazioarekin jarraitzen dut modu kronikoan... Urte askotako borroka izan da, eta jarraitu egingo du. Eguneroko borroka da; egun batzuetan ongi jaikitzen naiz, beste egun batzuetan erdipurdi eta beste batzuetan gaizki. Egun gogor horietan neure buruari gauza asko esan behar dizkiot, batez ere mina edo amesgaiztoak ditudanean, gauez izaten baititut tarteka. Neure buruari esaten diot aurrera egin behar dela bizitzak bigarren aukera bat eman didalako gauza onak egiteko, ez atzera begiratzeko.

Mediku, erizain eta laguntzaileekiko tratua primerakoa izan da beti, baita urteen bueltan izan ditudan ospitaleratzeetan ere. Beti hauteman izan dut, batez ere kritikoen unitatean nengoenean, dena Jainkoaren eskuek egina zela, nahiz eta batzuk fededunak ez izan; Jainkoaren oinak eta eskuak izan ziren, bizirik. Ahalegin ikaragarria egin dute ni aurrera ateratzeko, eta, gainera, erabateko maitasunez tratatu naute. Gaueko txandetan, nik ezin nuenez lorik egin, konortea galdu ez nuelako izua bainuen gauez, nirekin hitz egitera esertzen ziren artatzeko gaixorik ez zeukatenean. Nire ondoan jartzen ziren, gauzak kontatzen zizkidaten, baita haiek zituzten arazoak ere. Nik ezin nien erantzun, baina irribarre egiten nien, maitasunez begiratzen nien... Lotura ederra egin genuen.

Hala ere, ez zen horrela izan politikaren arloan; etsipen handia hartu nuen, hiru hilabete igaro ondoren, gauzak nola garatu ziren jakin nuenean. Poztuko nintzatekeen, atentatua

gertatu zenean, indarrak elkarri leporatuz xahutu ez balituzte; denbora galtzen, benetan zer gertatu zen eta biktimok zer behar genuen jakin beharrean. Gerra ikaragarria zen, errukirik gabea, batak besteari botatzen zion errua, eta kalean zuten egin beharrekoaren adibidea: jendeak martxoaren 12an manifestazio jendetsuetan emandako erantzuna.

Kalean emandako erantzuna ez zen nahikoa izan haiek zer egin behar zen ikasteko. Hori gogorra da. Izan ere, guk ez genuen behar politikariek elkar iraintzea, arrazoia nork zuen ikusteko. Norkegin zuen eta nola egin zuten jakiteko bere indarrak agortuko zituen jendea behar genuen, eta ez niregatik, nire kasuan ezin baita gertatutakoa ezabatu, baizik eta berriro gerta ez dadin. Denei, salbuespenik gabe, zera esateko aukera izan nahi nukeen: "Ez duzue ideiarik ere, ez dakizue zer bizitzen ari garen, zer gertatu zaigun, ez dakizue zenbat gau daramatzadan lo egin gabe gaueko ikarengatik, zenbat min dudan nire gorputzeko erredurengatik. Axola zaizuen gauza bakarra zuen ohorea salbatzea da. Zer ohore?"

Jakina, salbuespen bat egin behar da. AVT eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusia izan ziren ni nola nengoen benetan axola izan zitzaien erakunde bakarrak. Barne Ministerioko gizarte-laguntzaile bat esleitu zidaten, egunero kritikoen unitatera joaten zena nire senarrari laguntzera, ni hiltzen ari nintzelako, eta berarekin zegoen, nire amarekin eta aitarekin. Gero, alta eman zidatenean, gizarte-laguntzaile horrek, Menchuk, astero deitzen zidan telefonoz, ea nola nengoen. Gero, paperak betetzera joan behar izan nuenean, nik dena erreklamatzeko eta sinatzeko ardura hartu zuen, nik, gainera, ez bainuen kalte-ordainik edo ezer nahi. Nire mina ordaindu nahi zutela iruditzen zitzaidan. Berak esaten zidan: "Esther, hau legearen barruan dago, laguntzeko besterik ez da". Finean, Menchu pertsona normala da, kalekoa. Niri huts egin zidatenak goi-mailakoak izan ziren.

Ezin gara pertsonen minetik kanpo bizi. Orain terrorismoaz ari gara, baina beste edozein minetarako balio du. Gizarte egozentrikoa dugu, anestesiaturik dagoena, bere burua ardatz

duena. Norbaitek kargu oso altu bat duelako, edozein motatakoa izanda ere, ez dio pertsona izateari uzten, eta ezin du besteekiko sentiberatasuna galdu. Ezin du automata bat balitz bezala bizi. Terrorismoaren eraginaren ondoren aurrera egin nahi badugu, gizakiak izan behar dugu berriro. Biktimok askotan lortzen dugu aurrera egitea, "oinezko" jendeak galdetzen digulako: "Nola zaude?, nola daramazu? Hilabeteak daramatzat zure alde otoitz egiten...". Batzuek zera esaten dizute: "Zure ahaleaginean sinesten dut, badakit lortuko duzula". Jende xumea da, eta berez atera zaie mina dutenei laguntzea. Hori ez da inoiz galdu behar, bestela gure gizartea hil egingo da.

GELDIALDI BAT BIDEAN

JANA GALLARDO



Jana Gallardo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea da. 2004ko martxoaren 11ko atentatuetatik bizirik atera zen, baina senargaia hil zitzaion.

18 urte eta bizitza osoa aurretik duzunean, proiektuak, bidaiak, ikasketak, maitasunak... ez duzu pentsatzen bizitzak danbatekoa emango dizunik, zure jarduteko, pentsatzeko eta, batez ere, sentitzeko moduan betirako geldialdia izango den danbatekoa, eta inork ez dizu azaltzen nola lor dezakezun berriro martxan jartzea.

Martxoaren 11ko goiza lasai zihoan, egunero bezala, Aldirietako trenean, Nuevos Ministerios geltokiraino, nire mutil-lagunarekin. Trena 7:15ean hartu, eta lehenengo bagoira igotzen ginen beti (ia beti jende gutxien izaten zuen bagoia). Urte hauetan zehar, askok galdetu didate zerbaitez konturatu ote nintzen,

zerbait desberdina sumatzen ote zen. Zoritxarrez, erantzuna beti bera da: ezer ez, portaera anormalik ez pertsonengan, trenaren etorreran, zaratan, ezertxo ere ez. Aldatu zen gauza bakarra ezerez horren osteko segundoa izan zen, osotasun bihurtu zen, jendearengatik, nire mutil-lagunarengatik, Madrilgo hiriarengatik eta neure buruarengatik.

Osotasun hori zure bizitzaren zati nagusi bihurtzen denean, konturatzen zara geratzen zaizun bide bakarra aurrera ateratzea dela; izan ere, ordu arte zenuen eguneroko errutina ez da jada berdina izango. Geldialdi horretatik nola atera planteatzen hasten zara, hainbeste gustatzen zitzaizun eta erabat irauli den bizitza nola berrartu, eta zeure buruari egiten diozun galdera, guztietan lehena, hauxe da: zergatik gertatu zait niri? Zergatik nahi izan du patuak ni atentatu terrorista handi baten barruan egotearen "onuradun" izatea? Erantzun posible bakarra duen galdera da: zoria, askotan jokaldi makurrak egiten dizkizuna. Zeure buruari egiten diozun hurrengo galdera da: nork egin zuen hau? Zer helburu zuen? Zergatik joan dira ezeren errurik ez duen talde baten bila? Gaur egun, 2004. urtean baino zehatzago erantzun diezaiekegu gai horiei; izan ere, urte hartan, ETArena zen, batez ere, mehatxatzen gintuen terrorismoa. Gaur egun pentsatzen ari naizena da joanarazi gintuzten gerrak, Espainiaren presentziak, zerikusirik izan ote zuen edo guri erasotzeko aitzakia izan ote zen. Era berean, pentsatzen dut ea jihadistiei sarraskiak egitea gustatzen zaien gizartean eta komunikabideetan duten eraginagatik, edo ea Alaren alde egiten duten, edo txiki-txikitatik beren etxeetan eta ingurunean buruan sartzen dieten eromenagatik.

Atentatu terroristak ohikoak dira mundu osoan, baina batez ere Europan. Gustatuko litzaidake terrorista horiei zuzenean galdetu ahal izatea zergatik eragiten duten hainbeste pertsonarengan hainbeste sufrimendu, hainbeste ezen askotan subkontzientean ere erasotzen baitizu. Egia esan, uste dut exekutatzaileek ezer gutxi dakitela beren borrokaz.

Neure buruari egin nion azken galdera da nola gainditu geldialdi hori nire bizitza laburrean. Hasieran ez datorkizu erantzunik, zure garunak ehuneko 100ean jartzen baitu arreta

zure osasuna berreskuratzean. Buruak ez dizu pentsatzen uzten, ahalik eta azkarren ongi jartzean ez bada. Ariketa fisikoaren eta fisioterapiaren bidez errehabilitazioan hilabeteak eman ondoren, zure errutina berreskuratzen hasten zarenean iristen da trantze txarra, funtsezko gauza bat berreskuratzea falta zaizula konturatzen zarelako: zure ongizate psikologikoa. Hori bai kostatzen dela, batez ere urte askoan zehar negar egingo duzulako zure bizitzako une beldurgarri horretara itzultzen zarenean. Zoritxarrez, gaur egun, nahiz eta pribilegiatua sentitu nire bagoian bonba batekin egindako atentatu batetik bizirik atera naizelako, ia hiru metrora, bizkarrari lotutako motxila bat dudala sentitzen dut, eta ez dakit kendu ahal izango dudana. Argi daukadan gauza bakarra da iluntasunetik irten ahal izateko arlo askotan bermatu behar zarela: emozionala zure familiaren bidez, dibertigarria zure bideen bidez, instituzionala Estatuaren bidez, eta nik, Jainkoari eskerrak, asko izan dut horietako bakoitzetik. Baina, era berean, azpimarratu nahi dut zure bizitzako edozein gertaera negatiborekiko jarrera pertsonalak baldintzatu egiten duela zure bizitzari aurre egiteko modua. Beraz, ziur asko, jende asko ez dela ados egongo lerro hauekin, baina nire gomendioa da jarduerak egitea, ateratzea, bidaiatzea, jende berria ezagutzea, janari berriaz gozatzea, kirola egitea, hau da, bizitzea egokitu zitzaigun eta ia kentzen diguten bizitza ahalik eta gehien aprobeztatzen saiatzea.

Ea, etorkizun hurbilari begira, terrorismoa mundu mailan amaitzen den, ez bakarrik Espainian, eta, horretarako, azken galdera bat planteatzen diot neure buruari: zer egin dezakegu herritar arruntok? Nire iritzi apala da lehenengo gauza ez diskriminatzea dela, horrekin lortuko den gauza bakarra gure artean gorroto gehiago izatea baita, eta gorrotoak ez du inoiz ezer onik ekarriko. Gakoa hezkuntza da, bai ikastetxeetan, bai komunikabideetan (terrorisмотik hurbilen daudenak dira). Biktimei eta bizirik atera direnei eman beharreko arretak lehentasuna izan behar du edozein talde terroristari erakusteko ezin izango duela gurekin, gure ingurunea eta gure bizitzak askoz okerrago bihurtu nahi baditu ere, ez duela lortuko, hari aurre egin ahal izateko armak ditugulako: maitasuna, bakea eta itxaropena.

RODOLFO, BETI GUREKIN

ALEJANDRO BENITO SAMANIEGO



Alejandro Benito Samaniego 2004ko martxoaren 11n Madrilen izandako atentatu jihadistetan eraildako Rodolforen anaia da, eta Rodolfo Benito Samaniego Fundazioko lehendakariordea da.

Nire anaia Rodolfok 27 urte zituen 2004ko martxoaren 11n Santa Eugeniako geltokian erail zutenean. Gizon maitagarria zen, gazte ororen grinak zituena: kirola, natura, lagunekin gauzak partekatzea; biziki maite zituen familia eta neska-laguna. Industria Ingeniaritzako karrera amaitua zuen, eta bere amets nagusia maisu izatea zen.

2004ko ekainean, Alcala de Henaresen, senide eta lagun talde batek Rodolfo Benito Samaniego Fundazioa aurkeztu genuen, haren eta basakeria terroristaren biktima guztien oroitzapena bizirik mantentzeko, bizikidetzaren eta tolerantziaren alde lan egiteko eta gizartearen zerbitzura dagoen berrikuntza zientifikoa eta teknologikoa sustatzeko.

Fundazioa sortzea bat-bateko kontua izan zen. Ideia ia berehala sortu zitzaigun. Rodolforen gorpua beilatzen ari ginen. Eta han esan genuen: "Hau ezin da hemen geratu, fundazio bat sortuko dugu", bere bizitza nolabait luzatzeko beharra sentitzen genuelako. Hori izan zen hazia.

Atentatuaren osteko lehen egunetan, halako sendotasun bat nuen. Ardura berezia sentitzen nuen edo ezartzen nion neure buruari, batez ere gurasoei begira. Gogoan dut lagun askok esaten zidatela: "Zuk bai pairamena!". Ez dakit hori ote zen nire dolua bideratzeko modua. Agian nire defentsa-mekanismoa izan zen egoera horri aurre egiteko.

Lan egiteak asko lagundu dit, bai nire lanbidean, bai Fundazioan. Nire lanean erraztasunak eman zizkidaten noiz itzuli behar nuen erabakitzeke. Ez nuke jakingo noiz izan zen zehazten, baina denbora gutxian bueltatu nintzen. Bizitzak beste egoera batean jarraitzen zuen: nire anaia gabe bizitzen ikasi behar nuen.

Ni anaia nagusia naiz. 14 hilabeteko aldea genuen. Bizitzan egin genuen guztia elkarrekin egin genuen. Gela bera eta gurasoek irakatsitako balioak partekatzen genituen, ia dena partekatzen genuen. *Judoa* egin dugu bizitza osoan. Ikasketekin ere berdin. Bi urtez joan ginen unibertsitate berera; gainera, noizbait ikasgela bera partekatu genuen.

Rodolfok beti esaten zuen erreferentzia bat nintzela berarentzat, baina nik buelta ematen diot bere arrazoibideari. Niretzat, oso pertsona zentzuduna zen. Desordena ordenatu bat zeukan: bere gauza bakoitza non zegoen koka zezakeen. Oso irizpide ona zuen, gaitasun handia bere ideiak adierazpen batean laburbildu ahal izateko. Eta oso saiaturia zuen: adibidez, abenduaren 31n San Silvestre lasterketa korritzen zuen. Iraunkortasuna zen Rodolforen balioetako bat, oso balio garrantzitsua nire familian, gu jende langilea garelako eta iraunkortasuna, ahalegina eta lana asko baloratzeko ditugulako. Eta hori Fundaziora eraman dugu.

Cure ustez gertatu behar ez zuen egoera negatibo bat positibo bihurtzea da Fundazioaren mezua. Fundazioaren ekintzaren helburua ez da hori berriro ez gertatzea, zoritxarrez, atentatu

terroristek aurrera jarraitu dutela egiaztatu baita. Nabarmendu behar da horrelako ekintzek ezin dutela gizartea kutsatu, eta ez dutela kutsatu behar.

Horregatik, gure urteko sarien dimentsioetako bat industria ingeniariaren proiektuetan gizartearen zerbitzura dauden berrikuntza teknologikoko lan onenak aintzatestea da. Saritu ditugu, adibidez, euria egiten duenean joan-etorriak errazten dituzten gurrpil-aulkiak; alergia kasuetan ohartarazten gaituzten gailuak; minbiziaren aurkako ikerketa-proiektuak. Eta minbiziaren aurkako medikuntzaren irudi hori terrorismoaren aurkako medikuntza batera eramanezake. Zeren bila gabiltza? Ba, minbiziarekin analogia bat egiten badugu, terrorismoaren berezko gaitza ez dadila zabaltu eta ez ditzala gizarteko zelula onak inbaditu. Horregatik, gizartea, bizikidetzak eta tolerantzia etengabeak dira gure eguneroko lanean. Terrorismoaren aurkako txertorik onena delako.

Gure urteko sariak, azkenean, Rodoforen bizitzaren laburpen bat dira. Pertsona askorekin partekatzen zituen balioak zeuzkan, eta bi bloketan biltzea erabaki genuen. Fundazioaren ildo nagusiak dira: batetik, bizikidetzak eta tolerantzia balioak, eta, bestetik, alderdi profesionalak, hau da, berrikuntza eta garapen zientifikoaren saria. Sariaren banaketa Fundazioaren ekitaldirik enblematikoena da, martxoaren 10aren inguruan, 11a intimoagoa eta familiarragoa dela uste baitugu.

Rodolfo ere oso alai zen. Gure familiako txantxazalea zen, Gabon gaueko afarian barre-algarak pizten zituena, eta imitatzeke grazia handia zuena. Agian, animo hori, alaitasun hori da, bereziki, ekaineko ekitaldian gogora ekartzen saiatzen garena. Hilabete horretan, alegia Fundazioa sortu zenean, "Tori nire eskua. Elkarbizitzarako topaketa" ekitaldia egiten dugu beti. Gure lana erakusten saiatzen gara, gure ateak irekitzen, egiten dugun lana ezagut dadin. Eta beti eskaintzen dugu jarduerakultural bat: kontzertu bat, antzezlan bat, abestiak, eta musikari gazteak edo artistak, beren artea eskaintzera eta, guztion artean, Rodolfo eta terrorismoaren biktima guztiak gogoratzera datoz. Ekitaldi horretan, laguntzen digutenen lana ere aitortzen dugu.

Terrorismoak familia oso bat kaltetzen du, ez bakarrik bizitza bat ezabatzen. Nahiz eta "ezabatu" hori komatxoaren artean jarri behar den, Fundazioaren asmoa bere balioak —eta ez bereak bakarrik, baita biktimen gainerakoenak ere— ahanzturan ez geratzea baita. Guk ez dugu ekintza terroristak berez gogoratzeaz edo pertsona hori edo beste bat hil zela gogoratzeaz hitz egiten, baizik eta, batez ere, terrorismoaren eragileek suntsitu nahi dituzten balioak bizirik mantentzeaz. Memoria horretaz ari gara.

Haurrekin ere egiten dugu urteko programa bat. Gure fundazioa txikia da. Geure gain zeregin gehiegi ez hartzen saiatzen gara, aurre egiteko gai garena bakarrik. Balioen transmisioa hezkuntza kontu bat da, ez doktrinatzearen edo zenbait ideal espezifiko inokulatzearen zentzuan, baizik eta norbanako bakoitzak bere irizpidea sortu ahal izateko prestakuntzaren zentzuan. Badira doktrinagarriak ez diren giza balio unibertsalak, gizakiaren esentzia sortzen dutenak, hala nola elkarrekin bizitzea, tolerantzea, partekatzea, errespetatzea, gizartearentzat lan egitea, eta beste asko. Horregatik, abenduan jaialdi bat egiten dugu Alcalá de Henaresko ikastetxeekin. Marrazki-jaialdi gisa hasi zen, baina orain adierazpen artistiko guztiak barnebiltzen ditu. Sari-banaketa haurrentzako antzezlan batekin egiten dugu beti, eta Alcalá de Henaresko Udalak, Barne Ministerioak eta Madrilgo Erkidegoak laguntzen digute.

Azaroan, Alcaláko Unibertsitatean ere bi jarduera egiten ditugu. Giza eskubideei buruzko ikastaro bat eta bizikidetzari eta tolerantziari buruzko hitzaldi bat urtero. Hiri horretan egiten dugu, bizitza osoa bertan eman dugulako. Rodolforen ingurunea da.

Alcaláko Unibertsitatearekiko harremana funtsezkoa izan da urte hauetan guztietan. Denetan lagundu digute, haiek ere sinesten dutelako beren ikasleengan eta beren ingurunean elkarbizitza, tolerantzia eta gizarte-onurako bokazioa duten balio horien sustapenean.

Ingeniariaren Elkargoak eta Industri Ingeniariaren Elkarteak ere asko lagundu digute. Harremana ia Fundazioaren sorreraren une eta modu berean sortu zen. Atentatua gertatu eta egun gutxira,

familiarengana jo zuten, eta, Fundazioaren ideia lantzen ari ginenez, bat-batean Rodolfoaren jarduera profesionalarekin lotutako alderdi espezializatuaren berri eman genien. Berak ez zuen ikasten soilik diru-sarrera batzuk lortzeko, baizik eta bere ezagutzak gizartearekin partekatzeaz gozatzen zuelako. Ikasle bikaina zen, ikerketarako balio zuen, berak nahi zuena egin ahalko zukeen. Baina gero hain zen umila, ez baitzuen asmo handirik, zoriontsu izan nahi zuen, besterik ez.

Fundazioaren oinarritzko ideia da zerbait negatibotik zerbait positiboa eraiki daitekeela. Zerbait eraiki ahalizatea da, beharbada, baliorik handiena duena. Eta, gainera, gizartearentzat balio komuna duen zerbait eraikitzeko gai bazara, orduan, nire kasuan behintzat, betetzen nauen helburu bat da. Gure jarduerak hainbat balio eta konpromiso finkarazten dituzte. Halaber, oreka kontua da, egoera negatibo hori gure jardueren eta programen bidez orekatzea. Galera traumatikoa, Rodolfo nirekin ez egotea, orekatzeko nire modua da.

Urte hauetan guztietan une gogorrak egon dira, eta beste batzuk ez hain gogorrak; une atseginak eta ez hain atseginak, baina beti nahiago dugu ona gogoratu. Rodolfoarekin bizi izan naiz nire bizitzaren zati handi batean. Denbora une hartan gelditu balitz bezala da niretzat. Egia da hamalau urte igaro direla, baina Fundazioan gauza asko egin ditugu. Berarekin batera egiten ditudala iruditzen zait. Ez dut haren galeraren sentsaziorik, ez dut haren absentsia benetan nabaritzen. Ez dut hutsune sentsazio hori. Rodolfo beti dago presente. Ez dut hura ahazteko beldurrik. Nirekin dago, elkarrekin goaz.

GURE HISTORIA ERE BADELAKO

ANA RODRÍGUEZ CORDERO



Ana Rodríguez Cordero gizarte-langilea eta M11ko Biktimen Laguntzarako Elkarteko (AAV11M) arlo psikosozialeko koordinatzailea da.

Gizarte-lana ikastenduzunean, mundua jan eta mokadubakoitzean aldatu nahi duzu, ideia utopiko bat, baina oso polita; ia beti uste dugu (horrenbeste heldutasun falta duen eta, aldi berean, hain beharrezkoa den ilusio horrekin) handikiro egin behar dela, baina gero mundu errealerara ateratzen zara, zeinerako inor ere ez dagoen prest, eta bertan konturatzen zara zein beharrezkoak diren urrats txikiak.

Gizarte-langilea izatea ez da erraza, ezein esparru edo kolektibotan. Bokazioz eta enpatiaz ari garela uste izaten dugu, eta egoa puzten digute “nik ezingo nuke” esaten diguten pertsona guztiek, guk zertan lan egiten dugun kontatu ondotik.

Ez, ez da inoiz erraza, baina terrorismoaren biktimekin egiten den lana bereziki gogorra da, eta, aldi berean, izugarri

zoragarria. Suposatzen dut profesional bakoitzak gauza bera esango duela lan egiten duen esparruaz, baina hemen, pertsonen eta herrialde baten minaren gainean nabigatzen dugu. Axolagabekeria ez da aukera bat, zu zerorri istorio horren barruan zaudelako. ETAren edo GRAPOren atentatuaren eta bahiketen albisteekin hazi gara, eta, madrildar gisa, 2004ko martxoaren 11 betiko markatutako data izango da nire memorian.

Terrorismoaren biktima batekin izan nuen lehen harreman zuzena AAV11Mn lanean hasi baino askoz lehenagokoa izan zen; boluntarioa nintzen aisialdiko eta denbora libreko begirale gisa, gizarte-bazterketako arriskuan zeuden neska-mutilen elkarte batean, eta egun batean kontatu egin zidaten. Hiru urte lehenago, ETAk nire kideetako baten anaia erail zuen Gipuzkoako herri batean. Gogoan dut ezintasuna, lehen aldiz askoz ere hurbilagokoa balitz bezala bizi izan nuelako, eta nire baitan hazi eta inoiz joan ez den "zera" hori.

Bizipen horren ondoren ere, ez nuen lana esparru horretan imajinatu, ezta bilatu ere. Hori guztia askoz geroago etorri zen, baina ziur nago lagundu zidala orain nagoen lekuan egoten.

Askotan, pertsonak ezagutu eta zer egiten dudana kontatzen diedanean, horrelako zerbait entzuten dut: "Hainbeste urteren ondoren, eta... oraindik badago horrelako laguntzarik?". Lehen haserretu egiten nintzen pixka bat, eta nire lana ez ezik, bizi izan dugun gure historia ikaragarria ere gutxiesten ari zirela sentitzen nuen, eta, batez ere, terrorismoaren biktimaren rola iraintzen. Urteak daramatzat rol hori babesten.

Orain jada ez, orain esperientziak eta heldutasunak pertsona horren aurrean eserazten naute, eta azaltzen diot zergatik gure ahotsa eta lana, biktimena, elkarreana eta profesionalena, oraindik ere beharrezkoa den ETAk hiltzeari utzi zionetik edo M-11tik hainbeste urte igaro eta gero. Kontatzen diet erreparazio, memoria, duintasun, egia eta justizia lan hau ez dugula biktimenez bakarrik egiten, gizartearentzat ere egin behar dela, terroreak luzaroan markatu duen gizarte batentzat. Kontatzen diet terrorismoaren biktimari laguntzeko esperientzia horrek guztiak beste pertsona batzuei laguntzeko balio digula, gauza bera jasan

dezaketenak, Bartzelonako atentatuak erakutsi digun bezala, eta, batez ere, esaten diet hainbeste urteko ahanztura ezin dela errepikatu, eta gure atzetik datozenek biktimen historia ezagutzea merezi dutela, berriro gerta ez dadin.

Urte hauetan zehar, elkartean egin dudana eta ni neu aldi berean aldatzen joan gara, parte hartu dudana proiektu nazional eta internazionaleri esker. Munduko leku askotako biktimak eta profesionalak ezagutu ditut, ikasgela batean ikasitakoa baino askoz gehiago irakatsi didatenak, burua zabaldu dut, eta une paregabeak oparitu dizkirate nire bizitza profesionalean ez ezik, bizitza pertsonalean ere.

Baina batzuetan, batzuetan bakarrik, profesionalen funtzioa laguntza edo laguntza hutsera mugatzen da, eta hori da gehien ezagutzen dena. Funtzio horiek gure lanaren zati garrantzitsua dira, baina, batez ere, egin dezakegun guztiaren oinarria da.

Lan egiten dudana pertsonekin dudana helburu nagusietako bat biktimizaziorik eza sustatzea da. Horrekin ez dut esan nahi terrorismoaren biktima zarenik ahaztu behar duzunik, baizik eta *biktima* eta *biktimizatuta* egotea gauza bera izan ez dadin lan egin behar duzula. Gizarteak akats hori egiten du, oro har, biktima horiei dagokienez, kalte handia egiten duela jakin gabe. Lan nekeza da, baina oso beharrezkoa, iritzi publikoari helarazi behar zaio, eta biktima benetan merezi duen rolean jarri behar dugu, hau da, prebenitzen lan egin behar dugun indarkeria baten alderdi zuzen gisa.

Biktimizaziorik eza oso garrantzitsua da sentsibilizazio- eta prebentzio-proiektuak sustatzeko orduan. Programa horien ageriko aurpegia biktimak berak dira, aldezturik profesionalak lagunduta lan pertsonala egin dutenak. Lan hori publikoki elkarri eragiterakoan eta ahots askoren ahotsa izatean islatu behar da.

Terrorismoaren biktimaren bizipena funtsezkoa da suspertze- eta sentsibilizazio-prozesu guztietan, baina lan honetan dugun ikuspegia, izan gizarte-langile, psikologo, hezitzaile eta abar, gehiago erakutsi beharko litzateke. Ikuspegi profesional bat ematen dugu, ez bakarrik teoriaren bidez ikasia, baita batzuetan gobernatzen zailak diren egoerei aurre eginez ere.

Esperientzia da gure aliaturik onena, eta, zergatik ez, baita lan egiten dugun pertsonentzat ere.

Hain ahaztuta dagoen kolektibo horren ondoan gaude, lagundu egiten diogu, proiektuak gauzatzen ditugu, haien euskarri gara, eta uste dut oso beharrezkoa dela horretan aritzen garen profesionalen garrantzia goraipatzea. Batzuetan ezkutuko alderdi bat gara, baina oso lan garrantzitsua egiten dugu.

Baina profesionalak izateaz gain, pertsonak ere bagara, batzuetan "ezingo luketen" pertsonak.

Batzuetan, malkoek ihes egiten digute, edo bazkideren baten aurrean eserita gaudela, aitzakiaren bat jarri behar izaten dugu jaikitzeko eta arnasa sakon hartzeko, indarra hartzeko eta gugandik espero duten energia horrekin itzultzeko.

Duela gutxi, proiektu batean gurekin lanean ari den kazetari bat bereziki lur jota atera zen gogorra zen testigantza baten grabaketatik. Egia esan, denok geunden horrela, baina berak ezin izan zien malkoei eutsi. Galdetu zidan ea ba ote zegoen araura bat, terrorismoaren biktimek atzean dituzten istorioen aurrean lur jota geratzea galarazten duena. Nire lanari buruz urte hauetan guztietan egin didaten galderarik politenetako bat iruditu zitzaidan. Gure sentimenduak eta gure emozioak kontuan hartu zituen.

Erantzun nion profesional gisa ez genukeela lur jota geratu behar artatzen ari garen pertsonaren aurrean. Ez dagoela araurik, baina ez gintuzkeela kontsolatu behar gu "kontsolatzen" ari garen beste hark. Kontatzen ari zaizkigunarekiko emozioa erakustea ez dela txarra, gure sentiberatasuna agerian uzten duela, besterik gabe, eta modu kontrolatuan erakustek gizaki egiten gaituela, eta erabat ziur nago eskertzen dutela gizatasun hori ikustea.

Honetan lan egiten dugun guztiok istorio izugarriak entzun ditugu, minez eta beldurrez beteak, eta batzuetan etxera eramaten ditugu, saihestezina da, eta horrelakorik ez egiten ikasi behar badugu ere, hortik sortzen da honetan aritzea ahalbidetzen diguna. Izan ere, egunen batean terrorismoaren biktimen istorioak hunkitzen ez banau, egun horretan bertan utzi beharko dut.

Oraingoz, ez naiz nagoen lekutik mugituko, aukeratutako leku batetik, egiteko gauzez betetako leku batetik, eta, benetan diotsuet, merezi du bertan egotea.

“ETA HAINBESTE DENBORA IGARO ONDOREN, BA AL DA ORAINDIK M-11GATIK TERAPIA BEHAR DUEN PERTSONARIK?”

SUSANA GAGO CARRERO



Susana Gago Carrero psikologoa da. 11-M Afectados del Terrorismo elkartearen lan egiten du.

Galdera hori maiz samar entzuten dut nire familia-ingurunean, lagunartean eta baita nire lanbide-ingurunean ere, bai osasun-masterreko nire ikasleekin, bai terrorismoaren biktimekin lanean esperientziarik ez duten beste lankide mediko edo osasun-profesional batzuekin.


14 urte igaro direnez, badirudi pertsonak osatuta eta ondo egon behar zutela, baina... zer esan nahi du ondo egoteak?

Ondo egotea kontzeptua nahiko konplexua da, eta lotura estua du bizi-kalitatearekin. Bi kontzeptuek esanahi desberdinak hartzen badituzte ere pertsona bakoitzaren sinesmenen arabera, terrorismoaren biktimen artean nahiko ohikoa da atentatuaren aurretik zeuden bezala egon nahi izatea. Hori da esku-hartze psikologikoan aurkitzen dugun zailtasunetako bat.

Beharrezkoa da espektatibak doitzea, esperientzia horren ondoren gure bizitza ez dela berriro berdina izango ulertzea eta onartzea. Hala ere, horrek ez du esan nahi ongizate- eta bizi-kalitate maila nahiko ona berreskuratu ezin denik, dela lehen genuenaren antzeko bizitza bat berreskuratuz, dela egoera berrira egokituz, bizitza berri bat eraikiz.

Pertsona batzuek denbora tarte nahiko laburrean lortzea edo tarte askoz zabalagoa behar izatea faktore askoren mende dago: gertatutako galeren eragina eta esanahia, aldez aurreko kalteberatasun-faktoreak, aurreko esperientzia traumatikoak, sinesmenak eta aurre egiteko estrategiak, nortasun ezaugarriak, laguntza- eta babes-baliabideak, inguruabar lagungarriak edo kaltegarriak, gertakari traumatiko berriak, etab.

Gertatzen den prozesua hobeto ulertzeko, Francisco Duque, María Mallo eta Mar Álvarezren grafikoa erabiliko dugu.



Iturria: Francisco Duque, María Mallo eta Mar Álvarez (2007): *Superando el trauma. La vida tras el 11-M*. Bartzelona: La Liebre de Marzo.

Pertsonak bizi-ibilbide bati jarraitzen dio, bizi-kalitate jakin batekin. Ibilbide horretan, egoera aldakorrak gertatzen dira, gutxi gorabehera estresagarriak edo atsegingarriak. Hala ere, pertsona orekan sentitzen da, funtzionamendu aski gogobetegarria du,

eguneroko bizitzako egoera desberdinak kudeatzeko behar adina gaitasun eta baliabideekin.


Ustekabean, bat-bateko hondamen bat gertatzen da, non oreka hori galdu egiten den. Badira hautemandako galera edo kalte batzuk, bizi-kalitatea izugarri jaitsarazten dutenak, sortutako emozioek larriagotuta. Egoera zailtan, aurre egiteko ohiko baliabideak ez dira aplikagarriak edo ez dute espero zen emaitza eragiten. Bizitzaren ohiko bilakaera eten, eta aurreko bizi-eredua aldatzen da. Hasierako ondorioa estres zorrotzeko erreakzio bat izango da, eta erreakzio fisiologikoak, psikologikoak eta portaerazkoak eragiten ditu. Ondoren, pertsonak trauma gainditzeko prozesu bat hasten du, 1. grafikoan adierazitako etapei jarraituz.

Ustekabean, bat-bateko porrot bat gertatzen da, non oreka hori galdu egiten den. Badira galera edo kalte batzuk, bizi-kalitatea izugarri jaisten dutenak, sortutako emozioek larriagotuta. Egoera zailtan aurre egiteko ohiko baliabideak ez dira aplikagarriak edo ez dute esperotako emaitza eragiten. Bizitzaren ohiko bilakaera eten, eta aurreko bizi-eredua aldatzen da. Hasierako ondorioa estres akutuko erreakzio bat izango da, eta erreakzio fisiologikoak, psikologikoak eta jokabidekoak eragiten ditu. Ondoren, pertsonak trauma gainditzeko prozesu bat hasten du, 1. grafikoan adierazten diren etapei jarraituz.

Prozesu horretan eragina izan dezake trauma gainditzea zailtzen duten eta patologiak eragin ditzaketen alde aurreko kalteberatasun-faktoreek. Kontsultan ikusten dugun patologiarik ohikoena TOENa da (trauma-osteko estresak eragindako nahasmendua), baita beste batzuk ere, hala nola dolu konplikatuak, antsietate-nahasmenduak, depresioa, etab.

Gainera, kontuan izan behar da gero egoera traumatiko berriak gerta daitezkeela, sendatze-prozesua are gehiago zailtzen dutenak.

2. GRAFIKOA




Iturria: S. Gago Carrero. F. Duqueren grafikoaren egokitzapena (op. cit.) esperientzia politraumatikoetara.

Grafiko horrek oso erraz adieraz lezake duela urtebetetik kontsultan artatzen ari naizen kasu bat, non pertsonak, atentatuak gertatu eta urte batzuetara, semea galdu baitzuen jaiotzean. Bigarren esperientzia traumatiko horren ondorioz, intentsitate handiagoko TOEN baten sintomatologia bereizgarria berragertu zen, eta M-11ko oroitzapenak eta irudiak agertu zitzaizkion berriz, ondorengo egoera traumatikoaren irudiekin nahastuta. Gainera, paziente horrek beste psikopatologia batzuk ditu, traumak lantzeko eta gaingintzeko beharrezkoak diren egokitze-prozesuak zailtzen dituztenak, eta horrek desdoikuntza handia eragiten du bere funtzionamenduan, baita sufrimendu maila handia ere. Horrelako pazienteen kasuan beharrezkoa da urteetako terapia, batzuetan baita bizitza osokoa ere, ezbeharren aurrean oso profil ahulak baitira.

Oinarritzko eskema berari jarraituz, beste adibide bat patologia larririk garatu gabe bizitzako ezbeharrei (banantzea, laneko arazoak, gaixotasunak, etab.) aurre egiteko zailtasun handiak dituzten pertsona batzuen kasu da. Horrekin errekuperazio-prozesuak zailtzen ditu, eta bizi-kalitatearen eta ongizatearen sententzio oso baxua eragiten du.

3. GRAFIKOA.



Iturria: S. Gago Carrero. F. Duqueren grafikoaren egokitzapena (op. cit.) esperientzia politraumatikoaetara.

Grafiko horrek 2015ean European izandako atentatuboladaren ondoren, alta eman zioten eta laguntza psikologikoa eskatu zuen beste paziente bat irudikatzen du. 2015eko urtarrian Parisen izandako atentatuez geroztik, antsietate handia zuen, alerta egoeran zegoen etengabe, eta jokabide saihesgarriak izaten hasi zen gero eta gehiago, bere funtzionamendu normalari eragiten ziotenak azkenean (ezin zuen autoa hartu, ezta garraio publikorik ere, eta gero eta gutxiago irteten zen etxetik). Hori dela eta, 2015. urtearen amaieran laguntza psikologikoa eskatzea erabaki zuen.

Terapiak erraztu egin zuen egoera kaltegarrietara egokitzeko estrategiak ikastea, bai eta aurretik zeuden traumak prozesatzea eta gaingitzea ere (oso bereizketa zaila, M-11ko esperientziaren ondoren haien artean ireki zen amildegiari egotzi ziona).

Polibiktimizazioari eta biktimen egokitzapen psikologikoari buruz egindako ikerketak ondo finkatuta geratu diren bi ondorio orokor defendatzen ditu:

- Gertakari traumatiko baten esperientziak zaurgarriago egiten zaitu beste baten pairamenarekiko, bereziki ahulago egiten zaituelako beste edozein gertaera abertsiboren eraginaren aurrean.
- Polibiktimizazioa sintoma psikopatologikoen larritasuna areagotzearekin, desoreka psikologikoa areagotzearekin edo osasun mentalaren narriadurarekin lotzen da, baita sintoma askotarikoagoen presentziarekin ere.

Hasierako galderara itzuliz: eta hainbeste denbora igaro ondoren, ba al da oraindik M-11gatik terapia behar duen pertsonarik?

M-11ko biktimekin izan dudana esperientziatik, erantzuna baiezko biribila da, igarotako urteak gorabehera. Kontuan izan behar da pertsona askok urteak behar dituztela laguntza eskatzeko, eta, beraz, atentatuak izan zirenetik 14 urte igaro ondoren terapia egiten egoteak ez du esan nahi urte horiek guztiak terapian daramatzatenik.

Beharbada, "behar izanda" laguntzarik eskatzen ez duten eta, terapia pertsonal baten bidez, sufrimendua arintzeko eta, apur bat bada ere, beren buruari bizi-kalitatea hobetzeko aukerarik ematen ez dioten pertsonak kezkatu beharko gintuzkete gehien. Pertsona horiei esan beharko genieke ez diotela beren buruari exijitu behar ondo egotea denbora asko igaro delako bakarrik. Are gutxiago etsi behar dute, eta sinistu gertatu denarekin ezin izango dutela inoiz gehiago bizitzaz gozatu, eta ongizatea iraganeko zerbait dela, berriro eskura izango ez dutena.

Cogoan dut duela gutxi laguntza eskatu zuen beste paziente baten hitzaldia. Aurretik, atentatua gertatu eta hurrengo hilabeteetan antolatu ziren esku-hartze taldeen laguntza jaso zuen. Harrezkero bere buruari esaten zion: etsipena, indartsua izan behar duzu, ezin diozu zeure buruari gaizki egoten utzi, zuk bakarrik egin ahal duzu... Baina errealitatea da sufrimenduak eta minak hor jarraitzen zutela, pixkanaka somatizatzen eta gaixotzen ari zen, eta horrek bere aldartea okertzen zuen. Ez nion inori ezer kontatu nahi, besteak ez kezkatzeko. Haren hitzetan: "Gaizki

sentitzen naiz gaizki sentitzeagatik, ez dut eskubiderik, ez zait ezer falta, eta denbora asko igaro da txorakeria hauetarako”, esaten zidan lehen egunean negarrez kontsultan.

Presio sozial handia dago. Denok, une jakin batean, laguntzeko asmoz, konturatu gabe presio hori eragin dezakegu: “Baina ez negar egin”, “ez zenuke horrela egon behar, begira daukazun guztia”, “denbora asko igaro da jada, ahaztu egin behar duzu”, “ez hitz egin horretaz, ahaztu”. Adierazpen horiek eta antzeko beste batzuek, kaltetuei lagundu beharrean, erru handia sentiarazten diete, eta gerrarik txarrenean sartzea errazten diete, norbere buruarekiko gerran... Sentitzen dutena sentitu nahi ez izatea, pentsatzen dutena pentsatu nahi ez izatea, gertatzen zaiena gerta dakien nahi ez izatea... Hori paziente gehienetan gertatzen da, eta horrek eragotzi egiten die trauma lantzeko eta gainditzeko prozesuan aurrera egitea.

Puntu horretara iritsita, laguntza eskatu beharko litzateke onarpen-prozesua errazteko, ez etsitzeko, eta onarpenetik aurkitu ahal izango dira aldatzeko eta eraldatzeko aukera sendagarriak. Kontua ez da ahaztea. Kontua sufritzeari uztea da edo, gutxienez, sufrimendua arintzea, dauden mugak edo zailtasunak gorabehera, hainbeste merezi duten ongizate maila handiagoaz gozatu ahal izateko.

UNE HORIEKIN GERATZEN NAIZ

TOMÁS FRAGA



Tomás Fraga ingeniari industrialia da eta energiaren sektorean lan egiten du. 2005eko uztailaren 23an, atentatu jihadistaren biktima izan zen Sharm el Sheikh-en (Egipto).

Egipton atzerriratutako espainiar talde bat, gaztetasun betean eta mundua jateko gogoz, askorentzat lehena zen lanaren eskutik. Euforia ukitzen zuen betetasun-sentsazioa. Dena alde genuen. Lagunarteko giroa eta adiskidetasuna. Gure kide egiptoarren harrera, klima bezain beroa, zoragarria ere iruditzen zitzaigun. Eta bat-batean, deflagrazioa.

2005eko uztailaren 23ko goizeko ordu bata eta hogeian, gutxi gorabehera, Sharm etorbide nagusiko Ghazala Gardens hoteleko alboko kale batean aparkatutako nire ibilgailuaren bila nindoala,

hoteleko aparkalekutik pasatzen ari ginela, justu hoteleko atearen aurrean, lehergailuz betetako ibilgailu batek haren kontra jo eta bere karga leherrarazi zuen. Ni 10 bat metrora nengoen. Gau hartan hainbat tokitan gertatu ziren hiru atentatuetatik bigarrena izan zen.

Kalearen beste aldean esnatu nintzen, eta bi lagunek lagundu zidaten jaikitzen. Ibilgailu batean eraman ninduten hiriko ospitalera. Geroko xehetasunak, ebakuntzak, errekupeazioa eta abar aurreztuko ditut, bai Egipton, bai Espainian, ez datozelako harira. Nahiago dut beste une batzuekin geratu: muturreko egoera batean, batzuen gizatasun eskasaren erakusgarri, beste askok beren onena eman zuten gehien behar zutenen alde, eta beldur guztiak alde batera utzi zituzten.

Gogoan ditut ospitalera eraman ninduten pertsonak. Hiria kaosean murgilduta zegoen, eta nire lagun batzuek horri aurre egin, eta ospitalera sartzea lortu zuten nirekin egoteko. Batzuetan beste edozein gauza baino garrantzitsuagoa den zerbait egin zuten: lagundu egin ninduten bakarrik senti ez nadin.

Gogoan dut, halaber, hegazkin militar batean Kairora eraman nindutela, beste zauritu askorekin. Pertsona batek, ez dakit eta uste dut inoiz ez dudala jakingo nor izan zen, eskua hankan jarri zidan hegaldian lasaitzeko eta baretzeko.

Gogoan ditut nire gurasoak ere. Egiptora joan, eta nirekin egon ziren, nire enpresak jarritako hegazkin medikalizatu batean ni Espainiara eramatea lortzen zuten bitartean.

Gogoan dut, halaber, hegazkinean egin nuen bidaia, hamar ordu baino gehiagoz, amak lagunduta, Italian eta Alemanian geldialdiak eginda, behetik hegan egin behar bainuen, nire egoera zela eta.

Arreba gogoratzen dut ni ikusi eta ospitalean lagundu ninduenean, jada Madrilén.

Jiménez Díaz Fundazioa ospitaleko jende guztia gogoratzen dut, beren onena eman baitzuten, bai medikuntzan, bai giza arloan, ni sendatzeko.

Gogoan ditut osaba-izebak eta aitona-amonak, haien poz-aurpegia, handik hilabete batzuk geroago Galiziara berriro iristen ikusi nindutenean, ospitaletik irtetean.

Cogoan ditut nire lagunak, ikustera etorri zitzaizkidanak eta pozez negar egin zutenak ni berriro etxean ikustean.

Azken batean, hainbat pertsona gogoratzen ditut, nire bizitzaren parte zirenak edo parte izaten hasi zirenak, eta oraindik ere hala jarraitzen dute une hartatik aurrera.

Eta zoriontsu sentitzen naiz, bizitzea egokitu zitzaidan zorigaitzaren barruan, nire inguruan horrenbeste ontasun eta maitasun izateagatik.

Madrilgo ospitalean nengoela, ospitaleratu eta bi egunera, aitak galdetu zidan ea Egiptora itzuliko nintzen (eta, jakina, ez nuela zertan erantzun une horretan). Nire erantzuna haxe izan zen: "Ahal banu, bihar bertan itzuliko nintzateke".

Zoritarrez, ezin izan zen "bihar bertan" izan, baina bai 2006ko martxoan, bederatzi hilabete geroago. Herrialdera eta nire lanera itzuli nintzen, une hartan nire bizitza han baitzegoen, eta itzuli egin behar nuen.

Sentitzen nuen ezin nuela onartu atentatuak betebeharraren eta erantzukizunaren zentzua kentzea. Nahikoa sufrimendu eragin zuen ordurako.

Gainera, garrantzirik gabekoa ematen zuen zerbait sentitzen nuen, baina niretzat ez zen, eta ez da hala: itzuli izan ez banintz zer gertatuko zen zalantzarekin bizitzea. Zaila da arlo askotan ulertzea, banekien eta badakit, baina egin beharrekoa zen niretzat, egin behar nuen.

Erabakiak, hartzen diren unean, ontzat edo txartzat jotzen ditugu. Kasu honetan uste dut ez nintzela erratu: nire lankide egiptoarrek maitasun handiz hartu ninduten, eta hori bizitzan inoiz ahaztuko ez zaidan zerbait da. Oso atsekabetuta zeuden hura beren herrian gertatu zelako, lotsa handia ematen zien. Bitartean, han jarraitu nuen nire bizitza ahalik eta normaltasun handienarekin. Baina zirkulu bat ixtea falta zitzaidan.

2006ko uztailaren 27an, osteguna, atentatua gertatu eta urtebete eta lau egunera, Sharm el Sheikh-era itzuli nintzen. Gogoan dut nire etorrera, egunaren ilunabarrean jada, inguruko muino baten gaineko haitzartetik irten eta hiriko argi guztiak ikusi nituenean.

Cogoan dut jada desagertua zen hotelaren ondotik igaro nintzela, ostatu hartu nuen hotelerantz autoz nindoala.

Hurrengo eguneko nire ibilbidea gogoratzen dut, urtebete lehenago egin nuen berbera, leherketa gertatu zen lekuraino.

Eta gogoan dut, hala eta guztiz ere, barne-oinazezko une batzuen ondoren, irribarre besterik ezin izan nuela egin, zeren ez bainuen ez beldurrik ez ikararik sentitu, ezta gorrotorik ere, baizik eta bakea neure buruarekin, eta horixe zen, hain justu, behar nuena. Zirkulua itxita zegoen. Izan ere, bizitzan askotan egiten duzu estropezu, baina garrantzitsuena da gero nola jaikitzen zaren. Eta, horrekin, betiko jaikitzen nintzela sentitu nuen.

Nik esan dezaket hondoa jo nuela, norberak pentsa dezakeenaz harago, baina zorionekoa izan nintzen bizitzea egokitu zitzaidan zorigaitza bideratu, eta oroitzapen txar bat bihurtu ahal izan nuelako. Ez dut ez beldurrik ez gorrotorik gordetzen, ez baitit ezer onik ekartzen, eta alportxa astunak dira bizitza den bidaia honetarako.

Bai dauzkat gogoan, ordea, aipatu ditudan une horiek guztiak eta hainbeste jende onez inguratua egon izanaren zortea, bereziki nire familiaz, hain gaizki pasatu baitzuen. Haiek gabe, azkenean lortu izan banu ere, askoz zailagoa izango zen. Eskerrik asko benetan.

HERENSUGEEZ ETA PRINTZESEZ

MARÍA LOZANO ALÍA



María Lozano Alía k RANen —Radicalisation Awareness Network (Erradikalizazioa Prebenitzeko Sarea)— terrorismoaren biktimen memoriari buruzko lantaldea zuzentzen zuen, Europako Batzordearen ekimena dena.

Bartzelona beti izan da herensugeen lurraldea. Edo, behintzat, hala jaso du iruditeria herrikoiak. Herensugeek Bartzelonan geratzea erabaki zuten, hain zuzen ere San Jorge iritsi eta printzesa bat irensteko zorian zegoen herensuge bat hil zuenean.

Harrezkero, saurio horietako ehunka isilik daude Konde-Hiriko kaleetan, fatxadetan eta erlaitzetan jarriak, harrizko begirada ikaragaitzaz, beren domeinupean hedatzen diren kale bizi eta zoliek osatutako lurraldea babestuz. Eta, horregatik, inor ez zen ausartzen bake hori asaldatzen.

Eta horregatik bizi zen Bartzelonako gizartea inguruko

lurretan gertatzen ari ziren mehatxuen berririk jakin gabe, non beste hiri senide batzuen aurkako erasoak behin eta berriz errepikatzen ziren, odolezko, atsekabezko eta oinazezko erreka stoia utziz.

Ustekabekoa gertatu zen arte. Joan den 2017ko abuztuaren 17an, *herensuge gaizto* bat iritsi zen Rambletara, gorroto prozesatuz, mendeku egarritz eta biktimismo autoezarritz betea, eta herri senideen arteko mendetako errebantxa baten bilaketaren gidari faltsu bihurtu zen, bere existentzia tristearen bilaketa eta justifikazioa baino ez zena.

Izan ere, *herensuge gaizto* hori ezkutatuta zegoen, eta irribarre egiten zuen eta bizilagunak agurtzen zituen. Eta horregatik ez zuen inork ikusi etortzen.

2017ko abuztuaren 17a osteguna zen, eta Bartzelonan printzesa eta printze guztiak paseatzera, izozki bat hartzera, dendetako erakusleihoak ikustera eta arratsaldean familian pasatzera irten ziren.

Izan ere, Bartzelona printzesa eta printzez beteta dago, asko daude. Eta denak oso ausartak dira. Ez dira beldur. *No tenim por*, esaten dute...

Eta arratsalde hartan, Silvia, printzesa ama on gisa, familiarekin joan zen eguna pasatzera, eta berarekin batera bere bi printzeak, Marina, zortzi urtekoa, eta Xavi txikia, hirukoa.

Eta pentsaezina gertatu zen. *Herensuge gaiztoak* Xavi eta beste 15 printzesa eta printze eraman zituen, beste asko zaurituta utziz. Istant batean.

Eta Silviaren bizitza, ordu arte ezagutu zuen bezala, betiko aldatu zen. Ez da bidezkoa, ezta zilegi ere, hitzak jartzea bere oinazeari, sentitu zuen eta oraindik sentitzen duen (hala dela badakidalako) hutsune urratzaileari. Bera bakarrik delako bere hitzen eta isiltasunen jabe. *Herensuge gaiztoen* biktima guztiak bezala... Eta ez da zilegi inork, siglen edo "asmo onen" atzetik, bere hitzen jabe egitea.

Baina Silviaren sendotasuna, haren ausardia, haren oldarra, bizitzarekiko eta batez ere Marina bere "printzesa ausartarekiko" duen maitasun itzela bai direla guztiok ospatu beharrekoak, inoiz ahaztu gabe.

Izan ere, mugarik gabeko bere eskuzabaltasunari esker, gure historiaren protagonista heroi bat da, eta denok ikasi behar dugu harengandik.

Eta ziur nago Xavik, zeruko lekuren batetik, irribarre egiten duela, bere ama eta arreba printzesaz oso harro.

Eta herensugeen eta printzesen istorio guztiek bezala, honek ere badu irakaspen bat:

Izan ere, egoera politiko, sozial edo ekonomikoak direla eta, albistegietako titularrak eta goiburuak beste gauza batzuez arduratzen direnean...

Papar-hegaletako lazoek ez dituztenean sufritu dituztenak eta jada ez daudenak babesten, eta ez dietenean elkartasunik adierazten...

Ernegazio politikoa oroimenerako espazioaz jabetzen denean, eta babes-adierazpenak desitxuratu egiten direnean eta esperpentoa bihurtzen...

Zuhaitzek basoa ikusten uzten ez dutenean...

Beti egongo dira Bartzelonakoak bezain ausartak diren printzesak eta printzeak, gizateriak merezi duela eta, guztion artean, *dragoi gaiztoei* irabaz diezaiekegula gogoraziko digutenak.

Silvia M.ri eta 2017ko abuztuko Bartzelonako atentatuko biktima guztiei.

BIKTIMEKIN HARREMANETAN

ENRIQUE ULLIBARRIARANA



Enrique Ullibarriaranak 1990az geroztik lan egiten du Eusko Jaurlaritzarentzat, terrorismoaren biktimei laguntzen. Gaur egun, biktimei buruzko politiken aholkulari-koordinatzailea da. Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren barruan.

Ustekabean iritsi nintzen mundu honetara. Eusko Jaurlaritzaren lan-poltsen barruan nengo. Hainbat hilabeteko aldi baterako kontratuekin lan egiten nuen, normalean Eustatekin (Euskal Estatistika Erakundea). Bat-batean, 90eko urtarrilean, harritu egin ninduen IVAPetik deitu izanak, Herrizaingo Sailean,

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoan, laguntzaile gisa lan egiteko. Izena ez zen oso erakargarria, baina ezin nuen ezetz esan. Beste bi lagunekin egin nuen topo. Hiru ginen taldean, eta espediente mordoa. Denbora gutxian egunean jarri behar izan nuen, paperak gainezka egiten baitzigun.

Laguntzei buruzko lehen dekretua 1988ko azaroan argitaratu zen, eta atentatu terroristen ondorioz izandako kalte materialak ordaintzen saiatzen zen. Espediente asko, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoko peritu eta langileekin egunero harremanak izatea, baita Ertzaintzaren lurralde-bulegoekin ere. Hori izan zen nire lana luzaroan.

Lana zela eta, nire bi lankideek bulegotik alde egin zuten beste sail batean lan egiteko. Hilabete batzuetan bakarrik egon nintzen ehunka espediente eta telefono deiren aurrean. Horrek azkarrago ikastera eta, gainera, laguntzen dekretuari dagokionez, denetik apur bat jakin behar izatera behartu ninduen.

1993an Julia Estrela iritsi zen bulegoko buru-lanpostua betetzera. Niretzat erreferente bat izan da terrorismoaren biktimei laguntzeko. Bulegoaren norabidea markatu zuen. Gaur egun jarraitzen dugun norabidea. Emakume hori, inolako baliabiderik gabe, ezer ez genuelako, ezta atentatu terroristetan hildakoen zerrenda bat ere, pertsonen eta giza tratamenduaz arduratzen hasi zen lehena izan zen, biktimak inori interesatzen ez zitzaizkiola ematen zuenean.

Oso urte zailak izan ziren. Atentatu asko zeuden eta ez ginen gauza leku guztietara iristeko. Gainera, zaila izan zen Ertzaintzaren polizia-etxe guztietan gure informazioa izatea eta kaltetuei banatzea.

1995ean, lehen aldiz sartu ziren laguntzen dekretuan arreta pertsonalizatua eta tratamendu psikologikoa. Esan dezakegu une horretan Julia Estrelak eta bere "mini taldeak" gaur egun Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza denaren oinarriak jarri zituztela.

Genituen zume apurrekin, hainbat biktimagileren biktimak biltzen genituen jada, bakoitzak jasandako sufrimendua ezagutzeko eta aitortzeko. Asteburu askotan, biktima talde hori Kantabriara joan zen, atentatu batean tetraplegiko geratu zen biktima bat bisitatzen.

2002an Terrorismoaren Biktimen Zuzendaritza sortu zen, Maixela Lasa buru zela. Zuzendaritzan geratzeko eskatu zidan, eta nik atsegin handiz onartu nuen. Lehenik eta behin, nire lana aintzat hartzen zutela ikusi nuelako, eta, bigarrenik, egiten genuena gustatzen zitzaidalako. Maixelalekin biktimentzako arreta pertsonalizatua indartu zen, eta, baliabide tekniko eta giza baliabide gehiagorekin, askoz biktima gehiagorengana iristea lortu genuen. Oso erraza izan zen berarekin lan egitea. Eraildakoen familia asko ezagutzeko aukera izan nuen, baita zauritu eta mehatxatu asko ere, eta haiekin harreman estua dut.

2013an Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortu zen, Lehendakariitza Sailaren mendekoa, eta Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza bertan dago atxikita. Zuzendaritza honetan jarraitzeko aukera izan nuen, eta, jakina, ez nuen zalantzarik izan. Hurrengo urtean, idazkari nagusiak eta lehendakariak zuzendaritza-taldeko kide izatea proposatu zidaten, aholkulari gisa. Egia esan, ezustekoa izan zen niretzat. Ezin nuen imajinatu. Baldintza batekin onartu nuen: biktimentzat bakarrik lan egingo nuela, politika egiten hasi beharrik gabe. Ordu arteko gauza bera egiten jarraitzea nahi zutela esan zidaten, eta hori da egiten saiatzen ari naizena. Izendapena jaso eta hurrengo egunetan mezu elektronikoa asko eta dei asko jaso nituen zorionak emanez, baina, zalantzarik gabe, haiekin jarraitzea eskertzen zuten biktimenak izan ziren ilusiorik handiena egin zidatenak. Julia Estrelaren deia ere ez dut ahaztuko, jarraitzera animatu baininduen.

Urte hauetan guztietan ildo politiko desberdineko buruzagiak izan ditut, baina inoiz ez didate esan nola egin behar dudana nire lana, eta asko poztzen naiz horretaz. Oso harreman ona izan dut eta mantentzen dut Barne Ministerioarekin, baina uste dut lankidetzak horrek alderdi politikoa ere gaingiditu beharko lukeela. Koordinatuta egon behar dugu, hobeto eta azkarrago lagundu ahal izateko.

Hainbeste urtez biktimekin etengabe harremanetan egon ondoren, hainbat eta hainbat familiatan izan den sufrimenduaz jabetzen zara, altxatzeko eta beren bizitzak berregiteko izan duten indarrak. Orain, atzera begiratzen dut, eta beldurtu egiten naiz

gure eskuetatik pasatu den guztiaz: etxebizitza hondatuak, ibilgailu kaltetuak, zaurituak, mehatxatuak, estortsionatuak, hildakoak... Hala eta guztiz ere, asko zor diet izandako buruzagi guztiei, beti utzi didatelako lanean inolako eragozpenik jarri gabe, eta lankide guztiei, pixka bat baxu sentitu naizen une horietan lagundu didatelako.

Baina benetan eskerrak eman behar dizkiet ezagutzeko zortea izan dudan biktima guzti-guztiei. Asko ikasi dut haiengandik, eta lehen ezagutzen ez nituen baloreak transmititu dizkirate.

OSTIRALETAKO GOSARIA

MENCHU BERNAL PÉREZ



Menchu Bernal Pérez gizarte-langilea da Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusian 2004. urtetik. Kriminologian lizentziatu zen 2013an, biktimologia ikuspegi klinikoko gizarte-lanera hurbiltzeko helburuarekin. Argazkia: Enrique Palacio Sans.

Ostiraletako gosaria erakunde bat da. Ostiraletako gosaria gauza bat argitzea baino ez da: ibilbide biografiko baten zati gisa edo

identitate gisa ote zaren biktima. Bertan zaurgarri agertzen gara gure ekintzen inperfekzioaren aurrean. Tearekin eta tostadekin batera, beldurra eta bideko haserrea jartzen ditugu mahai gainean. Izatearen edo egotearen onurak eta kalteak. Adimena elikatzen digu, arima eta bihotza elikatzen dizkigu. Hainbeste galdera egiten dizkiogu geure buruari, eta badirudi beste gauza asko konpontzen ditugula, baina ia guztiak hausnarketarako bidean daude.

Uste inplizitu eta partekatu batetik abiatzen gara: biktima izatea ez da aukeratzen, pairatu egiten da. Baina zenbateko zama dakar aukeratu ez duzun norbait izateak? Kontua ez da zure istorioa ezabatzea, ezta asmatutako beste batekin ordezkatzeko ere. Esperientzia traumatikoa bizi-ibilbide batean ahalik eta modurik ulergarrienean integratzea da helburua. Biktima izatearen sentimendu kolektiboak nola laguntzen du trauma bizi-historial batean txertatzen? Amaitu al daiteke kontratua traumarekin edo izan nintekeenaren eta izango ez naizenaren galeraren minarekin? Bakarra zara zorigaitzetan?

Horretan gabiltza ostiraletako brioche misterioetsuaren hiru erpinak. Nire laguna, esperientziaren edukiontzi eta eraikuntza-eredu gisa, eta gu, behatzaile eta laguntzen duen lotura gisa. Joan-etorriko berreraikuntza bat berarentzat eta guretzat. Horrelako kezkek eraman ninduten 2003an Buenos Airesen ospatutako kongresu baten ondorioz egindako hausnarketen artikulua bat berreskuratzea. Bertan, esaldi hau ageri zen komatxo artean: "Kontratuaren amaiera". Aipatzen dudana idazkiak kontzeptu hori eskaintzen dio irakurleari, historian zehar zorigaitzekin lotutako kultura batek lortu beharreko helburu posible gisa, eta, eurek dioten bezala, izendatutako jomuga izateko bokazioarekin, gertatzen edo asmatzen den kataklismo ororen biktima izateko bokazioarekin. Horrek pentsarazi zidan terrorismoaren biktimak zer harreman duen bere kontakizunarekin, eta zenbat min edo sendatze dakarkien. Ez du zerikusirik nola eraikitzen duen kultura juduak biktimizazioaren identitatea atentatu terrorista bat jasatearekin. Hala ere, harritu egin ninduen gizakiek minari aurre egiteko dituzten moduen artean aurkitu nuen antzekotasunak.

Modu horietako batzuk harrigarriak eta itxuraz kontraesankorrak dira trauma gainditzeko, umorea adibidez.

Orduan, nutritiboki benetakoa den istorio honetako protagonistetako baten terapeuta gogoratu nuen, honela esan zionean: "Umorea egiteko modu pertsonal eta bakarra ez da galtzen traumaren ondoren". Izan ere, umorea egiteko modua gure identitatearen parte da. Beraz, logikoa zen hausnarketak nire buruari galdera eragitea: gure identitatearen zer zati galtzen edota aldatzen ditugu atentatu terrorista batek dakarren egoera traumatikoaren sufrimenduan zehar, eta rol berriak biktimaren ezaugarri berdingabe horiek ordezkatzan ote dituen. Beraz, kontratua, rola, eta identitatea kontzeptuak nire buruaren barruan erlazionatzen hasi ziren. Biktimizazio-prozesuan artatzen ditudan eta kide ditudan pertsonen behaketaren bidez saiatu nintzen kontzeptu horiek ulertzen, eta haietako baten irudia agertu zitzaidan. Ostiralez gain, egunero gosaltzen duen batena.

Azalduko dizuet. Artikulu hau identitatearen eta rolaren kontzeptuei buruzkoa da, eta terrorismoaren biktimak horiekin duen kontratu-harremanari buruzkoa. Beraz, hor doa teoria pixka bat: Zygmunt Bauman (jatorri juduko filosofo poloniarra) ulertzen dudana bezala, identitatea erantzukizun erreflexibotik aukeratzen den ezaugarri multzoa da. Solidarioa, enpatikoa edo eskuzabala izatea niaren parte izan daitezkeen alderdiak dira. Edo kultura-bereizketaren alderdiak, hala nola hizkuntza eta gastronomia lehentasunak. Autokontzeptua, norberak bere burua nola ikusten duen, eta ikusitakoari buruz zeure buruari zer kontatzen diozun, gizabanakoaren identitatearen parte ere bada.

Jacob Levy Morenok (psikiatra eta psikologoa, psikodramaren sortzailea) rolen teoria garatu zuen. Bizitzako lehen urteetan bestearekin harremanetan jartzean betetzen duzun papera da rola. Levyk era horretan ezartzen du rolen eta niaren arteko harremana: "Paperak ez dira ni-tik sortzen, nia da paperetatik sortzen dena". Ni identitarioak eta bere bizitzan zehar betetzen dituen rolek osatzen dute pertsona.

Beraz, *selfa* eta *rola* ezberdinak dira. Bi kontzeptu horiek eboluzionatu eta aldatu egin daitezke, baina, era berean,

pertsonaren ongizatearen biziraupenerako oso gomendagarriak ez diren lekuetara eramango duten posizio estatikoen iturri sortzaile ere izan daitezke. Gizabanako gisa *nia* berdingabea da bere ezaugarri psikologikoei, emozionalei eta jokabideei dagokienez. Pertsonak munduan duen lekua bakarra den bezala.

Gizabanakoak bere rolekin ezartzen duen harremana laburra, luzea edo iraunkorra izan daiteke, eta hori erabakigarria da igaro nahi den posizio sozialerako. Rol batzuk baliagarriak izan daitezke betiko, baina beste batzuk, batzuetan, une jakin batzuetarako bakarrik. Rol batzuek gure bizitzan irautea nahi dugun denborak definitzen du haiekin ezartzen dugun kontratuaren behin-behinekotasuna. "Biktima betiko izateko" kontratua amaitu nahi duenak bere barrurako bidea bilatu eta aurkitu behar du, bai eta kanpoko munduarekiko eramaile bat ere. Orduan egokitzen zaizu "lehenago eta geroago" hori baino lehen zugandik gurtzen zenuena mantentzea eta mimatzea, eta zoritxarrez bizitzea egokitu zaizun roletik sortu den berritasunari irekitzea. Eta oso lagungarria izango da profesionalek eta erakundeek beharrezko bideak eta tresnak eskain ditzaten biktimak bide hori jarraitzeko motibazioa izan dezan, aukera hori bera berez egingarri egiteko. Hau da, eragiketa-loturen funtzioa egiten dugu, rolak eta ni-a unitate batean integratzeko. Zientifikoki hornitutako afektua funtsezkoa da prozesu hori hasi duten pertsonari erantzuteko, biktima-rolari eutsi gabe; izan ere, biktima-rolak, askotan, nekatu egiten ditu, eta ezinegonean betikotu.

Garrantzitsua da terrorismoaren biktimari helaraztea ez duela sufritzen jarraitu behar mundutik eta laguntza-zerbitzuetatik osatzeko behar duena jasatzeko. Gure zerbitzuan, lekua ematen diegu sufrimenduari, eta protagonismoa pertsonari eta haren bereizgarri diren nortasun-ezaugarriei ere; batez ere, gogoan ez dituen horiei eta berriro irribarre eginaraz diezaioketenei.

TBLZNra (Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusia, Barne Ministerioarena) ateak ireki ondoren, uste dut unea dela teoriari irudia emateko ardura duen pertsona, izatearen edo pairatzearen arteko adibide agerikoa dena, aurkezteko. Izatearen eta pairatzearen arteko aldea. Berez erosoagoa eta

gogobetegarriagoa zaidan ikasteko bidea artatzen ditudan pertsonen bidez da. Hau nire nortasunaren parte da. Zailtasuna edo dohaina, horixe da nire ezaugarrietako bat. Nire motibazioa biktima da, eta haren bidez eta harekin ikustea. Ez zaituztet engainatu nahi; beraz, benetan esan behar dizuet gogoeta honen haria pertsona bat dela. Nire lagun Antonioren bitartez begiratzen ari naiz gogoeta erdi-teoriko hauek idatzi ahal izateko. Honela aurkezten du bere burua Antoniok, hala egin behar duenean: "Historialaria, irakurlea, idazlea naiz, eta M-11ko atentatua jasan nuen, 2004ko zorigaiztoko ostegun hartan".

Zerk eraikitzen du Antonio? Jakina, bere kontakizunak, baina, batez ere, gertatu zitzaionari eta gaur egun den pertsonari aurre egiteko duen modu literario eta umoretsuak. Traumatik igaro, eta bizirik atera zen. Orain gehiago da. Etengabe eraikitzen ari den *izatea* da, eta horretan ari gara. Bere nortasun-ezaugarriak. Horrela ikusten dut bera.

Umorea. Antoniok pairatu zuen eta egunez egun bizi duen errealtatea du oinarri. Bere zailtasun fisikoak hartuz egiten du, bera mugatzen duten zailtasun horiek jantzi, eta paseatzera ateratzen ditu. Ez ditu etxean uzten, ezin duelako eta nahi ez duelako. Haiek ere bera dira, eta bere gaitasunen lagunak dira, eta berak bere gaitasunez gozatu nahi du. Arrebak balira bezala tratatzen ditu, zeinaz ezin den libratu, eta nazkatuta dagoenean barre egiten die. Izen esperpentikoak emateak larritasuna gutxitzen dio, behar adina, haiei aurre egin ahal izateko, bere burua haiengan begiratzeko, bere burua ispilu batean bezala ezagutzeko, bere aldaketak onartzeko eta ematen dioten mezua bilatzen saiatzeko.

Hausnarketa. Bizi izandako egoera traumatikoaren hondakinen artean dauden berritze-partikula txikiak bilatzen saiatzen da Antonio. Eta aurkitu, bildu eta argi bihurtzen ditu bere jakin-min intelektualaren bidez.

Maitasun sutsu eta kartsua gizakiaz duen ikuspegi agian ilun samarraren aurka borrokan ari da. Baina ez da horrenbestekoa izango, hain seriotasun eta irmotasun handiz bilatzen badu jende onaren lagunartea, ariman, bihotzean eta arrazoimenean on egin diezaion.

Barkamenaren zailtasuna. Zein zaila den abandonuaren oroitzapena, batzuetan erasotzailearen oroitzapena baino jasangaitzagoa. Justiziak biktimaren eta erasotzailearen arteko desoreka parekatzen du, baina nork eta nola baretzen du bakardade sakonaren sufrimendua? Irakurketa eta lagunak, eta, batez ere, horretarako prest egotea.

Sormena. Dena nahasten du bere eltze magikoan, eta azitia da bere burua birsortzen. Energia eraldatzen du. Edukiz betetzen da.

Nire lagunak amaitutzat eman du bere biktima-rolarekin zuen kontratua, eta niaren bilakaerara bihurtu da. Bere ondorio fisikoek oso zail jartzen diote, baina dagoeneko badu leku bat munduan. Historia irakaslea izan nahi du, eta bidaiatu. Ingelesa ikasten ari da. Bere rola bere nian txertatuta dago. Antonio ekintza terrorista baten biktima izan zen, eta ondorio iraunkorrek pairatzen ditu. Bere biografiak zoritxar ikaragarri bat du, eta gainera bera *da*. Bere umore sena, jakin-mina, adimena eta, jakina, akatsak ere etengabeak dira, baina ez dut azken horien berri emango. Antoniok barre algarak eta gogoberotasuna lantzen ditu bere sormenezko baratzean.

Terrorismoaren biktima bazara eta partekatzen ari naizen lerro hauek irakurtzen ari bazara, ez haserretu nirekin eta ez beldurtu. Zure lekua duzu munduan terrorismoaren biktima izan aurretik eta ondoren. Niretzat, profesionala naizen aldetik, ez da erraza horren kontakizun gogorrek entzutea, baina jasan ditzaket, ni ez bainaiz atentatu terrorista baten biktima izan. Horretaz idatz dezaket, bizitzak laguntzean sentitzen ditudan emozioak ez datozelako nik bizi izandako esperientzietatik. Jasangarri bihurtzen dituzte laguntzeko nigan konfiantza duten pertsonak. Terrorismoaren biktima batzuentzat batzuetan berriro zoriontsu izatea posible dela ikusteak. Eta, batez ere, ostiraletako gosariak.